





Gizakiaren Bake-Eskubidea, Nazioarteko I. Bilzarra

2004ko Maiatzak 6-8 Donostia-San Sebastián

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Argitaraldia: 1.a, 2008ko martxo

Ale-kopurua: 700 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa: Orma estudio gráfico

Inprimatzea:


ISBN:


LG:

AURKIBIDE

JOSEBA AZKARRAGA RODERO	
Aurkezpena	9
HÉCTOR GROSS SPIELL	
Bakerako Giza Eskubidea nazioarteko itunetan.....	13
SIMON CHESTERMAN	
Bakerako Giza Eskubidea XX. mendean.	
Atzera begiratzuz.....	45
JOANNA WESCHLER	
Giza eskubideak irailaren 11ko	
gertaeren ondoren	59
VIRGINIA M. BOUVIER	
Bakerako Giza Eskubideak ezarri eta	
zaintzeko erronkak	73
ANDREW CARL	
Bakean publikoak parte hartzea: nahitaezkoa	
XXI. mendean	91
STEVE S. OLWEEAN	
«Bestearen» kontzeptu psikologikoak:	
«niaren» irismena ulertu nahian	99
MARI FITZDUFF	
Bake prozesu egokiak:	
ikasitako gauzak	107
JAMES TULL	
Subiranotasun-gatazkak eraldatzeko	
modu berriak.....	135
ROELF MEYER	
Lidertza eta Gatazka: zenbait ikasgai.....	153
MARIANNE HEIBERG	
Gizarteko protagonista berriak	161

CARMEN MAGALLÓN	
Emakumeek egin al diote ekarpen espezifikorik Bakerako Giza Eskubideari?.....	171
VICENÇ FISAS	
Bake prozesuak erakitzeko eskubidea	187
JANUSZ SYMONIDES	
Proposamen formalak. Bakerako Giza Eskubidearen aitorpen judikoa	201
ANA ISABEL PRERA	
Bakerako Giza Eskubidearekin zerikusia duten eragile nagusientzako proposamenak	217
CARLOS VILLÁN	
Nazio Batuetarako proposamenak	229
Nazioarteko erakundeetan Bakea Giza Eskubidetzat aitortzearen aldeko Adierazpena.....	245





Aurkezpena

Denak konturatzen gara garai zailak bizitzen ari garela. Badirudi indarkeriazko gatazkak indar kezkarriarekin errotu direla gaurko munduko geografiaren zati handi batean. Ezin konta ahala gatazkaren ugalketaren lekuko izaten ari gara, behin betiko konponbidea aurkitzen ez dutela diruditen beste hainbatek bere horretan dirauten bitartean. Ispilu-jokoa balitz bezala, ongizatearen mundua gerrak eta goseak suntsitutako beste munduan islatzen da. Gizakiak bakea nahi du. Baina indarkeriarik eza edo indartsuenak ezarritakoa baino zerbait gehiago da bakea. Bakea, bake izateko, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen onarpenean oinarritu behar da, besteak beste; izan ere, horiek eskubide zibil eta politikoen osagarriak dira, eta benetako bakea ahalbidetzen dute.

Bakerako giza eskubidea zirriboratu dute, jadanik, nazioarteko erakundeek eta esparru akademikoak. Bi foro horietan jasotzen da bakean bizitzeko eskubidea nazio eta gizabanako guztien eskubidea dela. Gure Jaurlaritzak eta nire lehendakari-zapeko sailek ezin diote entzungor egin eskari horri, eta horixe izan da, hain zuzen ere, ahalegin eta ilusio osoz Bakerako Giza Eskubidearen aldeko Nazioarteko Biltzarra antolatzeke arrazoia.

Biltzarraren xedea giza eskubideei eta gatazken kudeaketari buruzko nazioarteko erakunde nagusiak eta erakundeetako eta esparru akademikoko agintaritzak biltzea izan da, bakerako giza eskubideak nazioartean duen esanahiari buruzko gogoeta egiteko.


Bakerako Giza Eskubideari buruzko I. Biltzarrean entzute handiko nazioarteko adituak eta gai horretan eskarmentu handia duten pertsonalitateak izan dira, eta nire ustez, ezinbestekoa da aipatzea ohorezko batzordearen garrantzia, gatazken kudeaketan eta konponbidean eta esparru akademikoan mailarik gorenekoak diren pertsonalitateak bildu baititu.


Federico Mayor Zaragoza jauna, Bake Kulturarako Fundazioaren lehendakaria: erakunde horretan jarraipena ematen dio Mayor jaunak UNESCOko zuzendari nagusi gisa hasitako lanari, indarkeria eta inposizioaren kulturatik bake eta tolerantziaren kulturarako trantsizioa arlo guztietatik sustatuz; Nancy Soderberg, International Crisis Group erakundeko lehendakariordea: erakunde independente hori bost kontinentetan hedatuta dago, eta eskarmentu zabala dauka nazioarteko gatazkak aztertzen, prebenitzen eta konpontzen. Azken hamarkadetan, Soderberg andreak lankidetzan estuan jardun du Europako, Latinoamerikako, Asiako eta Afrikako nazioarteko buruzagiekin, politika demokratiko berrien garapena sustatuz. Nabarmenezkoa da Irlandako bake prozesurako aholkulari berezi gisa Clinton lehendakariarentzat egin zuen lana, Etxe Zuriko Segurtasun Kontseiluko kide gisa betetako eginkizunak eta Estatu Batuen gai politikoetarako ordezkari gisa Nazio Batuen Erakundearen izandako zeregina; Yossi Beilin, Israelgo ministro ohia eta Yasser Abed Rabbo, Palestinako ministro ohia; Genevako ekimenaren sustatzaile nagusiak biak ala biak eta, jakina

den bezala, hori izan da azken urteotako bakearen aldeko ekimen garrantzitsuena; Danielle Miterrand, bere izeneko France-Liberté fundazioko lehendakaria: erakunde horrek giza eskubideen urraketak salatzen, herrien eskubidea babesten eta partaidetzazko demokraziaren aldeko aldaketa sustatzeko herritarren mundu-sarea eraikitzen lan egin du bere 18 urteko ibilbidean zehar; Cora Weiss, Hague Appeal for Peace –Hagako Bakearen aldeko Deia erakundeko lehendakaria: bakezaleen arloan eskarmentu handiko emakumea, nazioartean sari garrantzitsuak jaso dituena. *William Sloane Coffin Award for Peace and Justice* saria jaso zuen lehen pertsona izan zen, 2003. urteko urrian, eta une hauetan bakearen aldeko sentsibilizazio-kanpaina gauzatzen ari da mundu osoan.

Ohorezko batzorde hori, profesional multzo ikaragarri horrez gain, hiru euskal unibertsitateetako (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) errektoreen partaidetzarekin osatu da, Juan José Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren presentzia izateaz gainera.

Pozgarria da Donostian izandako jardunaldietan zehar garatutako edukiak argitalpen honen bidez azaldu eta transmititzea, baina are eta garrantzitsuagoa da horiei jarraipena emateko eta topaketa berrietarako eta eztabaida-foro gehiagorako aukera emango duten egiturak sortzen jarraitzeko ardura eta konpromisoa, Bake-rako Giza Eskubideari buruzko I. Biltzar honetan garatutakoan oinarrituta. Konpromiso horixe hartzen dugu geure gain.





Bakerako Giza Eskubidea nazioarteko itunetan

HÉCTOR GROSS SPIELL JN.

Uruguaiako Kanpo Harremanetako ministro-obia

Héctor Gros Spiell Montevideon jaio zen 1926ko irailaren 17an. Zuzendaritzan eta Gizarte Zientzietan Doktore eta Zuzenbide Konstituzionaleko irakasle da Uruguaiako Errepublikako Unibertsitatean, eta unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateko irakasle emeritua da. Era berean, Montevideoko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea da; Giza Eskubideen irakaslea Dámaso Antonio Larrañaga (Uruguai) Unibertsitate Katolikoan, eta bi alditan Nazioarteko Eskubideko Akademian (Haga). Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko irakasle goren eta Concepciongo (Txile) Unibertsitatearen Honoris Causa irakaslea izan da.

Uruguaiako Historia eta Geografia Institutuko eta Uruguaiako Letra Akademia Nazionaleko kidea da; gai juridiko eta politikoetako eta giza eskubideekin lotutako gaietako elkarte zientifiko eta akademikoetako kidea Argentina, Brasil, Txile, Peru, Paraguai, Bolivia, Ekuador, Venezuela, Mexiko, Frantzia eta Belgikan. l'Institut de Droit International-eko eta Instituto Hispano Luso Americano de Derecho Internacional institutuko kidea ere bada, eta ALDHU –Asociación Latinoamericana de Derechos Humanos– elkarteko presidentea.



CURRÍCULUM

Uruguaiako Kanpo Harremanetarako ministroa, Lanaren Nazioarteko Erakundearen Administrazio Auzitegiko epailea, Nazio Batuen Auzitegi Administratiboko kidea, Instituto Interamericano de Derechos Humanos institutuaren zuzendari exekutiboa (Costa Rica), Corte Interamericana de Derechos Humanos-eko presidentea, eta UNESCOren Nazioarteko Bioetika Batzordeko eta Uruguaiako Errepublikako Unibertsitateko Giza Eskubideei buruzko UNESCOren Katedraren Batzorde Akademikoko kidea izan da, beste zenbait karguren artean.

LABURPENA

Bibliografia zabala biltzen duen lan honen helburua Bakerako Giza Eskubidearen gaia egungo testuinguruan kokatzea da, legez onartzeko premiari dagokionez, baina ideia horrek eragin izan dituen eta gaur egun oraindik eragiten dituen eragozpen eta aurkakotasunak adierazita.

Hori horrela izanik, Eskubidearen objektua aztertzen da, hau da, Bakearen ideia, eta Giza Eskubide horren titularrak, horren ondoriozko eskubide eta betebeharrak, eskubide hori urratzeak izan ditzakeen zigorrak, Bake Kulturaren lotura Bakerako Giza Eskubidean eta Bakerako Hezkuntzan, eta Bakerako Giza Eskubidearen errespetua.

Orobat, eskubidearen oinarri politikoa ere aztertzen da, doktrinan nola ikasi izan den eta Nazio Batuen Batzar Nagusiaren, UNESCOren Konferentzia Orokorraren eta gobernuarteko eskualde-erakundeen ebazpenetan izan dituen oinarri juridikoak. Arreta berezia jartzen zaie UNESCOn eta UNESCOk gai horren inguruan egindako lanei. Era berean, gobernuaz kanpoko erakundeek arlo horretan egin dezaketean lana ere aipatzen da.

Bukatzeko, gaur egun, Bakerako Giza Eskubidea onartzeari dagokion forma juridiko egokia emateko ezinbesteko premia dagoela aipatzen da, bai Nazioarteko Zuzenbidean araututa, baita Barne Zuzenbidean ere.

Bakerako Giza Eskubidea nazioarteko itunetan

Atariko kontzeptuak

1) Azken hogei urteotan asko hausnartu eta idatzi izan da bakerako eskubideari buruz, giza eskubidetzat hartzeari dagokionez, bereziki.

Dotrinan gai horren inguruan ekarpen ugari egin dira, eta gai horren garrantziaz jabetzen den kontzientzia zabaldu da mundu osoan, baina, hala ere, gai horri heltzen diogunean muturreko bi jarrera aurkitzen ditugu.

Bat. Gizakiaren bake-eskubideari buruzko zuzenbidezko araudi unibertsal, arauemaile, sistematiko eta orokorrik ez dago, nazioarteko zuzenbidean bestelako giza eskubideekin gertatzen den ez bezala, eskubide horiek araututa baitaude bai mundu osoan bai zenbait eskualdetan.

Eta hori gertatzen da tarteka eta noizean behin jendearen zuzenbideari buruzko zenbait testu arauemailetan eskubide hori egon badagoela esaten den arren. Geroago aztertuko ditugu testuok.

Gabezia hori dagoen arren, zenbait herrialdetako konstituzioetan bakerako eskubidea berriaz aipatzen da, eta eskubide hori bera inplizituki onartzen duten beste lege-testu ugari aurkitzen ditugu, halaber.

Bi. Gaiari heltzeko ikuspegi hori ez da guztiz onuragarri eta asegarria. Horrez gain, gure egungo egoera goibela dugu, izan ere, Bigarren Mundu Gerra amaitu eta Nazio Batuen Gutuna onartu zenetik 58 urte igaro ondoren, bakea urrutiko utopia izaten jarraitzen du eta indarkeria nagusi da bai nazioartean bai herri askoren baitan. Gure mundu honetan, hitz iruzurtiak eta hipokresia oso zabaldua daude, eta, bake nahiak gizaterian erro sakonak dituela eta hura babestu eta elikatzen dutenen jarrera zintzoak ahaztu gabe, esan beharra dago egunerokotasunean ukatu egiten dela bake hori, behin eta berriro. Gure mundu honetan, beraz, bakerako eskubidea ukatu egiten da egunero eta indarkeria nagusi da nonahi.

2) Egoera horrek isla du bai zuzenbidean bai eguneroko gertakarietan, eta dotrinaren eta teoriaren interesaren murrizketekin –espero dezagun itxurazkoa eta iragankorra izatea bakarrik– eta gobernu askok gizakiaren bake-eskubidearen aurrean azaltzen duten beldur eta errezeloek eragindako ia erabateko interesik ezarekin batera, garbi ikusten dugu berriro heldu behar zaiolagai horri, eztabaida politiko eta juridikoen arretaren erdi-erdian kokatzeko.

Gaur egungo egoeran, benetako legelariak ezin dute indarrean dagoen zuzenbidea deskribatzera mugatu. Zuzenbide hori nola aldatu eta nola aurreratu aztertu behar dute, justiziaren ikuspegitik, eta aldaketa eta aurrerabide horiek zuzenbide berrian gorpuztu daitezzen borrokatu behar dute.

Iraganean ahaztuxe eduki dugu irizpide orokor hori, baina behar-beharrezkoa da eta guztiz baliozkoa, bakerako eskubideari dagokionez.

3) Bakerako eskubidea ez zen sortu duela hogeiren bat urte adiera hori mahaigaineratu eta eskubide hori giza eskubide bezala onartzen hasi zirenean.

Idea hori bizitzeko eskubidearen baitan jasota dago, bakearen ideiarekin ondorio logiko, beharrezko eta ezinbestekoa delako, eta horixe da nazioarteko erakundearen lehen helburua, bai eta gure bizitza –gizabanako zein talde bezala– baldintzatzen duen ezaugarria. Horrenbestez, ideia hori betidanik, Antzinatek bertatik, agertu izan da pentsamendu erlijioso, filosofiko, politiko eta juridikoan.

Dena den, ideia horrek ezaugarritze juridiko zehatza lortu behar zueneko ustea, berriaz adierazitako zuzenbide baten aztergai eta xedea izan behar zueneko ustea, alegia, XX. mendeko azken hamarkadetan sortu zen, eta berriro egin da gaur egun, ekarpen berriak egin behar baititugu bake kontzeptua gauzatu eta hezurramitzeko eta gizakia borroka horren erdigunean kokatzeko, gizakia baita eskubide subjektibo horren titularrak, hainbat betebeharrekin, jakina.

Arrazoibide hori aldatu egiten da garai historikoen arabera, eta egon beti dagoen arren, ematen zaion lehentasuna, edo haren premia handiagoa edo txikiagoa izan daiteke garai batetik bestera.

Gaur egun, adibidez, berebiziko larritasuna du gai horrek. Negargarria da inguruan dugun egoera, bakea nonahi urratzen baita, eta indarkeria etengabe hazten ari da estatuen barruan zein estatuen artean, nahasmen eta etsipenarekin batera. Hori dela eta, berriro bultzatu behar dugu gizakiaren bake-eskubidearen ideia, dela norbanakoena dela taldeena, bakea gauzatzen joateko ezinbesteko eta premiazko lorpena baita eskubide hori.

16

Bake ideiarekin izatera unibertsala balore, printzipio eta helburu bezala

4) Bakea helburu unibertsala da, gizaki guztiongan errotutako helburua, eta giza espezieko kide guzti-guztiok dugun ideia batean oinarrituta dagoena. Balore bat, printzipio bat eta helburu bat da bakea.

Duintasuna gizabanako guztion giza izaeraren berezko ezaugarria den bezalaxe, giza eskubide guzti-guztiak pertsona guztien ondare bateratu eta besterenezina diren bezalaxe, bakearen ideia eta bakea lortzeko nahia gizaki guztion gogo eta bihotzetan dago errotuta.

Kultur eta erlijio-tradizioen arabera, zibilizazio zein garai historikoen arabera, xehetasun edo ñabardura jakin batzuk izaten ditu bakeak, eta bakea zer den edo bakea zerk osatzen duen inguruko ikuspegi guztiak bete-betean bat ez etortzea gerta liteke.

Halere, bakearen funtsa, bakea beharrezkoa dela dioen uste irmoa, kultura guzti-guztietan agertu izan da eta agertzen da eta, gaizkiaren inguruko aldrebeskeriak alde batera utzita, halakoak beti agertu izan dira gizateriaren historian zehar.

Horregatik, giza eskubideekin gertatzen den bezalaxe, bakea eredu edo helburu komun eta unibertsala da, kultura eta zibilizazio batetik besterako ñabardura eta ikuspegi bereziak kontutan hartuta, betiere.

5) Eredu edo helburu komun eta unibertsal hori historiako garai guztietan eta Lurreko leku guztietan gauzatzeko borroka egitea, dela jardun politiko eta zuzenbidezkoaren bidez, dela norbanakoen jardunaren bidez, gutako guzti-guztion zeregina da, eta zeregin hori gizabanako zein talde bezala dagokigu.

Etikoki onargarriak diren bitarteko guztiak erabilia egin behar da borroka, indarrean dagoen zuzenbideari jarraiki, zuzenbide hori bidezkoa bada, edo zuzenbide positibo hori aldatzeko, zuzenbide hori bidegabea edo zanpatzailea bada.

6) Esan dugu lehenago, eta berretsi egiten dugu orain, bakerako eskubidea bizitzeko eskubidearen baitan jasotzen dela, eta eskubide horren luzapena dela, nolabait ere.

Bizitzeko eskubidearen ukazioa da gerra, eta horregatik bakea, gerraren eta gerrako indarkeriaren zein indarkeria guztien aurkakoa den aldetik –indarkeria hori edonolako dela ere– eta gerrak gizakion arteko bizikidetza urratzen duenez, bizitzeko eskubidea onartzearen luzapena dugu.

7) Bakea «balore» bat da, bizitzeko eta gizateriaren eta gizaki bakoitzaren ahalmenak guztiz gauzatzeko oinarritzko «balorea». Historian zehar, gerra eta borroka, eta eduki etikorik gabeko indarkeria goratzeko hainbestetan erabili izan diren zoritxarreko teoria eta gertakizun guztiak ukatu eta suntsitzen dituen «balorea» da.

Bakea giza zibilizazioaren eta kulturaren «balorea» bada, hura babestu eta bultzatzea printzipio etikoa dugu, eta printzipio horrek zuzenbidezko forma hartzen duenean eskubide bihurtzen da, eskubide subjektiboa, onartu, babestu eta ziurtatu beharrekoa, eta hainbat betebeharrak dakartzana berekin.

8) Bakerako eskubidea eta gizakiaren bake-eskubidea arrazoiari eta etikari jarraiki kontzeptualizatzeak esanahi handiko ekarpena egiten dio gaur egun tolerantziari, bizikidetza baketsuari eta indarkeria guztien aurkako borrokari.

Kontzeptu horiek guztiak, hau da, bakea, tolerantzia eta indarkeriaren gaitzespena elkarri lotuta daude, eta elkar baldintzatzen dute.

Bakerik gabe, eta bakea eskubidea dela onartu gabe, ez dago tolerantzia erabatekorik. Aldi berean, onargarria dena onartzeko tolerantziarik gabe, onartezina dena gaitzesteari uko egin gabe, ezin du bakerik egon.

Bakerik gabe ez da inoiz bizikidetza baketsu, gozo eta begirunezko egongo. Baina, alderantziz ere, bizikidetza hori ez badago, ez dago bakerik.

Bakerik gabe ezinezkoa da ingurumena guztiz zaindu eta babestea. Eta ingurumen osasuntsu eta ekologikoki orekaturik gabe, ingurumena andeatzeko prozesu negargarriek arriskuan jartzen dute bakearen idearen xede nagusia osatzen duten gizaki eta giza taldeen bizitza.

Indarkeria dagoenean ez dago bakerik. Bakearen garaipena indarkeriaren porrota da. Bakea elkarrizketa eta hurkoaren errespetua da. Indarkeria, hau da, gauzak indarrez ezartzea, heriotza bizitza beharrean, bakearen ukazioa da, azken batean.

Horregatik, justifikatu ezineko indarkeria bortitz eta suntsigarria bizi dugun garaiotan, bakearen alde eta bakerako eskubidea onartzearen alde lan egitea indarkeriaren aurka jarduteko bide zibilizatuena da, eta eraginkorrena ere bai, beharbada.

9) Bakeak ikuspegi asko biltzen dituen ideia korapilatsua dugu, eduki humano, sozial, politiko eta juridikoa duena. Indarkeriarik ez dagoeneko egoera da bakea, bai komunitate politikoei dagokienez, bai gizarte nazionaleri dagokienez haien kanporantzko jardunean, bai estatuen artean gerrarik ez egoteari dagokionez nazioarteko komunitateari bagagozkio.

Bakea indarkeriarik eza dela esan dugu, eta nazioarteko bakea, berriz, gerrarik eza. Halere, horrek ez du esan nahi bakea indarkeriarik eta gerrarik eza dela, besterik gabe. Izan ere, bakea ez da ezezkoan ematen den kontzeptu bat bakarrik, justizia, garapena, zuzenbidearekiko errespetua eta tolerantzia biltzen dituen adierazpena ere bada.

Nazio Batuen lehenbiziko eta oinarritzko helburua –Gutuneko 1.1. artikuluari jarraiki– nazioarteko bakea da.

Nazio Batuen Gutunak artikulua horretan bakea eta bake hori ziurtatzeko neurriak hartzen ditu hizpide, eta «justiziarako printzipioak» aipatzen ditu, horretarako. Horrela, nazioarteko zuzenbide positiboak bere adierazpide gorenean bakea eta justizia uztartzen ditu, ezinbestean.

Bakea –bidezko bakea– irauraraztea «datozen belaunaldiak gerraren zigorretik babesteko» (Gutuneko Hitzaurreko 1. paragrafoa), «tolerantzia» oinarritzat hartuta eta nazioarteko zuzenbidean aurreikusitako bideak erabiliz, horixe da juridikoki antolatuta dagoen nazioarteko komunitatearen xede nagusia.

Nazio Batuen Gutunak bakea kontzeptu positibo bezala eratzeko oinarria eskaintzen du, alderdi hauek bilduz: giza eskubideen errespetua, nazioarteko zuzenbidearen onarpena, «gizartearen aurrerabidea eta bizi-maila hobetzea, askatasunaren kontzeptu zabalaren baitan». Bakea, azken batean, giza espirituan sortzen den egoera bat da, eta gizakion ekintzetatik datorren errealitate edo egoera bat. Horregatik, UNESCOren Konstituzioko Hitzaurrean honakoa esaten da, Nazio Batuen Gutunean aipatzen diren ideiak garatuz «gerrak gizakion espirituan sortzen dira eta gizakion espiritu horrexetan sortu behar da bakearen defentsa». Hori dela eta, agerikoa da bakea ez dela kontzeptu politiko hutsa, kontzeptu etikoa baita funtsean.

18

Bakea indarkeriarik eza balitz, besterik gabe, zenbait pasiboa izan liteke, hau da, egoera bidegabe bat onartzea ezer egin gabe, zampaketari eta zuzenbide-urraketei ez erantzutea. Gauzak ez dira horrela, ordea. Bakea indarkeriarik eza gehi justizia baita. Hau da, zuzenbidearen nagusitasuna ziurtatzeko egoera dinamikoa, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko Hitzaurreak dioenez: «gizakiak ez dezan matxinadara jotzeko ezinbesteko beharrik izan tiraniari edo zampaketari aurre egiteko».

Bake kontzeptuak lotura estu-estua du zuzenbide ideiarekin. Hans Kelsenek duela 50 urte esan zuenez: «Zuzenbidea bakea babestu eta zaintzeko antolamendua da, funtsean».

Bakea, giza eskubideak eta bakerako eskubidea. Bakerako eskubidea eta gizakiaren bake-eskubidea

10) Bakearen inguruko gogoeta, hau da, bakea sustatu, lortu, zaindu, babestu, gorde eta haren urraketa zigortzeari buruzko gogoeta, aspaldi-aspaldikoa dugun arren, eta iragan mendeetako pentsamendu erlijioso, filosofiko eta juridikoan etengabe jorratu izan den arren, bakerako eskubidearen ideia askoz berriagoa dugu. Lehenago egongo zen eskubide horren aipamenik beharbada, baina ondoko testuetan ere agertzen da, besteak beste: 1918an Nazioen Elkartearen sortzean osatutako dotrinan; 1928ko Briand Kellog itunean; Bigarren Mundu Gerra piztu aurreko eta bitarteko erasoaldiek itxaropen eta asmo handi haiek urratu ondoren, Nazio Batuen Gutunean oinarrituta sortutako nazioarteko komunitate berriaren testuetan.

1945 eta zenbait hamarkada geroago sortu zen gizakiaren bake-eskubidea beharrezkoa zela zioen ideia. Ideia hura zenbait giza eskubide aldi berean norbanakoenak zein taldeenak

zirela zioen ideari jarraiki sortu zen. Era horretakoa ditugu garapenerako eskubidea eta ingurumen osasuntsu eta ekologikoki orekatua izateko eskubidea, besteak beste. Eskubide horiei izen ugari eman zitzaizkien: «eskubide berriak», hirugarren belaunaldiko eskubideak, elkartasunezko eskubideak, edo komunitateari begirako eskubideak.

Eskubide berri horiek gizakien behar berriak sortzean agertu ziren hausnarketa juridiko eta politikoaren baitan. Eta behar berri haiek eskubide berriak eskatzen eta egituratzen has-tean sortutako egoera berriei erantzuten zieten, gizakion behar horien ondorioak onartzea oinarritzat hartuta.

Bestalde, gizakien bakerako eskubidea beste honen ondorio ere izan zen: gizakiak bakerako eskubidearen titular egin zenean –beste titular batzuk ere egon zitezkeela baztertu gabe–, eskubide hori osagabe gelditzen zen eta ez zuen inolako eraginkortasunik nazioarteko komunitatean, alor horretan estatuak ez direlako nazioarteko zuzenbideko subjektu bakarrak eta gizakiak, zuzenbide horren subjektu izanik, zuzenbide osoaren, eta, ondorioz, jendeen zuzenbidearen azken objektu edo xedea ere badira.

11) Estatuari dagokionez, gizakiaren bake-eskubidea Japoniako Konstituzioan onartu zen lehenbiziko aldiz, 1946an, Hitzaurreko 9. artikuluan, hain zuzen ere. Artikulu haren arabera, Japoniak gerrari uko egiten zion betiko, bai eta armamentu-politika orori ere.

Hamarkada batzuk geroago, 1991ean hain zuzen ere, Kolonbiako Konstituzioak bide hari jarraitu zion eta 22. artikuluan ondokoa aldarrikatu zuen:

«Bakea nahitaez betebeharreko eskubide eta betebeharra da».

Zuzenbide konstituzional alderatuaren ildo hori bera aurkitzen dugu azken urteotan idatzitako beste konstituzio batzuetan.

Baina gizakiaren bake-eskubidea berriaz aipatzen ez den kasuetan ere, eskubide hori inplizituki onartuta egon liteke, estatuaren joera bakezaleari buruzko arauen ondorioz, edo nazioarteko zuzenbidea onartzearen ondorioz, edota konstituzioak bizitzeko eskubidea bermatzearen ondorioz, bestela.

Gai honi buruzko aipamen labur-labur honetan nabarmendu nahi dugu zuzenbide konstituzionalak jaramon egiten diola bakerako eskubideari, berriaz edo inplizituki izanda ere.

Eta horrek erakusten digu mundu osoko iritzi publikoan geroz eta kezka handiagoa dagoela gai horren inguruan, eta zuzenbideak eskubide hori aintzat hartu behar duela, ondorioz, gizateria osoak dituen beharrei –banakakoak izan ala taldekoak– erantzunez.

12) Nazioarteari dagokionez, gizakiaren bake-eskubidearen ondoren bakerako eskubidea juridikoki onartzeko aukera guztiz osagabe dago, baina geroz eta gehiago lantzen ari da gai hori.

Bakerako eskubidea aldarrikatzeak, lan honetako 2. kapituluko 9. paragrafoan definitu dugun bake ideia aztergai eta xedea den aldetik, gizateriaren, estatuaren, nazioen, herrien eta gutxiengoaren eskubidea dela onartzea dakar, eta gizakiek, gizaki guzti-guztiek, bakerako eskubidea dutela onartzea, halaber.

Bakerako eskubidea talde-eskubidea balitz, besterik gabe, eta gizabanako bakoitzari dagokion eskubidea ere badela onartuko ez balitz, zentzua eta orokortasuna kenduko litzaioke eskubide horri, haren irismena mugatuko litzateke, eta, azken batean, edukiz eta eraginkortasunez hustuko litzateke.

Bakerako eskubideak esanahi oso eta erabatekoa izango badu, onartu egin beharko dugu giza eskubidea dela eta bere banakako izaerarekin batera talde izaera ere baduela.

Bakerako eskubidea barne-mailako edo maila nazionaleko eskubidea da baina baita nazioartekoa ere. Egia da ezin duela bakerik egon giza eskubiderik gabe, eta ezin duela giza eskubiderik egon bakerik gabe, bai estatuen baitako bizitzari dagokionez, bai nazioarteko egoerari dagokionez. Estatuaren baitako indarkeria zein estatuarena berarena bakerako eskubidearen urraketa nabarmena dira, eta gauza bera esan dezakegu kanpo-indarkeriari buruz, hau da, nazioarteko gataska armatuen ondoriozko indarkeriari buruz. Horregatik, gizakiaren bake-eskubidearen azterketa zorrotza eta sistematikoa eginez gero, bakerako eskubidea bi zutabetan aztertu beharko dugu: barne-mailako zuzenbide bezala eta nazioarteko zuzenbidearen alorrean.

13) Nazioarteari dagokionez, bakerako eskubide bat dagoela esateko oinarritzat hartu ditzakegun testuak hauek dira funtsean:

Lehenik eta behin, Nazio Batuen Gutuna, Nazio Batuen sistemaren oinarritzko helburua nazioarteko bake eta segurtasuna direla aldarrikatzen duen aldetik, oinarritzko bi zutabe hartuta: liskarrak modu baketsuan konpontzea eta indarra erabiltzeari uko egitea.

Bigarrenik, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala dugu, 28. artikuluan oinarri sendoa ematen baitu bakerako eskubidea giza eskubide bezala onartzen duela esateko. Hona zer dioten artikuluko horrek: «Pertsona guztiek eskubidea dute adierazpen honetan aldarrikatzen diren eskubideak zeharo gauzatuko dituen nazioarteko antolamendua ezarri dadin».

Nazioarteko antolamendu edo ordenaren kontzeptuak ezinbestean bake ideia jasotzen badu, ondorioztatu beharko dugu pertsona guztiek eskubidea dutela bakea ziurtatu eta bermatuko duen nazioarteko ordena egoteko, bai norbanakoei dagokienez, bai taldeei dagokienez.

Hirugarrenik, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak 1976an onartutako erabaki bat dugu (5 – XXXII erabakia). Aldeko 22 boto, aurkako 7 eta abstentzio batekin onartu zen erabaki hartan gizakiaren bake-eskubidea aldarrikatu zen.

Laugarrenik, Nazio Batuen Biltzarraren bi erabaki nabarmendu behar ditugu hemen, lotura dutelako bakerako eskubidearekin.

Lehena, 1978an onartu zuen Biltzar Nagusiak izenburu honekin: «Gizarteak Bakean Bizitzeko Prestatzeari buruzko Adierazpena» (33/73, 1978ko abenduaren 25a). Adierazpen hartan esaten da bakean bizitzeko eskubidea nazio eta gizabanako guztiei dagokien eskubidea dela. Hona zer dioten 1.1. artikulukoak:

Nazio eta gizabanako guztiek, edozein arraza, sinesmen, hizkuntza edo sexu-takoak direla ere, berezko eskubidea dute bakean bizitzeko.

Eskubide hori errespetatzea, eta gainerako giza eskubide guztiak errespetatzea, onuragarria zaio gizateria guztiari, eta ezinbestekoa da Lur osoko nazio guztiek, handiek zein txikiek, aurrera egiteko.

Artikulu horren muina azaldu eta oinarritzeko Hitzazurre luzea gehitu zitzaion. Merezi du hitzazurre horretako lerro batzuk hona ekartzea, gai horren aurrekariak eta erabili daitezkeen beste nazioarteko testu batzuk aipatzen dituelako:

Biltzar Nagusiak gogora ekarri nahi du ondokoa: Nazio Batuen Herrien Gutunean aldarrikatzen zenez, erabaki irmoa zuten hurrengo belaunaldiak gerraren zigorretik babesteko, eta Nazio Batuen helburu nagusienetako bat nazioarteko bake eta segurtasuna gordetzea dira.

Biltzar Nagusiak 1496ko abenduaren 11n hartutako 95 (1) erabakiari jarraiki, eraso-gerra bat antolatu, prestatu, hasi edo egiteko ekintzak bakearen aurkako krimenak dira eta 1970eko urriaren 24ko Estatuen Arteko Adiskidetan Harremani eta Lankidetzaren inguruko Nazioarteko Zuzenbideko Printzipioei buruzko Adierazpenari jarraiki eta 1974ko abenduaren 14ko Erasoaren Definizioari jarraiki, eraso-gerra bakearen aurkako krimena da.

Berretsi egiten dugu pertsonen, estatuen eta gizateria osoak bakean bizitzeko eskubidea duela.

Gerrak gizakien gogoan hasten direla jakinik, hantxe hasi behar dugu bakearen defentsa sortzen.

Gazteen artean Bakea, Elkarrekiko Errespetua eta Herrien arteko Ulermena Sustatzeko Adierazpena (1965eko abenduaren 7koa) gogoratu behar dugu.

Era berean, 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna gogoratu behar ditugu; izan ere, azken horretan esaten da gerraren aldeko propaganda legez debekatuta dagoela.

1978ko erabaki horren ondoren, 1984an Biltzar Nagusiak garrantzi handiko beste adierazpen bat onartu zuen: 1984ko azaroaren 12ko 39/11 erabakia, Herrien Bakerako Eskubideari buruzko Adierazpena onartu zuena, hain zuzen ere. Hori izan zen batzarrak bakerako eskubidea berariaz eta testu batean aldarrikatu zuen lehenbiziko aldia. Lehenago, 1978ko erabakian, «bakean bizitzeko eskubidea» esamoldea erabili zen.

Biltzar Nagusiaren 1984ko adierazpen horretako lehen artikuluan ondokoa esaten da:

21

Lurreko herri guztiek bakerako eskubide sakratua dute.

Eta 2. artikuluan honakoa dio:

Herrien bakerako eskubidea zaintzea eta eskubide hori gauzatzen laguntzea estatu guztien oinarrizko betebeharra da.

Herrien bakerako eskubidea gauzatzen dela ziurtatzeko, ezinbestekoa da estatuen gerra-mehatxua ezabatzea bideratutako politika bultzatzea, gerra nuklearrari dagokionez bereziki, nazioarteko harremanetan indarra erabiltzeko ohitura baztertzea, eta nazioarteko liskarrak modu baketsuan konpontzea, Nazio Batuen Gutuna oinarritzat hartuta.

Gizarteen bakean bizitzeko eskubidea eta gizakiaren bake-eskubidea kontzeptuak bete-betean bat ez badatoz ere, eta herrien bakerako eskubidea aldarrikatzea gizakiaren bake-eskubidea aldarrikatzearen berdina ez den arren, kontzeptu horiek guztiak antzekoak dira eta guztiek ere gizakiaren bake-eskubidea juridikoki onartuko duen prozesura garamatzate.

Bosgarrenik, UNESCOren Biltzar Nagusiak bitan aldarrikatu du bakerako eskubidea: Giza Eskubideen Irakaskuntzari buruzko Adierazpenan eta Hedabideei buruzko Adierazpenan.

Seigarrenik, Ameriketako esparruan aldarrikatuta dago bakerako eskubidea. Latinoamerikan Arma Nuklearrak Debekatzeko Erakundeko Biltzar Nagusiaren erabaki batean aldarrikatu zen eskubide hori, Quitoan 1979an (R.128.IV). Erabaki hartan, Nazio Batuen

Biltzar Nagusiak 33/73 erabakian esandakoarekin bat etorriz, «pertsonek guztiek, estatuek eta gizateria osoak bakean bizitzeko eskubidea» dutela aldarrikatu zen.

Ameriketako Estatuaren Erakundeko Biltzar Nagusiak 1998an egindako Caracasko Adierazpenean ere gizakiaren bake-eskubidea onartu zen, testu horretako 4. paragrafoan.

Zazpigarrenik, eta kontinente jakin bati gagozkiola hemen ere, Afrikako Gizakien eta Herrien Eskubideei buruzko Gutunak –San Joseko Hitzarmenaren parekoa Afrikan– giza-banakoen eskubideak aldarrikatu, zerrendatu eta ziurtatzeaz gain, herrien eskubideak ere nabarmentzen ditu, eta bakerako eskubidea aipatzen du, besteak beste. Afrikako Gutuneko 23. artikuluan esaten da: «Herri guztiek dute bakerako eskubidea eta nazio-mailako zein nazioarteko segurtasunerako eskubidea».

14) Goiko lerroetan aipatu ditugun tresnak era askotakoak dira beren izaera juridikoari eta ezarpen-eremuari dagokienez, baina guztiek ere garrantzi handia dute politikan eta zuzenbidean.

Dena den, oraindik ez dugu bakerako eskubidea aldarrikatzen duen eta behar bezala tipifikatzen duen itun edo hitzarmen unibertsalik, hau da, eskubide hori nazioartean betetzen dela ziurtatzeko eta urratuz gero eskatu beharreko erantzukizunez eta ezarri beharreko zigorrez arduratzeko modurik.

15) Benetako bakerik ezean ez dago giza eskubiderik, berez, estatuen barruko zein arteko indarkeriak –nazio-mailako zein nazioarteko gerraren kasuan bereziki– giza eskubideen erabateko urraketa baitakar beti, bizitzeko eskubidearena bereziki. Horregatik, bakearen bidez giza eskubide guztien errespetua ziurtatu beharra dago, eta uste irmo horretan oinarritzen da, hain zuzen, eskubide horien artean gizakiaren bake-eskubidea berariaz aldarrikatzeko beharra, eskubide hori betetzen dela ziurtatzeko, batetik, eta urratzen duenari erantzukizunak eskatu eta dagozkion zigorrak jartzeko, bestetik.

22

Gizakiaren bake-eskubidea kontzeptuaren garapena dotrinan

16) Azken hogeitau urteotako dotrinak etengabe egin du gogoeta gizakiaren bake-eskubidearen existentzia, eraginkortasun, araugarritasun eta ondorioen inguruan, betiere gizakia bakerako eskubide orokorraren jabe edo titular egiteari dagokionez.

Hirugarren belaunaldiko eskubide, elkartasunezko eskubide edo komunitateari begirako eskubide deritzen «eskubide berriak» –gizakiaren bake-eskubidea, garapenerako eskubidea, ingurumen osasuntsu eta ekologikoki orekatua izateko gizaki guztiok dugun eskubidea biltzen dituztenak, besteak beste– berariaz onartzeko ezinbesteko behararen inguruko gogoeta eta baieztapenaren eremu juridikoan egin da hori, eta iraganeko munduak ez bezala, gaur egungo munduak dituen ezaugarri berezietatik sortutako giza beharrei lotutako eskubide eta betebeharren tipifikazio kontzeptuala ekarri du horrek.

Dotrina hori zuzenbide konstituzional alderatuan eta nazioarteko zuzenbidean kokatzen da, baina ez da hausnarketa politiko eta juridikoko adituen edo eskualde zein nazioarteko zenbait gobernu-erakunderen emaitza izan bakarrik, erlijioek ere ekarpen izugarria egin baitiote, Eliza Katolikoak bereziki, Pacem in Terris izeneko entziklikaz geroztik etengabe azpimarratu izan du eta bakearen gaia eta hari lotutako eskubide eta betebeharrak. Gauza bera esan daiteke gobernu kanpoko erakunde askori buruz, haiek ere garrantzi handiko ekarpenak egin baitituzte.

Dotrinak gizakiaren bake-eskubidearen kontzeptua sortu du horrela, aztergai edo objektu bat zehaztuz (bakea), gizakiari, nazioarteko zuzenbidearen subjektu den aldetik, eskubide horren eta eskubide horretatik sortutako betebeharren jabetza edo titulartasuna emanez, bai gainerako gizakiei dagokienez, bai tartean dauden gainerako subjektuei dagokienez.

Dotrinaren ekarpen horren jarraipena egin daiteke lan honi datzekion bibliografian. Gizakiaren bake-eskubidea norbanakoen zein giza taldeen eskubide subjektibo bezala zehazten da juridikoki, eta gainerako eskubide berriak bezala garatzen ari da oraindik, bakoi-tza bere osagai, izaera, araudi eta abarrekin. Halere, gizakiaren bake-eskubide horri buruz ari garela, dituen gabeziak azpimarratu behar ditugu: ez du oinarri arauemailerik, ez dator bat errealitatearekin inondik ere, etengabe urratzen da eta ez dago inolako zigorrik urraketa horiei aurre egiteko.

UNESCO eta gizakiaren bake-eskubidea

17) Gizakiaren bake-eskubidea kontzeptua zehazten gehien ahalegindu den nazioarteko erakundea UNESCO izan da, inondik ere, betiere oinarri arauemailea emateko, eta bake-kultura osatzen duten alderdien erdigunean kokatzeko.

UNESCO, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea, Nazio Batuen sistemako organo espezializatua dugu, Nazio Batuen Gutuneko 57. artikulua araberara.

UNESCOn Konstituzioko Hitzaurreko kontzeptu argiak oinarritzat hartuta, eta Federico Mayor Zaragoza zuzendari nagusi izan zen garaian bereziki, erakunde horrek gizakiaren bake-eskubidea sendotzeko egin du lan, bake-kulturaren esparruan kokatuta eta eskubide horri dagozkion arauak emateko.

18) Hona UNESCOk ahalegin horretan egindako zenbait urrats, guztiak ere 1998 baino lehenagokoak:

- a) 1997ko urtarrilean, Federico Mayor Zaragoza UNESCOko zuzendari nagusiak mezu bat aurkeztu zuen gizakiaren bake-eskubidearen inguruan, eta bidea ireki zuen, horrela, UNESCOk gai horri heltzeko.
- b) 1997ko otsailean, UNESCOk adituen bilkura bat deitu zuen Las Palmasen (Kanariar uharteetan), Demokrazia Parlamentariorako eta Giza Eskubideetarako Hiru Kontinentetako Institutuarekin eta Las Palmasko Unibertsitatearekin batera, eta Kanarietako Gobernuaren laguntzarekin. Bilkura 1997ko otsailaren 25etik aurrera egin zen.

Adituen bilkura haren helburua hau zen: «gizakiaren bake-eskubide baten osagaiak zehazten joatea», ondoren «gizakiaren bake eskubideari buruzko adierazpen unibertsal» bat osatzeko oinarri gisa erabiltzeko.

Ondoko adituak izendatu ziren egoeraren berri emateko, besteak beste: A. Cancado Trindade, A. Eide, H. Gros Espiell, K. Kumado, Anaisabel Prera Flores, J. Symonides, D. Uribe Vargas eta Karel Vasak. Era berean, beste hauei parte hartzeko eskatu zitzaizen: M. Bedjaoui,

T. Buergenthal, A. Carrillo Salcedo, Y. Dinstein, A. Lopatka, M. Medina Ortega, Rigoberta Menchú, S. Oda, L. Petitti, R. Ranjeva, C. Romeo Casavona, E. Roncounas eta Desmond Tutu.

Kontalariak gaiok jorratu zituzten: gizakiaren bake-eskubidearen oinarriak, Uribe Vargasek; gaur egungo bakearen eskakizunak, Eidek; bakerako eskakizunak eta bakea eskakizun, Cancado Trindadek; bakerako hezkuntza, Symonidesek eta, azkenik, bakerako eskubidearen nazioarteko gauzapena –giza eskubideen hitzarmenen protokoloa, adierazpen berria edo hitzarmena–, Gros Spielkek.

Azken ondorioak «Gerraren kulturatik bakearen kulturara» izeneko txostenean bildu ziren, eta Federico Mayor Zaragoza UNESCOko zuzendari nagusiak hizpide hartu zuen gai hori hitzaldi batean.

Adituen bilkura horrek oso-osorik bete zituen bere helburuak, kontalarien txostenak eta amaierako dokumentua oinarritzat hartu baitziren hurrengo etapari ekiteko: bakerako eskubideari buruzko adierazpen unibertsalaren aurreproiektua osatzea.

c) Hurrengo etapa Oslon hasi zen, 1997ko ekainaren 6tik 8ra egindako adituen bilkura batean. Bilkura hartan bakerako eskubideari buruzko adierazpen unibertsalaren aurreproiektua osatu zuten.

UNESCOk eta Norvegiako Giza Eskubideen Institutuak antolatu zuten bilkurak, eta Las Palmasko jardunaldietan ibilitako zenbait adituez gain, beste aditu batzuek ere parte hartu zuten, Asdrúbal Aguiarek, adibidez.

Norvegiako Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria izan zen bilkurako burua, Eide jauna alegia, eta Federico Mayor Zaragozak, orduko UNESCOko zuzendariak, parte-hartze handia izan zuen.

Osloko bilkura oso arrakastatsua izan zen, sustatzaile guztiak bat zetozela erakutsi baitzuten maila ideologiko, politiko eta juridikoan. Horri esker, bakerako eskubideari buruzko adierazpen unibertsalaren aurreproiektua aho batez onartu zen.

d) UNESCOk aurreikusitako azken etapa –edo azkenaurrekoa, gaia Batzorde Bete-arazleak eta Biltzar Nagusiak aztertu aurrekoa dela pentsatzen badugu– Parisen egindako bilkura batean gauzatu zen. 1998ko maiatzaren 5etik 9ra gobernuetako adituak bildu ziren, Venezuelako gobernuko aditu bat buru zutela: Asdrúbal Aguiar jauna.

Gobernuetako adituen bilkura horrek porrot egin zuen erabat. Latinoamerika, Afrika eta Asiako garapen bidean dauden herrietako gobernuak izendatutako ordezkariak aldeko jarrera erakutsi zuten arren, beste gobernu batzuetako adituek, Mendebaldeko Europakoek bereziki, erabateko itxikeriaz jokatu zuten, eta horren ondorioz, ezin izan zen adierazpen proiekturik onartu, nahiz eta horretarako Osloko aurreproiektua edo antzeko beste proiektu batzuk egon aukeran.

Aurkako jarrera azaldu zutenek emandako arrazoiak batere funtsik gabekoak izan ziren, nire ustez, eta ez ezatatu egin nituen Uruguaiako gobernuak izendatutako aditu bezala hitz egin nuenean.

Jarrera itxi haiek guztiak oinarririk gabeko beldurren eta ikuspegi zaharkituen ondorio izan ziren, batetik, eta era horretako adierazpen bat onartzeak mugimendu terroristar edo disidenteei lagungarri gerta zekieneko uste okerraren ondorio, bestetik. Izan ere, batzuek beldur ziren halako jarrera batek ez ote zituen kaltetuko estatuaren egitura eta zenbait erakunde militarren politika, NATOrena adibidez, eta hori guztia batere funtsik gabeko argudio juridikoekin mozorrotu nahi izan zuten.

Jarrera horiek agerian utzi zuten ez zutela inondik ere ulertzen gizakiaren bake-eskubideak zer-nolako balio eta esanahi zuten indarkeria era guztien aurka jarduteko, indarkeria terrorista bera barne hartuta.

Gobernuko ordezkarien bilkura hartan Gizakiaren Bake Eskubideari buruzko Adierazpena onartu ez zenean, amaitu egin zen UNESCOk bideratu zuen prozesua eta, nolabait ere, moteldu egin zen, bai eta erabat gelditu ere, bake-kulturaren inguruko interesa.

19) Gizateriaren kultur kontzientziaren nazioarteko adierazlea den aldetik, UNESCOk egindako lan txalogarri hari Nazio Batuek eta bere mendeko antolakunde espezializatuek (Nazio Batuen Gutuneko 57. art.) beren eskumeneko eremuan eta eskualdeetako gobernu-erakundeek (Nazio Batuen Gutuneko 52-54. art.) orain arte egindako eta aurrerantzean egin beharreko lana gehitzen zaio.

Era berean, gogora ekarri behar dugu gobernu kanpoko erakunde askok bakea sustatzeko egiten duten lana, eta geroan ere egin beharko dutena.

Bidezkoa da, halaber, Armand Hammerrek 70eko eta 80ko hamarkadetan emandako hitzaldi ugariak gogora ekartzea. Hammerrek «Giza Eskubideak berdi Bakea, Bakea berdi Giza Eskubideak» izeneko hitzaldiak eman zituen Oslo, Aix en Provence, Montebello, Hyde Park eta Madrilen, eta hitzaldiotan garrantzi handiko elementuak aurkeztu zituen bakearen eta giza eskubideen arteko loturaren inguruan, eta bakerako eskubidea sortzeko oinarrien inguruan.

Azkenik, gizakiaren bake-eskubidea sendotzeko egindako ahalegin intelektual eta politikoen inoiz berariazko saririk jaso ez badute ere, nabarmentzekoa da 1901az geroztik Bakearen Nobel Saria bakearen alde jardun duten pertsona edo erakundeei eman izan zaiela.

25

Gizakiaren bake-eskubidearen xedea: bakea

20) Bakerako eskubidearen eta, ondorioz, gizakiaren bake-eskubidearen, xede edo aztergaia bakea da.

Bakea bere adiera osoan, hau da, estatuaren barruko edo estatuaren arteko indarkeriarik eza, dela gerra bidezkoa edo bestelakoa, baina adiera positiboa ere kontuan hartuta, hau da, justizia eta elkartasunaren adierazpen bezala.

Bakearen kontzeptu orokor horrek gainditu egiten du zenbait garai historikotan edo zenbait kulturatan bakearen inguruan egon izan den ideia soilik negatiboa, gaur egun ezinezkoa baita ideia horri eustea, bakearen kontzeptu unibertsal, orokor eta zabal bat behar dugula ikusten baita orain. Kontzeptu horrek ezin du mugatu indarkeria ezara soilik, eta justizia eta elkartasunaren beharra ere aintzat hartu behar ditu, txosten honetako 2. kapituluko 9. paragrafoan genionez.

21) Bakea eskubide baten xede edo objektu dela eta, ondorioz, berekin zenbait betebeharrak dakartzala onartzeak bakezaletasunaren balio etikoa onartzera garamatza, bakezaletasunaren adiera zintzo eta zuzenean: ez da jarrera geldo edo pasiboa, egoera bidegabeak onartzea, eraso eta indarkeria etsipenez onartzea, baizik eta bakearen eta bakeak bere baitan gordetzen duen balore etiko, humano eta sozialaren alde borroka egitea, zuzenbidetik sortutako bidezko bitarteko guztiak erabilia.

Bakerako eskubidearen subjektu titular izan daitezkeenak

22) Bakea zuzenbide baten aztergai eta objektua bada, gizabanakoei zein giza taldeei dagokiena, eta gizabanakoen kasuan giza eskubide bat osatzen bada, bakerako eskubide orokor horren jabe edo titular diren subjektu aktiboak zein diren zehaztu beharra dago.

Titular horiek guztiek bakerako eskubide subjektibo bat dute, batzuen eta besteen izaera eta estatus juridikoa desberdina izanik molde eta prozedura desberdinak darabiltzaten arren. Eskubide subjektibo horrek ahalmena ematen die titular horiei –nork bere izaeraren arabera– bakea exijitzeko, bakea errespetatzeko eskatzeko eta bakea urratuz gero dagozkion erantzukizun eta zigorrak proposatzeko.

23) Bakerako eskubidea badagoela onartuz gero, eskubide horren titular zein den aztertu beharra dago, eskubide horrek izan ditzakeen subjektu desberdinak aintzat hartuz.

Titular edo subjektu horiek zehazten hasi aurretik, eskubide horren aztergaiak, bakeak alegia, eskubide horren titulartasuna hainbat subjektuengana eragin dezakeela argitu beharra dago, eta subjektu horiek guztiak gai beretik sortutako eskubide beraren titular izango dira.

Eskubide horiek guztiak kontzeptu bakar eta orokor batetik sortuak dira, bakerako eskubidetik hain zuzen ere, eta elkarren ondoan eragiten dute, elkar baztertu gabe. Bakearen eskubide orokorraren titular diren beste batzuen eskubideak onartzea eta zilegitzat hartzea eskatzen dute eskubideok. Guztia ere, bakerako eskubideen titularrek, indarrean dagoen zuzenbideari jarraiki, eskubide hori onarrazteko, aplikatzeko eta, urratuz gero, dagozkion zigorra ezartzeko erabili nahi dituzten prozedura eta bitartekoak onartu beharra dagoela ahaztu gabe.

26

24) Nazioarteko zuzenbideari buruzko dotrina moderno eta aurrerakoenak dioenez, eta bat nator ikuspegi horrekin, gizateria nazioarteko zuzenbidearen subjektu da. Zuzenbidearen alorrean, gizateria hori nazioarteko komunitate bezala kontzeptualizatu daiteke, eta gizateria horrek bakerako eskubidea du, eskubide horren titularretako bat den aldetik.

Gizateriaren eskubide hori gizakiaren bake-eskubidearen izaera ezinbestean orokor eta unibertsalaren adierazpen dugu, hau da, giza espeziea osatzen dugun guztion behar bateratu eta solidario baten adierazpen.

25) Estatuak ere bakerako eskubidearen titular dira. Estatuaren eskubide horrek Nazio Batuen Gutunean du jatorria. Bakea eta segurtasuna Nazio Batuen lehen helburuko xedea dira (1.1. art.) eta eskubide baten objektu dira. Nazioarteko komunitatean dabilzan estatu guztiek eskubide hori lortu, babestu eta gordetzeko eskubidea dute, halaber, eta debekatuta dute indarra erabiltzea, nazioarteko zuzenbidean zehaztutako kasuetan izan ezik (2.4. art.). Horrez gain, Nazio Batuetako kide guztiek «bakearen zale» izan behar dute (Gutuneko 4. art.). Eskubide horretatik ondorioztatzen da liskarrak bide baketsuak erabiliz konpondu behar direla (2.3., 33-38. art.), Segurtasun Kontseiluaren jardunaren bidez bakea mehatxatuta badago, bakea urratzen bada edo erasorik gertatzen bada (39-50. art.), banakako zein taldeko «bidezko defentsarako berezko eskubidea» berariaz onartzen da (51. art.) eta Gutunean aurreikusitako esparruan neurriak hartu litezke, eskualde-mailako hitzarmenei jarraiki (52-54. art.).

26) Nazioak ere bakerako eskubidearen titulartzat onartu behar dira. Nazioa eta estatua bat bera direnean, bat egiten dute estatuaren eta nazioaren titulartasuna, eta eskubide horren nazioarteko titular bakarra egongo da. Estatu batean hainbat nazio daudenean, berriz, edo nazio bat hainbat estatutan banatuta dagoenean, historian zehar zein gaur egun gertatzen

den bezala, nazioak bakerako eskubidearen gain duen titulartasuna onartu egin behar da, eskubide hori bera duen estatutik bereizita.

Nazioarteko zuzenbideak nazioen nazioarteko zereginak berariaz onartzeko eskakizuna Joan Paulo II.ak egin zuen Nazio Batuen Biltzar Nagusian. Gaur egun, halere, hutsune bat dago nazioarteko zuzenbidean gai horri dagokionez, eta konpondu egin beharko da hutsune hori, ezin baita gai hori albo batera utzi.

27) Herriek ere bakerako eskubidearen titular izan behar dute, nahiz eta askotan zailtxo gertatu herri eta nazio kontzeptuak bereiztea.

Herriak nazioarteko subjektu direnoko ideia nazioarteko tresna askotan onartzen da gaur egun, giza eskubideen nazioarteko bi itunetako 1. artikuluan, esate baterako.

Herriek bakean bizitzeko duten eskubidea eta haien bakerako eskubidea, bereziki, berariaz aldarrikatu zuen Nazio Batuen Biltzar Nagusiak, eta Afrikako Gizakien eta Herrien Eskubideen Gutunean ere jasota dago. Hala eta guztiz ere, oraindik orain ez dago bakerako eskubideari lotutako eskubide eta betebeharrak aldarrikatu eta zehazten dituen nazioarteko tresna orokor eta unibertsalik.

28) Gutxiengoek ere badute bakerako eskubidea, eta eskubide horren titular dira. Gutxiengo kontzeptua ez da erraz bereizten herri kontzeptutik. Halere, gaur egungo nazioarteko zuzenbidean behin eta berriro aipatzen dira gutxiengo horiek, eskubide batzuen titular bezala, eta, ondorioz, nazioarteko komunitateak eta estatuak hainbat betebeharrak dituzte haiekin, bakerako eskubidea errespetatzea, esaterako, bai gutxiengo horiek hartzen dituen estatuari dagokionez, bai nazioarteko bakeari dagokionez.

29) Azkenik, nazioarteko zuzenbide berrian, gizakiak jendeen zuzenbidearen subjektutzat hartzen dira, aho batez. Ez soilik nazioarteko zuzenbidetik sortutako eskubide eta betebeharrak batzuen titular diren aldetik, baizik eta, askotan, nazioartean eskubide horietakoren baten alde jarduteko bitartekoak dituztelako.

Gizaki guztiak pertsonak dira, eta pertsonak diren aldetik, pertsonari buruzko betiko zein egungo kontzeptu juridikoari jarraiki, nazioarteko eskubide eta betebeharrak batzuk dagozkie, eta, zuzenbideak hala agintzen duenean, eskubide horien alde jarduteko ahalmena dute.

Gizakiari zor zaizkion eskubideen artean bakerako eskubidea dago, ezinbestean. Horrela, bakerako eskubidea giza eskubidea bihurtzen da, hots, gizakiaren bake-eskubidea.

Azterketa honetako beste kapitulu batzuetan, gizakiaren bake-eskubidea onartzeak gaur egungo zuzenbidearen baitan dakartzan ondorioak aztertu ditugu, batetik, eta zuzenbideak gai horri heltzeko modua hobetu eta osatzeko joratu beharreko bideak, bestetik, gaur egun gizakiaren bake-eskubidea ez onartzeak sortzen duen hutsune negargarria konpontze aldera.

Gizakiaren bake-eskubidearen urraketa larrienak

30) Gauza nabarmena izanagatik ere, azpimarratu egingo dugu hemen: gizakiaren bake-eskubidearen lehen urraketa bakea urratzea da, mehatxuaren bidez edo indarra erabiliz gerra-eraso bat gertatzen denean, nazioarteko zuzenbideari muzin eginez.

31) Baina nazioarteko gerra-erasoek gain, estatuaren barruko gerra-indarkeria aipatu behar dugu, bakea ez delako nazioarteko balorea, bakarrik, balore orokor bat, printzipio bat eta helburu bat baizik, guztiak ere orokorrak, eta estatuaren barruan ere errespetatu eta zaindu beharrekoak.

Horregatik, ulertu beharra dago indarkeria, hura erabiltzeko mehatxua edo haren erabilera bera, bidegabea dela berez, aurretik urratu den antolamendu juridikoa berrezartzeko erabiltzen denean izan ezik, betiere zuzenbideari jarraiki; indarkeria erabiltzea berez bakearen urraketa dela ulertu behar dugu, halaber, eta, ondorioz, gizakiaren bake-eskubidearen urraketa ere badela.

32) Gaur egun, indarkeria terrorista bakerako eskubidearen aurkako eraso handienetakoa dugu.

Terrorismoa giza eskubideen aurkako eraso eta arriskua ez ezik, gizakiaren bake-eskubidearen aurkako eraso eta arriskua ere bada, zehazkiago esanda.

Terrorismoari aurre egiteko beharrezkoa da nazioarteko elkarlana eta estatu-mailako neurriak, baina giza eskubideak urratzen ez dituzten neurri juridikoak erabiliz, ezin baitira inoiz eskubide horiek urratu edo terrorismoa darabilten neurri anti-terroristak erabili.

Zuzenbideko estatu demokratiko batean bidezko helburuak bilatzea ez du justifikatzen zuzenbidearen aurkako prozedura edo bitartekoak erabiltzea.

Dena den, terrorismoaren aurkako egungo borrokak, gizakiaren bake-eskubidearen aldeko borrokak, ezin ditu bazterrean utzi askotan terrorismo hori eragiten duten egoerak: pobrezia, ezjakintasuna, gabezia ekonomikoak edota bazterketa eta diskriminazio era guztiak. Horregatik, kausa horiei egin behar zaie aurre eta arazo horiek konpontzeko moduan gobernatu. Hori ezinbestekoa da terrorismoaren aurkako borrokari ekiteko eta, horrela, gizakiaren bake-eskubidearen alde jarduteko.

Gizakiaren bake-eskubidearen ezaugarri juridikoak

28

33) Gizakiaren bake-eskubidea eskubide subjektiboa da. Alegia, subjektiboa den aldetik, «eskubide subjektibo hori osatzen du(t)en arau(ar)ekin bat etorritz jokatzeko ahalmena ematen du».

Eskubide subjektibo horrek gaitasun edo ahalmena ematen digu, zuzenbide objektiboan aurreikusitako prozedura guztiak erabiliz, giza eskubide bat bultzatu, haren urraketa salatu, eta dagokion zigorrak eskatzeko, dela bide penal, zibil edo administratibotik, edo dagokion kalte-ordainketa exijitzeko.

34) Gaur egungo nazioarteko komunitateak darabilen nazioarteko zuzenbidean, bakerako eskubidea *jus cogens*-eko kasuetako bat dugu.

Jus cogens gaur egungo nazioarteko zuzenbidean nahitaez bete beharreko arauak izendatzeko erabiltzen den adiera da, hain zuzen ere, 1970eko Itunen Zuzenbideari buruzko Vienako Hitzarmenean (53. eta 64. art.) halakotzat jotzen diren arauak dagokienez. Arau horiek zuzenbidearen gailurra osatzen dute, eta haiek urratzea haien aurkako egintza juridikoen baliogabetasuna dakar berekin, bai eta egintza juridiko baliogabe horietan oinarritutako gertakari materialen baliogabetzea ere.

Bakerako eskubideak *jus cogens* izaera hori du, bi arrazoiengatik.

Batetik, Nazio Batuen Gutuneko 4. paragrafoan zehaztutako indarra erabiltzeko behar duen ondorioetako baten luzapena osatzen dutelako, izan ere, kasu horretan aho batez onartzen baita *jus cogens* kontzeptua aplikatu daitekeela.

Bestetik, gizakiaren bake-eskubidea bizitzeko eskubidearen adierazpenetako bat da, giza eskubidea den aldetik, eta, horregatik, *jus cogens* kasuetako bat ere bada, izan ere, kontzeptu

horrek giza eskubideen oinarritzko muina onartu, babestu eta ziurtatzeari dagokion guztia jasotzen baitu ezinbestean.

35) Bere izaera dela eta, bakerako eskubideak hainbat betebeharrak dakartzak berekin. Betebeharrak horiek estatuek bete behar izaten dituzte, bereziki, nazioarteko komunitate osoari begira, eta *erga omnes* izaera dutela onartu behar da.

«Edozein estaturen lurralde-batasunaren edo independentzia politikoaren kontra indarra erabiltzeko mehatxu egitea edo erabiltzea, edo Nazio Batuen helburuekin bateraezina den beste edozein modutara jardutea» saihestu beharra dago, Gutuneko 2. artikuluko 4. paragrafoan esaten denez.

Nazio Batuen oinarrietako bat osatzen du aurreko aginduak eta, beharbada, horixe da *jus cogens* kasuetako nabarmenena, dotrina guztiek onartzen dutena, nahiz eta, zoritxarrez, nazioarteko errealitateak agerian uzten duenez, geroz eta gehiago urratzen den, Nazio Batuen pisu politikoa ahuldu ahala.

Indarra erabiltzeko mehatxurik ez egiteko edo indarra ez erabiltzeko betebeharrak bakerako eskubidean du jarraipena, eta Nazio Batuen Gutunaren oinarri nagusia osatzen du.

36) Nazio Batuen Gutunaren esparruan, indarra erabiltzeko mehatxurik ez egiteko edo indarra ez erabiltzeko betebeharrak bitarteko bidegabe hori ez erabiltzeko exijitzeko eskubidea dakar berekin, eta eskubide horixe da, hain zuzen bakerako eskubidea.

Bakerako eskubidea estatuen eskubide eta betebeharrak bat da, eta indarra erabiltzeko mehatxurik ez egiteko edo indarra ez erabiltzeko betebeharrak onartzearekin batera gauzatu behar da.

Dena den, gorago esan dugunez, bakerako eskubideak esparru zabalago eta orokorrago bat du, izan ere, eskubide horren titular diren beste subjektu batzuei ere badagokie eskubide hori, nori molde edo era batera.

37) Azterketa honetako VII. kapituluaren aipatu ditugunak baztertu gabe, gizakion edo pertsonon kasua nabarmendu nahi dugu lerrootan, eskubide horren titular bezala.

Pertsonen dagokienez, eta pertsonak eskubide horren titular diren aldetik, bakerako eskubidea gizakiaren bake-eskubidea bihurtzen da.

38) Nolanahi ere, gizakiaren bake-eskubidea, kontzeptualki garatzeari dagokionez, hastapenetan dagoela esan beharra dago, ikuspegi juridikotik eta nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik.

Izan ere, hainbat eratako nazioarteko tresnatan aztergai eta hizpide hartu izan den arren, oro har adierazpen hutsetan eta azterketa partzialetan gelditu izan da eskubide horren aipamena, eta eskubidea aldarrikatu besterik ez da egin izan, eskubide hori osatzen duten elementu, ezaugarri eta ondorioak zehaztuko dituen inolako araudirik gabe, nahiz eta adierazpen hutsen bidez izan, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak edo UNESCOren Biltzar Nagusiak onartutako testuen bidez, esate baterako. Eta oraindik orain horretara iritsi ere ez bagara egin, agerikoa da ez dagoela gizakiaren bake-eskubideari buruzko testu unibertsalik edo antzeko ezer.

Esan dugunez, Gizakien eta Herrien Afrikako Gutunean herrien bakerako eskubidea onartzen da eta Giza Eskubideei buruzko Amerikako Hitzarmenaren inguruko San Salvadorreko Protokoloan bakerako hezi beharra aipatzen da. Halere, bi testu horiek eskualde-mailako eskumena dute, ez unibertsala, eta ez dira gizakiaren bake-eskubideari heltzeko bide zuzen eta orokorrena.

Aurrera begira, ahal dela, Nazio Batuetatik edo, bestela, UNESCOtik sortutako hitzarmen beregain bat onartu beharko da.

Hitzarmen hori Elkartasunezko Eskubideei buruzko Nazioarteko Hirugarren Ituna izan liteke, eta Karel Vasakek egin zuen aurreproiektua erabili liteke, adibidez. Testu hartako 1. eta 2. artikuluetan bakerako eskubideaz esaten da «gizaki guztiei» dagokiela «gizakiak taldeka hartuta, bai nazioartean bai nazio bakoitzean». Aurreproiektu interesgarri hartako 2. artikuluan, berriz, gizakiaren bake-eskubidea onartzeak berekin ekarri beharko lituzkeen ondorioak zehazten dira, hamar paragrafotan.

39) Gizakiaren bake-eskubidea zuzenbidean behar bezala egituratzeko, beharrezkoa da arau-multzo bat adostea. Arau-multzo horrek Nazio Batuen Biltzar Nagusiak edo UNESCOren Biltzar Nagusiak onartutako adierazpen bat izan lezake abiapuntu. Testu hori hitzarmen edo protokolo bat osatzeko erabili beharko litzateke ondoren, hau da, gizakiaren bake-eskubideari dagokionez nazioartean eskatu daitezkeen eskubide eta betebeharrei buruz adostutako testua.

Etorkizunean lortu beharreko nazioarteko tresna horretan, eskubidea urratuz gero jarraitu beharreko bide prozesalak eta urraketak zigortzeko neurri eraginkorrak hartzeko egongo liratekeen eskumenak zehaztu beharko lirateke. Era berean, itunak nazioarteko zuzenbide penalarekin zer-nolako harremana izango lukeen argitu beharko litzateke.

40) Gizakiaren bake-eskubidearen inguruan adostu beharreko arau-multzoa zehaztearekin batera, estatu bakoitzak bide paraleloa jarraitu beharko luke, bai konstituzioaren bidez bai legeen bidez, giza eskubide hori berariaz onartzeko, eta eskubide horren ezarpen, eraginkortasun eta errespetuaren inguruko neurriak zehaztu beharko lituzke, halaber.

Gizakiaren bake-eskubidea berariaz onartzearen eraginkortasun eta ondorioak eta eskubide hori errespetatzetik sortutako betebeharrak estatu bakoitzeko zuzenbidean jasotzeko garaian, zuzenbide penalak zeresan handia izan behar du giza eskubide hori urratzean egindako delituak tipifikatu eta zigortzeari dagokionez.

Gizakiaren bake-eskubidea onartzearen zenbait ondorio

41) Nazioarteko zuzenbidea urratzen duten nazioarteko erasoetan edo estatu barruko zuzenbide konstituzionala urratzen duten barne-mailako zanpakuntza bidegabeetan ez parte hartzeko eskubidea gizakiaren bake-eskubidea onartzearen ondorioz sortu beharreko eskubidea da.

42) Aberria erasotua izanez gero, aberri hori defendatzeko betebeharrari ezin zaio muzin egin, eta herritarrek ezin dute gizakiaren bake-eskubidea aipatu, nazioarteko zuzenbidea urratuz, beren aberriaren aurka egindako eraso bidagabe bati erantzuteko betebeharra saihesteko.

43) Kontzientzia-eragozpena onartu beharra dago. Nazioarteko zuzenbideak gaur egun onartu egiten du eskubide hori, muga batzuen barruan bada ere, eta barne-mailako zuzenbideak zein zuzenbide konstituzional positiboak ere bai, kasu askotan.

Nazioarteko zuzenbidea eskubide hori onartzen hasi besterik ez da egin, halere, eta zenbait aipamen aurkitzen ditugu Nazioarteko Auzitegi Penaleko Estatutuetan, adibidez. Estatu-mailako zuzenbidean, berriz, kontzientzia-eragozpena oinarritzko ideia erlijioso edo filosofikoekin bateraezina dela oinarritzat hartzean sartu zen, baina ezin da aitzakia bezala erabili indarrean dauden bidezko legeetatik sortutako bidezko betebeharrak saihesteko.

Gaur egun, nekez irudikatu dezakegu gizakiaren bake-eskubidearen aldarrikapenean oinarritutako kontzientzia-eragozpena onartzeko prest dagoen estaturik, dela indar militar bat osatzeko garaian, dela nazioarteko gerra batean edo estatuaren baitako gatazka zibili batean jarduteko garaian.

Halere, pentsatzekoa da gizakiaren bake-eskubidearen onarpen juridiko formalak zuzenbidearen zabalpen kontzeptuala ekarriko duela kontzientzia-eragozpenari dagokionez, eta onartu egin beharko duela, beraz, nazioarteko eraso bidegabe batean edo estatu-mailako zapalkuntza-ekintzetan esku hartzeko ukazioa estatu horretako herritarren aldetik.

44) Gizakiaren bake-eskubideak bidezkoa egiten du nazioarteko zuzenbidearen edo estatu barruko zuzenbide konstituzionalaren aurkakoa den gobernuaren gerrazalekeriari muzin egiteko eskubidea, eta betebeharra.

Ondorioz, gizakiaren bake-eskubideak berekin ekarriko du nork bere estatuko gobernuari bake-politika eskatzeko eskubidea, zuzenbideak onartutako bideak erabiliz betiere.

Gobernuaren gerrazalekeriarekin bat egiteari edo bultzatzeari ezetz esatea zuzenbidezko estatu demokratiko batean askatasun printzipiotik, iritzi-askatasunetik eta nork bere ideiak askatasunez adierazteko eskubidetik datorren eskubidea da, baina ez hori bakarrik, gizakiaren bake-eskubidearen ondorio zuzen eta zehatza ere bai baita.

Nork bere estatuko antolamendu juridikoari jarraiki, bake-politika bultzatu eta defendatzeko eskubidea herritar guztiei dagokien eskubidea da, halaber, eta estatu demokratiko bateko zuzenbidean aurreikusitako molde eta prozedurei jarraiki gauzatu behar da.

Gizakiaren bake-eskubidea onartzetik datozen betebeharrak

31

45) Gizakiaren bake-eskubideak eskubide hori errespetatzeko betebeharra sortzen du, hortik datozen ondorio guztiekin. Betebehar horiek gizakiaren bake-eskubidea egotetik sortzen dira, bestalde. Eskubide horren subjektu aktiboak diren aldetik, pertsona guztiek dute eskubide horren titular diren gainerako gizaki guztien eskubide hori errespetatzeko betebeharra.

46) Baina gizakiaren bake-eskubideari dagozkion betebehar bereziak ere badaude, eskubide hori egote hutsari zor ez zaizkionak, besterik gabe.

Eskubide horiek pertsona guztiei eskatzea dago. Izan ere, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 29.1. artikuluan esaten denez:

Pertsona guztiek betebehar batzuk dituzte komunitatearekin, beren nortasuna erabat eta libreki han baino ezin baitute garatu.

Gizakiaren bake-eskubideen ondorioei dagokien betebehar hori ez dagokie pertsona guztiei bakarrik.

Nazioarteko komunitateak, estatuak eta nazioarteko erakundeek ere –mundu osokoak izan ala eskualde jakin batekoak– bete behar dute betebehar hori, eta betebehar hori muzin eginez gero, nazioarteko erantzukizun bat sortu beharko luke.

Bakeari lotutako betebeharrak ezin dira gobernu-mailako nazioarteko zuzenbideko subjektuak dauden kasuetara mugatu soilik. Gobernuz kanpoko nazioarteko erakunde guztiek bakea bultzatu eta babesteko betebeharra dute, maila moralean bada ere, erakunde horien kasuan. 45.

paragrafoan zehaztu dugunez, betebeharrak horiez gain beste betebeharrak batzuk aipatu behar ditugu, gizakiaren bake-eskubidearen ondorio direnak hain zuzen ere. Eskubideetatik betebeharrak batzuk sortzen direla nazioarteko zuzenbide positiboan berariaz adierazten den printzipioa da. Horrela, 1948ko maiatzeko onartutako Gizakiaren Eskubide eta Betebeharrak buruzko Amerikako Adierazpenak, adibidez, honakoa dio Hitzazurreko 2. eta 3. paragrafoetan:

Nork bere betebeharrak betetzea guztion eskubidearen eskakizuna da. Gizakiaren jardun sozial eta politiko guztietan hainbat eskubide eta betebeharrak daude, elkarri lotuta. Eskubideek norbanakoen askatasuna goraipatzen dute eta betebeharrak, berriz, askatasun horren duintasuna adierazten dute.

Zuzenbide alorreko betebeharrak haien oinarri kontzeptualak eta zimenduak osatzen dituzten beste betebeharrak moral batzuk eskatzen dituzte aurretik.

Giza Eskubideei buruzko Amerikako Hitzazurreko V. kapituluko «Pertsonen betebeharrak» 32. artikuluan «Eskubide eta betebeharrak arteko lotura» honakoa esaten da:

Pertsona guztiek betebeharrak batzuk dituzte familiarekin, komunitatearekin eta gizateriarekin.

Pertsona bakoitzaren eskubideak besteen eskubideetan dute muga, denon segurtasunaren mesedetan, eta gizarte demokratiko batean guztien ongia betetzeko bidezko eskakizunen mesedetan.

Horrenbestez, gizaki guztiei dagokien bakerako eskubidea onartzearekin batera, gizaki horiek eskubide hori errespetatu, bultzatu eta babesteko betebeharrak dute, giza espezieko gainerako gizabanakoei dagokienez.

32

Gizakiaren bake-eskubidea eta bake-kultura

47) Gerrak gizakien gogoan hasten direla eta bakearen defentsa sortzen hantxe hasi behar dugula dioen baieztapen zuzen bezain biribilak –UNESCOren Konstituzioko Hitzazurrean agertzen da– ederki erakusten digu gizakiaren bake-eskubidearen eta bake-kulturaren arteko lotura.

Ez da inoiz benetako bake unibertsalik egongo, indarkeriaren «kultura» ukatzen eta borrokatzen duen bake-kulturarik ez badago. Bake-kultura hori behar dugu gizaki guztion bihotzean eta gogoan, komunitate eta gizarte guztietan, eta kultura horixe hartu behar dugu oinarriztat bakerako eskubidea modu eraginkorrean onartzeko eta onarpen horretatik datozen ondorioak finkatzeko.

Gizakiaren bake-eskubidea errespetatzeko eta bakerako heztea

48) Gaur egungo konstituzio askok barne-zuzenbidearen alorrean onartzen dutenez, nazioarteko betebeharrak bat da bakerako heztea, bakea oinarrizko eta ezinbesteko balorea baita haurrak, gaztetxoak eta gazteak, oro har, hezteko garaian.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 26. artikuluko 2. paragrafoan ondokoa esaten da, horren harira:

Hezkuntzaren helburua hau izango da: gizakien nortasuna guztiz garatzea eta giza eskubideen zein oinarrizko askatasunen errespetua sendotzea. Hezkuntzak nazio eta talde etniko zein erlijioso guztien arteko ulermen, tolerantzia eta adiskide-

tasuna bultzatuko ditu, eta Nazio Batuek bakea gordetzeko egindako jarduerak bultzatuko dituzte.

Testu hori behar bezala interpretatuz gero, bakerako hezi beharraren oinarria aurkituko dugu, eta horrek esan nahi du gizakiaren bake-eskubidea hezkuntzan sartu beharra dagoela.

49) Nazio Batuen Eskubide Sozial, Ekonomiko eta Kulturei buruzko Nazioarteko Ituneko 13. artikuluko 1. paragrafoan ere antzeko araua aurkitzen dugu, hizkera berdintsuan adierazia.

50) Bestalde, Nazio Batuen Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Ituneko 20. artikuluko 1. paragrafoan ondokoa esaten da:

Gerraren aldeko propaganda guztia debekatuta dago legez.

Gerraren aldeko propaganda legez debekatzean, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Itunak bakea babestu eta bultzatzeko beharra hartzen du oinarritzat, bakearen ukazioaren adierazpen bortitzena baita gerra.

51) Era horretako nazioarteko arau asko aurkitu ditzakegu, aipatutakoez gain.

52) Giza Eskubideen Amerikako Hitzarmenaren eranskin bezala onartutako San Salvadorreko Protokoloak, eskubide sozial eta kulturei buruz ari denean, «Hezkuntzarako eskubidea» aipatzen du 13. artikuluko 2. paragrafoan:

Protokolo hau sinatzen duten estatuak bat datoz ondorengoan: Hezkuntzak pertsonen nortasuna eta beren duintasunaz duten ikuspegia guztiz garatzera bideratu behar du, eta giza eskubideen, aniztasun ideologikoaren, oinarritzko askatasunen, justiziaren eta bakearen errespetua sendotu beharko du. Era berean, hezkuntzak gaitu egin behar ditu pertsonak gizarte demokratiko eta pluralista batean bizitzeko, bizibide duina ateratzeko, nazio eta talde etniko, erlijioso zein arrazazko guztien arteko ulermen, tolerantzia eta adiskidetasuna bultzatzeko, eta bakea gordetzeko jarduerak sustatzeko.

Testu hori zehatzagoa da gorago aipatu ditugunak baino, bakerako hezi beharrari dagokionez, eta, ondorioz, gizakiaren bake-eskubideari zor zaion errespetuari dagokionez.

Bestalde, protokolo horretako 19. artikuluko 6. paragrafoan «Babeserako neurriak» ondoko alderdia nabarmentzen da:

8. artikuluko a) paragrafoan eta 13. artikuluan finkatutako eskubideak urratuko balira, protokolo hau sinatu duen estaturen batek zuzenean egindako ekintza baten ondorioz, egoera horrek Giza Eskubideei buruzko Amerikako Hitzarmeneko 44-51. eta 61-69. artikuluetan araututako banakako auzi-eskeen sistema aplikatzea eragin lezake, Giza Eskubideen Interamerikar Batzordearen eta, hala badagokio, Giza Eskubideen Interamerikar Auzitegiaren esku hartzearen bidez.

Horrenbestez, hezkuntzarako eskubidea urratzea (13. artikulua), bakerako hezi beharrari dagokionez, «banakako auzi-eskea egitea» eragin lezake, Giza Eskubideei buruzko Amerikako Hitzarmeneko 44-51. artikuluetan –Giza Eskubideen Interamerikar Batzordearen eskumenak– eta hitzarmen horretako 61-69. artikuluetan –Giza Eskubideen Interamerikar Auzitegiaren eskumenak– ezarritakoari jarraiki. Auzitara jotzea erabakiz gero, bi aukera ditu auzitegi horrek: batetik, auzien inguruko ebazpenak emateko eskumena (61-63. art.),

eta bestetik, kontsultei erantzuteko eskumena (64. art.). Horrenbestez, azken eskumen horri jarraiki, bakean hezteko eskubideari eta horren ondoriozko betebeharrari zein gizakiaren bake-eskubideari buruz iritziak emateko eska geniezaioke Interamerikar Auzitegiari.

53) Bakerako hezkuntza eta gizakiaren bake eskubidea onarrarazteko hezkuntza ezin dira irakaskuntza-sistema ofizialera –oinarrizko hezkuntza, lehen, bigarren edo erdi-mailako hezkuntza, goi-hezkuntza eta hezkuntza teknikoa– mugatu.

Irakaskuntza osoa hartu behar dute jarduera-esparrutzat, irakaskuntzaren askatasuna baztertu gabe.

Gainera, arautu gabeko irakaskuntza ere barne hartu behar dute, familiari zuzendutako hezkuntza eta prestakuntza bereziki, alderdi hori gabe irakaskuntza arautuak –eskolaurrekoak edo oinarritzko zein lehen-mailakoak bereziki– ezin izango baitu inoiz bere helburu guztiak lortu.

Gizakiaren bake-eskubidearen eraginkortasuna lortzeko borroka

54) Bakerako eskubideak ez luke eraginik izango eskubide hori urratuz gero zigorrak ezartzerik ez balego, eta gauza bera gertatzen da gizakiaren bake-eskubidearekin ere.

Bakerako eskubideari dagokionez, eskubide hori urratzen denean eraso baten ondorioz edo indarra erabiltzeko mehatxu eginez edo indarra erabiliz, nazioarteko zuzenbideak eta Nazio Batuen Gutunak (2.4. art.) agindutakoari jarraiki, Gutunaren VII. kapituluan aurreikusten diren zigorrak ezarri behar dira. Halere, nazioarteko zuzenbidea urratzeagatik nazioarteko erantzukizunari dagozkion printzipio orokorrak ere ezarriko dira, halakoetan.

55) Dena den, bakerako eskubidearen urraketak banakako erantzukizun penala ere eragin dezake, nazioarteko zuzenbide penalean, oro har, eta Nazioarteko Auzitegi Penaleko estatutuan bereziki, halakotzat tipifikatutako banakako ekintzak frogatzen badira.

Hori bakerako eskubideari dagokionez. Gizakiaren bake-eskubideari dagokionez, berriz, antzeko ondorioa atera daiteke, nahiz eta ez berdin-berdina.

56) Nazioarteko ikuspegitik, giza eskubide hori urratzeak nazioarteko erantzukizuna eragin dezake, nazioarteko zuzenbidean lehendik dauden printzipio eta prozedurak ezarri gero. Halere, gizakiaren bake-eskubidearen kasuan, ezin dira aplikatu Nazio Batuen Gutuneko VII. kapituluan aurreikusten diren neurriak.

Aitzitik, nazioarteko zuzenbide penala aplikatu ahal izango da gizakiaren bake-eskubidea urratzen den kasuetan.

57) Gizakiaren bake-eskubidea urratzearen ondorioz ezarritako zigorrak, halere, ezin dira nazioarteko zuzenbidea aplikatu daitekeen kasuetara mugatu.

Barne-zuzenbideak, zuzenbide penalaren bidez batez ere, zeregin handia izan beharko luke estatuaren eskumeneko eremuan, gizakiaren bake-eskubidearen urraketak tipifikatu eta zigortzeko garaian.

58) Aurreko guztia ahaztu gabe, jendearen artean badago iritzi eta kontzientzia publiko bat gizakiaren bake-eskubidearen urraketak gaitzesteko joera duena. Joera hori lauso samarra da oraindik, eta ez du oinarri juridikorik, baina agerian uzten du giza eskubide horren urraketak zer-nolako oihartzuna duen gizartean eta arlo politikoan.

Gizakiaren bake-eskubidea gaur

59) Gaur egun behar-beharrezkoa da gizakiaren bake-eskubidea onartzea eta zuzenbidean jasotzea, bai estatu bakoitzeko barne-zuzenbidean, haien konstituzioen bidez, bai nazioarteko zuzenbidean, bai nazioarteko komunitate osoak edo eskualde jakin batzuek adostutako nazioarteko tresna batean edo gehiagotan, tresna horren edo horien izaera gerora begira nolakoa izango den oraindik zehazterik ez dagoen arren.

Behar-beharrezkoa da gizabanako bakoitzak zein giza talde guzti-guztiek bakearen alde borrokatzeko, bakearen adiera zabal eta orokorrean.

Behar-beharrezkoa da indarkeriaren aurka egiteko, bai nazioarteko gerra bidegabeci lotutako indarkeriari dagokionez, bai estatuen baitako indarkeria bidegabeari dagokionez.

Behar-beharrezkoa da terrorismoaren aurka eraginkortasun handiagoa izateko, indarkeria gaitzesgarriaren adierazpide tragikoa bada ere, borrokatu beharreko arrazoi ekonomiko, sozial eta politikoei erantzuten baitie.

Behar-beharrezkoa da tolerantzia, elkartasuna eta lankidetzaren sendotzeko, justizian oinarrituta betiere, balore horiek gabe ezinezkoa baita bakea nagusitzea.

Zenbait gobernu eta gobernu horien zenbait bozeramailek hainbat gaitzespen eta beldur azaldu dituzte 1976tik gaur egunera arte gizakiaren bake-eskubidea zuzenbidean jasotzearen aurka, baina gaitzespen eta beldur horiek ez dute oinarri etiko edo zentzuzkorik, funtsik gabeak dira erabat, eta gaur egungo egoerak inondik ere ulertzen ez dituztela erakusten dute.

Gizakiaren bake-eskubidea onartzeak ez du estatua ahultzen, aitzitik, sendotu egiten da benetako estatu demokratikoa, zuzenbidean oinarritutakoa, bidezkoa dena eta giza eskubideak babesten dituena. Ezarpen antidemokratikoan oinarritutako estatu bidegabea bakarrik izan daiteke gizakiaren bake-eskubidea onartzearen ondorioen beldur.

Eskubide hori onartzea behar unibertsala da, eta gizateriaren eskakizun bati erantzuten dio. Bakea –eta hura babestu, bultzatu eta ziurtatzeko beharra, ondorioz– ez da estatu edo eskualde jakin bati dagokion ideia, edo tradizio erlijioso, filosofiko edo politiko jakin bati lotutako kontzeptua. Aitzitik, kultura eta zibilizazio guztietan aurkitzen dugun ideia unibertsala da. Horregatik da unibertsala, eta hura lortzeko eta gauzatzeko bitartekoek ere unibertsalak izan behar dute, beraz.

Bakerako eskubidea erabatekoa, orokorra eta zatiezina da. Horregatik, ez du zentzurik eskubide hori estatu, herri, nazio edo gutxiengoei onartzea, eta gizabanakoei setati ukatzea. Gaur egun juridikoki eta politikoki ez du zentzurik bakerako eskubidearen onarpen osora garamatzen prozesua oztopatzen saiatzeak, eta kontuan hartu behar da gizaki guztiak izango direla eskubide horren titularrak.

Aurreko guztia lortzeko uste irmoa sortzea, gaur egunera arte gizakiaren bake-eskubidearen onarpen orokor, erabateko eta unibertsala eragotzi duten ikuspegi itxiak ezkututzen dituzten murrak botatzea, denon egin-beharra dugu. Eta hori egitea gaur egun dauden beharrez jabetzea eta gerra eta indarkeria era guztiei aurka beharrezko diren tresnak sortzea da.

Hori guztia ikusita, ukalezina da Gizakiaren Bake Eskubideari buruzko Nazioarteko Lehen Biltzar honek berebiziko garrantzia duela.

Bibliografía

AGUIAR, ASDRÚBAL

Cultura de Paz y Derechos Humanos. UNESCO, UCAB, Caracas, 2000.

AGUIAR, ASDRÚBAL

«Perfiles Éticos y Normativos del Derecho Humano a la Paz», in *Liber Ammicorum Héctor Fix Zamudio*, Corte Interamericana de Derechos Humanos, San José 1998 eta en *Boutros Boutros Ghali, Ammicorum Discipulorumque Liber*, Bruylant, Brusela, 1998.

ARON, R.

Paix et Guerre entre les Nations, 3. arg., 1962.

ARENAL, CELESTINO DEL

«Paz y Derechos Humanos». *Revista IIDH*, 5. zk., 1987ko urtarrila-ekaina, San José, Costa Rica.

BEDJAOU, MOHAMED

«Quelques considerations sur les perspectives de Paix et de Developpment à l'aube de l'an 2000», en *Héctor Gros Espiell, Ammicorum Liber*, Bruylant, Brusela, 1997.

BEDJAOU, MOHAMED

«Introducción al Derecho a la Paz», en *Diálogo, Derecho Humano a la Paz: Germen de un futuro posible*, UNESCO, 21. zk., Mexiko, 1997.

BECERRA, MANUEL

«Derecho a la Paz y el Derecho Internacional del Desarrollo», *Conferencia sobre la Paz*. I. lib.

BIDART CAMPOS, GERMÁN

«El Derecho a la Paz, in Los Valores de la Constitución», *Revista Jurídica, El Derecho*, 126. lib., Buenos Aires, 1994.

BOUTHOU, GASTÓN

La Paix, Que sais-je?, Presses Universitaires de France, Paris, 1974.

BOUTROS GHALI, BOUTROS

«UNESCOk Gizakien Bake Eskubideari buruz antolatutako gobernuetako adituen kontsultari zuzendutako mezua», Paris, 1998ko maiatzaren 5etik 9ra, IV. eranskina, UNESCO, 154, Ex/40 dok.

BOUTROS GHALI, BOUTROS

Agenda pour la Paix, Nations Unies, New York, 1992.

BOULDING, E.

The Concept of Peace, Culture of Peace, and Conflict Issues, after the Cold War, UNESCO, Paris, 1992.

BEALES, A. C. F.

The History of Peace, 1931.

CANCADO TRINDADE, ANTONIO

«El Derecho a la Paz y las Precondiciones para la Paz», in *Diálogo, Derecho Humano a la Paz: Germen de un futuro posible*, UNESCO, 21. zk., Mexiko, 1997.

- CARRILLO SALCEDO, JUAN ANTONIO
«Guerra, Paz y Orden Internacional en la *Pacem in Terris*» en *Comentarios Civiles a la Encíclica, Pacem in Terris*, Taurus, Madrid, 1963.
- CASSÉSE A. ETA JOUVE, L.
Pour un Droit des Peuples, La Déclaration d'Alger, Berger, Levrault, Paris, 1978.
- DENKOVA, LIDIA
Genèse de la Tolérance, De Platon à Benjamin Constant, UNESCO, Paris, 1978.
- FALCÓN Y TELLA, MARÍA JOSÉ
«Las generaciones de Derechos y la Guerra», in *Anuario de Derechos Humanos, Nueva Época*, 4. lib. (2003), Instituto de Derechos Humanos, Facultad de Derecho, Universidad Complutense, Madrid, 2003.
- FILIBEK, GIORGIO
«Le Droit de l'Homme a la Paix dans l'Enseignement de l'Eglise Catholique», in *Karel Vasak. Ammicorum Liber*, Bruylant, Brusela, 1994.
- GAGO GUERRERO, PEDRO FRANCISCO
«¿Se ha puesto en marcha la Revolución de la Paz?», en *Anuario de Derechos Humanos, Nueva Época*, 4. lib. (2003), Instituto de Derechos Humanos, Facultad de Derecho, Universidad Complutense, Madrid, 2003.
- GONZÁLEZ CAMPOS, JULIO D.
«La Coexistencia Pacífica en la *Pacem in Terris*», en *Comentarios Civiles a la Encíclica Pacem in Terris*, Madrid, 1963.
- GRAEFRATH, B.
«Priority to the Right to Peace», *Bulletin of the GDR Committee for Human Rights*, 2. zk., Berlin, 1985.
- GROS SPIELL, HÉCTOR
«Les Droits a Vocation Communnautaire», en *Droit International, Bilan et Perspectives*. Mohamed Bedjaoui, Redacteur General, 2. lib., Unesco, Pedone, Paris, 1991.
- GROS SPIELL, HÉCTOR
«El Derecho a la Paz», in *Conferencia sobre la Paz*, I. lib.
- GROS SPIELL, HÉCTOR
El Derecho a la Paz, Congreso Internacional de la Paz, UNAM, Mexiko, 1987, I. lib.
- GROS SPIELL, HÉCTOR
«El Derecho a la Paz». *Revista IIDH*, 3. zk., 1986ko urtarrila-ekaina, San José, Costa Rica, eta in *Derechos Humanos y Vida internacional*, UNAM, Mexiko, 1995.
- GROS SPIELL, HÉCTOR
«El Derecho a la Paz y el Desarrollo». *No Proliferación: Puntos de Vista de América Latina y el Caribe mintegia*, OPANAL, Mexiko, 1995.
- GROS SPIELL, HÉCTOR
«Derechos Humanos y Pacifismo», *Jurisprudencia de Lomas de Zamora*, II. lib., Buenos Aires, 1984.

GROS SPIELL, HÉCTOR

«La Paz y el Derecho a la Paz», en *Cultura de Paz*, Managuako hiru hilean behingo aldizkaria, 5. zk., Nikaragua, 1995.

GROS SPIELL, HÉCTOR

«La Intolerancia, Génesis de la Violencia y Atentado contra la Paz y la Democracia», *Cultura de Paz*, hiru hilean behingo aldizkaria, 6. zk., Managua, Nikaragua, 1995.

GROS SPIELL, HÉCTOR

«Los Problemas Actuales de los Derechos Humanos in Estudios sobre Derechos Humanos. II», IIDH, Civitas, Madril, 1988 eta in *Derechos Humanos, Instituto Peruano de Derechos Humanos*, Editorial Cuzco, Lima, 1991.

GROS SPIELL, HÉCTOR

«La Idea Actual de los Derechos Humanos» in *Derechos Humanos*, Instituto Peruano de Derechos Humanos, Editorial Cuzco, Lima, 1991.

GROS SPIELL, HÉCTOR

«El Derecho al Desarrollo como un Derecho de la Persona Humana», in *Revista de Estudios Internacionales*, 1. zk., Madril, 1980, en *Derechos Humanos*, Instituto Peruano de Derechos Humanos, Editorial Cuzco, Lima, 1991; The Right of development as a Human Right, en *Texas International Law Journal*, 16. lib., 1981.

GROS SPIELL, HÉCTOR

«La implementación internacional del Derecho Humano a la Paz», en *Diálogo, Derecho Humano a la Paz: Génesis de un Futuro Posible*. UNESCO, 21. zk., Mexiko, 1997.

HEMLEBEN, S. J.

Plans for World Peace Thouth Six Centuries, 1943.

IGLESIAS, ENRIQUE

«Paz, Desarrollo y Democracia», *Boutros Boutros Ghali. Ammicorum Discipulorumque Liber*, Bruylant, Brusela, 1998.

JOAN PAULO II. A

Nazio Batuen 50. biltzarrean emandako hitzaldia. 1995eko urriaren 5a, *Osservatore Romano-k argitaratua* «Los Derechos de las Naciones» izenburuarekin.

JOAN PAULO II. A

Bakearen Mundu Eguna ospatzeko mezua. 2004ko urtarrilaren 1a. Paulo VI.ak 1969an hasi eta Joan Paulo VI.ak 1979an jarraitutako egun horietako bakoitzean gai hauei buruzko oinarrizko gaiak jorratzen dira: bakea, giza eskubideak, garapena, elkartasuna, justizia, hezkuntza, barkamena eta indarkeria.

JOUVE, EDMUND

Le Droit des Peuples, Que sais-je?, Presses Universitaires de France, 1992.

JOAN XXIII. A

Pacem in Terris gutun entziklikoa, La Paz entre todos los Pueblos Fundada sobre la Verdad, la Justicia, el Amor y la Libertad, Tipografía Políglota Vaticana, 1963.

KANT, E.

La Paz Perpetua, Koenisberg. 1795. F. Rivera Pastor-en gaztelaniarako itzulpena, Espasa Calpe, Austral, Buenos Aires, 1946.

KELSEN, HANS

Derecho y Paz en las Relaciones Internacionales, 1942, Florencio Acostaren gaztelaniarako itzulpena, Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 1943.

KUTUJIÁN, G. B. ETA PAPISCA, A.

Rights of Peoples, 1981.

LOPATKA, ADAM

«El Derecho a Vivir en Paz como un Derecho Humano», en *La Protección internacional de los Derechos Humanos, Balance y Perspectivas*, UNAM, Mexiko, 1983.

LOPATKA, ADAM

«Derecho a Vivir en Paz», en *La Protección Internacional de los Derechos Humanos*, UNAM, Mexiko, 1983.

MAYOR ZARAGOZA, FEDERICO

El Derecho Humano a la Paz, zuzendari nagusiaren adierazpena, UNESCO, 1997ko urtarrila.

MAYOR ZARAGOZA, FEDERICO

«Le Droit des Hommes à la Paix», en *Demain est Toujours Trop Tarde*, Económica, Paris, 1991.

MAYOR ZARAGOZA, FEDERICO

«Le Droit de l'Être Humain à la Paix», in *Boutros Boutros Ghali. Ammicorum Discipulorumque Liber*, Bruylant, Brusela, 1998.

MAYOR ZARAGOZA, FEDERICO

«Cultura Bélica y Cultura de Paz», I. kap., en la *Nueva Página*, UNESCO, Círculo de Lectores, 1994.

MAYOR ZARAGOZA, FEDERICO

«Derecho Humano a la Paz, Germen de un futuro posible». En *Diálogo, Derecho Humano a la Paz*. UNESCO, 21. zk., Mexiko, 1997.

MAYOR ZARAGOZA, FEDERICO

«Zuzendari nagusiak gizakien bakerako eskubideari buruz prestatutako txostena», UNESCO, *Batzar Nagusia*, 29. bilkura, Paris, 1997, 29/C/59. dok.

MAYOR ZARAGOZA, FEDERICO

«Gizakien bakerako eskubideari buruz gobernuetako adituen nazioarteko bilkuran izandako emaitzei buruz zuzendari nagusiak prestatutako txostena», UNESCO, *Batzorde Betezarazlea*, 154. bilkura, Paris, 1998.

MAYOR ZARAGOZA, FEDERICO

Gizakien bakerako eskubideari buruz gobernuetako adituen nazioarteko bilkurako irekierak-ekitaldian emandako hitzaldia. UNESCO, 1998ko martxoaren 5a.

MAYOR ZARAGOZA, FEDERICO

Gizakien bakerako eskubideari buruz gobernuetako adituen kontsultari zuzendutako mezua, UNESCO, Paris, 1998ko martxoaren 5etik 9ra.

MAYOR ZARAGOZA, FEDERICO

Bake kulturari buruz Nazio Batuei zuzendutako aurretiazko laburpen-txostena, UNESCO, Batzorde Betearazlea, 154. bilkura, Paris, 1998, 154/EX/42 dok.

MAYOR ZARAGOZA, FEDERICO

Gizakiaren Bake Eskubideari buruzko adituen bilkuran emandako hitzaldia, Kanaria Handiko Las Palmas, 1997ko otsailaren 25a, UNESCO, DG/97/10 dok.

MERLE, MARCEL

Droits de l'Etat, Droits de l'homme, Droits des Peuples, Droits des Nations?, Profide et Justitia, Berlin, 1984.

NASTASE, ADRIÁN

«Le Droit á la Paix», in *Droit International, Bilan et Perspectives*, Redacteur General, Mohamed Bedjaoui, UNESCO, Pedone, Paris, 1991, 2. lib.

PABLO VI.A

Bake Jardunaldiak ospatzeko mezuak, 1968ko urtarrilaren 1etik 1978ko urtarrilaren 1era.

PÉREZ DE CUELLAR, JAVIER

«La Contribución Internacional a la Cultura de Paz», en *Cultura de Paz*, Managuaiko hiru hilean behingo aldizkaria, Nikaragua, 5. zk., 1995.

PRERA, ANAISABEL

«Solidaridad y Cultura de Paz», in *Federico Mayor Ammicorum Liber* Bruylant, Brusela, 1995.

40

PRERA, ANAISABEL ETA VERMEREN, PATRICE

Philosophie de la Culture de Paix. L'Harmattan, Paris, 2001.

MU, H.J.

«Peace Internacional», *Britainiar Entziklopedia*, 17. lib., 1963.

REAL TEJADA, JUAN MANUEL

«Una Cultura para la Paz», in *Federico Mayor Ammicorum Liber*, Bruylant, Brusela, 1991.

REDSLOB, R.

Le Problème de la Paix, 1954.

REARDON, BETTY A.

Tolerance-The Threshold of Peace, UNESCO, Paris, 1997.

Rodríguez Assman, Bárbara

«Reflexiones Jurídicas y Políticas sobre el Derecho a la Paz», *Revista de Ciencias Jurídicas*, 55. zk., Universidad de Costa Rica, San Jose, 1986.

REVES, E.

Anatomy of Peace, 1945.

ROLING, BERT V.A.

«Pacifism», en *Encyclopedia of Public International Law*, 4, HH, 1982, 71. or.

RUIZ MIGUEL, ALFONSO

«¿Tenemos Derecho a la Paz?», *Anuario de Derechos Humanos*, Universidad Complutense, Madrid, 3. lib., 1983.

ULIRICH SEUPIN, HANS

«Peace, Historical Movements Toward», en *Encyclopedia of Public International Law*, 4, NH, 1982, 78. or.

SKUBIZEWSKI, KRZYSZTOF

«Peace and War», en *Encyclopedia of Public Internacional Law*, 4, NH, 1982, 74. or.

SALMON, J. J.A.

«Droits de Peuples et Droits des Etats», en *Réalités du Droit International Contemporain*, Reims, 1977.

TOMUSCHAT, CHRISTIAN

«Solidarity Rights Developments Peace, Environment, Humanitarian Assitance», en *Encyclopedia of Public International Law*, IV. lib., 460. or., N H, 2000.

THEE, MANEK

«Towards a Culture of Peace and on Human Rights», en *From Culture of Violence to Culture of Peace*, Unesco, Paris, 1996.

THEE, MANEK

«The Right of Peoples to Peace», en *Karel Vasak, Ammicorum Liber*, Bruylant, Brusela, 1999.

THEE, MANEK

«Peace» by *The Nobel Peace Price Laureates An Anthology*, UNESCO, Paris, 1995.

41

URIBE VARGAS, DIEGO

El Derecho a la Paz, Universidad Nacional de Colombia, Bogota, 1996.

URIBE VARGAS, DIEGO

La Tercera Generación de Derechos Humanos y la Paz. Plaza y Janés, Bogota, 1983.

URIBE VARGAS, DIEGO

«El Derecho a la Paz», en *Academie de Droit International, Derecho Internacional y Derechos Humanos*, Sesión Externa, San José. Haga, 1996.

URIBE VARGAS, DIEGO

«Fundamentos del Derecho Humano a la Paz», en *Diálogo, Derecho Humano a la Paz: Germen de un Futuro Posible*, UNESCO, 21. zk., Mexiko, 1987.

VAN BOVEN, T.

«The Relationship Between Peoples Rights and Human Rights», en *The African Charter, Human Rights Law Journal*, 7. zk., 1986.

VASAK, KAREL

«Le Droit de L'Homme á la Paix», en *Mélanges en Hommage à Louis Edmond Pettiti*, Bruylant, Brusela, 1998.

VASAK, KAREL


«Pour une Troisième Génération des Droits de l'Homme», en *Studies in Honour of Jean Pictet*, Geneva, 1984.


VASAK, KAREL

«Revisiter la Troisième Génération des Droits de l'Homme avant leur Codification», en *Héctor Gros Espiell, Ammicorum Liber*, Bruylant, Brusela, II. lib.

VIDAL, CHRISTIAN MANELIC

«La Paz, su Desarrollo Internacional y su Concepción como Derecho Humano», en *Revista Derechos Humanos*, 2. lib., Montevideo 2004.





Bakerako Giza Eskubidea XX. mendean. Atzera begiratzuz

SIMON CHESTERMAN JN.

International Peace Academy, New York-eko Unib.

Simon Chesterman New Yorkeko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Nazioarteko Zuzenbide eta Justizia Institutuaren zuzendari exekutiboa da.

Melbournen, Pekinen, Amsterdamen eta Oxforden jaso du prestakuntza; Chestermanek asko idatzi du nazioarteko erakundeei, nazioarteko zigor-zuzenbideari, giza eskubideei, indarraren erabilerari eta gatazka-ondoko berreraikitzeari buruz.

NYUan sartu aurretik, Bakearen Nazioarteko Akademiako Senior Associate izan zen, baita Nazio Batuen Harremanetarako zuzendari ere, New Yorkeko Nazioarteko Krisien Taldean. Aurretik, Gai Humanitarioak Koordinatzeko Bulegorako lan egin zuen Belgraden, eta praktikak egin zituen Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegian, Arushan. Irakaskuntzan izan duen esperientziaren barruan, Melbourne, Oxford, Southampton eta Columbiako unibertsitateetan emandako ikastaroak aipatu behar dira.



CURRÍCULUM

Simon Chestermanek honako obra hauek idatzi ditu: *You, The People: The United Nations, Transitional Administration, and State-Building* (Oxford University Press, 2004) eta *Just War or Just Peace? Humanitarian Intervention and International Law* (Oxford University Press, 2001). Michael Ignatieff eta Ramesh Thakur jaunekin batera, lan hauen argitaratzailea da: *Making States Work: State Failure and the Crisis of Governance* (United Nations University Press) eta *Civilians in War* (Lynne Rienner, 2001).

Horrez gain, ohiko laguntzailea da nazioarteko zuzenbideari eta zientzia politikoei buruzko aldizkarietan eta ospe handiko hainbat argitalpenetan hala nola *International Herald Tribune* egunkarian.

LABURPENA

Nola egin dezakegu 90eko hamarkadaren gaineko hausnarketa bakerako giza eskubidearen kontzeptua kontuan hartuta, miresgarria den arren sortu berria baldin bada? Ponentzia honetan, Gerra Hotzaren ostean, indarra erabiltzeari nazioartean jarritako mugak aztertzen dira, baita nazioarteko sisteman eta Estatu Batuetan berriz pizten ari den unilateralismoak izan ditzakeen ondorioak ere. Terrorismoaren aurkako gerrak gogortu egin zuen Bushen administrazioak kanpo-harremani buruz zuen ikuspegi manikeista, hau da, kide esanekoak eta kide egoskorak bereizten dituena: zenbait kasutan, munduko naziorik boteretsuena beldurtiena ere izan da. Aldi berean, segurtasun-giroa aldatu denez, aldaketa horrek 90eko hamarkadako aurrerapen handienetako bat zapuztu du; hain zuzen ere, indarra modu kolektiboan erabiltzeko gaitasuna, zapaldutako biztanleak defendatzeko azken aukera gisa.

Bakerako Giza Eskubidea XX. mendean. Atzera begiratu

Sarrera

Irakeko gertakarien eta Bushen bi legealdien testuinguruan uztartzen ari dira gerra hotzaren ondorengo garaiak eta «munduko ordena berria». 1991an Irak Kuwaitetik botatzean, zuzenbide-estatuak oihaneko legearen tokia hartuko zuela erakutsi nahi izan zuen George HW Bushek, berak azpimarratu bezala. Erretolika sutsu horren eraginez, bakeari eta segurtasunari eusteko, Nazio Batuen Kontseiluaren mandatu orokorra berretsi zuten estatu-buruzagiek gailurreko bileran. 2003ko Irakeko inbasioarekin eta ondoren George W. Bushek Saddam Hussein atzematearekin batera amaitu zen Basamortuko Ekaitza Operazioa, baina Iraken Askatasuna Operazioak zatiketa ekarri zuen Segurtasun Kontseilura eta baita NATOra ere. Era berean, AEBen botere militarren menpe dagoen mundu honetan segurtasun kolektiboaren ideia bera berraztertzeke goi-mailako taldea sortu zen¹.

Goresgarria izanda ere auzitan dago gizakiaren bake-eskubidea. Nola egin dezakegu 90eko hamarkadaren inguruko hausnarketa bake-eskubidearen argipean²? *The Human Right to Peace* liburuan Douglas Rochek dioenez, «zibilizazio gisa oraindik ez dugu bake-eskubidea betearazteko adinako heldutasunik³». II. Mundu Gerraren azken egunetan finkatutako segurtasun-arloko arkitektura abian jarriko zela eta, itxaropena piztu zen gerra hotza amaitzean, Segurtasun Kontseiluak bakearen eta segurtasunaren ardura bere gain hartu zuenean. Baina ardura horri aurre egiteko gaitasun mugatua zuela erakutsi zuen Kontseiluak berehala. Borondate politiko ezegokia eta ageriko ahalmen militarra erakutsi zituen Somalian, Ruandan eta Balkanetan huts egin zuten misioetan. Era berean, bere gaitasun mugatua agerian gelditu zen Sudaneko eta Kongoko Errepublikak Demokratikoko gatazka are odoltsuagoetan ia ezer egin ez zuenean.

1997an UNESCOko Zuzendari Nagusi Federico Mayor Zaragozak «gu, herriok» 1945ean egindako promesa betetzen saia gintezen eskatu zuen: «gure oinordekoek ez dezatela gerraren izugarrikeriarik pairatu⁴». Aurrerago, Biltzar Nagusiak bakearen eta ezbiolentziaren kulturaren nazioarteko hamarkada izendatu zuen 2001-2010ekoa munduko haurrentzat⁵. Hamarkada horretan sartu eta bederatzi hilabetera, irailaren 11n Estatu Batuetan izandako atentatuak eta ondorengo «terrorearen aurkako gerrak» bakearen kultura eta «eskubide» bilakatzea epe laburrean gauzatzeko zegoen itxaropena suntsitu zuten.

Gerra Hotzaren ondoren indarraren erabilerari nazioartean jarri dizkioten mugak, eta nazioarteko sisteman eta Estatu Batuetan suspertzen ari den aldebakartasunak ekar ditzaketen ondorioak aztertzen ditu ponentzia honek. Terrorismoaren aurkako borroka gogortu egin zuen Bushen administrazioak nazioarteko harremanei buruz zuen ikuspegi manikeoa, obeditzen duten bazkideak eta tematiak direnak ezberdintzen dituen: batzuetan, munduko naziorik boteretsuena izutuena ere badela dirudi. Aldi berean, eraldatutako segurtasun-giroak 90eko hamarkadako aurrerapen itxaropentsuenetakoa izan zenari egin dio kalte: zapalduetako biztanleria defendatzeko azken aukeratzat talde-indarra erabiltzeko ahalmenari, alegia.

Indarraren baliabidea Gerra Hotzaren ondoren

1999an Kosovon egindako esku-hartzearen legezketasunaren inguruan NATOko hiri-buruen artean izandako eztabaidak grafikoki ilustratu ditu James Rubinek:

Albright eta Cooken artean tentsioz betetako telefono deiak izan ziren. «Gure abokatuekin ditugun arazoak» aipatzen zituen Cookek NBEren baime-nik gabe indarra erabiltzeaz mintzo zirenean. «Beste abokatu batzuk kontratatu» erantzun zion Albrightek. Baina Tony Blair Lehen Ministroaren bultzadari esker britainiarrek azkenean onartu egin zuten NBEren Segurtasun Kontseiluaren oniritzia ez zela legezko betekizuna⁶.

Erabakiak hartzeko prozesuetan nazioarteko zuzenbideak duen eginkizunaren inguruko aitzakiak ez dira berriak; nazioarteko zuzenbidearen historian, legea kanpo-politikako justifikazio hutsaren gaineratik jartzeko borroka nagusitu izan da. Muturreko kasua da *jus ad bellum*-en, indarraren erabilera zilegia arautzen duen legean. Kellogg-Briand Hitzarmenean oinarrituta dagoen Nazio Batuen Gutunak indarraren erabilera galarazten zuen, baina Segurtasun Kontseiluaren aginduetara tropak bidaltzeko estatuen borondate ona jasotzen zuen dispozizioetan. Sistemak porrot egin zuenez eta Gerra Hotzak iraun zuen bitartean Kontseilua geldialdian izan zenez, oso gutxitan erabili zen indarra NBEren ardurapean, bestela sarritan erabiltzen bazen ere.

Gerra Hotzaren eta Basamortuko Ekaitza Operazioaren amaierak (1991) goitik behera aldatu zuten indarra erabiltzeko testuingurua. «Munduko Ordena Berriaren» inguruko adierazpen sutsuen artean, Segurtasun Kontseiluak berretsi egin zuen gero eta gehiago eta anitzagoak zirela mehatxutzat hartu eta berari dagokion esparruan sar litezkeen egoerak⁷. Baina ezinezkoa izan zen Gutunak aurreikusten zuen segurtasun sistema bateratua ezartzea –tropak Kontseiluaren esanetara izango lirake «berak hala eskatzean»⁸–, eta ondorioz Kontseiluaren boterea eskuz aldatu zen. Ildo horretan, bitarteko estatuek finantza eta giza kosteak bere gain hartzeko borondate politikoa zutenean bakarrik abiarazten ziren behartzeko ekintzak. Indar Bateratuek (UNITAF) Somalian burututako operazioa da azaldutakoaren adierazgarri: Segurtasun Kontseiluaren 794. ebazpena (1992) ez zegoen Estatu Batuetako tropa-eskaintzaren menpe bakarrik –lehen zirriborroa Pentagonoan idatzi zuten–. Antzeko planteamenduak abiarazi zituzten Ruandan –Frantziaren zuzendaritzapean–, Haitin –Estatu Batuen zuzendaritzapean–, Albanian –Italiaren zuzendaritzapean– eta Ekialdeko Timorren –Australiaren zuzendaritzapean–. Era berean, erregio mailako konponbideak baimendu dituzte Jugoslavia ohian (NATO), Liberian eta Sierra Leonan (ECOMOG), Kongoko Errepublika Demokratikoan (Europako Batasuna) eta Afganistanen (NATO) esku-hartzeko edo bakea gordetzeko⁹.

Somalian (1993) eta Bosnian (1994-1995) gertatutakoek berretsi egin zuten nagusitzen ari zen iritzia, hau da, NBEren indarrak ez zirela gerrarako egokiak. NBEren Operazioa Somalian (UNOSOM) ez zen gai izan gizabidezko laguntzaren banaketa babesteko, eta ondorioz UNITAF sortu zen, AEBek zuzendutako operazioa. Bake-tropak ugaritu zituen zonaldean, eta epe labur batez arrakastatsutzat jo izan zuten. Tamalez, segituan gelditu zen agerian UNITAFen helburu nagusienetakoa Somalia lehenbailehen uztea zela, eta gatazkan ziren aldeek estatubatuarrek alde egin arte itxaron zezaketela pentsatu zuten¹⁰. Hurrengo bake-operazioa, UNOSOM II, Gutunaren VII. kapituluak jasotzen duen agindua betez abiarazi zuten. Operazioa nabarmena izan zen, Nazio Batuek antolatu eta zuzendutako lehen misioa baitzen. 60ko hamarkadan Kongon burututakoaren ondoren, norbere defentsatik haratago indarra erabiltzeko agindua jaso zuen lehen operazioa izan zen¹¹. UNOSOM eta UNITAF operazioetan gertatu zen legez, somaliar gobernurik ez zegoenez, ez zuten

operazioa burutzeko baimenik eskatu behar izan. Baina bake-misioetan ohikoak diren beste bi ezaugarriak ere ez zituen bete operazioak –inpartzialtasuna eta indarra ahalik eta gutxien erabiltzea–, eta misioaren *mamu* bilakatu zen. 1993ko ekainean segada batean 24 soldadu pakistandar hil eta 57 zauritu ondoren –NBEren bake-misioetan egun bakarrean izan den biktima kopururik handiena– Segurtasun Kontseiluak baimena eman zion Idazkari Nagusiari UNOSOM II operazioko Komandante Buruzagi gisa «ekintzaren arduradunen aurka beharrezkoak ziren neurri guztiak hartzeko», eta baita haiek atxilotzeko ere «ondoren auziperatu, epaitu eta kondenatzeko»¹².

Badirudi une hartan ez zirela jabetu UNOSOMen jatorrizko operaziotik desbideratu izanaren garrantziaz, Mohamed Aided Jeneralaren miliziei gerra deklaratzearen parekoa izan baitzen¹³. Muqdishoko Olympia Hotelari egindako erasoak burutu zuen operazioa. Estatu Batuek euren kasa egindako erasoaldian AEBetako hiru Black Hawk helikoptero bota zituzten, eta 18 soldadu estatubatuar eta beste soldadu malaisiar bat hil ziren¹⁴. Lau egun beranduago, AEBetako tropak 1994ko martxoaren 31a baino lehen erretiratu zirela iragarri zuen Bill Clinton lehendakariak. UNOSOM II operazioan partaide ziren tropek ere berehala iragarri zuten erretiratu egingo zirela. 1994ko otsailean argi zegoen ezinezkoa izango zela soldaduak bertan modu iraunkorrean egotea, eta Kontseiluak hasierako agindua murriztu egin zuen. 1995eko martxoan presaz erretiratu aurreko erabakia izan zen¹⁵.

Bien bitartean Bosnian, NBEren indar arinek ustez inpartziala zen betekizuna zuten, nahiz eta gordetzeko bakerik egon ez. Egoera okertzen hasi zenean, Bosniako bost hirien inguruan eta Sarajevon «zonalde seguruak» bazirela aldarrikatu zuen Segurtasun Kontseiluak, eta UNPROFORek «norbere defentsan» arituz guneok defenditzeko agindu zehaztugabea jaso zuen.¹⁶ Aldi berean itxuraz orokorra zen baimena eman zitzaien Estatu partaideei –hau da, NATOri– «aireko indarraren bidez beharrezko neurri guztiak hartzeko» zonalde seguruetan eta inguruetan UNPROFORi laguntzeko¹⁷. Modu horretan epe laburrera erasoak saihestu zituzten, baina 1995ean Bosniako serbiarrek zonalde seguruetako bat zen Srebrenica inbaditu zutenean hiriaren izena Kontseiluaren erretorika eta erabakitutasunaren arteko zalantzen sinonimo bilakatu zen¹⁸.

Bosniako zonalde seguruak galdu izanaren inguruan iritzi ortodoxoak zioen Nazio Batuek bi lezio ikasi zituztela Somalian: batetik, erabateko inpartzialtasuna dela bakea gordetzeko operazioaren gakoa –edo beste era batera esanda «Muqdishoko muga» gainditu zutela–, eta bestetik, NBEko agintaritzak burutu ezineko egitura sortu zuela bake-misioen alternatiba gisa: behartzeko ekintza militarra¹⁹. Ikuspegi hori berretsi egin zuen NATOren aireko eraso arrakastatsuak, aldeak Daytongo (Ohio) negoziazio-mahaian esertzera behartu baitzituen. Horrela, Daytongo Bake-akordioak bete eta gorde zituzten IFOrek eta SFO-Rek –NATOk modu independentean zuzendutako operazioak, Segurtasun Kontseiluaren baimenarekin–. Aipatutako iritziak hiru aldaketa politiko ekarri zituen: lehenengo, bake-misioen eta behartzeko ekintzen arteko dikotomia zorrotza berretsi zuen, Idazkari Nagusiak bere *Supplement to An Agenda for Peace*²⁰ dokumentuan argi utzi zuenez; bigarrenik, hurrengo behartzeko ekintzak –benetan burutu zituztenean– zegokion nazioaren agindupean egin zituzten, eta betebeharrak bakarrik Kontseiluari bere izenean egindako ekintzaren berri ematea izan zen. Hirugarrenik, Bosnian gertatutakoak erakusten zuenez, aireko indarraren nagusitasunak lurreko gatazka «zikinaren» konponbide garbia ekar zezakeen, aldeak negoziatzera behartuz. –Ikuspegi horrek ez zuen kontuan hartu Kroazian Serbiako bosniarrak atzera eginarazteko lurreko erasoek izan zuten garrantzia eta lurreko gerra luzeak aldeengan izan zuen eragina²¹–.

Aireko indarren nagusitasunari dagokionez, aipatutako azken puntuaren eragina agerian gelditu zen Kosovon, 1999an NATOk Kontseiluaren baimenik gabe 78 egun iraun zuen aireko erasoaldiari ekin zionean. NATOko estatu batzuk uste izan zuten Kosovoko ekintzek NATOren aktibismoaren aro berria ireki zutela, Kontseiluak jarritako muga politikorik gabe. Baina Estatu Batuek beste ondorio batzuk atera zituzten: NATOko kideekin batera aritu beharrak muga politikoak zekartzala, eta horiek Kontseiluaren baimenarekin aritu beharra baino etsigarriagoak zirela, alegia. Ondorioz, NBEren bake-operazioetan batzuetan ikusi izan den apartheid –hau da, industrializatutako herrialdeek aukeratzen dituzte euren gerrak eta garapen bidean direnek euren bake-tropak eskaintzen dituzte estrategikoenak ez diren zonaldeetan ekintza arriskutsuak burutzeko²²– hiru maila dituen egitura dela hobeto ulertzen da. Nazio Batuen agindupean bakea gordetzeko operazioetan parte hartzen duten bake-indarren hiru laurdenak baino gehiago garapen bidean diren herrialdeek bidalitakoak dira, batez ere Afrikan. Herrialde batzuek –batez ere NATOko kide direnek– aginte nazionalaren menpe diren tropak bidaltzen dituzte, NBEren baimenarekin, SFOR, KFOR, edota ISAF operazioetara. Eta Estatu Batuek, NATOren ekintzetan nahi dutenean parte hartzeaz gain, eraginkortasunez aritzen dira agente libre gis²³.

50

Azaldutako guztia argi ikusten da Sierra Leonako gertakarietan. UNAMSILen operazioaren planifikazioa, entrenamendua eta aginte oso kaskarrak izan ziren, eta 2000. urtearen hasieran etorri zen porrota, Foday Sankohren Iraultza-fronte Batuak (RUF) bake indarretako 500 kide bahitu zituenen. Britainia Handiak sei guda-ontzi bidali zituen berehala kolonia ohira. Palliser Operazioak Freetowngo gobernuaren baimena zuen eta britainiarrak eta beste atzerriarrak gatazka-gunetik modu seguruan ateratzea zuen xede. Baina NBEren tropak antolatzen eta entrenatzen hasi ziren eta hainbat lekutan gotortu ziren, errepideetan kontrolak ezarri zituzten, Freetown eta bertako aireportuak kontrolatu zituzten, UNAMSILekin batera aritu ziren patruilatzen eta tiroketen eremura sartu ziren autodefentsa «sendoa» eraman zuten aurrera bertan²⁴. Aireportua babestu eta NBEren indar gehienak askatu ondoren, 2000ko ekainean murriztu egin zuten Palliser Operazioa eta Britainia Handiko aholkulari militarrek bakarrik utzi zituzten bertan, UNAMSILen indarrekin eta Sierra Leonako armadarekin elkarlanean aritzeko²⁵. Indar britainiarrak NBEren aginduetatik eta kontroletik at aritu izan ziren beti, planifikazio-bileretan egon ziren arren. Idazkari Nagusiak gerora adierazi zuenez, «egonkortasuna berreskuratzeko funtsezko faktorea» izan zen bertan egon izana²⁶. Une erabakigarria izan zen hura, ordutik aurrera UNAMSILen operazioak erasokorragoak izan baitziren RUFek egindako etengabeko erronkei erantzuterako orduan eta frontearen ekintzei aurrea hartzean. 2002ko urtarrilerako 45.000 matxino inguru armarik gabe eta ekiteko gaitasunik gabe utzi zituzten; bi hilabete beranduago Ahmad Tejan Kabbah lehen-dakariak lau urteko premia-egoeraren amaiera iragarri zuen²⁷.

Segurtasun Kontseiluaren ardurapean indarra erabiltzearen inguruan Estatu Batuek duten jarrera argi eta garbi ikusi genuen 2003ko Irakeko gerran. Indarraren erabilerari dagokionez, Iraken goia eta behe jo zuen Segurtasun Kontseiluaren aginteak. Estatu Batuek eta Britainia Handiak, Polonia eta Australia lagun, Saddam Husseinen aurkako operazio militarrek abiarazi zituzten 2003ko martxoan, Kontseiluaren baimen zehatzik gabe. Orduan analista askok Kontseiluak bereak egin zituela uste izan zuen, nazioarteko bakea eta segurtasuna bermatzeko ardura zuen erakundeak porrot egin zuela, alegia. Ironia badirudi ere, bazterketaren haziak Kontseiluak 1990eko azaroan baimendutako ekintza militarrean landatu zituzten. 678. ebazpenak (1990) ekintza legezkatzen zuela zioen argumentu juridiko ahulak hala erakusten du, eta baita Basamortuko Ekaitza operazioarekin gertatutakoak ere: NBEren behartzeko ekintzak horretarako prest dauden koalizioei azpikontratatzeko eredia ezarri zuen. Lehenago esan moduan, ekiteko prest zegoen estatu baten interesekin bat etorritik gero

bakarrik burutu ziren Kontseiluaren ardurapeko ekintza militarrek 90eko hamarkadan. Ondorioz Kontseilua «legeztatzeke ikuztegi» bilakatu zen, analista batek zioen moduan²⁸.

Izan ere, bakearen eta segurtasunaren arloetan Kontseilua ez da objektibotasunez aritu arbitro lanetan egia esanda ez genuen halakorik espero. Kontseilua berez erakunde politikoa izan da eta oraindik ere bada. Ez gaitu harritu behar Estatu Batuek haren araudipean aritzeko prest ez egoteak edo bere tropak inoren aginduetara jarri nahi ez izateak; izan ere, Estatu Batuen gastu militarra hurrengo 15 estatuek batera dutenaren adinakoa da. Galdera garrantzitsua da nola lortu Estatu Batuak NBERekiko konprometituta jarraitzea, erakunde estatubatuarren kanpo politikaren tresna hutsa bilakatu gabe.

Iraken izandako arrakasta militarren ondorioek –han-hemengo lapurretak, mendekuhilketak eta okupazio militarrekiko erresistentzia– erakutsi dutenez, garrantzitsua da estrategia militarrek eta politikoak batzea estatu galtzaile batean erakundeak berreraikitzeke. Barrutik zatituta edo deseginda dagoen estatua berreraikitzeak eskatzen dituen baldintza berberak eskatzen ditu. Estatu Batuek eta bere koalizioko kideek denbora gehiago eman zuten gerra irabaztea planifikatzen bakea nola irabazi planifikatzen baino. Hala erakusten dute hainbat gertakari: Berreraikuntzarako eta Gizabidezko Laguntzarako Pentagonoaren Bulegoa (ORHA) hilabete baino gutxiago egon zen abian Iraken Jay Garner Jeneral erretiratuaren agindupean, eta tropa irakiarrak gailendu ondorengo asteetan soldadu estatubatuarren kopurua murriztu eta ondoren gehitu egin zuten²⁹.

Ezinbesteko nazioa

Irailaren 11ko atentatuak gertatu eta urtebetera Etxe Zuriak inguru estrategiko berriaren aurrean emango zuen erantzun politiko nagusia azaldu zuen. *National Security Strategy*–Segurtasun Nazionalerako Estrategia– delakoaren zatirik handienak prebentziozko esku-hartzea justifikatzen du eta gai horretan sakontzen du. Estatu Batuen ahalmena berdindu nahiko luketen aurkariak atzera eginarazteko politika ezagunarekin batera, parekorik ez duen estatusa onartzen die AEBei: beste estatuetan indarrean dagoen nazioarteko zuzenbidetik at aritzeko aukera³⁰. Baina era berean dokumentuak azaltzen duenez, gaur egun Estatu Batuak mehatxatzen dituztenak ez dira inongo itsaso-armadak edo bestelako armadak, «garraztutako gutxi batzuen esku egon litezkeen teknologia suntsitzaileak» baizik. Halako munduan, Estatu Batuen interesei begira mehatxu handiagoa dira estatu galtzaileak estatu irabazleak baino³¹.

National Security Strategy delakoak jasotzen dituen ideietako asko ez dira berriak. Ildo horretan 1992an, Bushen aurreko agintaldiaren bukaeran, Defentsaren Planifikazioaren Norabidea izango zenaren zirriborroa isilean kaleratu zuten, eta bertan aldebakarreko mezua aldarrikatzen zen³². Bitxia da kontua: dokumentua Paul D. Wolfowitzek idatzi zuen 1992an, orduko Defentsa idazkariorde eta ondoren Defentsarako Idazkari Laguntzaile izan zenak George W. Bush presidentearen gobernuan, eta onartu, berriz, Dick Cheneyk egin zuen, 1992an Defentsa Idazkari zenak eta ondoren Lehendakariorde izendatu zutenak. Zirriborroak kritika ugari izan zituen, eta ondorioz berridatzi behar izan zuten; dena den, porrot egin zuen administrazioaren agurra izan zen.

Politikak eta teknologiak bat egin zuten burutazio haiei indarra emateko. George W. Bushen lehen egunetan, Lehendakariak bere taldean sartu zituen Gerra Hotzeko gudari ohiak eta Sobietologoak prest zeuden hogeita batgarren mendea Txinari hazten ez uzteko politikaren inguruan egituratzeko-bi aldeko eredu ezaguna eurentzat. Irailaren 11ko atentatuek politika haiek baztertzea ekarri zuten, eta hainbatek diotenez, aurretik ez zuen xede eta misioa eman zioten Bush lehendakariari³³.

Estrategi aldaketarekin batera borrokatzeko gaitasuna ere garatu egin zen. Horrek Afganistango gerra urrutitik kontrolatuz eta hirugarren batzuen bitartez burutzeko aukera ekarri zuen. Martin Shawk adierazi duenez, arriskua eskuz aldatzeko gaitasunak goitik behera aldatu du indarra erabiltzeko erabaki-hartzea eta baita gerrako portaerak moralki neurtzeko modua ere³⁴. Bilakaera horren ondorioz, 90eko hamarkadan murriztu egin ziren operazio militarren atarikoak: Estatu Batuek ustez pairatzen zuten «Vietnamgo sindromea» delakoa. Afganistanen arriskuaren esku-aldatzea ez zen bataila zehatzetan bakarrik gauzatzen, gerraren helburu orokorragoetan ere gertatzen zen-aurreikustekoak ziren emaitzekin. Bere tropak ahalik eta gutxien erabiliz, bere izenean Afganistango tropak erabili zituzten AEBek, eta inoiz baino arma gehiago sartu zituzten jada armaz gainezka zegoen herrialdean. Modu horretan boteretsu egin zituzten Estatu Batuen aldeko taldeak, mamitzen ari zen Hamid Karzairaren erregimenaren aldekoak izan ala ez. Botere-harremanok sendotu egin zituen Premiazko Loya Jirgak 2002ko ekainean. Bazirudien gerrako jaunen eta bestelako tokiko agintarien eskumenak ez zituztela nazioarteko eragileek zalantzan jarriko³⁵.

Irakeko gerra joera horren zuzenketa izan liteke. Gatazka hasi eta urtebetean hildako 500 estatubatuarrek barne, aurreko hamarkadetakoko operazio guztietan baino soldadu gehiago hil litezke Iraken. Aireko indarrek bataila guztiak erabaki ditzaketela zalantzan jartzen du Irakeko gatazkak –jada aipatutako Balkanetako gatazken interpretazio okerra. Gainera, onartua zegoen beste ideia bat ere jartzen du zalantzan: industrializatutako herrialdeek ezin dituztela hildakorik izan. Izan ere, soldaduak arrazoi zehatz batengatik borrokatzen eta hiltzen ari direla uste duenean, iritzi publikoak onartu egin ditzake heriotzok. 90eko hamarkadan AEBen esku-hartze militarren arrazoiak nahasiak izan ziren, ez ziren arrazoi sendoak– 1993ko urrian *Black Hawk* lurrera botatzean 18 soldadu estatubatuar hil eta gero tropak Somaliatik erretiratzea, esaterako. Bi urte igaro dira Irak okupatu zutenetik, eta gero eta zalantza gehiago sortzen ari dira etengabe hildakoak eragiten dituen egonaldia luzatzearen inguruan; hori da, hain zuzen ere, hauteskunde urtea den honetan, Bush lehendakariak aurrean duen arriskurik handiena.

52

Nazio Batuek kontraesankorrak diren printzipio diplomatikoak onartzen dituzte, eta horren adibide da 2003an gerraren inguruan Segurtasun Kontseiluak egindako bileraren gai-ordena. «Irak eta Kuwaiten arteko egoera» azaltzen zen bertan. Gerra Segurtasun Kontseiluaren ebazpenaren onespenez gabe abiaraztea kezagarria izan zen ikuskatzaile askorentzat. Baina suntsipen handiko armak ezkutatzen zituela eta, Kontseiluak bigarrenaz Irak indarrez erasotzeko baimena emateak ekarriko lituzkeen ondorioak are kezagarriagoak izan zitezkeen. Halako armen arrastorik ez aurkitzea –eta gerra hasi baino sei hilabete lehenago Estatu Batuek eta Britainia Handiak adierazitako salaketetatik bat bera ere egiaztatu ez izana³⁶– bigarren mailako arazoa izan da Bushentzat eta gaitzeko moduko arazoa Tony Blair Lehen Ministro britainiarrentzat. Segurtasun Kontseiluaren kasuan, berriz, zalantzan jarriko zukeen halako krisialdiaren aurrean egin zezakeen ekarpen bakarra: legitimitate apurra.

Afganistan eta Irak inbaditzean izugarri gora egin zuen AEBen inperialismoari buruzko adierazpenak ohikoak ziren Vietnamgo gerraren garaian. Baina gaur egungo eztabaida sarritan ez da haien aurkakoa izaten eta ez du haien jarrera zurriz ere. AEBen inperio irudiari egiten zaion ohiko kritika da ez duela bere boterea nahikoa erabiltzen. Michael Ignatieff-ek *Empire Lite* deitu dio fenomeno horri, «indirect rule» (zeharkako gobernu) politika britainiarren antza duen arren³⁷. Hala ere, zeharkako gobernu neurri batean ahuleziarekin lotutako arrazoiengatik gauzatu bazen ere –Nigeria gobernatzeko ezintasunagatik, batez ere–, Estatu Batuen anbibalentzia inperialistaren jatorriari dagokionez, bere tradizio demokratikoetatik, isolatzeko joeretatik eta finkatzen lagundu zituen kolonialismoaren

aurkako arauetik atxikimendutik dator. Egun boterea gauzatzeko modua ezberdina da eta Estatu Batuen potentzial inperialista murriztu egiten du nolabait: AEBen botere militarra paregabea izan liteke, baina bere indar ekonomikoa ez. Ekonomikoki eta kulturalki Estatu Batuen eragina beste inorena baino handiagoa da, baina eragin hori kapitalen eta ideien joan-etorri askearen menpe dago, eta askatasun hori ahuldu egingo luke botere militarrekiko gehiegizko mendekotasunak³⁸.

Egoera alda liteke. Estatu Batuek bere inperioa nola gobernatuko duten eta gero eta globalizatuago dauden arazoei aldebakarreko erantzuna edo alde anitzekoa emango ote dieten ikusi beharko dugu, horrek erabakiko baitu, neurri handi batean, hogeita batgarren mendeko historia. Maquiavelok bere Printzeari aholkatu zionez, hobe da beldurgarri izatea maitatua izatea baino, oso zaila baita pertsona berak bi izaerak biltzea³⁹. Agian sentipen amerikar hutsa izango da Estatu Batuek baino botere gutxiago duten herrialdeek euren menpeko egoera ez dutela salatu behar pentsatzea: borondate ona erakutsiz, Washingtonek guztiok maita genezakeen inperio ona eraiki lezakeela, alegia⁴⁰. Afganistan eta Irak ikuspegi horren inguruan saiakerak egiteko eremu izan litezke.

Ondorioa: prebentzioaren kultura eta bakearen kultura

1999an NATOk Kosovon 78 eguneko ekinaldi polemikoa burutu eta hiru hilabetera aurkeztu zuen bere urteko txostena Kofi Annan Idazkari Nagusiak NBEko Biltzar Nagusian. Modu gordinean azaldu zituen giza eskubideen aurkako eraso sistematiko eta larrien aurrean nazioarteko zuzenbideari lehentasuna eman ziotenen zalantzak:

Nazioarteko ordenaren etorkizunerako mehatxurik handiena Segurtasun Kontseiluaren agindurik gabe indarra erabiltzea dela uste dutenei zera galdetu ahal diegu, ez Kosovoko testuinguruan, baina bai Ruandari begira: genozidioaren aurreko ordu eta egun ilunetan estatu-koalizio bat Tutsiak defenditzeko prest egon izan balitz, baina Kontseiluaren berehalako baimenik jaso izan ez balu, koalizioak, geldirik, izugarrikeria hedatzen utzi beharko zukeen⁴¹?

Dilema hipotetikoak dilema etikoa zuen barruan, bitarteko estatuetako askok azaldu nahi zuten moduan. Nazioarteko zuzenbideak galarazi al dezake halako esku-hartze «humanitarioa»?

Baina hori ez zen Ruandako testuinguruan dilema izan, eta hor dago gakoa. 1994an auzia ez zen nazioarteko zuzenbideak Tutsien alde aritzea galarazten zuen ala ez: arazoa zen inork ez zuela esku-hartzerik burutu nahi, estatu bat ere ez zegoela horretarako prest, alegia. Frantzia, tarteko interesik ezean apenas ezer egiten ez duen herrialdea, *Turquoise operazioaren* bidez esku-hartzeko prest agertu zenean berehalako jaso zuen Kontseiluaren oniritzikoko Ebazpena dena den, Frantziaren benetako arrazoiak susmagarriak zirela erakusten dute ebazpenean «inpartzialtasuna» aipatzeak, emandako bi hilabeteko epeak eta bozketan izandako bost abstentzioek⁴².

Estatu-interesaren aldakortasuna agerikoa izan da esku-hartze humanitarioen historia gorabeheratsuan. Giza eskubideak defenditzeko indar militarren erabileraren zilegitasunaz luze eztabaidatu den arren, zaila da ildo horretan nazioarteko zuzenbidearen garrantzia erakusten duten benetako kasuak adieraztea. Badirudi Ruandan –edo Kosovon– ez esku-hartzeko estatuek hartutako erabakiaren atzean ez dagoela bakarrik legezko zigorrari dioten beldurra. Sarritan «benetako» esku-hartze humanitarioen adibide diren gertakariak juristen iritziz ez datoz bat doktrina horren printzipioen artikulazioarekin.

Idazkari Nagusiaren analogiari helduz, gaur egun giza eskubideek dituzten arazo motak ez dira Kosovori dagozkionak, Ruandako ereduak baizik. Hau da, arazoa ez da esku-hartze humanitarioaren zilegitasuna, baizik eta nagusitu den esku-hartzerik eza. Testuinguru honetan Nazio Batuen Erakundeak boterea izan dezan, kide diren estatuek borondate politikoa erakutsi beharko dute eta arau juridiko berriak abiarazi. Ildo horretan, azpimarragarria da Esku-hartzeari eta Estatuaren Subiranotasunari buruzko Nazioarteko Batzordeak egin duen diskurtso aldaketa: esku-hartzeko «eskubidetik» babesteko «ardurara» igaro baita. Nazioarteko harremanen arlo eztabaidatsu honetan lorpen garrantzitsuen erakusgarri izan liteke⁴³. Dena den, azken bi urteotako gertakariak erakutsi dutenez, esku-hartzeko gogoak –nolabait esatearren– bere alde onak eta txarrak ditu.

Bake-eskubidea, baldin badago, prebentzioaren kulturaren araberakoa izango da. Boteretsuak ahulenak ere badirela sentitzen duten mundu honen arazoari erantzuteko modua da, eta ez da perfektua, badakigu. Baina Nazio Batuen Erakundea ere perfektua ez den erakundea da, perfektua ez den mundu honetan bakea gordetzeko ardura duena.

Hitzaldiaren inguruko oharrak

¹ Ikus «Secretary-General Names High-Level panel to Study Global Security Threats, and Recommend Necessary Changes, SG/A/857 NBE dok. (2003ko azaroaren 4a), hemen eskuragarri: <http://www.un.org/News/Press/docs/2003/sga857.doc.htm>

² Hohfeldek oso ondo bereizten ditu «eskubide» hitzaren bi erabilera, independenteak direnak: (i) galdegiteko eskubidea, betebeharra korrelatibo duena, eta (ii) pribilegioa dena, ez-eskubide bati dagokiona eta ez betebeharrari bati –hau da, zerbait ez egitea galdegiteko eskubiderik eza–. Gizakiaren bake-eskubidea bigarren kategoria horretakoa litzateke. Ikus Wesley Newcomb Hohfeld, *Fundamental Legal Conceptions as Applied in Judicial Reasoning and Other Legal Essays*, Walter Wheeler Cook (ed.), Yale University Press, New Haven, 1923, 27-64.

³ Douglas Roche, *The Human Right to Peace*, Novalis, Ottawa, 2003, 230.

⁴ Federico Mayor, *The Human Right to Peace*, hemen eskuragarri: www.unesco.org/general/eng/whatsnew/decl.eng.htm

⁵ Biltzar Nagusiaren 53/25 Ebazpena (1998).

⁶ James Rubin, «A Very Personal War: Countdown To A Very Personal War», *Financial Times*, 2000ko irailaren 30a.

⁷ Nazioartean bakea eta segurtasuna gordetzeko Kontseiluak duen arduraren inguruan Segurtasun Kontseiluaren Gailurreko Bilerak egindako Adierazpena, S/23500 NBE dok. (1992ko urtarrilaren 31a).

⁸ Nazio Batuen Gutuna, 43. art (1).

⁹ ECOMOG Afrika Mendebaldeko Estatuaren Ekonomi Elkargoko (ECOWAS) Ikuskatzaile Militarren Taldea da. Kongoko Errepublikako Demokratikoan burututako Artemis Operazioa (2003) teknikoki operazio europarra izan bazen ere, Frantzia izan zen burua. NATOk eskuratu zuen ISAFen gaineko kontrola Afganistanen 2003ko abuztuaren.

¹⁰ William J. Durch, «Introduction to Anarchy: Humanitarian Intervention and “State-Building” in Somalia», William J. Durch (ed), *UN Peacekeeping, American Policy, and the Uncivil Wars of the 1990s*, St. Martin's Press, New York, 1996, 311, 321.

¹¹ Trevor Findlay, *The Use of Force in UN Peace Operations* SIPRI&Oxford University Press, Oxford, 2002, 184.

¹² Segurtasun Kontseiluaren 837. ebazpena (1993), 5. paragrafoa.

¹³ John L. Hirsch eta Robert Oakley, *Somalia and Operation Restore Hope: Reflections on Peacemaking and Peacekeeping*, United States Institute of Peace Press, Washington, D.C., 1995, 118 n118; Findlay, *Use of Force*, 196.

¹⁴ Ikus Mark Bowden, *Black Hawk Down: A Story of Modern War*, Atlantic Monthly Press, New York, 1999.

¹⁵ Segurtasun Kontseiluaren 897. ebazpena (1994).

¹⁶ Segurtasun Kontseiluaren 819. ebazpena (1993); Segurtasun Kontseiluaren 824. ebazpena (1993); Segurtasun Kontseiluaren 836. ebazpena (1993).

¹⁷ Segurtasun Kontseiluaren 836. ebazpena (1993) 10. paragrafoa.

- ¹⁸ Jan Willem Honig eta Norbert Both, *Srebrenica: Record of a War Crime* Penguin, Londres, 1996.
- ¹⁹ Ikus, adibidez, Mats R. Berdal, *Whither UN Peacekeeping?*, International Institute for Strategic Studies, Londres: 1993, 39-41.
- ²⁰ *Supplement to An Agenda for Peace*, Idazkari Nagusiaren ponentzia, Nazio Batuen berrogeita hamargarren Urteurrenaren harira egina, A/50/60-S/1995/1 NBEren dokumentua (1995eko urtarrilaren 3a). 1995eko urtarrilean argitaratua.
- ²¹ Ikus, adibidez, Richard Holbrooke, *To End a War*, Random House, New York, 1998, 72-73.
- ²² David M. Malone eta Ramesh Thakur, «Racism in Peacekeeping», *Globe and Mail*, Toronto, 2000ko urriaren 30a.
- ²³ Ikus Nazio Batuetako Bake-operazioen Taldearen txostena (Brahimi txostena), A/55/05-S/2000/809 NBEren dok. (2000ko abuztuaren 21a), hemen eskuragarri: http://www.un.org/peace/reports/peace_operations, 103. paragrafoa. Gaur egun bake-operazioetan ari diren tropen hiru laurdenak baino gehiago garapen bidean diren herrialdeetakoak dira. Segurtasun Kontseiluko bost kideek gutzira bake-indarren ehuneko hirua baino gutxiago ekartzen dute; DPKO, Monthly Summary of Contributors, hemen eskuragarri: <http://www.un.org/Depts/dpko/dpko/contributors>.
- ²⁴ Findlay, *Use of Force*, 301.
- ²⁵ Ikus orokorrean John L. Hirsch, *Sierra Leone: Diamonds and the Struggle for Democracy*, Boulder, CO, Lynne Rienner, 2001.
- ²⁶ Segurtasun Kontseiluaren 1270. ebazpenaren inguruan (1999) Idazkari Nagusiak egindako laugarren Txostena, Nazio Batuek Sierra Leonan burututako misioa ardatz zuena, S/2000/455 NBE dok. (2000ko maiatzaren 19a), 14. paragrafoa.
- ²⁷ «Sierra Leone Lifts Emergency Ahead of Polls», *Agencia France Presse*, 2002ko martxoaren 2a.
- ²⁸ Richard A. Falk, «The United Nations and the Rule of Law», 1994, 4 *Transnational Law and Contemporary Problems* 611, 628.
- ²⁹ Planifikazio falta erakusten duten lehen zantzuak aztertzeko Simon Chesterman eta David M. Malone, «Postwar Challenge: Who Plans for Rebuilding Iraq?», *International Herald Tribune*, 2002ko abenduaren 5a.
- ³⁰ *The National Security Strategy of the United States of America*, Washington, DC: Estatu Batuetako Lehendakaria, 2002ko iraila, hemen eskuragarri: <http://www.whitehouse.gov/nss.html>
- ³¹ *National Security Strategy*, 1.
- ³² «Excerpts from Pentagon's Plan: "Prevent the Re-Emergence of a New Rival"», *New York Times*, 1992ko martxoaren 8a.
- ³³ Ikus orokorrean Bob Woodward, *Bush at War*, Simon and Schuster, New York, 2002.
- ³⁴ Ikus Martin Shaw, «Risk-Transfer Militarism, Small Massacres and the Historic Legitimacy of War», Paul Eden (ed), *International Law After September 11*, Transnational, New York, argitaratzean.
- ³⁵ Chris Johnson et al., *Afghanistan's Political and Constitutional Development*, Overseas Development Institute, Londres, 2003ko urtarrila, hemen eskuragarri: <http://www.odi.org.uk/hpg>
- ³⁶ Thomas Powers, «The Vanishing Case for War», *New York Review*, 2003ko abenduaren 4a.

³⁷ Michael Ignatieff, *Empire Lite: Nation Building in Bosnia, Kosovo, Afghanistan* (Londres: Minerva, 2003).

³⁸ Ikus orokorrean, Joseph S. Nye, *The Paradox of American Power: Why the World's Only Superpower Can't Go It Alone*, Oxford University Press, Oxford, 2002.


³⁹ Niccolò Machiavelli, *The Prince and the Discourses (1531)*, Christian E. Detmoldek itzulia, Modern Library, New York, 1950, XVII. atala.

⁴⁰ Stephen Peter Rosen, «An Empire, If You Can Keep It» (2003), 71 *The National Interest* 51.

⁴¹ Idazkari Nagusiak Batzar Nagusian aurkeztu du bere Urteko Txostena SG/SM/7136-GA/9596 NBE dok., 1999ko irailaren 20a. Hitzaldi hau eta beste batzuk jasotzen ditu Kofi Annan, *The Question of Intervention: Statements by the Secretary-General* argitalpenak, New York: Nazio Batuen Informazio Publikorako Saila, 1999.

⁴² Ikus Simon Chesterman, *Just War or Just Peace? Humanitarian Intervention and International Law*, Oxford University Press, Oxford, 2001, 144-47.

⁴³ Esku-hartzeari eta Estatuaren Subiranotasunari buruzko Nazioarteko Batzordea, *The Responsibility to Protect*, Ottawa: International Development Research Centre, 2001eko abendua, hemen eskuragarri: www.iciss.gc.ca



Giza eskubideak irailaren 11ko gertaeren ondoren

JOANNA WESCHLER AND.
Human Rights Watch



Joanna Weschler Polonian jaio zen baina Estatu Batuetan bizi da 1982. urteaz geroztik. Polonian, Elkartasuna Sindikatuaren prentsa-agentziaren erreportari izan zen, eta Sindikatuko presidente Lech Walesaren eta gobernu komunistaren arteko bilera gehienen berri berak eman zuen, baita sindikatua- ren zuzendaritza exekutiboaren bileren berri ere: krisi-bilera garrantzitsu eta gogorrenetan egoteko baimena izan zuen erreportari bakarra izan zen.

Weschler andrea Nazio Batuen ordezkaria izan da Human Rights Watch-en 1994tik aurrera. Gaur egun New Yorken bizi da eta han egiten du lan New Yorken eta Genevan egoitza duten NBEren erakundeekin.

Human Rights Watch erakundeak postu horretan jarritako lehenengo pertsona izan zenez, Weschler andreak HRWren estrategia garatu eta antolatu zuen Nazio Batuei dagokienez, eta erakunde horren eta Nazio Batuen arteko hasierako harremanak ezarri zituen.

Gaur egun, NBErekiko HRWren estrategia etengabe berrikusten du, eta erakunde horren argitalpenen eduki editoriala azertu, NBEri dagokienez: HRWko langileek NBEren erakundeekin, komunitate diplomatikoarekin eta Nazio Batuen prentsa-organoeekin egiten duten lana gainbegiratu

eta koordinatzea; komunikabideekiko komunikazioa NBEri eta giza eskubideekin loturiko gaiet buruz; ekitaldi publikoetan hizlari izatea eta HRWren ohiko ordezkari Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordean eta NBEk New Yorken, Genevan eta beste hainbat tokitan egiten dituen bileretan.

Egun duen kargua hartu aurretik, Polonian Helsinki Watch erakundearen ikertzaile izan zen (erakunde hori orain HRWren Dibisioa da, Europa eta Erdialdeko Asiarako); Brasilen ere ikertzaile izan zen Americas Watch erakundearentzat (orain Amerikarako HRWren Dibisioa da); halaber, HRWren Espetxe Proiektuaren zuzendari izan da.

Bost kontinenteetako herrialdeetan barrena ibili da giza eskubideei buruzko azterlanak egiten, eta txosten eta artikulatu ugari idatzi ditu giza eskubideen gainean.

Varsoviako Unibertsitateko Espainiera eta Latinoamerikako Ikasketetako titulua dauka, baita Columbiako Unibertsitateko kazetaritza-masterra ere.

CURRÍCULUM

LABURPENA

Irailaren 11n era dramatikoan aldatu ziren giza eskubideak urratzeko modua eta giza eskubideen aldeko lana egiten den testuingurua. Giza eskubideen printzipiorik oinarritukoenei eraso egiten diete, bai terroristek, bai gobernuek; izan ere, gobernuek terrorismoaren aurka ezartzen dituzten neurriek giza eskubideei buruzko arauak larriki urratzen dituzte eskuarki. Kezka horietako asko berriak ez diren arren, Estatu Batuen aurka 2001ean izandako atentatuen ondoren, urraketak larriagotu egin dira, eta dimensio transnazional eta globalizatua dute. Gainera, 2001eko irailaz geroztik, gobernuek, terrorismoaren aurkako neurriak drakonianoenak hartzeko askatasuna izateaz gain, horrelako neurriak hartzea behartuta daude, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren agindu bati jarraiki. 2001eko irailaren 11ko atentatuen ondoren, mundu osoko gobernuek ez-ohiko neurriak baliatu dituzte eta modu oportunistan erabili dute terrorearen aurkako gerra deiturikoa, barne-aurkariaren errepresioa justifikatzeko. Terrorismoaren aurkako borrokaren izenean egindako abusuak dagokienez, Human Rights Watch erakundeak honako hauek dokumentatu ditu: atxiloteta luzeak; inkomunikazioa epaileak gainbegiratu gabe; torturak jasateko arriskua duten pertsonak transferitzea, itzultzea, estradititzea eta herrialdetik botatzea; elkartzeko askatasunerako eskubideak eta diskriminaziorik ezako printzipioa urratzen dituzten segurtasun-neurriak hartzea. Herrialde askotan, terrorismoaren definizio nazionalak ekintza baketsu eta legitimoak biltzen ditu, eta, eskuarki, adingabeen eta helduen arteko bereizketa ezabatu egiten da. Gainera, herrialde askotako estatuko segurtasun-departamentuei bilatzeko, atzitzeko eta atxilotzeko ahalmen gehigarriak eman zaizkie, eta, zenbait herrialdetan, gerra-egoerarako lege askoz murriztaileagoak kontuan izan dituzte, gatazka armaturik ez duten arren.

60

Ezer gutxi egiten ari da segurtasun-neurri horiek estatuen nazioarteko betebeharren arabera izatea bermatzeko, betiere giza eskubideei buruzko legediari, nazioarteko zuzenbide humanitarioari eta errefuxiatuaren eskubideei jarraiki. Gainera, gobernuek –eta bereziki mendebaldeko demokrazia jakin batzuek, lehen giza eskubideak irmo defendatu eta, zenbait kasutan behintzat, beren eragin politiko handia mundu osoko herrialdeetan giza eskubideei buruzko hobekuntzak txertatzeko presioa egiteko baliatu zutenek– egin dizkieten kritikak isilarazi dituzte, eta, are gehiago, munduan abusu gehien egiten dituzten gobernu batzuentzako laguntza gehitu dute, herrialde horiek terrorismoaren aurkako aliatu bihurtuta.

Gobernuz kanpoko mugimendua azkar konturatu da terrorismoaren aurkako munduko borroka datozen urteotan eragin ukazina izango duela bere lanari dagokionez. Erronka horri hainbat frontetan erantzun die: zenbait lurraldetan gertaeren eta kasuen jarraipena eginez eta gertaera eta kasu horiek ezagutaraziz; NBEko hainbat eragileren aurrean presioa eginez, eta gobernu demokratikoei giza eskubideak urratzen dituztenen aurkako kritikak ez isiltzeko eskatuz, orain terrorismoaren aurkako borrokan aliatuak direlako argudioa baliatuta. Litekeena da etorkizun hurbilean giza eskubideen aldeko gobernu kanpoko mugimenduak kontuz ibili behar izatea; izan ere, ziurtatu behar da giza eskubideen alorrean nazioarteko zuzenbidearen corpusa eta mundu guztiak onartutako printzipioen multzoa finkatzeko urte luzeetan egindako etengabeko lana ez duela «terrorismoaren aurkako gerrak» suntsituko.»

Giza eskubideak irailaren 11ko gertaeren ondoren

Irailaren 11n era dramatikoan aldatu zen giza eskubideak urratzeko era, baita giza eskubideen alde lan egiteko testuingurua ere. Esan genezake terrorismoaren aurkako gerra deritzona giza eskubideak urratzeko funtsezko faktorea bilakatu dela mundu zabalean. Leku askotan, giza eskubideen printzipiorik oinarritzkoenak erasoak jasaten ari dira, bai terroristen aldetik, baita gobernuen eskutik ere, azken horiek terrorismoaren aurka aurrera eraman ohi dituzten neurriek sarritan larriki hausten baitituzte giza eskubideen alorreko arauak. Kezka horietako batzuk berriak ez badira ere, 2001. urtean Amerikako Estatu Batuen aurka egindako erasoan ostean haien larritasuna handitu egin da eta beste dimentsio bat hartu dute, nazioartekoagoa eta globalizatuagoa. Gainera, 2001eko irailaz geroztik, gobernuak terrorismoaren aurka neurririk zorrotzenak hartzeko eskuak libre izateaz gain, Nazio Batuetako Segurtasun-Kontseiluaren agindu baten arabera, neurri horiek hartzea behartuta daude. Ezer gutxi egiten da segurtasun-neurri horiek estatuek giza eskubideen, nazioarteko giza zuzenbidearen eta errefuxiatuen eskubideen alorretan dituzten betekizunen arabera izan daitezkeen. Gainera, gobernuak eta batez ere mendebaldeko zenbait demokraziak –lehenago giza eskubideen defentsa sutsua egin eta, zenbait kasutan behintzat, euren eragin politikoa nabarmena mundu zabaleko lurraldeetan giza eskubideen alorreko hobekuntzak bultzatzeko erabili zutenek– euren kritikak isildu egin dituzte, eta areago, segurtasunaren inguruko laguntza eta sostengua handitu egin dizkiete munduan gehiegikeriarik handienetakoak egin ohi dituzten lurraldeei, terrorismoaren aurkako borrokan aliatu bilakatu direlako.

61

Artikulu honek delako terrorismoaren aurkako gerrak mundu osoko giza eskubideetan nolako eragina izan duen aztertuko du. Azpimarratu beharra dago giza eskubideen inguruko nazioarteko arauak eta nazioarteko giza zuzenbideak argi eta garbi erakusten dutela terrorismoa giza eskubideen benetako antitesia dela eta ezin hobeto azaltzen dutela zergatik ekintza terroristak ez diren bidezko gerra-ekintzak edo bidezko politikak. Legeak argi eta garbi zehazten du gobernuak beren herritarrak indarkeria politikotik babesteko erantzukizuna dutela eta horrelako delituen egileak justiziaren aurrera eramateko nazioarteko elkarlanean jardun behar dutela. Baina, terrorismoaren aurkako borrokan, bestelako muturreko egoeretan bezalaxe, gobernuak herritarrekiko dituzten gainerako eginbeharrak ere bete behar dituzte, hots, bermatu behar dute terrorismoaren aurkako neurriek nazioarteko giza eskubideak, nazioarteko giza zuzenbidea eta errefuxiatuen eskubideak errespetatzen dituztela eta ez dituztela hausten. Legeak ontzat jotzen du segurtasun publikoa bermatzeko salbuespenezko neurriak ezartzea. Baina, larrialdia edozein dela ere, zenbait giza eskubide eta oinarritzko askatasun ezin dira inoiz urratu, adibidez bizitzeko eskubidea, torturarik eta tratu anker, jasangaitz edo iraingaririk ez noitzeko eskubidea eta pentsamendu, kontzientzia eta erlijioaren alorretako askatasunerako eskubidea. Gainera, giza eskubideen inguruko itunek, hala nola Eskubide Zibil eta Politikoetarako Nazioarteko Hitzarmenak, argi uzten dute eskubideak murrizteko edozein neurri zera bete behar duela, besteak beste: izatez salbuespenezkoa eta behin-behinekoa izatea; egoeraren eskakizunetara mugatzea, beraz ez izatea arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio edo jatorri sozialaren arabera diskriminazioaren ondorioa, eta azkenik, nazioarteko eskubideak inposatutako gainerako betebeharrekin bateraezina ez izatea, batik bat nazioarteko gizaldekoko zuzenbidearekin.

Hala ere, 2001eko irailaren 11ko atentatuaren ondoren, mundu osoko gobernuak ezohiko neurriak ezarri dituzte eta delako terrorearen aurkako gerra modu oportunistak batez erabili dute barne oposizioaren aurkako errepresioa justifikatzeko. Human Rights Watchek terrorismoaren aurkako gerraren izenean egindako gehiegikeriei buruzko informazioa bildu du, eta haien artean honako hauek daude: atxiloteta luzeak; ikuskapen judizialik gabeko bakartzeak; torturak jasateko arriskua duten pertsonen transferentzia, itzultzea, estradizioa edo kanporatzea eta elkartzeko askatasuna hausten duten eta diskriminatua ez izateko eskubidea urratzen duten segurtasun-neurriak hartzea. Lurrealde askotan, terrorismoaren definizio nazionalak bakezko eta bidezko ekintzak barne hartzen ditu, eta sarritan, adinez txikikoen eta nagusien arteko muga ezabatu egiten da. Gainera, lurrealde anitzetako segurtasun-sailek bilatu, atzitu eta atxilotzeko botere osagarriak jaso dituzte, eta beste lurrealde batzuk oraindik urrunago iritsi dira eta askoz murriztaileagoak diren gerrako legeak argudiatu dituzte, nahiz eta inolako gatazka armaturen eraginpean ez egon. Hona hemen berriki gertatutako hainbat gertakariaren adibideak, aipatutako arazoak erakusteko.

- 2003ko azaroan, Malaysian, Legebiltzarreko Beheko Ganberak, oposizioko legebiltzarkideen eta giza eskubideen aldeko bertako taldeen protesta eta kritikei muzin eginda, Kode Penalari egindako zuzenketa onartu zuen. Zuzenketa horrek, askoren hitzetan terrorismoaren legea zenak, botere handiagoak eman zizkien gobernuari eta poliziaari. Askok lege hori gaitzetsi egin zuten, irismen luzeegikoa eta definizioetan zehaztugabea zelakoan. Lege horren arabera, poliziaak gizabanako bat atxilotu ahal du, horretarako agindurik ez eduki arren, terrorismoarekin lotuta egoteko susmagarria baldin bada; halaber, inoren ondasunak konfiskatu eta «helburu» diren pertsonak, ibilgailuak edo lekuak arakatu ahal ditu agindu judizialik gabe, eta baita 10 urtetik gorako edonor ere miatu eta biluztu ahal du. Gainera, kazetariak, abokatuak eta kontulariak heriotza-zigorrekin kondenatu ahal dituzte, euren lanbide-jardueraren bitartez terroristak «lagundu edo bultzatu» egiten dituztela ohartuz gero. Legeak jasotzen duen terrorismoaren definizioa bera ere kezkatzeko arrazoia da, askoren iritziz zabalegia baita. Hala, legeak esaten badu ere «defentsa, protesta, ezadostasuna eta ekintza industrial» salbuetsita daudela, xedapen hori saihesteko bidea ere zabaltzen du, baldin eta «ekintzak kalte handia eragiteko» edo «osasun eta segurtasun publikoetarako arrisku handia sorrarazteko helburua badu».

Ekimen horretako benetako alderdi kezagarria zera da, National Human Rights Societyko (HAKAM) idazkari nagusi Elizabeth Wongek Interpress Serviceri adierazi zionez: «[...] gobernuak terrorismoaren aurkako legeak baliatzeko arriskua dago, lege horren bitartez zigorrak zorrotzagoak direlako eta frogaren karga askoz errazagoa delako. Legeak tarte zabala ematen dio gobernuari ezadostasun politikoa deuseztatzeko».

- Suediako agintariek hasiera batean erabaki zuten Egiptoko herritar batek, Ahmed Hussein Mustafa Kamil Agizak, 2000ko irailean Suedian asilo politikoa eskatu zuenak, beharbada jazarpena jasan zezakeela berriro ere Egiptora eramanez gero. Hala ere, Suediako polizia Inmigrazio-Kontseiluari emandako isilpeko informazioen arabera, Agizaren kasuak segurtasun nazionalerako arazoak ekar zitzakeen, lehenago Egiptoko epaitegi batek epaitu eta hogeita bost urtera zigortu zuelako terrorismoarekin lotutako karguengatik, epaiketa egin zenean Agiza Egipton ez egonda ere. Informazio horretan oinarriturik, agintariek Agiza Egiptora egozteko erabaki zuten. Agizaren aurkako isilpeko frogak ez zizkieten jakinarazi ez berari ez bere abokatuari, eta Agizak ez zuen Suediaren babesetik kanpo uzteko erabakiaren edo lurraldetik egozteko aginduaren

aurkako errekurtsorik aurkezteko aukerarik izan. Egipton bi urtez egon da espetxean eta, orain arte, ez dago inolako epaiketarik aurreikusita. 2003an, Suediako agintariek atzera bota zuten Agizaren emaztearen eta bost seme-alaben asilo-eskaera, nahiz eta agintariek inoiz ez duten arrazoitu familia hori segurtasun nazionalerako mehatxagarria denik. Hori Nazio Batuetako Errefuxiatuentzako Goi Mandataria-
ren jarraibideen aurka doa; izan ere, jarraibide horien arabera, asilo-eskatzaile nagusia baztertu arren, ez da haren familia zertan bazterturik, errefuxiatu-estatusaren eskabidea banaka erabaki behar baita. Senideak soilik bazter daitezke baldin eta haietako bakoitza ere baztertzeko moduko delituen errunduna izan daitekeela uste izateko ganorazko arrazoiak badaude.

- 2003ko azaroan, Maher Arar izeneko siriar-kanadar herritarrak publikoki adierazi zuen Siriako espetxe batean torturak jasan zituela, New Yorkeko aireportu batean pasadizoan zegoela Estatu Batuetako funtzionarioek atxilotu eta siriar agintarien esku utzi eta gero. Arar Kanadara itzultzeko bidaian zebilen 2002ko irailaren 26an, Tunis bere familiarekin oporrak igaro eta gero. New Yorkera iritsi zenean, Ararek zenbait orduz itxaron behar zuen, Montrealera hegazkinez hegan egin aurretik. Hala ere, inmigrazio-gunera iristean, alde batera eraman, argazkiak atera eta hatz-markak hartu zizkioten. Maletak arakatu, Kanadako pasaporteak fotokopiatu eta Estatu Batuetako FBIko nahiz New Yorkeko polizia saileko (NYPD) funtzionario talde batek galdekatu egin zion. Arari ukatu egin zioten telefonoz deitzeko eta abokatua edukitzeko eskubidea, eskubide hori AEBetako herritarrek soilik baitute, bertako funtzionarioek azaldu ziotenez gertatzen ari zenaren inguruko inolako azalpenik eman gabe. Arar bilurtu eta atxilotzeko zentro batera eraman zuten. Bertan galdekatzen jarraitu zuten eta 24 orduz ez zioten jatekorik eman. Ondoren, gertuko espetxe batera eraman zuten. Bost egun geroago, bere amaginarrebari bi minutuko telefono-deia egiteko baimena eman zioten. Ondoren, funtzionarioek ea Kanadara ala Siriar erbesteratzea nahiago zuen galdetu ziotenean, Ararek argi eta garbi erantzun zien Kanadara hobesten zuela, Sirian torturak jasango zituelakoan. Hala ere, funtzionarioek Siriar erbesteratzea erabaki zuten, Inmigrazioko zuzendariak hala erabaki zuela argudiatuz.

Gauminean, Siriar Jordaniatik zehar zihoan hegaldi batean sartu zuten. Ararek egindako adierazpenaren arabera, Jordania eta Sirian torturak jasan zituen. Hamar hilabete igaro zituen Sirian, bakartuta eta torturak jasaten, baldintza jasanezinetan eta galdeketak behin eta berriro egiten zizkiotela. Siriako funtzionarioek lortu nahi zuten Ararek Afganistango terroristak entrenatzeko esparruetan egona zela aitortzea, nahiz eta berak ziurtatu lurralde hartan sekulan ez zela egon. Abuztuaren 19an, Ararek aitortpen bat idatzi eta sinatu zuen, Afganistango entrenamendu-esparru batean egona zela onartuz. Urriaren 5ean epaitegiaren aurrera eraman zuten eta haren aitortpena ozenki irakurri zuten. Arari ez zioten beraren aurkako karguen berri eman eta irakurtzerik ere izan ez zuten agiri bat sinatzera behartu zuten. Beranduago, askatu eta Kanadara eraman zuten; 2003ko urriaren 6an iritsi zen hara.

Estatu Batuetako telebistako «60 Minutes» izeneko programaren arabera, Arar erbesteratzeko erabakia AEBetako Justizia-Saileko goreneko mailan hartu zuten, AEBetako Justizia Ministro John Ashcroften laguntzaile ohi Lary Thompsonnek sinatutako agindu batez. Ashcroftek azaroan egin zuen kasuari buruzko adierazpen publiko bakarra, argudiatuz AEBek amerikarrak babestearren erbesteratu zutela Arar, eta horretarako eskubide osoa zutela.

Giza eskubideetarako kezka gehigarri bat, irailaren 11ko gertakizunen ostean, gerraren eta bakearen kontzeptuen arteko haustura izan da; horren eragilea Bushen administrazioa izan da, behin eta berriro errepikatzen duelako terrorismoaren aurkako ekintza guztiak gerra baten parekoak direla¹. 2001ko atentatuetatik gutxira Bushen iragarri zuenez, «Terrorearen aurka egingo dugun gerra iraganeko bataila-eremuetatik eta lehorreratzeko hondartzetatik haratago iritsiko da. Terroristak non ezkututzen diren, lasterka dabilzan edo euren ekintzak prestatzen ari diren, hantxe gauzatuko da gerra». Hala, «gerra» hitzaren erabilera metaforikotik –AEBetako «drogen aurkako gerrarekin» gertatu den bezala, hainbat hamarkadatan termino hori egoera dramatizatzen eta babes publiko handiagoa lortzeko erabili baita– egiazko erabilera iragarri da Al Quaedaren aurkako borroka dela medio, eta horrek legezko eragin larriak izan ditu giza eskubideetarako. Baketik gerrara igarotzen denean, gobernu batek alde batera uzten ditu legea betearazteko, atxilotu eta atzitzeko edo indar hilgarria erabiltzeko arau zorrotzak, giza eskubideen alorreko nazioarteko arauen arabera betebeharrak islatzen dituztenak, eta gatazka armatuari dagokion beste arau-sistema permisiboago batera igarotzen da, azken hori nazioarteko gizaldero zuzenbideak kodifikatua. Adibidez, legea aplikatzeko araudiaren arabera, susmagarri bat atxilotzen denean, errua egotzi eta epaitu egin behar da. Poliziak ezinbestean soilik erabil dezake indar hilgarria, oso hurbil ikusten badu bera hiltzeko edo larri zauritzeko mehatxua. Aitzitik, gerraren araudiaren arabera, borrokalari bat atxilotuz gero, gatazka amaitu arte bahituta eduki daiteke, kargurik egotzi eta epaitu gabe. Eta borrokalari etsai bati tiro egin lekiok aurrez ohartarazi gabe –ezindua edo atxilotuta bada edo errenditzen ari bada izan ezik–, mehatxua hurbil egon edo ez egon.

Gerraren eta bakearen kontzeptuen artean bereizteko marra ezabatzeak oso ondorio errealak eta larriak ekarri ditu berekin. Terrorismoaren aurkako borrokalari lotutako «gerra» hitzaren erabilpen literalaren ondorioz, Bushen administrazioak esan izan du lehendakariak, gerrako garaian armada-buru den aldetik, «terrorismoaren aurkako gerran» nahikoa boterea duela berak «borrokalari etsaitzat» jotzen duen edonor denbora mugagabea eta kargurik gabe atxilotzeko. Izan ere, gerrako legeen arabera harrapatutako borrokalariak gatazka amaitu arte atxilotuta eduki daitezkeenez gero, terrorismoaren aurkako gerra batek ere, nolahi adierazita eta helburu argirik gabe eginda ere, atxilotuak denbora mugagabea edukitzea ahalbidetzen du.

- 2002ko urtarrilaren 11tik, Estatu Batuetako gobernuak zazpiehun pertsona baino gehiago bidali ditu Guantanamo Badiako (Kuba) kokatutako AEBetako itsasontzi-base batera, haietatik gehienak Afganistango gerran zehar edo gerra amaitu bezain laster atzemandak. Atxilotuak aurrenik bat-batean egindako karioletan giltzaperatu zituzten, eta gero aurrefabrikatutako eraikinetako ziegetan. Bushen administrazioak ez du baimenik eman senitartekoei, abokatuak edo giza eskubideetako taldeek, ezta Human Rights Watchek ere, basea edo atxilotuak bisitatzeko. Base militarra bisitatzeko baimena lortu zuten komunikabideek ezin izan zuten presoekin hitz egin. Gurutze Gorriko Nazioarteko Batzordeak (ICRC) bakarrik lortu zuen atxilotuak bisitatzeko oniritzia –baina Gurutze Gorriaren funtzionatzeko metodo konfidentzialek eragotzi egiten diote atxilotzeko baldintzen berri publikoki ematea–. Guantanamo espeteratuen artean oso gizon edadetuak daude eta baita hainbat ume ere, haietakoren batzuek hamahiru urte besterik ez dituztela.

AEBetako administrazioak epaitegi militarrik sortzea ere baimendu du, estatubatuar herritarrik ez diren ustezko terrorismo-ekintzen erantzuleak epaitzeko hain justu. Proposatutakoaren arabera, epaitegi horiek ez dituzte bidezko epaiketa baten oinarriko baldintzak bermatzen, hala nola defentsa eta epaitegiaren gaineko berrikuspen judizial independentea

izateko aukera. Giza eskubideetako erakundeek epaiketa horietan egon ahal izateko egindako eskariak ere atzera bota ditu Pentagonoak.

Estatu Batuetako 2001ko atentatuetatik denbora gutxira, 2001ko irailaren 28an, Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak 1373. Ebazpena onartu zuen. Agiri horrek arreta berezia merezi du hainbat arrazoiengatik. Hala, VII. Atalak ematen dizkion botereei esker, Kontseiluak terrorismoari aurre egiteko zigor, finantza eta administrazioaren alorretako neurri bereziak hartzeko baimena eman zien NBEko estatu kideei. Nolabait, ituna idatzi eta berresteko prozesu luzea alde batera utzita, ebazpenak zenbait elementu jaso zuen, egoera arrunt batean, itun baten edo batzuen osagarriak izango liratekeenak eta, mugimendu azkar batez, elementu horiek lotesle bilakatu zituen estatu guztientzat, haien iritziak aintzat hartu gabe. 1373. Ebazpena luzatu egiten da gobernuek egin behar dutenari buruz, baina ez du ia ezer esaten egin behar ez dutenari buruz, eta ez du esaten gobernuek nola bermatu behar duten nazioarteko eginbeharrak betetzen dituztela, hau da, orokorki, hainbat itun, eta bereziki, giza eskubideetako eta gizaldekko zuzenbideko arauak betetzen dituztela.

Bete beharreko neurrien artean ondoko hauek daude:

Terrorismoaren finantzaketa galaraztea, besteak beste, ekintza terroristak burutzen dituzten, burutzeko ahaleginak egiten dituzten, haietan parte hartzen duten edo errazten dituzten pertsonen diru-funtsak eta gainerako finantza-aktiboak nahiz baliabide ekonomikoak blokeatuz.

Legean ekintza terroristak delitu larri gisa tipifikatzea, legezko beste barne-tresna batzuk ezartzea eta jasotzen diren zigorrak ekintza terroristen larritasunaren neurrikoak izatea.

Neurri egokiak hartzea errefuxiatu-estatutua eman aurretik, asiloa eskatu duenak ez duela ekintza terroristarik prestatu edo erraztu eta horietan ez duela parte hartu ziurtatzeko.

Terrorismo-ekintzak burutzea eragozteko beharrezko neurriak ezartzea.

Ebazpenak ekintza terroristak laguntzen dituzten edo horietan nahastuta dauden gizabanakoen nahiz erakundeen aurkako zigor, finantza eta administrazioaren alorretako neurriak eskatzen ditu. Baina ekintza horietako batzuk interpretazio zabala dutenez gero, zenbait gobernuk ekintza horiek har ditzakete, eta beraz hartu egiten dituzte, barne-oposizioaren aurka, bai gizabanakoen aurka baita erakunde osoen aurka ere.

1373. Ebazpenak aipamen bat bakarrik egiten du giza eskubideen alorreko nazioarteko arauak betetzeko beharrari buruz: 3. (f) paragrafoan, estatuei eskatzen zaie ziurtatzeko asiloa eskatzen dutenek ez dutela prestatu edo erraztu ekintza terroristarik eta horietan ez dutela parte hartu.

Giza Eskubideen aldeko erakundeek, baita Nazio Batuetako Giza Eskubideetarako Goi Mandatariak eta NBEko alor bereko hainbat adituk ere, berehala ikusi zituzten 1373. Ebazpenak arriskuak zekartzala giza eskubideetarako eta alarma hotsa zabaldu zuten Kontseiluaren aginduak jasotzen zituen segurtasun-neurri berri eta berezien inguruan. Ildo horretatik, ahots horietako bat, ozen bezain aldaezina eremu horretan, Nazio Batuetako Idazkari Nagusi Kofi Annanena izan da; berak behin eta berriro ohartarazi zuen giza eskubideak segurtasunarekin konpentsatzen saiatzeko arriskuaz eta, esan zuenez, kaltegarria izango litzateke terrorismoaren aurkako borrokaren prozesuan beste lehentasun batzuei uko egitea, hala nola giza eskubideei. Era berean, zehaztu zuenez, terrorismoaren aurkako borrokaren ondorioz giza eskubideak

baztertuz gero, urrats hori berez garaipena izango litzateke terroristentzat, haientzat lortu ezinezko ametsak baino garaipen hobea hain zuzen. Iruzkina horiek bere txosten batzuetan agertu ziren eta hainbat aldiz aipatu zituen oso era sinesgarrian NBEko erakundearen aurrean, baita Segurtasun Kontseiluaren eta Giza Eskubideetarako Batzordearen aurrean ere.

Giza Eskubideetarako Batzordeak, alor horretan diharduen munduko erakunde politikorik garrantzitsuenak, irailaren 11ren ostean egindako lehenengo saioan, ez zuen aztertu terrorismoaren aurkako neurriek giza eskubideetan izan zezaketen eragina. Horren arrazoia, neurri handi batean, Estatu Batuek egindako oposizioa izan zen, India, Pakistan, Algeria eta Saudi Arabiak lagunduta, lurralde horiek ere ez baitzuten nahi terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak babestu beharra zegoela jasotzen zuen ebazpenik. Kontu horri Nazio Batuetako erakunde batek ere ez zion formalki heldu 2002ko azarora arte. Orduan, Nazio Batuetako Biltzar Nagusiak egindako 57. saioan erabaki bat hartu zuen, «Terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak babesteko²». Mexikok proposatutako ebazpen horrek azpimarratzen duenez, ezinbestekoa da estatuek giza eskubide, errefuxiatuen eskubide eta nazioarteko gizaldekoren zuzenbidearen inguruko legezko eginbeharrak betetzea. –Giza Eskubideetarako Batzordeak bide horri jarraitu zion eta antzeko ebazpena hartu zuen bere hurrengo saioan³–.

2003ko urtarrilean, Mexikok, garai hartan Segurtasun-Kontseiluko kidea baitzen, lan erabakigarria egin zuen Kontseiluak beste printzipio garrantzitsu bat berrestea lortzeko. «Segurtasun-Kontseiluaren adierazpena terrorismoaren aurkako borrokari buruz» izenekoak, Segurtasun-Kontseiluaren 1456. Ebazpenean jasota eta Kontseiluko kide diren estatuetako Kanpo Arazoetarako Ministroen bilera batean erabakita, oso xedapen garrantzitsua ezarri zuen, aurreko ebazpenak aurreikusten ez zuena. Aipatutako 1456. Ebazpenak, 6. paragrafoan, zera dio: «Estatuek egiaztatu behar dute terrorismoaren aurka borrokatzeko hartzen dituzten neurriek nazioarteko zuzenbidearen aldetik dagozkien beharrak errespetatzen dituztela, eta neurri horiek nazioarteko zuzenbidea betetzeko hartu behar dituzte, batez ere giza eskubideei, errefuxiatuen eskubideei eta gizaldekoren zuzenbideari dagozkien arauak betetzeko.»

Ez zen gauza erreza izan Segurtasun-Kontseiluaren ebazpen batean giza eskubideen aldeko interesak eta terrorismoaren aurkako neurriak uztartzea, Kontseiluak errezelo handia baitzuen terrorismoaren inguruko ikuspegian giza eskubideen gaia sartzeko.

2001eko udazkenean, 1373. Ebazpenak erakunde bat sorrarazi zuen, Terrorismoaren Aurkako Batzorde (CTC) deitutakoa, ebazpen hori abian jartzen zela gainbegiratzeko eginkizunarekin. Era berean, agindu zuen gobernuak txosten bat bidali behar ziotela CTCri 90 eguneko epean, eta ordutik aurrera, aldizka, 1373. Ebazpena ezartzeko hartutako neurrien berri emateko. CTC Segurtasun-Kontseiluko kide guztiek osatzen dute eta hasierako lehendakaria Sir Jeremy Greenstock izan zen, garai hartako Erresuma Batuko enbaxadorea NBE-n. 2003ko apiriletik aurrera, berriz, lehendakaria Espainiako enbaxadore Inocencio F. Arias izan da.

Nazio Batuetako Giza Eskubideetarako Goi Mandatariak, 1373. Ebazpenak mundu osoko giza eskubideetan izan zezakeen eraginaz kezkatutik, Batzordea abian jarri bezain laster harekin hitz egiteko eskatu zuen. Hala, New Yorkeko Goi Mandatariaren Bulegoko zuzendaria CTCren aurrean aurkezpen bat egitera gonbidatu zuten 2001aren bukaeran eta, aste batzuk geroago, Goi Mandatariak berak CTCri eman zion bere kezka berri. Nazio Batuetako Giza Eskubideetarako Goi Mandatariak adierazi zuen komenigarria izan zitekeela estatuei orientabidea ematea, ebazpenaren aplikazio okerra eta, horren ondorioz, giza eskubideak urratzea eragozteko. Goi Mandatariaren Bulegoak agiri bat prestatu zuen,

CTCk lehenago estatu kideei 1373. Ebazpena abian jartzeko eta txostenak eskatzeko argibideekin bidalitakoa osatuko zuelako itxaropenarekin, CTCren agiri horrek ez baitzuen giza eskubideei buruzko aipamenik ere egiten. Goi Mandatariak espero zuen lau orriko «orientabide gehigarri» hori CTCren agiri ofizial bihurtuko zela eta estatu kide guztiei helaraziko zitzaizela, haien analisi eta txostenetan giza eskubideen ikuspegia sar zezaten eskatzeko. Hori ez zen gertatu, ordea, CTCren oposizioagatik –adostasunez funtzionatzen baitu eta kide bakar baten ezadostasuna aski baita ekimen bat atzera botatzeko–. Goi Mandatariaren eta giza eskubideen aldeko taldeen beste iradokizun bat CTCko pertsonalaren artean gutxienez giza eskubideen alorreko aditu bat egotea izan zen. Horrek ere ez zuen aurrera egin.

CTCren lanari buruzko prentsaurreko batean, NBEren egoitzan, kazetari batek Greenstock enbaxadoreari galdetu zion ea lurralderen batzuk ez ote ziren 1373. Ebazpenaz baliatuko gogoko ez dituzten taldeak erreprimitzeko. Sir Jeremyren erantzuna zera izan zen, Nazio Batuetako beste organo batzuk arduratuko zirela estatuek giza eskubideen aldetik prozesua nola gestionatzen zuten kontrolatzeaz.

Segurtasun-Kontseiluko zenbait kidek –iraunkorrek nahiz hautatuek– behin baino gehiagotan azpimarratu dute CTC ez zela sortu terrorismoaren aurkako gerra deitutakoan giza eskubideen dimentsioaz arduratzeko. Baina 1456. Ebazpena onartu zenez geroztik, giza eskubideen inguruko nazioarteko arauak betetzeko aipamenarekin, Kontseiluak ezin du argudiatu jada terrorismoarekin lotutako kontuetan giza eskubideak bere esparrutik kanpo daudenik.

Hala ere, artikulua idazten ari naizela, nahiz eta 1456. Ebazpenak horren beharra jaso, CTCren barruan gaur egun ez dago terrorismoaren aurkako ustezko gerra horretan giza eskubideak babesteko inolako mekanismorik. Mexikok bultzatuta, CTCk paragrafo bat gehitu zuen estatu partaideei bidalitako gutunean, terrorismoaren aurkako neurrien aplikazioari buruzko galderekin. Paragrafo horrek 1456. Ebazpeneko atal garrantzitsua aipatzen du, baina ez die galdera zehatzik egiten estatuei, terrorismoaren aurkako gerraren testuinguruan giza eskubideen alorreko nazioarteko betebeharrak nola errespetatzen ari diren adieraz dezaten.

Artikulu hau idaztean, Segurtasun-Kontseiluan plan bat eztabaidatzen ari dira CTC erakunde iraunkor bilakatzeko, Nazio Batuetako subsidiarioa, pertsonal profesional horitutua eta Segurtasun-Kontseiluko beste batzorde batzuetako berriazko markotik at funtzionatuko lukeena. Beste batzorde horietako kideak urtero aldatzen dira eta lehendakariak, gehienetan Kontseiluko kide hautatuak, bi urtez behin aldatzen dira. Planaren arabera, organo berriak Zuzendari Exekutibo bat eta pertsonal trebatua izango luke, hogeita aditu barne. Aditu horien artean gutxienez bat giza eskubideen alorrekoa izateko NBEren barrutik eta kanpotik hots ugari egin den arren, planak ez du oraingoz aukera hori jasotzen.

CTC mundu mailako organoa da eta, Nazio Batuetako Gutunaren VII. Atalaren arabera, botere berezien jabe da. Alde horretatik, terrorismoaren aurkako gerra deitutakoaren ikuspegi sakonagoa izan lezake eta izan behar luke, eta terrorismoaren aurkako neurriak indarrean jartzean, neurri horiek ondorio larriak eta irismen luzeak ekartzen dituzten kasuak aztertu behar lituzke.

Oraingoz, terrorearen aurkako borrokak giza eskubiderik ez duela zapaltzen ziurtatzeko ahaleginak, batez ere, giza eskubideen aldeko mugimenduak eta NBEko alor bereko sistemak egin ohi dituzten ikuskatzeko lanetara mugatzen jarraitu behar izango du. NBEren barruan, gaur egun, eskubideak zaintzeko dauden zenbait mekanismok kontu horri heldu diote: Giza Eskubideetarako Batzordeak azken hamarkadetan ezarritako kontalari bereziak

eta lantaldeak, baita giza eskubideei buruzko konbentzio nagusiek sorrarazitako ituneko organoak eta aditu taldeak ere, konbentzio horien aplikazioa zaintzeko ardura daukatenak.

2001eko udazkenetik, kontalari bereziek, taldeka nahiz bakarka, kezka handia adierazi dute beren txostenetan terrorismoaren aurkako borroka giza eskubideen gainean duen eraginaz. Lan hori berariaz egiten ari dira, aipatutako mekanismoetatik, batzuk tematikoak eta beste batzuk zehatzak edo lurraldekakoak, egindako banakako aginduak betez.

Ituneko organoek eskubideen kontu hori Estatu Partaideetatik jasotako txostenetan oinarrituta aintzat hartzen dute, eta txosten horiek estatuei dagozkien itunen arabera aztertu behar dira.

Giza Eskubideetarako Batzordea erakunde aditua da, Eskubide Zibil eta Politikoetarako Nazioarteko Hitzarmena gainbegiratzen duena eta, aldi berean, Estatu Partaideek ituna nola betetzen duten ikuskatzen duena. Batzordeak 2001az geroztik maiz aztertu izan ditu Estatu Partaideek CTCri bidalitako txostenak, Batzordeari ere ikuskatzeko bidali izan baitzaizkio, eta askotan arazoak edo gune kezagarriak identifikatu ditu aztertutako lurraldeetan. Hortaz, Batzordeak bere kezken berri eman zien CTCri eta, 2003an, bi bilkura izan ziren bi erakundeetako ordezkarien artean. Ituneko beste organo batzuek ere, batez ere Arrazaren arabera Diskriminazioa Desagertzeko Konbentzioa eta Torturaren aurkako Konbentzioak ikuskatzen dituztenek, berretsi egin dute terrorismoaren aurkako neurriek eragin kaltegarria izan dutela, estatuak konbentzioak betetzea oztopatu baitute. Hala ere, garrantzitsua da zehaztea ituneko organoek gaia aztertzeko soilik hartzen dituztela kontutan batzorde bakoitzak Estatu Partaideetatik jasotako txostenak, egutegi baten arabera –hau da, zenbait urtez behin– eta txosten horiek estatuei dagozkien itunen arabera aztertu behar direla. Beraz, ituneko organoek urtero ikuskatu ohi dituzten estatuak gutxi izaten dira, eta miatutako lurraldeak ez dira ezinbestean azterketa egitea merezi dutenak, baizik eta egokitzen zaienak.

Goi Mandatariaren Bulegoak laguntza eman die aktibitate horiei eta ikerketak egin ditu munduko terrorismoaren aurkako borroka legezko kontuei buruz. Eremu horretan falta den elementua lurralde zehatz batzuen inguruko ikuskapen eta informazioa da. Horregatik, mundu zabaleko giza eskubideen aldeko erakundeek behin eta berriro eskatu diote Giza Eskubideetarako Batzordeari betebeharrak horretaz arduratuko den aditu bat izenda dezan. Hurrengo asteetan jakingo dugu eskakizun hori beteko den ala ez.


Gobernuz kanpoko mugimendua azkar konturatu da munduko terrorismoaren aurkako borroka datozen urteetan eragin ukalezina izango duela bere lanaren gainean. Erronka horri zenbait frontetan erantzun die: zenbait lurraldetan gertaerak eta kasuak jarraituz eta ezagutaraziz; NBEko hainbat eragileren aurrean presioa eginez, eta gobernu demokratikoei exijituz giza eskubideak urratzen dituztenen aurkako kritikak ez saihesteko, orain terrorismoaren aurkako borrokan aliatuak direlako argudioarekin. Litekeena da etorkizun hurbilean giza eskubideen aldeko gobernuz kanpoko mugimenduak kontuz ibili behar izatea, ziurtatu behar baitu giza eskubideen alorrean nazioarteko zuzenbidearen corpusa eta mundu guztiak onartutako printzipio-multzoa finkatzeko urte luzeetan egindako etengabeko lana ez duela «terrorismoaren aurkako gerrak» suntsituko.


Hitzaldiaren inguruko oharrak

¹ Ikusi: *Informe 2004 de Human Rights Watch*: «Drawing the Line: War Rules and Law Enforcement Rules in the Fight against Terrorism», Kenneth Rothena eta «Above the Law: Executive Power after September 11 in the United States», Alison Parker eta Jamie Fellnerena.

² A/RES/57/219.

³ CHRren, Giza Eskubideetarako Batzordea, 2003/68 Ebazpena.





Bakerako Giza Eskubideak ezarri eta zaintzeko erronkak

VIRGINIA M. BOUVIER AND.

Programa-arduraduna Estatu Batuetako Bakearen Institutuan (USIP)

VIRGINIA M. BOUVIER Estatu Batuetako Bakearen Institutuan (USIP) programa-arduraduna da; erakunde hori independentea da, finantziario federala duela. 1995etik 2002ra, Marylandeko Unibertsitatean Literatura eta kulturako irakasle atxikia izan zen. 1982tik 1989ra, Senior Associate izan zen Washingtongo Latinoamerikarako Bulegoan; bulego horretan AEBen eta Latinoamerikaren arteko harremanak aztertzen zituen, bereziki Txile, Uruguai, Bolivia eta Paraguariri zegokienez. Honako lan hauen argitaratzailea da: *The Globalization of U.S.-Latin American Relations: Democracy, Intervention, and Human Rights*, Praeger Publishers, Westport, Ct., 2002; eta *Whose America? The War of 1898 and the Battles to Define the Nation*, Praeger Publishers, Westport, Ct., 2001).

Hona hemen argitaratu dituen azken lanetako zenbait: “*Civil Society under Siege in Colombia*” (USIPen txosten berezia, 2004ko otsaila); “*En Route To Power: Women and Global Leadership in the Americas*” (*Inter-American Dialogue*-ren txostena, 2004); eta *Women and the Conquest of California, 1542-1840: Codes of Silence*, University of Arizona Press, Tucson, 2001; eta prentsan ere hainbat artikulua eta aipamen bibliografiko argitaratu ditu Estatu Batuen eta Latinoamerikaren arteko harremanei buruz.



CURRÍCULUM

Horretaz gain, V. Bouvier aholkulari eta zuzendari zientifikoa ere izan da Emakumeen Lidergoari buruzko Ameriketako Konferentzian (*Inter-American Dialogue* eta Emakumeari buruzko Nazioarteko Ikerketa Zentroa erakundeen baterako proiektua), baita kontsultore ere, honako erakunde hauetan: Nazio Batuen Garapen Sozialerako Ikerketa Institutuan, Munduk Bankuan, Levi Strauss Fundazioan, Levi Strauss & Co. erakundearen, eta C.S. Fund erakundearen.

LABURPENA

Seguru aski ez da ezer izango gaur egun gure mundua gehiago elkartzen duena bake- eta segurtasun-nahia baino. 100 milioi pertsonak baino gehiagok –horien % 90 zibilak– bizia galdu dute bigarren mundu gerraz geroztik izan diren 170 gerratan. Gatazka armatuek eta gerrek giza eskubideen urratze txarrenetako batzuk eragin dituzte: genozidioa, bortxaketa, tortura, bizilekuz aldaratzea, pobrezia handitzea, eta indarkeria. Gizakien bizitzak eta gizakiei bizirautea eta garatzen laguntzen dieten egiturak –etxeak, eskolak, ospitaleak eta zubiak– suntsitu dituzte.

Txosten honetan, hipotesi gisa proposatzen dut bakea giza eskubide bat bezala aplikatzeko erronka asko daudela, baina horiek gainditu daitezkeela. Garrantzitsua da gerra giza izaeraren ezinbesteko baldintza ez dela jabetuta jardutea. Borondate politikoa eta lidergoa dira, nire ustez, bakerako giza eskubide baten aplikazioa bermatzeko osagairik garrantzitsuenak. Haurrei elkarrizketaren eta bakearen balioa irakasteko hezkuntza-ahalegin handiagoa egin beharra batzen zaie aurreko bi osagai horiei. Azken batean, bakearen benetako kultura baten oinarriak ezartzea da helburua.

Bakerako Giza Eskubideak ezarri eta zaintzeko erronkak

Gure mundua gaur egun gehien elkartzen duena bake-eta segurtasun-nahia izango da seguruenik. 100 milioi lagun baino gehiagok –%90 zibilak– galdu dute bizia 170 gerratan Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik (Carnegie Batzordea, 1997). Gatazka armatuek eta gerrek giza-eskubideen urraketa handienetakoetara eramane gaituzte: genozidioak, bortxaketak, torturak, desplazamenduak, pobrezia gehikuntza eta indarkeria. Gizakiak eta gizakiei bizirik irauteko eta garatzeko aukera ematen dieten egiturak –etxeak, eskolak, ospitaleak eta zubiak– suntsitu dituzte. Pobrezia, arrazismo, ustelkeria, analfabetismo, genero-bazterkeria eta etxe eta lur-faltaren indarkeria instituzionalizatuak ezin izan duen bezala atzitu du gaur egungo indarkeria terroristaren mehatxuak munduko buruzagien eta jendearen irudimena. Baina bakea eta egonkortasuna nagusitzea nahi badugu, gizagabetasun eta gizatxarkeria-baldintza horiei zorrotasun berberarekin egin beharko zaie aurre.

Gure presentziak eta konferentzia honetan erabilitako energiak eta irudimenak bakearen erronkei erantzuteko behar diren irudimen eta inspirazio kolektiboa sortzea espero dugu. Baliteke zereginik premiazkoena bakearen funtzionamenduari buruzko gure ulermena zabalduko duen, bakea praktikara eramateko behar den borondate politikoa nola sortu ebaluatuko duen eta bake aktibo eta bidezkoa lortzeko behar diren oztopo eta gomendioak azalduko dituen marko kontzeptuala sortzea izatea.

75

Txosten honetan hipotesi gisa planteatzen dut bakea giza eskubidetzat hartzeko eta ezartzeko erronkak ugariak baina gaingarriak direla. Erronka kontzeptualak azalduz hasiko naiz. Hona hemen:

Bakearen definizioan argitasunik eza.

Bakeak beste giza eskubideekin eta justizia eta segurtasun kontuekin duen loturarekiko jarrera anbigua.

Legalki bideragarriak diren eskubideen markoaren barruan bakea kontzeptualizatzeko eragozpenak.

Bakea neurtzeko metodologia desegokiak.

Bakea giza eskubide gisa kodifikatu eta ezartzeko estrategiei buruzko adostasunik eza.

Ondoren, gizakien bake-eskubidea aplikatzeko erronka politiko, soziokultural eta ekonomikoak jorratu ditut. Oztopo nagusiak hauek dira:

Estatuko buruzagiek nahikoa borondate politiko edo estimulurik ez izatea bake iraunkorra bermatzeko behar diren aldaketa estrukturalak burutzeko.

Irizpide politikoen arabera, giza eskubideei buruzko arauen aplikazio desberdin eta selektiboa.

Indarkeriaren eta injustiziaren biktimek estatu-mailan erabakiak hartzeko duten botere falta erlatiboa.

Indarkeria eta gerra giza izaeraren berezko ezaugarriak direla aldarrikatzen duen uste kulturala oso zabaldua egotea.

Arma eta azpiegitura militarretan egindako gastuaren bitartez eta gatazka armatuen luzapenaren bitartez sustatzen diren interes ekonomikoak.

Giza eskubideekin zerikusia duten gaiei lotutako politikak lantzeko arduradunen –gobernua, GKEak eta nazioarteko erakundeak– agenda beteegia eta giza eta finantza baliabideen eskasia.

Gatazkak konpontzeko alternatibatzat indarkeria sustatzen duen zigorgabetasun-giroa.

Gero, oztopo horietako bat bera ere ez dela gaindiezina eta gehienek borondate politikoarekin zerikusia dutela baieztatuko dut. Azkenik, bake-eskubidea ezartzeak izan litzakeen abantailak azalduko ditut.

Honenbestez, gizakien bake-eskubidea aplikatzeko oztopo kontzeptualak jorratuz hasi nahiko nuke. Bakearen definizioari buruzko eta bakeak segurtasunarekin eta giza eskubideekin duen loturari buruzko aurre-gogoeta egitea eskatzen du horrek.

Bake-kontzeptua etengabe ari da eboluzionatzen. Zentzu zorrotzanean, bakea gerrarik eza da. Zenbait abantaila estrategiko –gero azalduko ditut– egon daitezke definizio zorrotz hori onartzeko, baina epe luzera, meritu gehiago izan dezake indarkeriazko gatazken prebentziorako mekanismoak sortzen dituen bakearen definizio zabalagoarekin lan egiteak. Demokrazia diktadurarik eza soilik ez den bezalaxe, bakea ere ez da gerrarik eza bakarrik. UNESCOko zuzendari Federico Mayorrek dioenez, bakea gero eta gehiago hartzen da «balio unibertsalean eta balio horiek egunero eta maila guztietan mamitzean oinarritutako epe luzerako prozesu dinamiko eta parte-hartzailatzat» (van Tongeren 1999: 28, 22). Jean Paul Lederach-ek prozesu giza eta harremanen eraikuntzan oinarritzen den aldaketa-egitura gisa definitu du bakea (van Tongeren 1999: 35). Ibaiarekin alderatzen du bakea: bizitzako elkarrekintza aberats biziz betetako gorputza eta bizi-energia horiek bidezidor jakinetan bideratzen dituen egitura da. Bakea, horrela ulertuta, ez da berez helburua, mundu zuzenagorako aldaketa gauzatu dezakeen espazioa sortzen duen bide, garraiatzaile edo prozesua baizik.

Bakea baldintzatuta dago erabakiak hartzeko orduan guztien parte hartze oso eta berdintasunezkoengatik. Kolonbiak hainbat hamarkada daramatza barneko gatazka armatua jasaten eta bakerako eskubide konstituzionala ezarrita duen herrialde bakanetako bat da (1991ko Konstituzioaren 22. art.). Hango Gorte Konstituzionalak askotan finkatu du bakearen definizioa: «Bakea zentzu zorrotzean ulertu behar da, ez aspirazio soil gisa ez utopia baten adierazpen gisa, jokabide-arau gisa baizik» (C-328/00). Frederick Willem de Klerk buruzagi hegoafrikarrak honela deskribatu du jokabide-arau hori: «aldarte-egoera da, eta herrialde, komunitate, alderdi eta norbanakoak akordioen, negoziazioaren eta konpromisoaren bitartez konpontzen ahalegintzen dira euren arazoak, eta ez mehatxu, bortxa eta indarkeriaren bitartez» (Thee 1995: 56).

Gatazkan dauden komunitateek euren herri eta biztanleak zatitzen dituzten indarkeriaren amaiera etsipenez bilatzen duten bitartean, Rigoberta Menchú-k, Guatemalako buruzagi indigenak, honakoa gomendatzen du: «barne-gatazka armatuari hasiera eman ziona konpontzeko bulkada itzulezin izango diren legezko arauak eta arau politikoak ezar ditzatela» (Abrams 1999: 39).

Bake-eskubidea giza eskubidetzat hartuko balitz, unibertsalak, elkarren mendekoak eta baezinak ere badiren beste milaka eskubideekin bat egingo luke. Baina bakeak beste eskubide horiekin duen erlazioa ez dago batere argi. Batzuen iritziz, beste eskubide guztiak osotasunean errespetatu baino lehen existitu beharko litzateke bakea. Kanadako Senatari Douglas Roche-k honela definitu du bakea: «giza eskubide guztien aurrebaldintza garrantzitsuena» (Roche 2003: 4). ACNUD erakundeak, bestalde, honela deskribatu du: «herrialdeen ongizate, garapen eta aurrerapenerako nazioarteko aurrebaldintza nagusia.» (ACNUD, Giza Eskubideen Batzordea, 2001/69 ebazpena). Ameriketako diplomatiko Ralphe Bunche-k ondorengoa esan du bakeaz: «ogi, arroz, etxebizitza, osasun, hezkuntza, askatasun eta giza duintasun bihurtu behar da gero eta baldintza hobek dituen bizimodua» (Thee 1995: 43).

Batzuek gainerako eskubideak lortu ahal izateko lehenbizi bakea lortu behar dela aldarrikatzen duten bitartean, beste batzuek diote gainerako giza eskubideak errespetatzen direnean bakarrik nagusituko dela bakea. AI-ko Mumtaz Soysal-ek gogoratzen digu giza eskubideak urratzeak «giza duintasunaren degradazioranzko joera eragiten duela», eta horrek, «indarkeria eta zapalkuntzaren eredura eta giza ongizatearenganako kezkarik ez izatera» eramán dezakeela (Thee 1995: 48). Giza eskubideenganako errespeturik ez badago, bakeak, bere kontzeptualizaziorik zabalenean, ezingo gu aurrera egin.

Beste batzuek, ordea, uste dute elkar hartzeko eta elkarrekin bizitzeko modukoak direla bakea eta giza eskubideak. Kolonbiako Gorte Konstituzionalak ondorengoa ebatzi du: «gatazken irtenbide baketsuen zilegitasunak lotura zuzena du giro demokratikoan lortzen den eztabaida eta adostasun egokiarekin» (C-328/00).

Askok uste dute bakeak ezin duela epe luzean iraun edo segurtasuna eman bere bi zutabe bikiak gabe: giza eskubideak eta justizia. Aung San Suu Kyi (Aung san su chi) Birmaniako bakearen eragile eta Bakearen Nobel Saridunak dio: «justiziarik ez dagoen tokian ezin du bake segururik egon». Giza eskubideak sostengatzen dituzten legeek bakarrik sortzen dituzte bake eta segurtasunerako behar diren zimenduak (Abrams 1999: 11).

Komunitate global gisa, ulertzen hasiak gara, Martin Luther King-ek gogoratu ohi zingun bezala, «edozein tokitako injustizia mehatxua dela toki guztietako justiziarentzat». Oscar Ariasek, Costa Ricako presidente ohiak eta Ertamerikako bake-negoziazioen bideratzaileak, argi eta garbi utzi zituen estatuek hiritarrei emandako tratamenduaren eta nazioarteko gatazka potentzialen arteko loturak. Honela zioen: «Justiziak eta bakeak elkarrekin bakarrik egin dezakete aurrera, inoiz ez banaka. Bere hiritarrak gaizki tratatzen dituen herrialdeak aukera gehiago ditu auzokoak ere gaizki tratatzeko» (Thee 1995: 50).

Carl von Ossietzky (1935), Albert Lutuli (1960), Martin Luther King, Jr. (1964), René Cassin (1968), Sean MacBride (1974), Amnesty International (1977), Adolfo Pérez Esquivel (1980), Lech Walesa (1983), Desmond Tutu (1984), Elie Wiesel (1986), 14^o Dalai Lama (1989), Rigoberta Menchu Tum (1992), José Ramos-Horta eta Belo Apezpikua (1996), Kim Dae-jung (2000), Jimmy Carter (2002), eta berrikiago, Shirin Ebadi (2003) Nobel Saridunek argi erakutsi dute euren iritzia giza eskubideak bakearen eta justiziaren aldeko borrokako osagaitzat jotzean (Abrams 1999: 20).

Nik esango nuke bakea eta beste giza eskubideak oso desberdinak direla, lege-marko berean ezin direlako sartu. Giza eskubideak «legez gauza daitezkeen eskubideak» badira, nola aplikatu dakioke eskubide bat bakeari? (Joyce 1982: 202). Gaur egungo lege-ikuspegia eta giza eskubideen defentsarako markoa kontuan hartuz, bakea giza eskubide gisa ezartzeak, alde batetik bortxaketan egileak, eta bestetik, biktimak identifikatzeko premia dakar berekin —lege hizkeran demandatua eta demandatzailea—.

Bortxaketen egileei dagokienez, giza eskubideen urraketaren erantzukizunaren kontzeptu orokorra berrikusi da. Aurreko hamarkadaren amaiera arte, gobernu nazionalak jotzen ziren giza eskubideen babes eta sustapenaren erantzuletzat. Era berean, gobernu nazionalak jo zitezkeen giza eskubideen urraketagatiko erantzuletzat. Entitate edo protagonista ez-estatalek egindako gehiegikeriak krimentzat hartzen ziren, ez giza eskubideen urraketatzat. Protagonista ez-estatal horiek legearen aurrean euren ekintzen erantzuletzat eta, beraz, kriminaltzat hartzen zituzten. Baina giza eskubideen nozioa eta diskurtsoa orokortzen joan diren heinean, giza eskubideen kontzeptua berriro kokatu da. Hori dela eta, giza eskubideen nazioarteko arauak eta nazioarteko lege humanitarioak protagonista gehiagori aplikatzen zaizkie orain. Peruko Egiaren eta Berradiskidetzaren Batzordeak iaz (2003) ateratako ondorioak aitzindariak dira zentzu horretan. Giza eskubideen urraketaren erantzukizuna protagonista ez-estatalari, hau da, Sendero Luminosori, egotzi zion Egiaren Batzordeak. Beharbada garrantzi berbera izango du Egiaren Batzordearen ondorioek gizarte zibila ere zuzenean inplikatzak biztanle indigenen aurrean diskriminazioa onartzeagatik eta komunitate indigenen aurkako indarkeria onartzeagatik. Ildo beretik, 2003an, Ruandako Nazioarteko Auzitegi Kriminalak biziarteko kartzela-zigorra ezarri zien hiru kazetariri Ruandako tutsien aurkako sarraski eta genozidioa eragin zituen indarkeriara bideratu zutelako. Ruandako genozidioa gertatu zenetik hamar urte igaro direnean, askok onartzen dute nazioarteko komunitatearen porrota, ohartarazpen-seinaleei jaramonik egin ez ziolako eta milaka bizi salba zitzakeen ahalegin prebentiborik egin ez zuelako.

78

Bakea zentzurik zabalenean hartzen badugu, egitura eta prozesu gisa, berdin-berdin erabili beharko dira marko kontzeptual berriak bakearen babes, sustapen eta aplikazioaren erantzulea zein den ebaluatzeko. Zein dira gobernuen betebeharrak espezifikokoak bake-erabiltzera irekitako partaidetza-bideen existentzia bermatzeari dagokionez? Gobernuak jo behar al dira bake-erabiltzaren sustapen eta babesaren erantzule bakartzat? Federico Mayor Zaragozak hauxe dio: «estatuak zeregin garrantzitsua du indarkeriaren prebentzioan [...] eta bakearen kultura hiritar bakoitzaren erantzukizuna da bere eguneroko bizitzan» (van Tongeren 1999: 23). Familia, auzoa, eskola, lantokia, erlijio-zentroak, komunikabideak, korporazio transnazionalak eta nazioarteko erakundeak, denak dira bakearen kultura eraikitzeke gune gehigarriak, eta ondorioz, baita bakea babestu, sustatu eta praktikan jartzeko erantzukizuna dutenak ere.

Erantzukizuna gizarteko sektore desberdinen artean banatzeak arinduko al luke bake eskubidea urratzen duten politikengatiko gobernuen erantzukizuna? Erantzukizunaren definizioek kontuan izan behar lukete gobernuak unitate sozial txikiagoenak gainditzen dituzten baliabideak eta baliabideak sortzeko ahalmena dituztela. Hala ere, funtsezkoa da norbanakoak ere justiziaren bitartez bake jasagarria bideratuko duten mekanismoak eta giroa sortzen saiatzea.

Behin erantzukizun-parametroak kontuan hartu eta gero, biktima zein den zehazteari ekingo diogu. Bake-erabiltzaren «elkartasun-erabiltzaren hirugarren belaunaldikoa» da eta beste eskubide kolektibo batzuekin bat egiten du, esaterako, garapenerako, ingurumenerako eta komunikaziorako eskubideekin. Eskubide horiek, «lehen belaunaldiko» eskubide zibil eta politikoen edo «bigarren belaunaldiko» eskubide ekonomiko eta sozialek ez bezala, erronka partikularra ordezkatzen dute, normalean taldeei aplikatzen zaielako eta ez norbanakoei. Horregatik, zailago dira betearazteko (Joyce 1982: 202).

Bake-erabiltzaren betearazteko zailtasunaren zati bat, neurtzeko metodo egokirik oraindik ez garatu izana da. Giza eskubideak edo bakea bezalako kontzeptuak kuantifikatzeko eragozpenak onartzearekin batera, batez ere helburu politikoak dituzten estatistikak zein erraz

manipulatu daitezkeen kontuan hartuta, baliagarria izan liteke nik «bake-koefizientea» deituko niokeena sortzea, hau da, adierazle kualitatibo eta kuantitatiboak erabiliz, bake-estatusa neurtu ahal izango lukeen adierazlea. Nazio Batuek garatu dituzte antzeko adierazleak giza garapena neurtzeko. Freedom House, Askatasunaren Etxea eta horren gisako beste batzuek ere garatu dituzte antzeko adierazleak giza eskubideen betetze-maila neurtzeko. «Bake-koefiziente» horrek, bakea definitzen den arabera hartuko luke forma neurri batean. Bake-konzeptu mugatuagoa erabiliko bagenu, «bake-koefizienteak» aldagai objektiboak neurtu ahal izango lituzke, esaterako, per capita gastu militarra, indarkeria sozialaren adierazle orokorrak, motibo etniko edo generokoetan oinarritutako indarkeria-mailak edo bake egonkorrerako mehatxu diren beste diskriminazio-eredu batzuk. Gainera, gizakien bake-eskubidea eta beste giza eskubide batzuk urratzen dituztenei adostutako inpunitate-mailak neurtzeko metodoak ezar dakizkieke. Tokian tokiko taldeek ere adierazleak landu daitezke borondate politikoari buruzko kontuak neurtzeko. Horiek, seguruenik, aldatu egingo lirateke herrialde batetik bestera, herrialdeen unean uneko arazoen arabera. Gatazka armatuak dituzten herrialdeetako gobernuak, indarkeriari aurre hartzeko sistemak ezartzeko ardura eta barne-desplazamenduei buruzko arazoei aurre egiteko moduko gobernu-ekintzak gauzatzeko ardura dutenez, bake-ekimenen garapenaren eta abarren erantzule egiteko moduak azter litzakete. Gatazka armatuetatik edo gerra-baldintzetatik libre dauden herrialde edo eskualdeetan, tokian tokiko erakundeek bertako baldintzen arabera egokiagoak diren arauak landu ditzakete.

Nazioarteko komunitateak bakearen definizioa prozesu gisa adostu beharko balu bere zentzurik zabalenean, bake-koefizienteak espazio politikoa neurtu lezake, Hannah Arendt-ek dioen bezala, «iritziak garrantzitsuak eta ekintzak eraginkorrak baitira horrela» (Arendt 1949, Jelin 406an aipatua). Neurketa horrek bakearen lehen aipatutako neurriak adierazten ditu, eta horrez gain, hiritar guztiek parte hartzeko eta erabakiak hartzeko agintea erabiltzeko aukera ematen duten eta horretara bultzatzen duten arauak lege eta erakundeek zenbateraino babesten dituzten adierazten du. Bake-koefizientea honela uler daiteke: Nazio Batuek eta nazioarteko beste erakunde batzuek jarraipena egiten dieten eskubide zibil, politiko, sozial eta ekonomikoen erabilerekin zerikusia duten adierazle-sorta handia hartzen duena. Hor sartu litekeen bakearen barometro adierazgarria, giza eskubideen defentsan eta bakearen sustapenean lan egiten dutenen eskubideen babesean gobernuak lortzen duten arrakasta edo porrotaren neurria da.

Behin bakearen neurriak definitu ondoren, nori erabakiko du bake-eskubidea urratua izan den eta zer gertatuko litzateke kalte-ordainak praktikatu beharko balira? Tokiko komunitateek? Estatu-nazioek? Nazioarteko erakundeek? Eskualdeko antolakuntzek? Zer gertatuko litzateke multzo horien artean adostasunik ez balego? Nola saihestuko litzateke giza eskubideei buruzko eztabaidaren osagai bihurtu den kopuru-jokoa eta nola jarri beharko litzateke arreta eskubide-urraketak gertatzeko aukera ematen duten desberdintasunetan eta egituretan, erraz manipula daitezkeen kopuruetan jarri ordez? Boterearen politikaren ingurune hain kargatuan, nola finkatu beharko lirateke arauak eta nola bete-arazi beharko litzateke bere aplikagarritasun unibertsala? Nola bermatuko litzateke bakea babesteko diseinatutako neurri eta arauak indarkeriaren erabilera legitimatzeko ez direla erabiliko? Airean dauden galderak dira horiek.

Horrenbestez, lege-arazo eta arazo kontzeptual horiek arindu litezkeela eta adostasuna bakearen definizioan eta bakea ebaluatzeko moduetan gauzatu litezkeela onartuz, zein dira gizakien bake-eskubidea aplikatzeko gainerako erronketako batzuk?

Konferentzia hau jorratzen has litekeen oztopo bat zera da, ez dagoela bake eskubidearen kodifikazio eta aplikaziorako estrategiekiko nahitaezko adostasunik giza eskubideen eragileen artean ere. Eman litekeen argumentuetako bat, dagoeneko eman dena, giza-eskubideen katalogo ugariak zurruneziak direla da. Jack Donnelly eta Rhoda E. Howard giza-eskubideei buruzko teorizatzaileek duela ia bi hamarkada adierazi zuten «giza-eskubideen ebaluazio kuantitatibo konparatiboa nazioartean errekonozitutako zerrendaren luzerak zailago egiten duela». (Donnelly eta Howard 1988: 214). Harrezkero, kategoria horiek areagotu egin dira eta giza-eskubideen aginduak are eta konplexuago bihurtu dira. Estatu Batuetan, txostenak aurkezteko baldintzak gehitu egin dira ondorengoak sartzeko: «diplomazia multilateral, demokraziaren sustapena eta koordinazioa, erlijio-askatasunaren sustapena, lan-eskubideak, asilo kasuak, giza-eskubideei buruzko arauak betetzea eta emakumearen estatua (USIP 2001eko otsailaren 16a)».

Donnelly eta Howard-ek ere ondorengoak aipatzen zituzten: datu egokiak biltzeko eragozpenak, ondorioen izaera eta konplexutasun ikaragarria, eta gobernuen –garai hartan Estatu Batuak, Herbehereak eta Noruega barne– kanpo-laguntza gobernu hartzaileetan giza eskubideak betetzera baldintzatzeko joera gorakorra kontuan hartuz zeuden interes izugarriak. Giza eskubideei buruzko beste arau askorekin gertatzen den bezala, kontzeptua modu desberdinean eta errealitate objektiboetara erantzunez hartu eta aplikatu ordez, interes politiko eta ekonomikoei erantzunez hartu eta aplikatzeko arriskua ere badago.

Politika arloan, bake-eskubidea aplikatzeko erronken artean nahikoa borondate politikorik eza eta, horrekin batera, lidergo politikorik eza daude. Gobernuak, oro har, ez dute gogoko izan giza eskubide kolektiboak betearaztea. Gaur egun pizgarriak falta dira, bai positiboak eta bai zigortzaileak, gobernuak ekintza espezifikoak burutzeko sustatu eta ekintza horiekin bakearen oinarri gisa berdintasun handiagora eramango luketen aldaketak lortzeko. Gainera, ez dago argi zein gobernuak egitea espero den.

Bake-eskubiderako legezko tresnak eta nazioarteko arauak badaude dagoeneko, baina egia esan, gehiago gara litezke. Badira bakea giza eskubidetzat jotzeko aurrekariak ere, jakina. Nazio Batuen Gutunaren 1. Artikuluak adierazten du Nazio Batuen asmoa «nazioarteko bake eta segurtasunari eustea dela, eta helburu hori lortzeko, bakea arriskuan jartzen duten mehatxuak aurreikusi eta ezabatzeko eta ekintza erasotzaileak edo bakea urratzen duten beste ekintza batzuk baztertzeko neurri kolektibo eraginkorrak hartzea.» (Nazio Batuen Gutuna, I. Aitzinsolasa eta Artikulua. Giza eskubide unibertsalak ezartzen dituzten nazioarteko bakearen oinarri gisa eta barne-matxinaden aurkako prebentzio-neurri onen gisa eskubide estatua babesteko deia egiten du. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak (GEDU), Eskubide Zibil eta Politikoan Nazioarteko Itunak (EZPNI) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (EESKNI) gizakien eskubideak eta eskubide horiek gauzatzeko behar diren baldintzak aipatzen dituzte. Horien artean, pertsonen bizi, askatasun eta segurtasunerako eskubideak daude. (GEDU, 3. art.; ikus EZPNI, 6. art.; Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, 6. art.), «ordena soziala eta nazioartekoa», non, Deklarazioan aldarrikatutako eskubide eta askatasunak guztiz eraginkorrak egingo dira (GEDU, 28. art.), eta «gerraren aldeko propaganda oro» edo «diskriminazio, etsaitasun edo indarkeriara bultzatzen duen nazio-, arraza-edo erlijio-gorrotoaren apologia oro» debekatuko dira (EZPNI, 20. art.).

Genozidio-Delituaren Prebenitu eta Zigortzeko Konbentzioak, bestalde, «nazio-, etnia-, arraza-edo erlijio-taldeak suntsitzeko asmoz egindako ekintzak» prebenitu eta zigortzera behartzen ditu herrialde sinatzaileak (GDPZK, 2. art.). Era berean, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak (HEK) «haurra era guztietako kalte edo abusu fisiko edo mentalen

kontra babesteko» neurri egokiak hartuko direla aipatzen du (19. art.) eta baita «torturaren edo beste era bateko tratu edo zigor anker, krudel edo degradatzailearen edo gatazka armaturen biktima izandako haur ororen suspertze fisiko eta psikologiko eta gizarteratzea sustatzeko ere» (HEK, 39. art.). Horrez gain, Emakumearen Aurkako era guztietako Diskriminazioak Ezabatzearen Konbentzioak honakoa dio: «nazioarteko bakea eta segurtasuna sendotzeak, nazioarteko tentsioa arintzeak, Estatu guztien arteko lankidetzak [...] gizarteraren aurrerapena eta garapena sustatuko dituzte, eta horren ondorioz, gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasun osoa lortzen lagunduko dute» (Hitzaurrea).

1981az geroztik, Nazio Batuen Erakundeak «nazio eta herrien barruan eta artean bake idealak oroitu eta indartzeari eskainitako» bakearen urteko eguna ospatzen du. 2001ean, Batzar Nagusiak deia egin zion nazioarteko komunitate osoari egun hori «su-eteneko eta indarkeriarik gabeko» egun gisa errespetatua izan zedin. Datorren azaroan hogei urte beteko dira Nazio Batuen Batzar Nagusiak «Herrien Bake-Eskubidea» ezartzen duen erabakia hartu zuenetik: «Estatu guztien funtsezko» betebeharra da «bake-eskubide sagaratua» babestu eta sustatzea eta nazioarteko harremanetan indarra erabiltzeari uko egitea (A/RES/39/II, 1984ko azaroaren 12a). Nazio Batuek behin eta berriz izendatu eta egin dituzte Bakearen Urteak (1986, 2000), bake deklarazioak, bake-ebazpenak, eta berriki, bakearen hamarkada izendatu dute XXI. Mendeko lehenengo hamarkada. Batzuek «erretorika diplomatiko» soiltzat jo dituzte ahalegin horiek, eta betearazteko legezko mekanismo edo derrigortasunik ez dagoenez, baliteke ezerezean gelditzea (Forsythe 1993: 4).

Argi dago bake-eskubidea ezartzeak ez duela esan nahi bakea nagusituko denik. Denok dakigu giza eskubideen arauak ezartzen dituzten ebazpen, lege eta Konstituzioak beharrezkoak bai, baina nahikoa ez direla giza eskubide horiek betetzeko. Herrialde batzuek –Kongoko Errepublika aldi labur batez eta Kolonbia eta Peru barne– bake-eskubidea bermatzen duten xedapen konstituzionalak dituzte. Baina aplikatu edo gauzatzeko mekanismorik gabeko xedapen orokorrak izateko joera dute. Estatu-nazioetako elite politikoko gehienek «ez dute gogoko izan giza eskubide kolektiboak babesteko behar diren aldaketa politikoak egitea». (Felice 1996: 52-3). Jende gehienak bakea desira duen arren, gehienek beldurra diete bake iraunkorrak behar dituen aldaketei. Eta aldaketak egiteko boterea dutenak status quo delakoari eusteko interes handiena dutenak izan ohi direnez, aldaketak betearazteko boterea dutenek ez diete aktiboki laguntzen.

Bestalde, gobernuak, euren agenda ekonomikoak justifikatzeko, nazioarteko giza eskubideei buruzko arauak selektiboki gauzatu dituzte. Nazioarteko giza eskubideak koherentiari gabe gauzatzeko asko mugatzen du gobernuen sinesgarritasuna nazioarteko komunitatearen aurrean eta, halaber, arauak ahultzen ditu.

Bakerako beste oztopo bat honakoa da: bakea gehien interesatzen zaien taldeak, gehienetan, erakunde politiko formalen barruan boterea izateko aukera gutxien dutenak eta erakunde legegile, judizial, ministerial eta militar eta zerbitzu militar eta diplomatikoaren barruan ordezkari txikiak dutenak izatea. Gainera, kolektibo horiek, emakumeak, talde marjinauak, pobreak eta boto-eskubiderik ez dutenak izaten dira askotan indarkeriaren biktima nagusiak.

Hala eta guztiz ere, toki askotan, bake-defendatzaile handienak izaten dira, eta halaber, gizakien bake-eskubidea ezarri eta aplikatzeko baliabiderik garrantzitsuenak. Mundu osoko defendatzaileak ahalegin handiak egin ondoren, 2000. urtean onartutako Nazio Batuen Erakunde Segurtasun-Kontseiluaren 1325 ebazpenak aitortu egiten du emakumeek duten paper garrantzitsua gatazken ebazpeneko fase guztietan –gatazken prebentzio, negoziazio, bitartekaritza,

arma-gabetze, desmobilizazio, berrintegrazio eta gatazka ondorengo berreraikuntza-programen aplikazioa barne- eta bake-prozesuen diseinu eta aplikazioan gobernuek emakumeak sar ditzaten eskatzen du. Emakumeek bakea defenditzeko nahitaezko ekarpena egiten ari diren ekimen berri eta garrantzitsuak dira horiek, baina aplikatu aurretik, bide luzea egin behar dute arauak.

Bake-eskubidea aplikatzeko beste oztopo handi bat herrialde askotan nagusitzen den gerra-eta militarismo-kultura da. Gure erreferentzi markoak bizi gareneko gerra-eta indarkeria kulturak modelatuta daude. Komunikabideek loriatu egiten dute indarkeria; industriek gerrei esker egiten dute aurrera –normalean eurenak ez diren herrialdeetan–; heroi militarrek eta gerrako istorioak eraikuntza nazionalaren oinarritzko osagaiak dira. Gure eskolek eta historiako liburuek gerrari buruzko kontuak azaltzen dizkigute, baina oso gutxi bakeari buruzkoak. Gutako gehienak gure garaiko gerra garrantzitsuenak izendatzeko eta gerrako heroi nazional asko identifikatzeko gai dira. Edozein egunkari hartzen badugu, gerra sortu dela, gerra nuklearraren mehatxua dagoela, indarkeria areagotu dela edo talde etniko eta erlijiosoen arteko tentsioak gehitu egin direla irakurriko dugu. Estatu Batuetako gazte tipiko batek 16.000 hilketa eta indarkeriazko 200.000 ekintza simulatu ikusten ditu batez beste telebistan, zinean eta interneten 18 urte betetzerako (Wurman 2002: 207). Horrela, sozializatuta gaude indarkeria eta gerra munduko gauzarik normalena balira bezala onartzeko.

Douglas Roche Senatariak dio, *The Right to Peace*, 1998 gatazka hilgarriak saihestezinak ez direla eta gatazka horiek aurreikustea posible dela eta gero eta premiazkoagoa dela. Bestalde, «indarkeriaren potentziala neurri politiko, diplomatiko, ekonomiko eta militarren aplikazio trebe eta integratuaren bitartez arintzen dela» gogorarazten digu.

82

Politikak lantzeko arduradunen artean gero eta gehiago zabaldua dago gerra bakerako bide onena edo bakarra dela dioen ustea, baina uste hori zalantzan jarri behar da. Krisialdi mentalitateak esan nahi du, Estatu Batuetan bai behintzat, jendearen arreta indarkeria sortzen denean soilik zentratzen dela krisialdietan eta, orduan, berandu izaten da ekintza prebentiboetarako. Azken fase honetan, sintomak epe laburrera tratatzeko joera izaten dute konponbideek, indarkeriaren kausak epe luzera edo injustizia sortzeko aukera ematen duen ingurunea tratatu beharrean. Baina epe luzera egonkortasuna bermatzeko indarkeria erabiltzeak arazo gehigarriak ekartzen ditu, izan ere, suntsitzea merezi duten etsai bihurtzen ditu gizakiak.

Uste horren akats garrantzitsua da «bizikidetzak baketsuko itxaropenak su-armen bidezko disuasio-metodoetan kokatzen dituen gizarte itun hauskor eta higuingarrian oinarritutako gizarte izatea. Subjektuen arteko harremanak elkarrekiko beldurraren eta konfiantzarik ezaren gainean eraikita egongo lirarteke eta, horregatik, aurrerakuntza sozialaren oinarri gisa lankidetzak, ulermen eta konfiantzarik ez izatea oztopo gaindiezina izango litzateke norbanakoen hazkunderako eta hazkunde kolektiborako» (C-296/95)].

Indarkeriaren aurkako borrokan, eta bereziki droga-trafikoarekin, krimen antolatuekin eta terrorismoarekin zerikusia duen indarkeriaren aurkako borrokan erabiltzen dituzten taktikak aukeratzen dituzte gobernuek askotan. 2001eko irailaren 11ko eta 2004ko martxoaren 11ko izugarrikeriek eta beste hainbat eraso terroristak, giza eskubideen aldeko mugimenduek hiru azken hamarkadetan lortutako aurrerapen handiak lehengo egoerara atzeraraztearekin mehatxatzen dute. Beste behin ere, giza eskubideak alde batera ari dira geratzen segurtasun nazionalaren interesen mesedetan, gobernuek terrorismoaren aurkako gerrara deitzen dute barne-errepresioa justifikatzeko eta armamentuen lehian murgiltzen dira. Ahalegin horiek, askotan arazoa are gehiago larriagotzen dute.

Hezkuntza, Zientzia eta Kultur arteko Nazio batuen Erakundeak (UNESCO) gogoratzen digun bezala, «gerrak gizakien gogoan sortzen direnez, gizakien gogoan eratu behar dira bakearen gotorlekuak». –NBEko Batzar Nagusia, A/RES/53/243, 1999ko urriaren 6a–. Bakean bizi den eta bakearen alde lan egiten duen munduaren ikuspegi alternatiboa eratzten ez badugu, heriotzaren itzalean bizitzera kondenatuta egongo gara. Ezin dugu utzi indarkeriaren indarrak bizi garen munduan nagusitu daitezen, ahal dugun guztia egin behar dugu bakearen itsasargia gure gidaria izan dadin.

Garrantzitsua da gerra giza egoera saihestezina ez dela jakitea eta horren arabera jokatzera, eta are gehiago ahalmen nuklearreko eta armamentuen aurrerakuntza teknologikoko garaian. Uko egin behar diogu «gerra talde politikoen arteko lehiak konpontzeko modu normala» dela dioen ohiko usteari (Howard 2001: 29). Hori egiteko modu bat saihestu diren gerrak, indarkeriara jo gabe konpondutako gatazkak, gerran dauden komunitateen artean sortutako loturak eta gatazka-guneen barruko bake-komunitateen ezarpenak nabarmentzen hastea da. Gerren-segida gisa irakasten den historia, gizarteek gatazkak bakean konpontzeko duten ezintasunaren historia gisa ere ikus liteke. Baina hori osatu egin behar da indarkeriazko gatazkak sortzea galarazi duten ahalegin arrakastatsuei gehiago erreparatu. Saihestu dira gerra batzuk, baina horiek gutxitan egiten dute historia. Batzuetan bakeari eusteko ahaleginak nagusitu dira, baina ez gara izan horren jakitun. Bakearen ezkutuko giza historia horretatik dokumentatu eta ikasteko moduak aurkitu behar ditugu. Badakigu gutxi gorabehera zortzi herrialde potentzia nuklearrak direla, baina itxaropentsu egon behar genuke herrialde gehienak ez direlako. Gatazken prebentzioko adibide arrakastatsuek bilatu behar ditugu eta ezkutuko iragan horretako irakasbideak azalatu. Gure historiako zati hori berreskuratzeko gai bagara bakarrik ikus ahal izango dugu bakearen bidea. Era berean, bakea eraikitzen atsedunik gabe lanean ari direnei lagundu behar diegu. Etnia-eta arraza-talde, talde geografiko eta beste banalerro batzuen artean eraikitzen ari diren zubiak ondare garrantzitsua izango dira etorkizunean.

83

Faktore ekonomikoek ere eragina dute bake-eskubidearen aplikazioan, baina nik esango nuke aldagai horiek borondate politikoaren mende daudela hein handi batean. Historiagile batek zioen bezala, «Gerrara joanda bakean jarraituta baino gehiago lortu dezaketeneko bi alderdiek egindako kalkuluetan oinarritutako erabaki kontziente eta zentzuzkoekin hasten dira gerrak» (Howard 2001: 37). Armamentu-industriari buruzko eta «konplexu militar-industrialia» deitu zaionari buruzko interes ekonomikoek kalkulu horien osagaiak dira.

Gatazken prebentzioan eta bake-kulturaren sustapenean erabilitako baliabideak husekiri dira gerrarako erabilitakoen ondoan. Norbanako kapaz eta ausart asko eta bakearen alde lan egiten duten antolakuntza meritudunak egon arren, muga ekonomiko eta errealitate politikoez askotan oztopatu egiten dute talde horiek autosufizienteak izatea.

Gure laguntza-programaren bitartez, Estatu Batuetako Bakearen Institutua gatazka guneetan gatazkak konpontzeko heziketa sustatzeko mundu osoko ahalegin ugari ari da finantzatzen, baina gatazken prebentzio, kudeaketa eta ebazpenaren alorrean jasotzen ditugun proposamenen %10 baino gutxiago finantza dezakegu. Gizarteko maila guztietan, nahiko baliabide gutxi daude giza eskubideen babes eta sustapenerako. Estatu Batuetako gobernuaren barruan, giza eskubideak jorratzen dituzten bulego exekutiboek ez dute behar adina finantzazio eta langile eta gero eta indar gutxiago dute burokraziaren baitan.

Ez da nahikoa lege eta arauak izatea euren aplikazioa bermatuko duen gizarte zibil oporrik ez badago. Giza eskubideetan aurrerapenak lortzea gizarte zibil independenteetako elkartean laguntzaren mende dago hein handi batean. Gizarte zibilaren ekimenek zeregin garrantzitsua dute giza eskubideekiko errespetua sustatzen duten lege eta arauak lortzeko

presioa egiteko orduan eta, aldi berean, gizarte zibileko antolakuntzak nahiko indartsuak izan behar dira gobernuak kontrolatzeko eta eskubide horien aplikazioa eskatzeko. Baina hori gerta dadin, informazio egokia eta zehatza sortzeko aukera emango dien giza baliabide eta baliabide material ugari izan behar dute.

GKEak bizirik irauteko borrokatzen dira toki guztietan, batez ere garapen bidean diren herrialdeetan, eta gainezka daude. Jasaten ari diren finantza-krisiak, maiz egoera larrian jartzen ditu talde asko eta gobernuaren dirua onartzea erabakitzen dute bizirik iraun ahal izateko. Hori egitean, arriskuan jar dezakete aldaketarako borondate politikoa sortzeko hain beharrezkoak diren kritika independenterako ahalmena eta kontrol-funtzioa.

Bake-eskubidea erabiltzea beste faktore batzuek ere oztopatzen dute, esate baterako, herri-eta nazio-mailako zigorgabetasun giroak. Justizia-administrazio inpartzialik ezean, gatazkak konpontzeko bide alternatibo gisa onartzen da indarkeria. Horregatik, eskubide estatuarenganako errespetu handia izatea, bakea eraikitzeko beharrezko osagaia da.

Zer egin daiteke oztopo horien aurrean? Nire iritziz, borondate politikoa eta lidergoa giza eskubideak bakeari aplikatzea bermatzeko osagairik garrantzitsuenak dira. Baina nola sortu daiteke borondate politiko eta lidergo handiagoa eragingo dituen giroa? Lehenik eta behin, zalantzan jarri behar da politikoki posible dela dioen nozioa. Borondate politikoa gizarte zibil independente eta antolatuak betetzen duen paperaren mende dago. Gizarte demokratikoetan, gerra-politikak bake-politiken gaineratik lehenesten dituztenak hautatzeari edo berrautatzeari uko eginez baliatu dezakete boto-emaileek euren bake-eskubidea. Politikak lantzeko arduraren dutenek ikasi egin behar dute, eta hiritarrek gogoratu, indarkeria erabiltzeak seguruenik indarkeria gehiago eragingo duela. Indarkeriari beste alternatiba batzuk bilatzen jarraitzeko eskatu behar die hiritarrek euren agintariei.

84

Heziketa-ahalegin handiagoa egin behar da haurrei irakasteko, gaztetatik hasita, bakea lortzeko orduan elkarriketak duen balioa eta ezkutuko ahaleginen -arrakastatsuek edo ez historia. Elizabeth Jelin-eki dioen bezala, «gatazka sozial eta politikoaren tratamenduan asko aurreratuko da, baldin eta besteek entzun eta onartuta, indarkeriaren diskurtsoa elkarriketa eta negoziazioko diskurtso bihurtzen bada eta ahalsuek, mezuak indarkeriazko ekintzaren diskurtsora itzuli baino lehen, beste hizkuntza batzuk entzuten ikasten dutenean» (Jelin 1998: 408). Eskolek eta familiek maila berean praktikatu behar dituzte indarkerian oinarritzen ez diren gatazkak konpontzeko teknikak, hurrengo belaunaldia sozializatu duen eredu gisa, gero, belaunaldi horrek, indarkeriaren alternatibak garatu ditzan.

Gure agintariei bakearen eta giza eskubideen artean dauden loturak gogora ekartzen jarraitu behar dugu. Giza eskubideen urraketak, askotan, klase, estatus sozial, pribilegio ekonomiko eta botere pertsonaleko tirabirekin dute zerikusia (Kolodziej 2003). Giza eskubideak urratzen dituzten gobernuak aliatu ezegonkorak eta mehatxua dira epe luzeko segurtasun nazional eta globalaren interesetarako. Nazioarteko komunitateak euren erantzukizuna egotzi behar die tiranoei eta herrien giza eskubideak urratzen dituztenak isolatu. Helburu horrekin, komunitateek justizia zuzentasunez administratzen dela bermatzeko eta zuzenbideko estatua zigorgabetasunari bai herri mailan, bai nazio mailan eta bai nazioarte mailan nagusitzeko egin behar dute lan.

Gaur egun bakearen alde egitea eta giza eskubideak sustatzea terrorismoarekin ahulegi jokatzearekin nahasten dira gehiegitan. Hala ere, Reed Brody-k. Giza Eskubideen Behatoki zuzendariak, dioenez, giza eskubideen mugimenduak «oinarritzko eskubideen sustapena segurtasunerako funtsezkoa eta terrorismoaren aurkako borrokan ezinbesteko tresna dela frogatu behar du» (Brody 2004). Eta aholku hau ematen du: «politika-aldaketen bitartez

terroristak baretzeko aukera handirik ez dagoenez, terrorismoari laguntzeak errepresioa, injustizia, desberdintasuna eta aukera-falta elikatzen ditueneko ebidentziaren gainean egin behar dugu lan [...] Demokrazia eta berdintasuna, itxaropena eta aldaketarako bakezko aukerak dauden tokian, terrorismoak askoz aukera gutxiago du herriaren babesa lortzeko» .

Arlo ekonomikoari dagokionez, epe luzeko egonkortasuna ekonomia osasungarria lortzeko oinarri sendoa dela aitortzen duten buruzagi politiko eta erlijiosoak suspertzen lagundu dezakete borondate politikoak eta lidergoak. Bakean inbertitzeko pizgarri ekonomikoak ere gara litezke; era berean, enpresariak bakea hobetzeko moduko produktibitate sortzaileagoak jorratu beharko lituzkete, indar militarera mugatzen ez diren giza segurtasuneko definizioetan oinarrituz.

Giza eskubideak bakeari aplikatzeko erronketako batzuk azaldu ondoren –egia esan asko daude– hori ezartzeak dituen abantailak aipatuz amaitu nahi dut. Lehenik eta behin, giza eskubideen tradizioa helburuak edo erreferentzi kotak finkatzean eta legezko tresnen eta erakundeen –legeak, sistema juridikoa eta auzi-prozesua– laguntzan oinarritzen da, askatasunak eta giza garapena bermatzeko bitarteko den aldetik (PNUD 2000: 2). Bakea giza eskubide gisa ezarriz gero, bakea lortzeko edo mantentzeko legezko egiturak gehiago garatu eta mamituko lirateke.

Bigarrenik, arrazoi asko daude bere inguruan hiritarrak mobilizatu ahal izango diren helburu bat finkatzeko. Arauek boterea ematen diete bai biktimei eta bai ekintzaileei. «Herri eta nazio guztientzako arau komuna ezarriz» (DUDH), euren eskakizunak legitimatu eta erreferentziak ezartzen dira adostasuna zeinen inguruan eraiki eta erantzukizuna ebaluatzeari buruz (Brody 2004).

Hirugarrena, eskubideetan oinarritutako bakearen ikuspegia ezartzeak informazio sistematiko gehiagoren premia azpimarratzen du eta, horregatik, arreta sistematikoagoa, baliabide gehiago eta konpromiso instituzional gehiago behar dira bakea sustatzeko. Bakearen giza eskubide gisako kontzeptuaren inguruko adostasunak nazioartean aitortutako beste betebeharrak batzuen estatus moral baliokidea ematen dio, beraz, antzeko kontrol-eta jarraipen-prozedurei lotuta egongo litzateke.

Laugarrena, bake-eskubidea aipatzeak eragina du bai kontzeptuan eta bai aipatzen den ingurunean. Antza denez, bakeari buruzko diskurtso normatiboak zeregin garrantzitsua izango luke nazioarteko harremanetan eta nazioarteko protagonisten sozializazioan gatazkak konpontzeko bide baketsuagoak aukeratzeko.

Bosgarrena, bakea giza eskubide gisa ezartzeak aukera eman liezaieke eskubideen profesionalei bakea ukatzeak norbanakoengan eta batez ere komunitateetan eragiten dituen ondorioak arreta handiagoz aztertzeko. Giza eskubideen ikuspegi batek baliabideen banaketa diskriminatzailea nola ezagutzera eman dezakeen eta baztertuenei lehentasuna ematen nola lagundu dezakeen ikusi dugu. Bakerako edo gerrarako giza baliabide eta baliabide materialetan oinarritutako antzeko estrategia edo gerrako estrategiek komunitate marjinetan gainean duten inpaktu diferentziala, agian urrats baliagarria izango litzateke indarkeriaren eraginak arintzeko.

Seigarrena, bakea giza eskubide gisa ezartzeak adiskidetzailen eta bake eraikitzaileen ahots politikoa legitimatu eta handitzen du. Bakeari giza eskubide estatusa emateak legitimitasuna eta babes instituzionala emango lieke gatazka-guneetan bakea eraikitzeko ahalegin arriskutsuak egiten dituztenei.

Zazpigarrena, giza eskubideen arauak maila globalean eta nazio mailan ezartzeak gizarteei errealizaziorako bidean aurrera egiten lagunduko lieke. Esperientziak argi erakutsi du horrelako kontzientziazio-estrategiak eraginkorrak direla. Hainbat eta hainbat arlotan, emakumeen eta haurren eskubideak, heriotza-zigorra eta lurreko minak, arauen garapen prozesua eta bere aplikaziorako mobilizazioa barne, emaitza zehatzak lortu ditu. Jimmy Carter presidenteak giza eskubideak bere politikaren ikur bihurtu zituen, eskubideon aplikazioan sortu ohi ziren irregulartasuna alde batera utzita. Jarrera horrek informazio-beharrak eragin, giza eskubideekiko arreta piztu eta giza eskubideak kanpo-politikaren ardatz bihurtzeko bidea eman zuten egitura nazionalak sortarazi zituen.

Era berean, badirudi era horretako estrategiak ondo funtzionatu dutela emakumeen eskubideentzako ere. Mexikon (1975), Kopenhagen (1980), Nairobiri (1985) eta Pekinen (2000) Nazio Batuen babespean emakumeak buruz egindako biltzar orokorrek hainbat erreferentzia finkatzeko aukera eman zion gizarte zibilari, beste gauza batzuen artean, gobernuko lidergo-postuen artean emakumeen presentzia areagotzeko. Helburu horiek lortzeko eman diren aurrerapausoak herrialde guztietan berdinak ez izan arren, hainbat desberdintasun orokor agerian geratu dira eta gobernu askok horiek zuzentzeko estrategiak diseinatu eta bideratu dituzte.

Amaitzeko, ziur izan behar dugu bakea lortzeko oztopo gairik ez dagoela. Giza eskubideen aldeko kontzientziazio-kultura eta bakearen aldeko konpromiso-kultura erai- kitzeko, gutako bakoitzak hainbat gauza egin behar ditu: gure eta gure garaikideen ahale- ginen inbentarioa osatu, mundu bidezkoagoa eta bakea lortzeko helburu eta erreferentziak finkatu eta politikak lantzeko arduradunak euren ekintzen erantzule hartu. Bakearen eta konfiantzaren oinarri izan daitezkeen lege, erakunde, arau eta giza harremanak indartu behar ditugu eta hezkuntzak eta komunikabideek giza eskubideekiko kontzientziazio-kulturaren eta gatazkek konponbide baketsua izateko konpromisoaren eraikuntzan duten funtsezko ze- regina gogoratu behar dugu. Bestalde, eskuzabaltasunez, irudimena erabiliz eta baikortasunez jokatu behar dugu denontzako justizia sortzeko dugun ahalmenari dagokionez.

José Enrique Rodo uruguaiarrak duela mende bat baino gehiago esan zuen bezala, «gure ekintzak espazioan eta denboran gugandik gero eta urrunago dauden baldintzetara egokitzeak gai izanez baino ezingo dugu aurrera egin. Gu baino luzaroago biziko den eta etorkizunean fruituak emango dituen lan horretan esku hartzeak emango digun segur- tasunak gure giza duintasuna areagotu egingo du eta gure izaeraren mugak gairik eramango gaitu». Bake-kulturaren oinarriak finkatzea, batzuetan ezkutuko lana den arren, nahitaezkoa da fruituak hurrengo belaunaldietan loratzeko. Has gaitezen ekinean behin edo behin gure garaiko gatazkak ulertezin bihurtu arte, geure buruak, bihotzak eta geure unibertsoa bakez gairik egon artea.

Aipatutako iturriak

ABRAMS, IRWIN, ED.

Peace 1991-1995: Nobel Lectures, World Scientific, Nueva Jersey, 1999.

BRODY, REED

«Right Side Up: Reflections on the Last Twenty-Five Years of the Human Rights Movement», Giza Eskubideen Behatokia, 2004ko *Munduko Txostena*.

COMISIÓN CARNEGIE PARA LA PREVENCIÓN DE CONFLICTOS MORTALES. 1997

Interneten dago eskuragarri:

<http://www.wilsoncenter.org/subsites/ccpdc/pubs/rept97/finfr.htm>.

FELICE, WILLIAM F.

«The Case for Collective Human Rights: The Reality of Group Suffering», *Ethics & International Affairs*, vol. 10, 1996, 47-62 orr.

FINNEMORE, MARTHA Y SIKKINK, KATHRYN

«International Norm Dynamics and Political Change», *International Organization*, 52:4, otoño 1998.

FORSYTHE, DAVID P.

Human Rights and Peace: International and National Dimensions, Lincoln: University of Nebraska Press, 1993.

HOWARD, MICHAEL

«The Causes of War», en Chester A. Crocker, Fen Osler Hampson, y Pamela Aall. *Turbulent Peace: The Challenges of Managing International Conflict*, EE.BB.-ko Bakearen Institutua, Washington, D.C., 2001.

DONNELLY, JACK Y RHODA E. HOWARD

«Assessing National Human Rights Performance: A Theoretical Framework», *Human Rights Quarterly*, 10. lib.:2, 1988ko maiatza, 214-248 orr.

JELIN, ELIZABETH

«Toward a Culture of Participation and Citizenship: Challenges for a More Equitable World». Alvarez, Sonia E., Evelina Dagnino, eta Arturo Escobar. *Cultures of Politics/Politics of Cultures: Re-visioning Latin American Social Movements*, Westview Press, Nueva York, 1998, pp. 405-414.

JOYCE, JAMES AVERY

«Is there a Right to Peace?», *Christian Century*, 1982ko otsailak 24, 202 o.

KANT, IMMANUEL

Perpetual Peace: A Philosophic Essay, Garland, New York, 1971.

KOŁODZIEJ, EDWARD A., ED.

A Force Profonde: The Power, Politics, and Promise of Human Rights, Pennsylvania Studies in Human Rights, 2003.

ROBINSON, MARY

«Human Rights and Global Civilisation», *2nd Annual BP Lecture*, 2001eko azaroak 29, British Museum, Londres.

ROCHE, SENADOR DOUGLAS, O.C.

«The Human Right to Peace: Ethics and Policy». Bakearen Nazioarteko Bulegoko Ordezkarria, *Bakearen Nobel Sarien Munduko 4. Gailurra*, Campidoglio, Roma, 2003ko azaroak 28. Eskuragarri hemen: www.middlepowers.org

SOLOMON, RICHARD

«Teaching Peace or War?» *Senatuko Lan, Osasun, Zerbitzu Sozial eta Hezkuntzako Azpibatzen aurreko Deklarazioa*, 2003ko urriak 30.

SUU KYI, AUNG SAN

Freedom from Fear and Other Writings, Ed. Michael Aris, 2. Ed., berrik, Penguin, New York, 1995.

THEE, MAREK, ED.

Peace! By the Nobel Peace Prize Laureates: An Anthology, UNESCO Publishing, Paris, 1995.

EE.BB.-KO BAKEAREN INSTITUTUA

«U.S. Human Rights Policy: Challenges for the Future», *Newsbyte*, 2001eko otsailak 16.

NAZIO BATUEN GARAPEN-PROGRAMA


Giza Garapanari buruzko 2000ko txostena, Oxford University Press, New York, 2000.


VAN TONGEREN, PAUL

People Building Peace: 35 Inspiring Stories From Around the World, Herbehereak: Gatazken Prebentziorako, Utrecht, Europako Zentroa, 1999.

WURMAN, RICHARD S.

Understanding Children, TOP Publishing, Newport, Rhode Island, 2002.





Bakean publikoak parte hartzea: nahitaezkoa XXI. mendean

ANDREW CARL JN.

Conciliation Resources gobernuz kanpoko Erakundearen zuzendarikidea

Andrew Carl Conciliation Resources (CR) gobernuz kanpoko Erakundearen zuzendarikidea da; erakunde hori Erresuma Batuan erregistratuta dago ongintza-erakunde gisa. Conciliation Resources erakundeak indarkeria prebenitzea, justizia sustatzea eta gatazka garapen-aukeretan eraldatzea du helburu.

Conciliation Resources erakundeak batez ere Kaukasoan, Ugandan eta Afrika mendebaldean lan egiten du, bertako eta nazioarteko gizarte zibileko erakundeekin eta gobernuekin elkartuta.

Erakunde horrek hainbat herrialdetako buruzagien eskura jartzen du gatazka-konponketan duen esperientzia, munduko hainbat herrialdeetan gatazka armatuak saihesteko edo eraldatzeko laguntza profesionala eskainiz.



CURRÍCULUM

Accord: an international review of peace initiatives deitutako seriea ere argitaratzen du eta Kolonbian, Fiji Uhartean eta Filipinetan zenbait proiektutan parte hartzen du. Gobernuen, erakunde independenteen eta fundazioen diru-laguntzak dira erakundearen diru-iturriak.

LABURPENA

Nork eraikitzen du bakea? Paradigma hedatuenaren arabera, diplomatikoeak eraikitzen dute, elkarri bostekoa emanez sinadura ofizialaren ekitaldian. Litekeena da gerra zibilak amaitzeko akordio gehienak ezkutuan egitea, beste herrialde batzuetako hiriburuetan sarritan, eta ia beti aurkarien presentzia bakararekin –edo, gehienez ere, hirugarren baten parte-hartzearekin–. Alabaina, bakea sinatzeko mementoa une erabakigarria da, hainbat eta hainbat ahalegin eta esku-hartzeren gailurra. Bake-prozesuen dinamika hainbat ekintzaren mende dago fase guztietan.

Gatazkak eraldatzeko prozesuetan, parte-hartze publikoa «bakearen eskubide» aren kontzeptuan txertatu beharko litzateke. Estandar eta helburu kodetu bat ezartzea funtsezkoa da, bai, baina, hori ez ezik, tokiko esparruan nazioarteko mekanismoa sortu eta pertsonen eskura jarri behar da, hura erabil dezaten. Cotonoun Europar Batasunarekin sinatutako Merkataritza Trukerako eta Laguntzarako Akordioaren 36. artikulua aurrez aipatutako tresnaren adibide egokia izan daiteke. Fijiko azken estatu-kolpearen ostean, gizarte zibileko taldeek aukera izan zuten artikulua hori baliatu eta taldeetako buruei haien ekintzek ondorioak izango zituztela gogorarazteko, hau da, garapenerako laguntzak eten egingo zirela, eta, laguntza horiek berriz ere ezarri aurretik, giza eskubideen arloko baldintza jakin batzuk bete beharko zituztela.

Pertsonen dagokien indarkeriazko gatazka eraldatzeko beharrezko aukera eta baliabideak eskura izatea lortu nahi badugu, pizgarri eta mehatxuetan oinarrituriko nazioarteko politika jarri beharko dugu abian.

Bakean publikoak parte hartzea: nahitaezkoa XXI. mendean

Hitzaurrea

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiet konferentzia hau antolatu dutenei aukera hau eskaintzeagatik; izan ere, seguru nago asko ikasiko dudala hemen bildutako pertsona konprometitu eta adituen eskutik.

Entzun duzueenez, nazioarteko GKE baten zuzendaria naiz. Gure erakundeak Londresen du egoitza, eta handik laguntza profesionala jartzen dugu pertsonen ahaleginekin bat egiteko asmoz, mundu osoko hainbat herrialdetan gatazka armatuak saihesteko edo eraldatzeko.

Kaukasoko hegoaldeari gagozkiola, orain urte batzuk hasi ginen baterako mahai-inguruak deitzen bertako udal-liderrekin eta lider politikoekin hitz egiteko, hain zuzen ere Georgiaren eta Abjasiaren arteko gatazkan bitartekotza-lana egiteko. Lider horiek beren gatazkari buruz EZ hitz egiteko eskatu ziguten, eta aurreneko mahai-inguruetan eskaera hori errespetatu genuen. Hori dela-eta, beste herrialde batzuetako ordezkariak eraman genituen, Ipar Irlandan, Zipren, Balkanetako hegoaldean eta beste zenbait tokitan izandako esperientzien berri eman diezaieten. Bilerak bizi-biziak izan ziren, eta hausnarketak, berriz, sakon-sakonak. Parte-hartzaileek atzerriko gatazkei heldu zieten, eta, horri esker, gatazka horiek beren gatazkaren aldean jartzeko aukera izan zuten. Horrek, bide batez, beren egoera bestelako ikuspegi batetik begiratzea ahalbidetu zien.

93

Horren haritik, pentsatzekoa da gu ere gaur bakerako giza eskubideari buruzko eztabaida baliatzen ari garela Euskadiren gatazka luze eta tragikoari heltzeko. Onartu beharrean nago ezer gutxi dakidala gatazka horren inguruan. Horregatik, ikasgaiak eman beharrean, hausnarketa batzuk emango ditut bakarrik, nire esperientzietan oinarrituta. Gainera, zuekin ideia batzuk konpartitzea gustatuko litzaidake, parte-hartze publikoak bake-prozesuetan duen balioaren inguruan. Horren ildotik, honako ideia hau aldarrikatuko dut: bakerako oinarritzko giza eskubidea gatazkek eraldatzeko praktika eta prozesuetan oinarrituta eraiki behar da.

Globalizazioa eta Eragile Ez-Estatalak

Fenomeno nahasi eta kontraesankorren garai honetan, sistema nazional eta nazioartekoek, legeek eta portaera-arauek, arautzen dituzte nazio-estatuak eta erakunde multilateralak, lege eta arau horiek perfektuak ez badira ere. Hala ere, globalizazio-garaia ere bada gurea, eta indarreko harreman sozial, ekonomiko eta politikoetan erregularizaziorik, erantzukizunik eta kontrolik eza da nagusi. GKE batean lan egiten dudanez, helmugako herrialdeko gobernuaren baimenik gabe bidaiatzen dut sarri. Beste hainbat herrialdeetako langile humanitarioekin eta toki-aktibistekin biltzen naiz nazioarteko bileretan, baita nazioarteko negozio-gizonekin (batzuetan, bakearen negozioko gizonak; beste batzuetan,

berriz, mertzenarioak) eta, sarritan, talde armatuekin edo haien bazkideekin ere; horiek guztiak bestelako nazioarte-komunitatea osatzen dute.

Niretzat liluragarria da gobernu-sistema horien eta haien mundu-ikuspegi desberdinen koexistentzia: nazioarteko negozioen logika korporatiboa, nazio-estatuaren interesen logika diplomatikoa eta interes horiek beste herrialde batzuetara nola eramaten diren, armada nazionalen logika eta militarizazioa. Azken batean zera ulertu nahi dut, bakerako giza eskubidearen balio unibertsalen bitartez babestu nahi dugun espazio publikoak zer ezaugarri dituen.

Nire erakundea garapen-fenomeno zabalago baten parte da, gobernu kanpoko nazioarte-sektorean. Gerra hotza amaitu zenez geroztik bereziki, gatazka armatuari erantzuteko ekimenak etengabe ugartu eta profesionalizatu dira gizarte zibil antolatua eskutik, tokiko, nazio eta nazioarteko esparruetan. Ezbairik gabe, ez dago ikuspegi komunik edo kontzeptu-eredu koherenterik bakearen definizioaren inguruan. Bakearen alde esku hartzen dutenek aldaketa- eta borroka-eredu jakin batzuei jarraituz jarduten dutela esan daiteke, jarduteko moduari buruzko suposizio konpartituak erabili beharrean. Jakina, bake-erakuntzaren ize-nean alde kalte egiten da, baina gure aniztasuna balio handikoa da. Mugarik ez dago, eta aldaketa asko egiten dira. Horixe izan daiteke, hain zuzen ere, gizarte zibilaren gatazkak eraldatzeko eremu hori hobeto ulertzeko zailtasunetako bat. Garapen eta agentzia humanitarioak nagusi dira bake-prozesuen agendetan; giza eskubideak eta ingurumena babesten dituzten erakundeak konpromiso-taktika berriak erabiltzen ari dira; merkataritza-enpresak ere gatazkak konpontzeko eginkizun esplizituak egokitzen ari dira. Eragile eta ikuskatzaile ugariak bakea modu kolektiboan ekartzen ez badute ere, nazioarteak gatazketan nola esku hartu behar duen berraztertzen ari dela esan daiteke.

94

Politika alternatiboak bilatzerakoan porrot egin dugu, eta, ezbairik gabe, munduko indarkeriazko gatazka ugari berriak eta ez hain berriak gure porrot indibidual, komun eta kolektibo horren adierazgarri dira. Denok dakigunez, egungo gerra gehienak ez dira guztiz globalak, nazioartekotu badira ere. Izan ere, indarkeriazko gatazkek eragin handia dute toki-esparruan. Gerra gehienak akordioetan oinarrituriko prozesu baketsuaren bitartez amaitzen dira, neurri batean behintzat. Konponbide «drastikoek» ere –Savimbiren heriotza Angolan, esaterako– lan handia eskatzen dute bakea lortzea ahalbidetuko duen benetako gizarte-azpiegitura sortzeari begira. Azkenean, pertsonak politikara eta negoziazioetara jotzen dute, bakea eraikitzeko eta gerrak amaitzeko.

«Bake» aren gure ideia komunean sakontzeko ahaleginetan interesgarria litzateke, halaber, kontzeptu horri profesional baten ikuspegitik heldzea, bake-prozesuaren nondik norakoan berri izan behar duela aintzat hartuta. Kontuan hartzekoa da bake-prozesuetan –prozesu horiek ez dira linealak izaten, normalean– indarkeriatik elkarrizketara igaro beharra dagoela: Celia McKeown nire lankideak «Hutsetik batera» deitzen dio hasierako aldi horri. Lehen fase horretan, besteak beste, konpromisorako baldintzak sortzen dira. Jarraian, prozesua arrakastatsua bada, elkarrizketa politikoa ezartzen da, harremanak sortzen dira, eta, hala badagokio, akordioa lortzen da. Prozesuak, jakina, aurrera jarraitzen du, akordio gehiago ezarri eta gerrak zatitutako gizarte berreraikiz.

Horixe da bakea eraikitzeko oinarri-oinarria; biderik errazena, beraz.

Baina nork eraikitzen du bakea?

Paradigma hedatuenaren arabera, diplomatikoek eraikitzen dute, elkarri bostekoa emanaz sinadura ofizialaren ekitaldian. Litekeena da gerra zibilak amaitzeko akordio gehienak ezkutuan

egitea, beste herrialde batzuetako hiriburuetan sarritan, eta ia beti aurkarien presentzia bakararekin –edo, gehienez ere, hirugarren baten parte-hartzearekin, azken hori guk ekoiztutako *Accord* izeneko argitalpen sortaren bitartez dokumentatu dugu–. Alabaina, bakea sinatzeko mementoa une erabakigarria da, hainbat eta hainbat ahalegin eta esku-hartzeren gailurra. Bake-prozesuen dinamika hainbat ekintzaren mende dago fase guztietan.

Indarkeriazko gatazka-egoeren erdian egon den edo jardun duen orok jakingo du zenbaterainoko ahaleginak egin behar dituen gizarte zibilak gatazkak eraldatzeko. Sakrifizio pertsonalak, esku-hartze zuhurrak, mobilizazio publikoak. Gatazka edo bake-prozesu orotan –pertsonen gidaturiko Sudango prozesuak, Kolonbiako herritarrek sustaturiko bake-ekimenak, Nepalgo manifestazioak eta abar–, bakea eraikitzeke zeregina multidimentsionala da, eta, beraz, ezinezkoa da estatuaren erantzukizun bakarra izatea. Gizarte zibilak bake-prozesuetako fase guztietan parte hartzen du, eta hainbat adibide daude hori frogatzeko.

Eztabaida politikoen faseko parte-hartze publikoari dagokionez, Catherine Barnes nire lan-kideak parte hartzeko hiru modu bereizi zituen, eta honela deskribatu zituen, zehatz-mehatz:

Ordezkaritzan oinarrituriko parte-hartzea. Hegoafrikan eta Ipar Irlandan, esaterako, sistema politikoez zeresan handia izan zuten, eta beharrezko laguntza politikoa zuten talde politiko guztiak bildu ziren negoziazioetan, betiere eztabaidetan parte hartu nahi bazuten.

Aholku-mekanismoa. Guatemalako Gizarte Zibilaren Batzarrean edo Filipinetako Bata-sun Nazionalerako Batzordean, esaterako, gizarte zibilak bere iritziak emateko eta gomen-dioak egiteko aukera dauka. Eta azkenik,

Zuzeneko parte-hartzea. Maliko esperientziak horren adierazgarri egokia izan daitezke. Izan ere, Malin ohikoa da gizarte zibileko eragileek ekimena hartzea ekimen formalik ezean.

Zer dela-eta bake-prozesuetan parte-hartze publikoa sustatu beharra?, Zein da eztabaidagaia, jardunbide egokiak edo bakerako eskubidearen dimentsio bat?

Gerrei amaiera emateko eta harreman gatazkatsuak aldatzeko elkarriketaren bidea hartzen denean, hainbat aldaketa gertatzen dira eta hainbat erabaki politiko hartu behar dira. Oro har, bake-akordioak, borrokak geldiarazteko ez ezik, estatuaren egoerarekin, erakunde politikoekin eta baliabide publikoen esleipenarekin zerikusia duten gaiak hartzeko ere dira baliagarri. Horrenbestez, prozesu horiek eta prozesu horietatik eratorritako akordioak inflexio-puntu dira herrialde baten historian. Gainera, eztabaidatzeko aukera izatea lagungarri da elkarriketa politikoaren eta konpromisoaren ohiturak ezartzeko.

Sarritan, gatazka armatuak gizarte-bazterketa eta marjinalizazioa dakartza berekin, bereziki emakumei, gazteei, gutxiengoei eta arma bati sekulan ere heldu ez dion orori dago-kienz. Badakigu biztanleria zibila gerra moderno gehien jomugan dagoela. Parte-hartze politiko eraginkorra bermatzeko ezintasuna gatazken arrazoietako bat izan da sarri, sistematik baztertuta sentitzen direnek beste bitarteko batzuetara –indarkeriazko baliabideetara, sarritan– jotzen dutelako beren errebindikazioak egiteko eta beren interesak babesteko. Indarkeriazko gatazka bati amaiera emateko konfiantza egokia eta akordio espezifikoak sorrarazi behar dira bazterketa hori etorkizunean berriz ere gerta ez dadin bermatzeko, eta erronka hori zaila da benetan.

Ohikoa izaten da, halaber, gatazkek legitimitate-krisia ekartzea, baldin eta biztanleriaren zenbait sektore esanguratsuk sentitzen badute gobernuak edo talde armatuak ez dituztela behar bezala ordezkatzen. Parte-hartzaileek aukera dute funtsezko akordioak eta prozedura-akordioak zehazteko, hain zuzen ere estatuan, gobernu-sisteman, giza eskubideen arloan,

segurtasunean eta garapen-politiketan egiturazko aldaketak egiteko. Horregatik, norke parte hartzen duen oso garrantzitsua da.

Nolanahi ere, gerra zibilak amaitzeko «negoiazioetan honako estrategia hau nagusitu da»: talde borrokatzaileen ordezkariak –edo nazioarteko eragile nagusien artean aldeko bo-teretsuen laguntza dutenak– biltzen dira, nazioarteko bitartekari bat ere bertan dela norma-lean, gutxienez negoziatzaileen gutxieneko eskakizunak beteko dituen akordioa lortzeko. Negoiazio modalitate hori «eliteen arteko ituna» dela esan dezakegu. Mezu inplizitua: indarkeriak funtzionatzen du.


Horrek azpimarratzen du negoziazio inklusiboa eta legitimoa eraikitzearen garrantzia. Negoiazio-eredu hori, gainera, hauteskudeen deialditik haratago doa, hauteskundeak eta erreferendumak prozesu horren garrantzizko osagaia izan daitezkeen arren. Talde interesdun guztiei eta herritarrei oro har parte hartzeko aukera emango dieten mekanismoak baliagar-riagoak izan daitezke. Hala, ondoriozko akordioek ahalik eta herritar gehien hartuko dituzte eraginpean, eta hori bake iraunkorrerako bide politikoaren abiapuntua izan daiteke. Hainbat alderdiren arteko negoziazioak, elkarrizketa nazionalak eta konstituzio-konbentzioak hartzen dira prozesu horien barnean.


Alabaina, aukera handia alferrik galduko litzateke baldin eta, egonkortasuna berrezartze aldera, parte-hartze zabala atzeratuko balitz erregimen berri bat finkatu arte. Hortaz, gizarte publikoko eta zibileko eragileak hasierako faseetatik inplikatu beharko lirateke, eta ez geroago, behin erregimen berria finkatu ondoren.

Aldez aurretik nazioarteko gizarte zibilaren harira adierazi dudana bezala, jendearen sektore guztiak ez dira poliki-poliki konprometitzen guztion ongiaren alde. Jendearen parte-hartzeak bere zailtasunak dakartza berekin, gatazkak kudeatzeari begira. Ez da inondik inora pentsatu behar bake iraunkorra eraikitzeko lana erraza denik. Nazioarteko esku-hartze eta esku-hartze instrumental berrien akatsak konplexuak dira, hain zuzen ere pertsonak, komunitateak eta gizarteak bezain konplexuak, eta horrek agerian uzten du pertsonengan oinarrituriko ikuspegi bat erabiltzeak zenbaterainoko garrantzia duen gatazkak eraldatzeari begira.

Azkenik, parte hartzeko eskubideak parte hartzeko ahalmena eta baliabideak eskatzen ditu. Gizarte zibilaren parte-hartzeak laguntza eta babesa eskatzen ditu, haren marjinaliza-zioa behar bezala zuzentzeko. Hori toki-eremuan egin daiteke –zailtasun handiekin bada ere–, garapen-bidean dauden herrialdeetan bereziki. Laguntza hori kanpotik etor daiteke, parte-hartzea errazagoa duten edo bestelako parte-hartzea izan dezaketen gizarte zibileko beste eragile batzuetatik –horixe da guk egiten duguna–, edo bestela aliantza estrategikoen bitartez egin daiteke –baita estatuarekin edo sektore pribatuekin ere–.

Ondorio gisa, gatazkak eraldatzeko prozesuetan, parte-hartze publikoa «bakearen esku-bide» aren kontzeptuan txertatu beharko litzateke. Nire ustetan, estandar eta helburu kodetu bat ezartzea funtsezkoa da, bai, baina, hori ez ezik, tokiko esparruan nazioarteko mekanis-moa sortu eta pertsonen eskura jarri behar da, hura erabil dezaten. Cotonoun Europar Ba-tasunarekin sinatutako Merkataritza Trukerako eta Laguntzarako Akordioaren 36. artikulua –uste dut artikulua hori dela– aurrez aipatutako tresnaren adibide egokia izan daiteke. Fijiko azken estatu-kolpearen ostean, gizarte zibileko taldeek aukera izan zuten artikulua hori baliatu eta taldeetako buruei haien ekintzek ondorioak izango zituztela gogorarazteko, hau da, ga-rapenerako laguntzak eten egingo zirela, eta, laguntza horiek berriz ere ezarri aurretik, giza eskubideen arloko baldintza jakin batzuk bete beharko zituztela. Pertsonak dagokien indar-keriazko gatazka eraldatzeko beharrezko aukera eta baliabideak eskura izatea lortu nahi badu-gu, pizgarri eta mehatxuetan oinarrituriko nazioarteko politika jarri beharko dugu abian.





«Bestearen» kontzeptu psikologikoak: «niaren» irismena ulertu nahian

STEVE S. OLWEEAN JN.

Common Bond Institute-eko zuzendaria. Michigan. Estatu Batuak

Steve S. Olweean Michiganeko (Estatu Batuak) Common Bond Institute-ko zuzendaria eta programa-koordinatzailea da.



Psikologia Humanistikoko Nazioarteko Elkar-
tearen –International Humanistic Psychology
Association, IHPA– presidentea da, eta Psikolo-
gia Humanistikorako Elkarteko –Association for
Humanistic Psychology– presidente-ohia.

Psikologia Klinikoan lizentziatua da eta badu
esperientzia osasun mentaleko terapeuta gisa,
arlo horretan zuzendari kliniko eta gainbegirale
kliniko karguak bete izan dituela.

Psikologia Humanistikoaren eta printzipio hu-
manistikoak lanean aplikatzearen defendatzaile
konbentzitua da, egungo munduaren baldintza
psikosozialak hobetzeko helburuarekin.

CURRÍCULUM

«Bestea» kontzeptua garatu du eta honako alderdi
hauek aztertu ditu: estereotipo negatiboak, aurrei-
ritziak, barkamena eta adiskidetzea, trauma baten
ondorengo errekupeazioa eta norberaren gaitasuna
berreraikitzea.

Bere jarduna hala esparru publikoan nola gizarte-
erakundeen bitartez gauzatu du, munduan bakearen
benetako kultura bat sustatzeko helburuarekin.

LABURPENA

«Bestea» kontzeptuak «gu» kontzeptuari zentzia ematen laguntzen gaituen prozesu psikologikoa aipatzen du. Zenbaitetan, «bestea» kontzeptua «gu» kontzeptuarekiko zerbait desberdin gisa hartuta beldur-iturri da, eta horren muturreko adierazpenak indarkeria eta gerra dira. Horrek ekar dezake mundua termino antagoniko absolutu baztertzailaetan definitzea, –ongia edo gaizkia–, eta akatsak zuzentzeko eta erantzukizunak beregain hartzeko espazio txikia uzten dute, akatsak beti «besteak» egiten dituelako eta, orduan, «gu» biktimak garelako.

Hainbat kultura osok tragedien biktimen identitatea hartzen dute, eta beldurraren energia hori modu inkontzientean erabiltzen dute laidoen egile bihurtzeko. Dilema hori are zailago bihurtzen da pertsonak edo taldeek dilema hori beren onura propiorako nahita esplotatzea erabakitzen dutenean. Horrela, adibide gisa, indarkeria errepresalia gisa erabiltzeak, aplikatzen den «bestearen» gaiztotasuna handitzen du. Beste emaitza bat pertsona alienatu eta *biktimizatu*en sustapena da, beren burua «askatasunaren aldeko borrokalari» gisa hartzen dutenak.

Horren aurrean, ontasuna, funtsean gizatiarrak diren ezaugarriak adierazteko «saiakera kontziente» gisa ulertuta; «bestearekin» harremana barne hartzen duen sentsibilitatea eratzek eta sen onak harremanak gozaten dituzte.

100

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaz gain Oinarrizko Giza «Balioen» Deklarazio bat eta Oinarrizko Giza «Ontasunaren» Deklarazio bat egon beharko liriateke, jendeari elkartzeagatik, hurbiltasungatik, itxuragatik edo soilik jaiolekuagatik errua botatzen zaionean egoerak mundu guztia harrapatzen duelako azkenean. Pertsonen ekintzak ontzat edo txartzat jotzea proposatzen dut eta erantzukizuna pertsona horiei soilik egoztea. Aukera kontzienteak egiten ditugunean besteekiko portaera unibertsal onargarriaren eredia aurkitzea da gakoa. Nire ustez, indarkeria propio aukeratzea gure aginte moralaren osotasuna galtzea da.

Azken emaitzak honako hau izan behar du: bizitzaren ontasunarekiko konfiantza eta gurekiko nahiz besteekiko gupida berriz ezartzea. Gure taldeari diogun estimua eta gure historiari gorazarre egiteko modu osasungarriagoak aurkitzea da kontua, horretarako beste talde bat zertan demonizatu gabe.

Errudunik bada, nire ustez gaizkitzat definitutako ezjakintasuna da.

«Bestearen» kontzeptu psikologikoak: «niaren» irismena ulertu nahian

“Bestea” terminoak aurpegi, praktika eta sinesmen ezezagunak ekarri obi ditu gogora, eskuarki urrutiko lekuetakoak. “Beste” horrek gure ulermenari desafio egiten dion arren, denok modu berean ulertzen dugu normaltasuna, eta, batzuetan, baita segurtasuna ere.

Pertenentzia- eta alienazio-zentzua sentitzen dugun moduak eta «gu» eta «besteak» hitzen esanahia ulertzeko moduak munduan bizi diren gainerako pertsonekin ditugun harremanak osatzen duten guztiaren esparrua eta testuingurua ezartzen dute. Kontzeptu horiek gure errealitate partikularrean alde aurretik identifikatu eta definitzearen eta, ondoren, errealitate konpartituan bateratzearen baitan dago dena. Hortaz, baliagarria da gizabakoak garen aldetik prozesu hori nola hasten dugun aztertzea.

Izan ere, mundu osoan goranzko joera duen asaldura dela-eta bereziki, guztiz sinetsita nago funtsezkoa dela munduan elkarrizketa publiko zabalagoa eta batez ere inklusiboa sortzea, prozesu hori aztertzen duena, gure jakintzak konpartitzeko, giza dilema konpartitzen dugun bezalaxe.

Azken urteotako gertakizunek garbi erakusten dute munduan zer gertatzen den ulertu beharra dutela pertsona gehienek, mundua erotu egin baita bat-batean; eta zer esanik ez luze dirauten gatazkak dituzten eskualdeetan bizi direnek, haientzat mundua are erotuago dago-eta. Erne egoteko eskatzen zaigu, arreta handiagoa izateko, adiago ibiltzeko. Baina hau galdetu behar dugu: Zertarako? Gatazka eragin duten arrazoiak eta komunitate global osoko segmentuen arteko ezinikusia ulertzeko? Edo «gaiztoak» zelatatu eta haien hurrengo erosoia zapuzteko? Gutako bakoitzarentzat, hurrengo urratsak gure erantzunen baitan egongo dira, eta oso ondorio desberdinak izango dituzte etorkizunari begira.

Une honetan, terrorismoaren mehatxua eta ustez konpondu ezin diren kulturen arteko liskarrak gure arretagune nagusiak direnez, ahaztu ere egin genezake iritzi desberdinetan oinarrituriko desadostasunak, eta are gehiago giza izaeraren funtsa, sufrimendu-iturri izan direla beti gizateriarentzat, gizateria sortu zenetik. Kasu gehienetan, desadostasun horientzako konponbideak, iraganean, ez dira errealitate «egokiaren» indarraren emaitza izan, alde baten botere militar eta ekonomikoaren emaitza baizik. Hori kontuan izanik, indar fisiko edo ekonomiko bat besteari gailendu zaiola pentsa genezake. Hala ere, horrek ez du eraginik, eragin handirik ez behintzat, talde partikular bakoitzaren ideien edo ikuspegien balioen konparazioan.

Ikuspegi desberdinek eragindako liskar handi bakar bat ere ez da konpondu aldeetako batek bestearen «egia» bat-batean ulertu duelako. Izan ere, gatazka gehienetan ez da lortu alde batek besteari bere argudioak ulertaraztea, ezta liskarra amaitu eta askoz geroago ere. Eskuarki, gatazkek gauzak okertu besterik ez dute egin. Tamalez, nagusitasun fisikoa behin-behinekoa izan da beti gizateriaren historian, eta horrek berriz ere desadostasunak sortzeko aukera ugari sortzen ditu eta errepresalien, zapalkuntzaren eta indarkeriaren ziklo amaigabea indartu.

Munduko harremanetan egun dauden dilema kronikoak ulertzeko eta erantzun konstruktiboak aurkitzeko, denok ados egongo gara funtsezkoa dela ikuspegi estuez eta erraie-tako erreakzioz ez jokatzeko. Haratago joan beharra dago eta besteei buruzko ideiak eta pertzepzioak eratzeko baliatzen ditugun dinamikak aztertu.

«Bestearen» kontzeptua giza elkarreraginaren alderdirik oinarritzeko eta iraunkorra da agian. «Gutako bat nor ez den», eta, beraz, «nor garen» bereizteko baliabide gisa, gure identitate partikularren eredu paregabea ematen digu, baita errealitatearen arloan dugun esperientziaren oinarria ere. Estereotipoaren prozesuan bezalaxe, gure bizitzak ordenan jartzen laguntzen digu, gure eguneroko bizitzan ditugun aukera ugariak errutinaz katalogatuz eta sailkatuz, horri esker aukera horiek talde erraz eta maneiagarriagoetan biltzen ditugu-eta. Ohiko prozesu asko bezalaxe, egoera hori ez da guztiz kontzientea.

Mekanismoa den aldetik, ez da ez ona, ez txarra. Hala da, besterik gabe. Zerbait ona edo txarra, osasungarria edo kaltegarria, den erabakitzea prozesu jakin baten emaitza da, hain zuzen ere munduan gurekin batera bizi diren gainerako pertsonekin ditugun elkarreraginez –alegia, gure portaeren– bidez «zerbait» hori nola erabiltzen dugun aztertzearen emaitza. Prozesu psikologiko oso subjektiboa denez gero, portaera jakin bat juzkatzeko nahitaezkoa da arau unibertsal eta objektiboak baliatzea, judizio hori baliozkoa izango bada.

Arazoa, berriz, absolutu aurkako eta kontraesankorren konparazioak –hala nola zintzoa eta gaiztoa, ongia eta gaizkia, goragoko eta behegoko mailakoa, zibilizatua eta ez-zibilizatua– «gu» eta «haiek» talde-identitateekin nahasten ditugunean sortzen da. Era horretako konparazio traketsek arrazoiaren porrota eragin dezakete, baita oker eta bidegabekeria ugari ere. Behin eta berriz egiaztatu dugu hori gizateriaren historian.

102

“Bestea” prozesu gisa

Egunero egiten diogu aurre «bestearen» kontzeptuari. Hala ere, entitate espezifiko eta erreala izan beharrean, «bestea» funtsezko prozesu psikologiko baten adierazpentzat hartzen da gehienbat, bizi garen munduaren barnean orientatzen eta «gu» kontzeptuari zentzua ematen laguntzen duen prozesutzat, alegia. Erreferentzia-puntu bat da. Iparra non dagoen baldin badakigu, hegoa, ekialdea eta mendebaldea non dauden jakingo dugu.

Umetan bizi izaten dugu horren lehen adibidea. Ohartzen gara gure gurasoak, eta beraz mundua, ez direla gure luzapen hutsak, baizik eta gizaki independenteak, premia, lehentasun eta ezaugarri desberdinak dituztenak. Hasieran, «bestearen» nondik norakoaz hurbilen ditugun eta guretzat baliotsuenak diren pertsonen bidez jabetzen gara: guraso, anai-arreba eta ahaideen bidez. Hortik aurrera, bilatzen jarraitzen dugu «gu» zer garen eta «gu ez dena» zer den definitzeko. Orokortu egiten dugu eta garatzen dugun «bestearen» kontzeptua gero eta sofistikuagoa da, baita harekin ditugun harremanena ere, eta, aldi berean, gure identitate propioa berresten dugu. «Bestea» badago, «gu» kontzeptua ere egongo da, nahitaez, eta alderantziz.

Hori horrela, bizitza azkar iragaiten da eta errealitate berri eta aldakor horri zentzua ematen ahalegintzen gara, beste arrotz batzuk konpartitu bihurtzen zaigun existentzian sartu ahala. Fenomeno horri zentzua ematen hasten gara eta zentzu horretatik sortzen dira sinesmenak eta gure buruarekin, gainerakoekin eta munduarekin zerikusia duten sinesmen-sistemak. Gugandik hurbilen dauzkagun pertsonekin talde-identitateak eratu ahala, gure gurasoek, familiak, komunitateak eta gizarteak izugarri eragiten diete sinesmen-sistema horiei. Sinesmen horien kualitatibotasunak definitzen du «beste» berriengandik, oro har, espero dezakegunaren testuingurua.

Gure sinesmena *segurtasunezko* eta *konfiantzazko* premisa batean oinarritzen direnean, «besteekiko» esperientzia berrietarako testuinguru errezeptiboa osatzen dute sinesmen horiek, eta arrotz horien aniztasunaz jabetzen gara. Jarrera hori erabilgarria suertatzen zaigu ezagutzen ditugun eta gugandik desberdinak diren pertsona berriekin elkarrekiko balioespeneko harreman osasungarri eta laguntzazkoak sortzeko eta edukitzeko.

Gure sinesmena hein handi batean *segurtasunik ezaz* osatuta badago, hori «beste» berri eta potentzialengan islatuko dugu, batez ere gure esperientziaren arabera aurreikusten zailenak direnei eta gutxien ezagunak ditugunei dagokienez. Jarrera horretan oinarrituta, «gu bezalakoa ez izatea», «desberdina» izatea edo «arrotza» izatea, gutxiago nahi genukeen edo gutxiago eroso den zerbait bezala hautematen dugu, eta haiengandik urruntzeko eta haiekin harremanetan hasteari uko egiteko joera sortzen da.

Sinesmenak *hein handi batean beldurrean oinarritzen direnean*, areagotu zaigun kalteberatasun-zentzu horrek erneegi egotea eta diskriminatzea dakar, arriskuan egon gaitzekelakoan. Arautik desbideratzen den orok arrisku edo mehatxupeko egoera sor dezake, eta horrek erresistentzia eta aurka egitea susta dezake, baita eraso ere. Muturreko kasuetan, beldurrean oinarritutako sinesmenak indarkeriaren eta gerraren bidez adieraz daitezke.

Luze hitz egin daiteke sinesmen-sistema positiboak eta negatiboak eratzeari, iraunarazteari eta aldatzeari buruz. Hala ere, guri dagokigun kasuan, lotura indartsu eta energiko jakin bat nabarmendu baino ez nuke nahi, bizi-esperientzia sakonetatik interpretaturiko esanahien eta haiei loturiko funtsezko premien arteko lotura, hain zuzen ere. Lotura horren indarraren oinarria bizi-premia horientzako –edo premia horiek babesteko– gehieneko onuraren babesa da, ematen zaion zentzuak dakarren onuraren babesa izan ere.

Lotura hori sortzen denean, sinesmena iraunarazi, betikotu eta babesteko barne-motorra aktibatzen da, sinesmen horren baliagarritasunaren aurkako mehatxuen aurrean. Informazio berria, kanpotik jasotakoa, pantaila oso subjektibo baten bidez iragazten da. Pantaila hori sinesmenarenaren nondik norakoei egokitu ohi zaie. Muturreko kasuetan, horrek sistema ia itxiak sor litzake. Kanpotiko sinesmenarentzako edozein desafio antzeko erresistentziaz egingo zaio aurka.

Hona hemen horren adibide bat: onartua izateko premia, irudi garrantzitsu nagusien bazterketa mingarriarekin konbinatzen dena. Horrek norbera onargarria ez izatearen sinesmena dakar. Horren ondorioz, bere buruari kalte egiteko portaerak sortzen dira, etorkizunean jasan daitezkeen bazterketek eragindako mina ez jasatearren. Kasu horretan, pertsonak uko egiten diote onartuak izateko aukera ugari eskaintzen dituen egoeretan ere jartzeari; izan ere, arriskutsuegiztat hartzen dute funtsekoa den honako helburu honetan oinarritutako defentsa-sinesmen batentzat: bazterketa saihestea kosta ahala kosta.

Dena den, sinesmen-sistema barne-desadostasunaren eraginpean geratzen da gertakizunei buruzko informazio kontraesankorrak txertatzen direnean. Arlo horretan datu kontraesankorrak daudenean –batez ere sinesmen absolutuei dagokienez–, barne-desadostasunak murrizteko eta harmoniari eusteko, pertsonak sinesmenaren jatorrizko esanahiari heldu behar dio berriz ere eta informazio berria txertatuz esanahi horri beste zentzu bat emateko beharrezko prozesu guztia egin.

Errotuta dauden sinesmen negatibo zahar horien berrikuspena sinesmen horiek aldatzeko eta testuinguru positibo eta osasungarriagoan kokatzeko aukera izan daiteke. Jakina, barne-harmoniarako itzulera naturala egiten dela eta harmonia osasungarria eta «onbera» dela suposatzen da. Aurrerago azalduko dudanez, suposizio hori erabakigarria da.

Sinesmen negatibo sakon bat –ez-sinesmen absolutua bada– etengabe elikatu behar da. Etengabe berretsi eta zaindu behar da, gure ingurunean hartarako frogak eta identifikatzen garen pertsonen akordioa lortze aldera. Frogak gutxitzen badira edo ezeztatzen zaila den kontraesanen bat sortzen bada, nolabaiteko ziurgabetasuna sentitzen dugu. Absolutu batez % 90ean ziur egon arren, gainerako % 10ak zalantza sortzen digu, ezinbestean. Gure sinesmen negatiboen hormetan sortzen den pitzadura horrek ekarriko du aldatzeko itxaropenik handiena.

Sinesmen negatiboko sistemak sendatzea informazio berri eta zehatzak gizabanakoaren esperientzia sakonera iritsi daitezten ahalbidetzeko erresistentzian oinarritzen da. Garrantzitsua da gogoratzea sinesmen negatibo menderatzaileak defentsa-emozio indartsuei lotu ohi zaizkiela, eta, batzuetan, bizitzaren eta heriotzaren arteko borrokari literalki. Sinesmen horiekiko aurrez aurreko erasoek sinesmenak indartu egiten dituzte, indar-eremu baten aurka indarra erabiltzen denean –eremua berari aurka egin eta desagerrarazteko gastaturiko energiak sortzen du–. Paradoxikoa bada ere, erasoari aurre egiteko prozesuan, pantaila subjektiboak, azkenean, kanpotiko gertakizun mehatxagarriak desitxuratu eta desagerraraz ditzake. Zenbait kasutan, absolutu negatiboei loturiko beldurrak eta amorrak eraso ere eragin dezakete azkenean.

Eraginkorragoa –eta iraunkorragoa– izaten da gertakizun berriei buruzko azalpen zoli eta ez-beldurgarria ematea, barne-kaosik eragin gabe bereganatu eta uler daitekeena. Informazio berriaren fluxu zuhur horrek sinesmenak zalantzan jartzea eta ahultzea lortzen du, metatzen den heinean. Dena den, beste abantaila bat ere badu: pertsonak gehiago kontrolatzen du prozesua, eta, beraz, ez da defentsiban jartzen. Egia modu metodikoan iragaz dadin uztea da gakoa, frogan oreka aldatuz, gutxieneko mehatxu edo indarrarekin, eta diskordantzia osasungarria ezartzea ahalbidetuz.

104

Edukizalea eta edukia

Dinamika hori argiago ikusten laguntzeko, «bestearn» metafora bat egin nahi nuke. «Bestea» edukizalea eta horren edukia da aldi berean.

«Edukiontzi» den aldetik, «bestea» oso egonkor, iraunkor eta aktiboa da. Finkoa da; izan ere, bere helburua ez du denborak edo egoerak mugatzen; aitzitik, prozesu psikologiko jarraituaren zati da. Aldi berean, «eduki» edo edukiontzi horren egoilea den aldetik, aldagarria eta ahula da, eta egoeraren baitan dago; izugarri alda daiteke, baita kontraesankor bihurtu ere.

Edukiontzi gisa, egungo edukia nabarmen aldatzen bada, edo desagertzen bada, edukizaleak funtzionatzen jarraituko du; hain zuzen ere, beste egoile egokiago bat bilatuko du eta aurrekoa ordeztuko du. Edukiontzia izatera –identifikazioa da– ez da aldatzen; edukiaren izatera, berriz, –identifikazioa da– aldaketa-egoeran dago beti. Pertsona bat edukiontzian kokatzen dugunean, desberdintasunak nabarmendu eta indartu egiten dira, eta alderdi komunak, berriz, minimizatu edo ukatu egiten dira. Pertsona hortik ateratzen dugunean, prozesua alderantzikatu egiten da eta modu neutro o positiboan hartzen dugu. Irizpidea oso aldakor eta erlatiboa da, eta gorantz edo beherantz doitzen dugu, zirkunstantzien arabera.

Gure historian, zenbait kasutan «bestea» «gutako» bihurtu izan da. Oro har, orain dela gutxi hainbat adibide aipa genezake: Alemaniak, Japoniak eta Italiak AEBekin, Ingalaterrarekin, Frantziarekin eta Errusiarekin Bigarren Mundu Gerran izandako harremanak eta gerraostean izandakoak. Are berriagoa da garai bateko Sobiet Batasunaren eta Mendebaldearen arteko

harremanen kasua. Alde horietako bakoitza bere aurkarien arabera «besteari» zegokion edukiontzian sartu dute, gaizkiaren, immoralitatearen eta «etsai» saltzailearen ezaugarriak muturrekoenak tipifikatuz.

Gaur egun, talde horiek aliatutzat eta laguntzat dute elkar –are gehiago, «gu» kontzeptuaren zati dira– komunitate global berriaren barnean. Adibide gisa, estatubatuar arrunta nahiko eroso sentitu ohi da japonierarekin; alegia, ez du gogaitzen dokumentu elektronikoetan, automotziokoetan eta gure etxeetan gehien erabiltzen ditugun teknologien osagaietan japoniera agertzeak. Pearl Harborreko gudua garaian, 1940ko hamarkadan, dokumentu horietan japoniera agertzeak atzerritar primitibo eta gaiztoaren irudiak ekarriko lizkioke jendeari.

Era berean, John F. Kennedyren irudia gogoratu behar dugu, Berlingo Harresian gogorotsu bilduriko jendetzaren aurrean, zutik, Sobietar Batasunaren mende zeuden alemaniarrei bere babesa emanez, honako hau esanez: «Berlindarra naiz».

Gizarte horiek oso gaizto gisa agerrarazten zituzten estereotipoak aurkezten zituzten garai bateko filmak gaur egun politikoki ez-zuzentzat hartzen dira, baita lotsagarritzat ere. Jakina, aditzera eman behar da film horien ordez, gaur egun beste film batzuk egiten direla, muturreko dinamika berekoak, beste jende talde batzuk demonizatu eta deshumanizatzen dituztenak, hainbat ezaugarri komun aitzakiatzat hartuta, hala nola etnia, erlijioa eta nazionalitatea –hots, non jaio diren–.

Herrialde horiek dagoeneko elkarren «etsai» izatearen etiketarik ez duten arren –hau da, dagoeneko ez dira edukiontzia egungo «egoileak»–, herrialde bakoitzak «Bestearentzako» edukiontzia dauka oraindik ere. Eta, ironikoa bada ere, edukiontzi horien edukia zati handi bat berbera da –hau da, gaur egun aurkari berberak dituzte–.

Entitatea den aldetik «bestearen» egoera zer moldagarria den eta irizpide unibertsal edo egonkorrik ez duela azaltzeko are adibide dramatikoagoa azalduko dut; nire haurtzaroko adibidea da, eta jende asko identifika liteke adibide horrekin:

Gogoan dut zinemara maiz joaten nintzela estralurtarren inbasioei buruzko filmak ikustera. Beldurgarriak ziren, baita zirrargarriak ere, eta nire lagunak eta nik geneuzkan beldur guztiak biltzen zituztela ematen zuen. Film horietan guztietan jende guztiak berehala bat egiten zuen «bestea» baino «handiagoa» zen arrotzaren aurka, eta alderdi hori aldaketa harrigarria iruditzen zitzaidan jadanik. «Beste» hura oso desberdina eta ezezaguna zen eta eredu guztiak gaintzen zituen. Haren irudiak gizaki guztien arteko desberdintasunak hutsal bihurtzen zituen, maila guztietan. Lurreko pertsonen arteko edozein aniztasun, lehia edo susmo izpi desagertu egiten zen, erraz eta logikoki desagertu ere, eta, beraz, ez zen beharrezkoa argumentuan azaltzea ere. Besterik gabe, logikoa zen, bai filmeko pertsonaientzat, bai ikusleentzat. Hainbat istoriotan, beste espezie batzuk ere sartzen zituzten. «gu» kontzeptuaren definizioak gure planetako izaki guztiak biltzen zituen.

Gogoan dut zoramen-unea bizi izana –zinemako ikusle guztiekin batera– Lurrean «gutako» bakarra geratzen zenean. Eta onartu beharra dut nahasi samar sentitu nintzela trantze-egoera berehala amaitu zenean, aretotik irten eta «errealitatera» itzuli ahala. Paradigma-aldaketa txiki hori, kidesun-zentzu sakona –eta une horretan logikoa– sentitzeko aukera ematen diguna, ez da fenomeno soila. Terapian, «aurrerapenak» deitzen diegu une horiei; tradizio espiritual eta filosofikoetan «argialdiak». Eta, hala ere, fantasiaren, irrealaren, arloan baztertzeko joera izan dezakegu –eta hortaz, datu kontraesankorrak ezabatzen dituzte–. Honako hau galdetu behar dugu: Zer da fantasia eta zer da errealitatea?

Une jakin batean desberdintasun izugarri eta bateraezinak diruditenak hutsal bihurtzen badira desberdintasun askoz handiago baten aurrean, nola har ditzakegu erabaki absolutuak desberdintasun horietan oinarrituta? «bestearen» pertzepzioa beldurrean oinarritzen bada –eta hein handi batean desitxuratu–, eta edukiontzi horren edukiaren identitatea une jakin batean hain erraz eta guztiz alda badaiteke, zeintzuk dira ustez edukiontzi horren egoilerik ohikoenen aurkako ekintza kategoriko, transzendental eta itzulezinen ondorioak?

Hona hemen galdera garrantzitsu bat: «Zergatik izan ohi ditu azkenean ondorio suntsitzai-leak ustez neutrala den prozesu batek?» Horren erantzunaren zati bat hainbat faktorek bil dezake, honako faktore hauek, hain zuzen ere.

1) Esperientziaren kalitate subkontzientea.

Prozesu hori gure subkontzientean garatzen da gehienbat. Horren ondorioz, gure kontzientzian dauden edo ez dauden eraginek asko eragin diezaiokete. Eragin horiek egoki kontrolatzeko gai ez garenez, distortsio larriak gerta litezke «besteak» identifikatzeko dugun moduan. Pertzepzio distortsionatu eta desegoki horiek errealitate gisa onartzen badira eta horien arabera jarduten bada, litekeena da gure ekintzak ere distortsionatuak eta desegokiak izatea. Muturreko kasuetan, ekintza horiek bidegabe, krudel eta ankertzat har daitezke. Prozesu horretaz jabetzen ez garen bitartean, okerrak behin eta berriz gertatu ahal izango dira, «besteen» eta gure kalterako. Distortsioak modu kolektiboan konpartitzen ditugunean, are min handiagoa egin daiteke.

2) Autodefentsiboa

a) Barne gatazka: ukapena, oinaze psikikoa saihesteko

106

Gertakizunen ondoren, beren burua funtsean ontzat eta zintzotzat duten pertsonentzat jasanezina izan liteke zerbait desegokia eta bidegabea egin izanaren erruari aurre egin behar izatea. Barne-gatazka eta gure autoestimuaerikiko mehatxua arintzeko, errazagoa izaten da ekintza horiek egiaz egin izana ukatzea, edo hori ezinezkoa bada, ekintza horiek justifikatzea edo besteengan izan dituzten eraginak minimizatzea, erantzukizuna alde batera uzteko. Tamalez, presio psikologiko hori arintzeagatik ordaindu beharreko prezioa gure okerrak behin eta berriz egitea da.

b) Kanpoaldearekiko gatazka: ukapena, errua, lotsa eta judizioa saihesteko

Gure mundua absolutuen bidez definitzen badugu, hala nola ongiaren eta gaizkiaren bidez, oso tarte txikia geratzen da gure okerrak onartu eta zuzentzeko. Hori are garbiago gertatzen da aurkako taldeen artean okerrak eta asmo txarrak erakusteko lehia dagoenean. «Gutako batek oker egon behar duen» aurkakotasun-harreman horietan, geu funtsean zintzoak garela «badakigunez», litekeena da aurkari guztiengandik babestera behartuta gaudela sentitzea, atzean ez geratzeko eta gure okerrak bidegabe balia ez ditzaten gure «okerra» frogatzearren.

Gatazka bateko «zintzoak» izateari eusteko, kontrako egozpen orotik defendatu beharra dago, baita egiazkoak direla –neurri batean behintzat– dakigun horietatik ere, eta «bestea» gaiztoagoa dela frogatu. Salatzaileak gure okerretan jartzen badu arreta –are gehiago, puztu egiten baditu–, oker horiek ukatu edo minimizatu egiten ditugu, edo hutsal, barkagarri edo justifikatutzat jotzen ditugu.

Berriz ere erantzukizunak bazter uzteak ezikusiarrena egitea ahalbidetzen du, baita gure buruaz dugun irudiaren eta besteek gutaz duten pertzepzioaren aurkako okerrak berriz egitea ere. Ironikoa bada ere, horrek denborarekin alde guztiek gero eta oker gehiago egitea ziurtatzen du.

3) Berez betetzen den iragarpena eta biktima identitatea

Estereotipo negatibo eta desitxuratuen erabileraren alderdi tragiko bat honako hau da: beti sortzen du froga-historial bat, alde guztientzat, «bestea» oker dagoela frogatzen duena –eta «Guk», biktimek, arrazoi dugula–, eta horrek sinesmen negatiboko sistemak –elkar baztertzen dute– indartzen ditu.

Denborarekin, «alde guztiek» kexa zehatz eta errealen zerrenda dute, «bestearekiko» duten jarrera eta ikuspegia egokiak direla gero eta zorrotzago frogatzen duena eta «besteen-gandik» jasotako laidoei emandako erantzunak justifikatzen dituena.

Errepresaliak, zigorrak eta mendekua pilatu egiten dira erasoaldietan, eta, azkenean, hasiera eta amaiera ez dira bereizi ere egiten. Erruen eta ekintza errealen akusazioen lehiaketa besterik ez dago, eta erru eta akusazio horiek suntsipen-zikloa indartzen dute.

«Biktimaren» identitatea hartzen badugu, justizia merezi duen «laidotu» baten jarrera hartzen dugu, eta, horren ondorioz, nagusitasun moraleko ikuspegia har dezakegu, bidegabe tratatu gaituztenei eman diegun tratu ankerra arrazionaliza dezakeena. Psikoterapian, dinamika paradoxiko horren adibideak daude –iraganean biktimak izan eta egile bihurtutako pertsonenak, hain zuzen ere–. Gizartearen eremuan, alderdi hori gutxiago aztertu da, eta zehatzago aztertzea interesatzen zaigu.

Azken aldiko historian beste gizarte edo kulturaren bat laidotu duen edozein gizarte edo kultura aukeratzen badugu, ikusiko dugu talde horrek zinez sentitzen duela biktima, martiria edo kausa on baten defendatzailea dela –batzuetan denon interesak defendatzen dituztela uste dute–.

Bosniarrek eta kosovoarrek, esate baterako, joan den mendean amaitu zen Balkanetako gerran beren kontra egindako gizateriaren aurkako krimenak nabarmentzen dituzte. Serbiarrek, berriz, Europa defendatzeagatik, ekialdetik iritsitako inbaditzaileen aurreko belaunaldiek beren kontra egindako sarraskia aipatzen dute. Arabiarrek beren jaioterria galdu izana nabarmentzen dute, baita eguneroko bizitzan jasaten dituzten zapalkuntza eta traumak ere. Juduek, berriz, Errusiak egindako erasoak eta nazien kontzentrazio-esparruak aipatzen dituzte. Amerikarrek Pearl Harbor gogorarazten dute, eta, azken aldian, Irailaren 11ko atentatua; irandarrek, berriz, Sha-ren erregetza, izua eragin zuena eta mendebaldeko gobernuek petrolio-hornidurari eustearren tronuan bi aldiz jarri zutena.

Orain dela gutxi, tragedien eta kontrako egien uholdeak ikusi izan ditugu Iraken, Sudanen, Kaxmirren, Afganistanen eta Txetxenian, besteak beste. Zerrenda luzea da eta, dirudienez, mito kultural tragikoak ez dira gutxi munduan.

Gizarte batek berez ontzat eta zintzotzat izan ohi du bere burua, eta ez ditu ongi onartzen berari buruzko iritzi inmoralak. Besteekiko etsai-edo zapalkuntza-portaera hartzen badu, orain bere erasoan xede direnek lehen berari egindako laidoekin lotzen du portaera hori, egoki edo desegoki, edo talde horrek nolabait ordezkatzeko duen beste komunitate batekin. Kalte fisikoak, psikologikoak eta emozionalak dira maizen jasan ohi diren laidoak. Aditzera eman behar da komunitateek jasandako eta konpondu ez diren kalte horiek taldeen arteko gerra eta indarkeriarako pizgarriak direla. Halaber, estereotipo negatiboak sortzen eta baliozkotzen laguntzen dute hein handi batean.

Hainbat kultura osok har dezake tragedien biktimen identitatea, baita izuaren energia hori modu inkontzientean erabili ere laidoen egile bihurtzeko. Gatazkan dauden bi taldek biktima-identitate modu obsesiboan hartzen dutenean, «beste» deshumanizatu eta demonizatu bati

tratu anker eta herra hutseko tratua emateko arrisku handia dago. Oker absolutuek justizia absoluturako bidea zabaltzen dute. Eta tratu ankerrak gaizkileekiko zigorraren mozorroa duen beste tratu anker baterako bidea.

4) Esplotazioa eta manipulazioa

Dilema hori are zailago bihurtzen da interesdun pertsonak edo taldeek dilema hori beren onura propiorako nahita esplotatzea erabakitzen dutenean. Egoera hori pertsonak, talde txikiek, edo instantzia garrantzitsuetarako –komunikabideak, esaterako– sarbidea duten talde handiek manipula dezakete. Propaganda instituzionalaren ibilbide luzeari begirada bat ematen badiogu, komunikabideen manipulazioaren adibide ugari ikusiko ditugu.

Polarizazioa egoeraz probetxua ateratzen duten aldeentzat onura lortzeko sortu edo sustatzen da –askotan, baita bultzatu nahi duten «gure» taldearen kalterako ere–. Motibazioak askotarikoak izan daitezke, onura politiko edo finantzarioak, boterea edo gizartearen aurkako edo mendeku pertsonaleko portaerentzako justifikazioa edo babesa lortu nahi izatea barne.

Izuaren bidea hartzen dutenek, nola pertsona bakar batek –Timothy McVeigh-ek, esate baterako–, hala legerari uko egiten dioten talde txikiek, sare handiek edo gobernuak, «etsaiaren» sua pizten dute beren ekintzetarako laguntza lortzarren. Oposizioko talderen bat bereganatzea lortzen badute –AEBetako gobernuak bezalaxe–, alegia terroristekin nolabaiteko lotura duten errugabeen taldeak demonizatzen eta deshumanizatzen dituen eta bereziki haien aurka indarkeria eta zapalkuntza bere aldetik erabiltzen duen talderen bat bereganatzen badute, terroristek «egia» berri eta indartsuak sortzea lortuko dute, «besteak» zapaltzaile oso gaiztoa delako sinesmena baliozkotu ahal izango dituztenak.

108

Adibidez: errepresalia gisa erabiltzen den indarkeriak, bere diseinuaren arabera «gu» babesteko «bestearen» komunitatean eragindako «alboko kalteak» –hots, biktima errugabeen heriotza eta kalteak– beharrezkoak eta onargarriak direla onartzen duenak, terroristek jardun ezin izango luketen munduko beste leku batzuk jardutera bultzatu ditzake.

Horren emaitza triste da: «besteak» are gaiztoagozat hartzen dute bi aldeetan. Era beren, pizgarri indartsua sortzen da, pertsona alienatu eta biktimizatuaren beste belaunaldi batean, beren burua «askatasunaren aldeko borrokalaritzat» duten terroristekin bat egiteko. Mugak ezabatu egiten dira bere eguneroko bizitzan indarkeria eta zapalkuntza jasaten dituzten gizarteetako pertsona arruntentzat. Indarkeriaren, etsipenaren eta biktima-identitate nabarmenaren formulak erraz bultzatu dezake indarkeria onartzera eta erabiltzera, nola nahigabea eta amorrazioa adierazteko hala justizia eta segurtasuna lortzeko.

Argibide gisa, esan behar da azken aldian, hainbat terrorista maltzurrek mendebaldearen xenofobia eta Islamari buruzko ezjakintasuna baliatu dituela –baita komunitate musulmanetako hainbat gutxiengoren ezjakintasuna ere, fedeari buruz gutxi dakiten eta beste pertsona batzuen interpretazio alderdikoietan oinarritzen diren gutxiengoaren ezjakintasuna, hain zuzen ere–. Terrorista horiek ezjakintasun hori esplotatu dute etiketa musulmanak eta islamikoak aitzakiatzat hartuta –beren aldeentzat aukeratzen dituzten izenetan hitz horiek erabiltzera ere iristen dira–, eta, egia esan, Islamen sinesmenen aurka dihardute. Ez dute esaten beren ekintzak, baita beren ambiguitasunak ere, guztiz «ez-islamikoak» direnik.

AEBetako buruzagiek eta komunikabide sentsazionalistek estereotipo negatiboak eta etiketa banatzaileak eta suntsitzaileak –hala nola «gurutzada» eta «terrorista islamiko gaiztoak»– erabiltzeak terroristek lortu nahi duten polarizazio-jokoan sartzea besterik ez dakar.

Azkenean, une jakin batean –kanpotik begiratuta–, bi aldeen erretorika oso antzekoa da, bai Al Kaedako buruzagi batek erabiltzen duena, bai Estatu Batuetako presidenteak erabiltzen duena.

Irailaren 11n Estatu Batuek jasandako erasoaren ondoren, arreta guztia egoera jakin horretan bildu da. Alabaina, manipulazio-dinamika horiek ez dira berriak, orain dela mende asko hasi ziren erabiltzen, leku askotan eta «beste» askorekin.

Konponbidearen hasiera

Dinamika horiek zehatzago aztertu behar dira, ikuspegi multidiziplinar eta multikulturala kontuan izanik. Ikuspegi multikulturala nabarmenduko dut, batez ere gure aztergai oso subjektiboa delako eta ikuspegi kulturala hein batean partziala delako ezinbestean. Gure alderdikeriez eta itsutasunez ohartzeko elkarri laguntzen badiogu, argiago ikusi ahal izango dugu prozesu hori multifazetiko dela, baita gure harremanetan egiten ditugun erabilera okerrak zuzentzeko irtenbide praktikoak ere. Jarrera hori sustatzeko, hainbat konponbide-hastapen azalduko dut.

1) Giza prozesua aintzat hartzea eta onartzea

«Besteak» edukiontzi gisa eskuarki izan ohi duen ezaugarria honako hau da: «bestearen» baitan edozein unetan bildutako talde partikular batentzat identifikaturiko edozein «ezaugarri» gainditzen duen arrazoi batengatik existitzen da. Berez eginkizun bat da, gure autodefiniziorako erreferentzia-puntuaren zeregina betetzen duena. Edukiontzia-erakundeak existitzen delako existitzen da.

Hortaz, lehen adierazitako erabilera okerraren ondoriozko arazoetarako edozein konponbideren osagai nagusiak honako hau izan behar du: gure giza psikearen funtsezko alderdi hori aintzat hartzea eta baldintzarik gabe onartzea, baita gupidaz onartzea ere. Orduan soilik espero ahal izango dugu besteekiko dugun portaeran zer eragin duen kontzienteki kontrolatzea.

Izan ere, alderdi horren funtsezko zereginaz jabetu behar dugu, hori lagungarria suertatuko baitzaigu gainerako errealitateari dagokionez nortzuk garen konturatzeko. Bestela, unibertso handi batean gure burua definitzeko bidaian galdu egingo ginateke seguruki. Ukatzen badugu, «besteak» aurka ez ezik, gure buruaren aurka ere jarriko ginateke, inongo beharrik gabe. Izan ere, ukatzea da arazoaren gakoa.

Ezezagunarekiko beldur inkontzientea eta gure psikean nolabaiteko tentsio, segurtasunik eza eta kalteberatasuna sentitzen dugun bitartean oso litekeena da nolabaiteko diskriminazio eta tolerantziarik eza izatea «besteekiko» pertzepzioan. Gure giza inperfekzioaren zati da besterik gabe.

Horrelako pentsamenduak ezabatu ahal izango ditugula ustea ez da oso praktikoa; are gehiago, kaltegarria da. Hori eskatzeak porrotera eta ukapenera garamatza, eta gure giza prozesuari egiten diogun kontrola apurtzen du.

Gure barne-mundu subjektiboan kanpoko munduan egiaz egin nahi dugunaren guztiz kontrakoak diren bulkada deserosoak edo pentsamendu txarrak aldizka senti ditzakegun bezalaxe, batzuetan barrendik juzkatzen ditugu «besteak», bidegabe edo alderdikokeriaz juzkatu ere. Batzuetan, bulkada horiek aurreiritzizat hartzen ditugu. Horri dagokionez, aurreiritzia honela definitzen da: pertsona baten ezaugarriei eta asmoei

buruzko iritzi negatiboa, jakintza espezifikorik ez izatearen ondoriozkoa –edo beldurrean oinarrituta talde jakin batek dituen estereotipoen edo logikarik gabeko eta gehiegi orokortutako suposizioen ondoriozkoa–.

Horretaz jabetuta ez bagaude, prozesu hori gure subkontzientean aktiba daiteke, eta gure ekintzetan eragin dezake, gu konturatu gabe. Gizatiar hutsak diren akats horiek onartzeak, are gehiago gure buruari akats horiek barkatzeak, horien erantzukizuna modu kontzientean hartzeko aukera ematen digu, eta, beraz, mundu errealean besteei ematen diegun tratuan horrek zer eragin duen kontrolatzekoa. Era berean, enpatia eta gupida sustatuko ditugu horrela. Kontzientziak nahita egin ditugun ekintzen eta ontasunaren eta estimuaren zentzu «jakinaren» arteko lotura zurruna ikusarazten digu, edozein aurreiritzi eta partzialtasun bazter utzita. Kontzientzia-egoera garrantzitsua da hori; izan ere, azken analisian, pertsonak garen aldetik betiere, gure zuzentasunaren eta «ontasunaren» oinarria, egiaz, funtsean gizatiarrak diren ezaugarriak adierazteko «saiakera kontzientean» ikusten da, batez ere gainerako bizitzarekin zerikusia dutenean.

2) Sentsibilizazioa eta familiarizazioa

Ezagutzen ez dugun «bestea» susmagarria dela, eta, beraz haren beldur izan behar dugula suposatzen badugu, zentzuzkotzat har dezakegu harekiko nolabaiteko segurtasun-tartea gordetzea. Aldi berean, segurtasuna non dagoen zehazki jakiteko, ezezagun hori non dagoen jakin behar dugu, eta ez non ez dagoen. Estereotipoek arriskua azkar atzematen laguntzen digute. Tamalez, Gure eta ezezagunaren artean tartea jartzen badugu, ezin dugu zuzenean ezer ikasi talde horretako kideei buruz. Hortaz, arriskua identifikatzeko erabiltzen ditugun tresna deformatuak dira «besteari» buruz ezagutzen dugun ezaugarri bakarra.

110

Beste pertsonaren esperientzia pertsonalki baliozkotzeko ezintasunak dakartza konpondu ezin diren desberdintasunen eta ezbeharraren pertzepzioak. Sentsibilitatearen eraketak, besteekiko harremanetan politikoki zuzenak ez diren ohiturak atzeman eta ezabatzeke ez ezik, gure portaera zein den lehen eskutik ikusteko ere balio du: «bestea» izanda sentitzen denaren esperientzia pertsonala, batez ere guk sortu dugun «beste» hori izanda.

Halaber, garrantzitsua da gure burua baliozko, on eta zintzotzat hartzea eta gu ez den beste inor ere baliozkoa, ona eta zintzoa izan daitekeela jakitea.

Biok egiazkoak eta elkarrekiko inklusiboak izateko aukerak, gure identitate positiboa «besteari» buruzko ikuspegi negatiboarekin alderatuz definitu behar izan gabe, honako gezur honetatik libre uzten gaitu: «gutako batek oker egon behar du besteak arrazoi izan dezan».

Hori onartu ondoren, «sen ona» agertzen da eta portaera modu naturalean leuntzen da, gure ekintzek besteengan duten eragina eta ekintza horien testuingurua ulertu dugulako. Fase horretan, «besteak» tratatzen ditugun modua gure balioaren, errespetuaren eta ontasun-zentzuaren adierazpen kontzientea da, baita horretarako laguntza ere.

Zuzeneko hurkotasun pertsonala oztupoak kentzeko eta ulertzeko gaitasuna areagotzeko modu naturala da. Ulertzeko gaitasuna areagotzen denean, estereotipoak eta orokortasunak murrizten dira. Ezezagun, arrotz eta misteriotsutik ezagun, errekonozitu eta aurreikusira igozteak antsietatea murrizten du eta beste pertsona batzuen esperientziaren atak irekitzen dizkigu. Elkar ulertzeko oinarri komuna sortzeak ere segurtasun-sentsazioa sortzen du eta aniztasunaz jabetzeko –are gehiago aniztasunaz gozatzeko– aukera ematen digu. Ezezaguna murriztu ahala seguruago, baikorrago eta erosoago sentitzen gara.

Hala ere, horrek ez du esan nahi ezagutzen dugunak Gu «bezalakoa» izan behar duenik: «ezaguna» dugula besterik ez du esan nahi. Munduak Gurekin Haiekin baino antza handiagoa izatea lortu behar dugula suposatzea da askotan egiten dugun okerra. Era horretako planteamendua kontuan hartuta, honako galdera hau egin behar dugu: Nor da «Gu» hori? «Bestea» ezabatzea, hura irentsiz, eskatzen duen konponbide oro ez da oro errealista eta «Besteek» genozidiotzat har dezakete. Ez zaigu zaila suertatuko Mendebaldearen merkataritza-eraginaren bitartez munduko kultura eraldatzeko saiakera irmoen berri izatea. «McDonalizatzea» terminoak errealitate tristearen adierazgarri da munduko eskualde gehienetan: toki-, gizarte-eta kultura-arloko identitatearen bahiketa ekonomikoaren ikurra da.

AEBen eta Mendebaldeko Europaren kasuan, munduaren zatirik handiena da «bestea» eta zati horren ehunekoa gero eta handiagoa da. Mendebaldea komunitate globaleko eredurik egokien gisa aurkeztu nahi izatea –gutxiengoa dela kontuan izanik– zentzugabea da, beste edozein kulturak hori egitea bezain zentzugabea.

Talde baten garapenari eta bilakaerari buruzko erabaki nagusiak talde horren barnetik sortzen direnean eusten dio taldeak bere ongizate-zentzuari eta beste talde batzuekiko oreka osasungarriari –ez, ordea, erabaki horiek kanpotik inposatzen zaizkionean, eta, bereziki, bere identitatea beste batzuen identitatearekin ordezkatu nahi dutela uste duenean–. Berriz ere, maila fisikoan, inposaturiko eraldaketa inbasiotzat har daiteke baita kideak beren talde propioan, eta munduan oro har, baztertzetat ere.

Horri dagokionez, aniztasunaren kontzeptu positiboa aktiboki lantzea da alternatiba natural eta onargarriagoa. «Aniztasunaren zentzu positiboak» aniztasunarekiko tolerantzia handiagoa izatea eta aniztasuna hobeto onartzea ahalbidetzen du eta horrek jarrera inklusiboagoa eta gutxiago baztertzalea sustatzen du. Baita giza adierazpenaren aniztasun handia ospatzea ere, gure gizatasunaren mailarik oinarritzkoenarekiko kidetasun-zentzu sakona murriztu edo arriskuan jarri gabe.

Jakina, gatazka latza sortzen da jarrera hori bekatutzat edo deabruzkotzat hartzen denean –jatorrizko bekatuan bezala–, on, borondate oneko eta konfiantzazkotzat hartu ordez. Lehenengo kasuan, gure «pertenentziaren» oinarri makala izango dugu, betiere «besteen» aurka jartzen ez bagara eta baztertzen ez baditugu. «Bestearen» prozesu psikologikoaren eta jatorrizko bekatua edo gaizkia gizakien baitan daudelako suposizioaren konbinazioak gizateria osoaren arteko harreman antagoiniko eta garailerik gabekoaren oinarriak jartzen ditu. Zaila da pentsatzea Lurrean bakea eta besteekiko borondate ona nagusituko direnik errealitateari buruzko ikuspegi horrekin.

3) Portaera arau unibertsalak

Aspaldi egina da Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, eta, zorionez, badirudi laster zabaldu egingo dutela. Hasteko, orokorki hartu eta zabaldu egin behar da, eta denok errespetatu behar dugu. Munduko buruzagiek alde batera utzi behar ez luketen aukera da. Dena den, deklarazio horrez gain, zerbait erradikalagoa behar da. Arau Unibertsalekiko konpromisoa hartu behar da –Oinarritzko Giza «Balioen» Deklarazio Unibertsalarekiko eta Oinarritzko Giza «Ontasunarekiko» konpromisoa–. Itxura polita duen arren, hori erradikala izan daiteke, arrazoï ugari direla-eta. Horien artean, oinarritzko giza izaerari buruzko hainbat erlijio-interpretaziok garrantzi handia du. Nire ustez, arau berri hori gabe, hainbat pertsonaren ekintza txarrak errugabeen talde osoei gaizkileak direla leporatzeari eusteko aitzakiatzat erabiliko dira. Hori, bidegabea ez ezik, interes orokorren kontrakoa ere bada, eta, horrez gain, ez da eraginkorra; izan ere, erantzukizuna ez zaio egozten ekintzak modu kontzientean egin dituen pertsonari, haren taldeari baizik. Hartara, taldeak gizartearen

aurkako ekintzak bere arauei jarraiki egin dituen pertsonari ekintza horien erantzukizuna egoztearazten da. Bere burua egoki erregulatzeko eta izaera moral osasungarria edukitzeko taldeari dagozkion eginkizun naturalak indargabetzen dira.

Elkartzeagatik, hurbiltasunagatik, itxuragatik edo, besterik gabe, jaiotzagatik erruduntzat jotzen denean jendea, egoera neurritik ateratzen da –eta ezinezkoa da konpontzea–. Zentzugabeko 22. tranpak –Joseph Heller idazle estatubatuarren gerraren aurkako eleberria–, jende guztia harrapatzen du azkenean.

- 22. tranpa horretan, epe laburrean: Talde horretako errugabeek errua eta zigorra onartu behar dute eta arriskuan jarri. Besteekiko portaera txarra, suntsitzailea eta gizartearen kontrakoa gainbegiratzeko eta kontrolatzeko taldeak dituen indar naturaletan eragin handia du horrek: desagerrarazi egiten dira. Izan ere, taldeak bat egin behar izaten du kanpotik «denentzat» datorren mehatxutik defendatzeko. Jazarpen-pentsaera nagusitzen hasten da. Hori horrela, «etxe bat erasotzen ari direnean etxe hori zatitu ezin delako» ideia arau garbia da, eta zentzuzkoa, ezbaierik gabe. Etxe bati eraso egiten diotenean, ez du astirik desadostasunetarako edo bertako kideak gaitzesteko. Adore eta kemen paregabeak beharko lirateke –arrisku handiak izateko prest egoteaz gain– beste aldearekin bat egiteko. Hala ere, jazarpen-pentsaera hori ezartzen denean, litekeena da askotan logika bazter uztea eta portaera hori taldearen erruduntasunaren frogatzat hartzea. Taldea mundu osoan gaitzetsi, umiliatu eta mehatxatuz gero, gauzak are gehiago zailtzea besterik ez da lortuko.
- 22. tranpa horretan, epe luzean: Talde horretako errugabeek errealitateari uko egin behar diote eta erruari buruzko deliriozko ideia sortu behar dute aurkarien taldea asebetetzeko, «besteengatik» taldea asebetetzeko, alegia. Hots, taldeak ados jarri behar du denak errotzeko. Horretarako, ados jarri behar dute gutxiago kalteberak, gutxiago onak izateko eta beren buruak gorrotatzeko. Lortzen badute, behea joko dute arlo kultural, moral, psikologiko eta espiritualean.

112

Norberaren joera espiritual edo filosofikoak edozein izanik ere, gizakiak funtsean bekatariak edo gaiztoak direlako sinesmenak gaizkia «Besteengan» identifikatzen laguntzen du. Erliziozko ikuspegi jakin batzuetatik, «salbamenaren grazia» Jainkoak alderdi hori zuzentzeko egindako zerbait da. Jakina, gure ustez grazia horren «barnean» ez daudenak –ez-fededunak, alegia–, susmagarri bihurtzen dira eta munduan gaizkia egiteko ahalmen handiena dute gure ikuspegitik. Gainera, Jainkoaren ikuspegitik gutxiago ontzat, gutxiago aukeratutzat, eta, horren ondorioz, gutxiago balioetsizat hartzen baditugu, guk ere horrela juzkatu behar ditugula pentsa genezake.

Hala ere, ez dugu pentsatzen mundua Satanen jarraitzaileen eta Jainkoaren jarraitzaileen artean banatzeko ideia sinplista horrek bi norabideetan funtzionatzen duenik. Eta ikuspegi horrekin, ezin dugu saihestu beste erlijio-dogma batek gu ere gaizkiaren gauzarekin antzekoentzat hartzea. Munduari buruzko ikuspegi horretan oinarrituta, gaizkia komunitate fededunetakoak ez diren artean badago –hau da, Gure artean–, garrantzitsua da arrisku horren aurrean erne egotea. Erraz identifikatzen edo aurkitzen ez bada, garrantzitsua da *eruego* egotea, *gebiago* bilatzea, aurkitu arte. Orduan, jakina, gaizkiarekin *zer egin* galdera sortzen da, gaizkia aurkitu ondoren.

Idea erradikala izan daiteke ados egonik gaizkia berez gizaki guztien bihotzetan dagoela eta «gaiztakeriazko» edo «ontasunik ezako» ekintzen bidez ez dela sortzen, gaizkia bilatzera behartua gaudela –gainerakoengan eskuarki eta oso gutxitan guregan–. Gaizki ezezagun

horrekiko eta arrotzarekiko beldurra besteekiko indarkeria- eta zapalkuntza-ekintza justifikatuen sorburua bada, agian komenigarria izango da gure deabru propioa sortzea munduan –gure artean–, «besteak» demonizatuta. Pogo-k esan zuenez, «Aurkitu dugu etsaia: gu geu gara».

Honako gogoeta hau egitea proposatzen dut: Nolakoak lirateke gauzak talde, gizarte, kultura, erlijio, arraza edo nazio gaiztorik ez balego, horren ordez pertsonek egindako ekintza txarren –hobe «ankerrak» deitzea– potentzial bat balego? Pertsonek ekintzak ontzat edo txartzat jotzea proposatzen dut eta ekintza horien erantzukizuna pertsona horiei soilik egoztea.

Deklarazio unibertsal baten barnean logikoa litzateke, besteak beste, honako oinarritzko arau unibertsal hauek biltzea:

- Bizitza guztiek balio berbera dute, eta sakratuak dira. Errugabe bakar baten bizitza ezin da plan baten baitako «alboko kaltetzat» hartu.
- Pertsonak, funtsean, onak eta duinak dira.
- Ekintzak ontzat edo txartzat, egokitzen edo desegokitzen, konstruktibotzat edo suntsigarritzat hartzen dira.
- Pertsonak beren ekintzen eta portaeren erantzukizuna dute, modu indibidualean, eta kontzienteki eta nahita ekintza egiten parte hartzen duten pertsonei soilik egotz dakieke errua.
- Inor ezin da izan «errudun» jaiotzaz, edo honako hauetako bati loturik: arraza, kultura, gizartea, sinesmen espirituala, sexua, etab.

113

4) Justifikatutako indarkeria ezabatzea

Gizalegezko tratuari eta tratu ankerrari buruzko arau unibertsalek munduan elkar onartzeko eta elkarri laguntzeko aukerarik onenak ematen dituzte.

Horretarako arau xume eta erraza dago: indarkeria-, zapalkuntza-, eta umiliazio-ekintza bat indarkeria-, zapalkuntza-, eta umiliazio-ekintza da beti, norik egin duen kontuan izan gabe. Hortaz, ez gara anbiguotasunetan eroriko, eta ez da egongo «bidezko gerrarik», ezta «errepresalia justifikaturik» ere, eta ez da «alboko kaltearen» kontzeptu ankerra onartuko. Hori zuzentzen ez bada:

- Talde baten indarkeria eta izua beste talde baten defentsa justifikatua izango da.
- Talde bateko terrorista beste talde batek abertzaletzat, heroitzat, askatasunaren aldeko borrokalaritzat eta martiritzat hartuko du.
- Talde baten alboko kaltea errugabeen sarraski ikaragarri eta ankerra izango da beste talde batentzat.

Justifikazio gisa balio diguten etiketak bertan behera uzten baditugu, errazagoa suertatuko zaigu gure bizitzetan indarkeria etetea, eta munduan kalte handia egiten duen sinesmen negatiboaren sistema berresten duten frogak emateari utziko diogu.

Indarkeriak indarkeria dakarrenez gero, garbi dago edozein kode unibertsalak garbi utzi behar duela ez dela besteekin harremanetan izateko tresna onargarria. Beharrezkoa da gatazkak konpontzeko bide baketsuak errespetatzeko konpromiso globala lortzea, baita

gizartearen aurkako krimenak zigortzeko indarkeriarik gabeko baliabideak erabiltzekoa ere. Justifikatutako indarkeriak, edozein motatakoa dela ere, justifikatutako indarkeria gehiago edozein mailatan gertatzeko atera zabalik uzten du. Heriotza, tortura eta abusu fisikoak zigor-metodo egoki gisa onartzen eta erabiltzen duen gizarteak, indarkeria hainbat helburutarako baliagarria dela besterik ez du frogatzen –betiere botere eta aginte sendoak edukita–.

Botere eta aginte horien definizioa adibide bakarrean biltzea okerra da. Era horretako eskubideak eskuratu nahi dituztenen hainbat eta hainbat adibide eskaintzen du historiak: denak ere biktimia-identitateak sortzeari loturik, «beste» beldurgarriaren irudia indartzen dutenak. Esate baterako, Hitlerrek besteen bizitzaren eta heriotzaren gaineko «eskubidea» beretzat hartuz definitu zituen bere botere eta agintea.

Aldez aurretik pentsatutako indarkeria ofizialki debekatuko dutela espero izatea zentzuzkoa da; are gehiago, ez litzateke oso zentzuzkoa izango ez debekatzea. Eta ez naiz eraso fisiko hilgarri batetik berehalako autodefentsaz ari. Dena den, batzuk ez dira gai horrekin ere ados egongo. Gure aztergaiari dagokionez, aukera kontzienteak egiten ditugunean besteekiko portaera unibertsal onargarriaren eredia aurkitzea da gakoa. Nire ustez, indarkeria propio aukeratzea gure aginte moralaren osotasuna galtzea da.

5) Talde espirituari dagokionez, martirioa konfiantzako gupida bihurtzea

Orientazio psikopedagogikoan, nolabaiteko oinazeari egin behar izaten diogu aurre eskuarki, eta arreta behar duen funtsezko prozesu gisa tratatzen dugu. Iraganean jasandako kalteetan eta galeretan etengabe pentsa ez dezaten pertsonen orientazioa emango geniekeen bezalaxe, betiere beren bizitzak modu positiboan definitzeko bidean aurrera egin dezaten, besteekiko harreman osasungarriagoak izateko trebetasunak gehituz, garrantzitsua da komunitateek eta taldeek gauza bera egiteko modua aurkitzea. Deitorea funtsezko giza prozesua da, mundua adiskidetzera eta oreka berreskuratuzera bideratu behar dena.

Azken emaitzak honako hau izan behar du: bizitzaren ontasunarekiko konfiantza eta gurekiko nahiz besteekiko gupida berriz ezartzea.

Horixe izango litzateke hildakoei, ekarpen goreneko ekintzei eta gure komunitateen eta munduaren sakrifizioari ohore egiteko modurik baliotsuena. Ez du zerikusirik martirioaren eta gorrotoaren instituzionalizazioarekin, ezta «besteen» demonizazioarekin ere, etorkizuneko belaunaldientzat eta hurrengo giza tragedietarako energia negatiboa sortzen duen instituzionalizazioarekin, alegia.

«Puntu» askok osatzen dituzte talde baten espirituaren ikurrak, oso errotuta dauden ikurrak, alegia. Maizegi, puntu horiek gerra-monumentuak eta indarkeria-ekintzak izaten dira, bizitzen galera tragikoa eragin dutenak, eta biktimen identitatea eta zigor zuzena sustatzeko balio dute. Gizarte bateko monumentu nagusiei begirada bat ematen badiegu, erraz jabetuko gara gizarte horrek jasan dituen eta oraindik ere gainditu gabe dituen kalteez, baita gizarte horrek etsaitasunez ote diharduen ere.

Gutxiago inbertitu behar dugu gerra-monumentuetan, mendekua eta gorrotoa sustatzen baitute, eta gehiago inbertitu behar dugu gure zauri kulturalak sendatzen dituzten ikurretan. Bakearen eta elkar ulertzearen aldeko borrokaren omenezko monumentu gehiago behar dira, honako bisionario hauen ildoari jarraiki: Gandhi, Kalkutako Teresa, Martin Luther King eta Nelson Mandela, azken aldi honetako batzuk aipatzearen. Gure taldeari diogun estimua eta gure historiari gorazarre egiteko modu osasungarriagoak aurkitzea da kontua, horretarako beste talde bat zertan demonizatu gabe.

Itxaropena

Aurreko ohar eta alderdiak azaldu ondoren, itxaropen-ikuspegia eman nahi nuke. Bada itxaropena, garai gatazkatsu hauetan asaldura eta tragedia areagotzen ari direla dirudien arren. Izan ere, aurreneko begiratuan ikusten dena baino itxaropen handiagoa dago, eta, ezbairik gabe, komunikabideetan agertzen dena baino handiagoa.


Itxaropena gizaki bakoitzaren baitan baitago, pertsona guztiz kontziente eta adeitsua izateko erabakia hartuta soil-soilik, gure potentzial guztia gauzatzeko eta gure patu propioan eragiteko erabakia hartuta soil-soilik. Gure buruarekin, besteekin eta munduko komunitatearekin harreman hobea izateko bidea kontzienteki urratzea «aukera» dezakegu.

«Bestea» gure baitan egon da sortu ginenetik. Bai familia-, leinu-, kultura-, erlijio-edo sexu-arrazoiengatik, bai bestelako desberdintasun askorengatik, beti saiatu gara gure eta haien, zure eta nire, arteko bereizketa egiten.

«Bestea» sortzen genuen heinean ere, «beste» horrek nahasi eta jazarri egin gaitu, «ezezagunak» sortzen digun beldurrez. Beldur lauso eta zehaztugabea da, beti hor dagoela ematen duena. Borroka argiaren eta iluntasunaren indarren artean gauzatzen dela esaten dugunean, gure metaforek gure beldurrak indartzen dituen egiazko historia erakusten dute: ezagunaren eta gertukoaren argiaren eta ezezagunaren eta arrotzaren itzalaren arteko borroka.

Errudunik bada, nire ustez gaizkitzat definitutako ezjakintasuna da. Eta beti gaizkia garaitu behar izatea etsigarria den arren gizaki xumeentzat, ezjakintasuna gainditzeko konponbide praktikoak aurkitzeko itxaropena handia da.

Gure kontzientzia kolektiboa errotik aldatzea da beharrezkoa. Eta aldaketa hori posible izango da bizi dugun atakaz ohartzen bagara eta gauzak elkarrekin aldatzen hasten bagara. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula gure saria etorkizuna izango dela esatea. Gizakiak garen aldetik gure arteko loturari ohore egiten dion eta gizateriaren askotariko adierazpenei gorazarre egiten dien etorkizuna, alegia. Etorkizun horretan, aniztasuna nahigarria, askatzailea, eta paradoxikoa bada ere, lasaigarria izango da.



Bake prozesu egokiak: ikasitako gauzak

MARI FITZDUFF AND.

Brandeis University

Gaur egun, Mari Fitzduff Gatazken Azterketako irakaslea da eta INCOREren zuzendaria.

1990etik 1997ra bitarte, gobernu britainiarrak eta Europar Batasunak finantzatuta 1990. urtean sortu zen Harreman Komunitarioen Kontseiluaren zuzendaria izan zen. Kontseilu horrek gobernu-erakunde eta legezko erakundeekin, sindikatuekin, komunikabideekin, eta Erkidegoko enpresa eta taldeekin lan egiten du, Ipar Irlandako gai gatazkatsuak lantzeko politikak, programak eta prestakuntza garatuta.

Ipar Irlandako jardueraz gain, Mari Fitzduff gatazkak konpontzeko proiektuetan programaholkulari izan da Ekialde Ertainean, Sri Lankan, Euskal Herrian eta CEIko –Commonwealth of Independent States– Estatuetan.



CURRÍCULUM

Irlandako Errepublikako Radio Telefis Eireann irrati eta telebistarako hamar kapituluko serie bat egiten lagundu du. *Waging Peace* izena du serie horrek eta Irlandan eta beste hainbat herrialdetan gatazkak konpontzarekin loturiko gaiak lantzen ditu. Halaber, BBCrentzat ere programa ugari egiten parte hartu du Mari.

Hona hemen zenbait argitalpen: *Beyond Violence -conflict resolution processes in Northern Ireland*, Nazio Batuen Gatazka eta Gobernantzari buruzko seriearen barruan argitaratua; eta *Community Conflict Skills*, gatazkak konpontzeko programak garatzeko teoria eta teknikak biltzen dituen kontsulta-liburua.

LABURPENA

Gatazka bateko alderdiak beren aurkaria guztiz garaitu ezin dutela konturatzen direnean hasten dira bake-prozesuak, eta horregatik, elkarrizketa-prozesu bat hasi behar izaten dute gatazkarekin amaitzeko. Prozesu mota horrek hainbat fase izan ohi ditu eta lorpenak pixkanaka egiten dira: sarritan indarkeria egon ohi da prozesu horietan. Prozesuek nahikoa parte-hartzaile bildu behar ditu, batez ere gatazka amai dezaketena. Lehen faseak hobe egiten dira ezkutuan eta barneko zein kanpoko laguntzak jaso ditzakete. Arrakasta lortzeko garrantzitsua izan daiteke identitatearekin eta subiranotasunarekin loturiko alderdiei modu sortzailean heltzea.

Bake-akordioak sarritan pragmatikoak dira eta ez daude gatazka baten emaitzetan oinarrituta, baino giza eskubideen printzipioak bildu behar dituzte alderdiek etorkizunari begira hartutako edozein akordiotan. Armagabete-prozesuak oso gutxitan izaten dute erabateko arrakasta eta sarritan garrantzitsua izaten da zeregin berriak bilatzea gatazkan interesa, zentzua, lana edo dirua topatu dutenentzat, bakeak iraun dezan. Bake-prozesuak alderdi guztiek zerbait galtzen duten prozesuak izan ohi dira. Horregatik dira hain luzeak eta liderren zeregin nagusia beren komunitateekin lortu beharreko konponketak negoziatzea izaten da. Konponbideren bat aurkitzen denean, sarritan beharrezkoa izaten da hori «saltzea» gizarte zibilaren laguntzaz, aplikatu egingo dela eta iraun egingo duela ziurtatzeko.

Bake prozesu egokiak: ikasitako gauzak

Sarrera

Zorionez, bake-prozesuak ia gatazkak bezain endemikoak izaten dira. Sollenberg-ek eginiko azterlan batean 1989etik 1996ra bitarte¹ amaitu ziren 66 gatazka armatu atze-man zituen. Gutxi gorabehera gatazken herenean talde irabazle bat egon zen eta galtzaile bat; beste heren batean emaitzak anbiguoak izan ziren, itopuntu kezkarri batekin edo indarkeriaren jarraipenarekin amaitu zutelarik; eta heren bat baino pixka bat gutxiagoren amaiera bake-akordioa izan zen. Bake-akordio horiek lortzeko denbora luzea eman behar da, baina, dena den, maiz gertatzen dira eta orokorrean arrakasta izan ohi dute². Txosten honen oinarria honako hau aztertzea da: zerk ahalbidetzen du gatazka bat bake-prozesu bihur dadin, eta zerk bermatzen du bake-prozesu horren arrakasta bake-akordiora eta bake iraunkorrera hel dadin.

Bake prozesuak: hasiera

Noiz hasten dira bake-prozesuak?

Bake-prozesuak hasten dira gatazkaren bi alderdiak edo alderdi gehienak beste alderdiarekin edo alderdiekin konpromisoa hartzeko beharraz ohartzen direnean eta gatazka amaitze aldera beste alderdia konponbidean sartu behar dutela ohartzean. Puntu horretara iritsi baino lehen irabazleei eta galtzailei buruzko ikuspegia nagusitu ohi den denbora-tarte bat egoten da; alderdi batek edo guztiak uste dutenean beren alderdiarentzat garaipena lor dezaketela, normalean indarra erabiliz. Denbora-tarte horrek urteak iraun ditzake eta behin eta berriz azalera daiteke gatazkako alderdiren bati bakea akordioen bitartez eraikitzea zailegia egiten bazaio.

119

Hortaz, Darby eta Mc Ginty-ren arabera, bake-prozesu bat abian jartzen da honako egoera hauetan:

- a) protagonistek elkarriketei egiaz ekin nahi dietenean –negoziazioak gudarekin jarraitzeko beste bide baten moduan ikusi beharrean–;
- b) negoziazioetan funtsezko eragileak biltzen direnean;
- c) eztabaidek borrokaren gai nagusiei heltzen dietenean;
- d) negoziatzaileek beren helburuak lortzeko indarra ez erabiltzea adosten dutenean, eta
- e) protagonistek onartzen dutenean prozesua bultzatu behar dela beren helburuak lortzeko³.

Bake-prozesu baten osagai nagusiak horiek diren arren, egiaz, prozesuak askotan ez du ordenarik izaten eta batzuetan alderdiek adierazitakoaren zati bat baino ez dute betetzen.

Zergatik hasten dira bake-prozesuak?

Bake-prozesuak hasten dira alderdiak ohartzen direnean ezin dutela gatazka indarraren bitartez irabazi, eta borroka armatuan itopuntu bat gertatzen denean, 1980ko hamarkadan

Ipar Irlandan Britainiar Gobernu eta Sinn Fein-arekin gertatu zen bezala. Edo alderdiak ohartzen direnean indarkeria horren kostua handiegia dela, Zartman-ek «oinazearen itopuntu» deitzen duena⁴. Prozesu bat garatzen ere laguntzen du alderdiak guztientzat edo gehiengoarentzat onargarria izan daitekeen gatazkaren irtenbidea bilatzen hasten direnean, eta balizko akordio baten itxaropena hazten laguntzen duen «amaieraren argazkia» zehazten hasten denean. Egiaztapen horien hasieran elkarriketak eta era guztietako bitartekotzak egon ohi dira, horien bitartez hasten dira alderdiak ulertzen beste alderdiak ere sinetsita daudela itopuntu batean daudela, eta/edo negoziatzintzat dituzten alderdietan konponbide batera iristea interesgarria izan daitekeela. Lagundu dezakeen beste faktore bat izan daiteke talde paramilitar bat konturatzea gatazkaren kostuari buruz kontzientzia txikia duten lider paramilitar gazteen belaunaldi berri bat sor daitekeela. Hori gaur egungo liderrak bake-prozesu bat garatzera eramango dituen pizgarri bat izan daiteke, indarkeria-zikloa berriz hasi baino lehen belaunaldi berriaren eskutan. Edo lehen indarkeria erabiltzen zuten taldeekin hitz egin nahi ez zuen alderdi jakin batek herriaren behar adinako babesa jasotzen duenean haiekin hitz egiten saiatzeko. Horixe gertatu zen 1993an Erresuma Batuan alderdi laborista boterera iritsi zenean, talde paramilitar errepublikano eta unionisten –Irlandar Armada Errepublikanoa, Ulsterren Defentsarako Indarra eta Ulsterreko Boluntarioen Indarra, esaterako– ordezkari-politikoekin elkarriketa formalak edukitzeko arrisku politikoa hartzeko behar adinako gehiengoa lortu baitzuten.

Zeintzuk dira bake-prozesu baten helburuak?

Gatazkak sarritan urte askotako borroketan oinarritzen dira eta oro har, ez da oso errealista, alderdiek adierazitako kexak –gatazka batean egon ohi den indarkeriarekin loturikoak barne– bake-prozesu baten bitartez konponduko direla itxarotea. Hortaz, ezin da itxaron gatazkak nahitaez bake-prozesu batekin «amaitzea», baina bai da errealista, ordea, pentsatzea alda daitezkeela, eta bilatzen den aldaketa nagusia indarkeriaren amaiera da, alderdi bakoitzaren posizio politikoei balioa emateko. Hori dela-eta, bake-akordioek dauden gatazkei beste modu batean heltzen diete. Normalean, horrek esan nahi du negoziazioak edo legezko prozesuak, edo prozesu politikoak, erabiltzen direla helburu horiek lortzeko, edo konponbide partzialak ezartzeko akordio baten bitartez, eta akordio horren arabera etorkizunean beste gai polemiko batzuk landuko dira indarkeriarik erabili gabe. Adibidez, Ipar Irlandan, Sinn Fein alderdiak, IRAren ordezkari gisa, ez zion uko egin Irlanda batuaren ametsari, baina hori lortzeko bitarteko politikoak edo demografikoak erabiliz lan egitea onartu zuen. Guztia gainera bitarteko baketsuak erabiltzeko akordio mota horiek alderdien artean pixkanaka konfiantza garatzen lagun dezakete, eta horrek, era berean, lankidetzat maila handiago bat ekar dezake, eta agian, bake iraunkorragoa.

Bake prozesu bat hasteko «heldutasun» aldi bat irits dadin itxaron behar al da edo hori sortu egin behar al da?

Zartmanek garaturiko «heldutasun» unearen kontzeptuaren oinarria honako hau da: alderdiak ohartzea egoera horretan ezin duela inork irabazi eta gatazka luzatzea oso mingarria litzatekeela guztientzat, nahiz eta ez izan mingarria denentzat maila berean ezta arrazoi berengatik ere. «Heldutasunera» iristen lagun dezakeen beste gauza bat berehalako hondamendia saihestea da, iraganekoa zein hurbilekoa, horrek bultzatzen baititu alderdiak politika alternatibo bat bilatzera. Egoera horiek aprobetxatu egin behar dira eta haiek identifikatzea ezinbestekoa izaten da bake-prozesu bat garatzeko⁵. Nolanahi ere, beste egile batzuek, Mitchell-ek esaterako, «aukera tentatzaile» eredu «abaildura» eredu horiekin orekatzen dute eta indarkeria-jarreraren aldaketa sustatzeko pizgarri positiboak negatiboak bezain eraginkorrak edo eraginkorrak izan daitezkeela adierazten dute⁶. Duela

gutxi Zipre eta Turkia Europar Batasuneko kide bilakatu izana –gatazka bati amaiera emateagatik sari gisa– pizgarri mota horien adibide bat da –nahiz eta pizgarriak huts egin duen galeren kostua ez baita bera izan bi alderdientzat–.

Bake prozesuak: dinamika

Bake-prozesuak sarritan gainbeheratzen dira, baina urrats bakoitzak zerbait ekartzen dio prozesu osoari.

Bake-prozesuek askotan huts egiten dutela dirudi. Atzera begiratzen badugu ikusi ahal izango dugu prozesu horiek hainbat fase dituztela eta bakoitzak urrats bat eransten diola. Hau da, bakea negoziazio bakoitzarekin eraikitzen joaten da, eta aurrera eginiko urrats bakoitza balizko konponbide bat aurkitzeko beharrezko akordioen buru-hausgarriaren pieza bat gehiago da⁷. Konparazio-azterlanek erakusten dute bake-prozesuen arazoetako bat sarritan zera dela, pertsonak espero dutela modu linealean aurrera egitea, baina egiaz gorabehera ugari izaten direla. Itsasoko olatuekin bezala, aurrerapauso eta atzerapauso ugari behar izaten dira emaitzak lortzeko. Nolanahi ere, frogak erakutsi dute urrats horiek batu egiten direla eta garai batean adosturiko gauzak berrikusi egiten direla ondorengo faseetan, posible dena definitzeko etengabeko prozesuaren barnean. Horrela gertatu zen Ipar Irlandan ustez «huts egin» zuten eztabaida askotan: atzera begiratuz ikus dezakegu eztabaida horiek sarritan akordioaren oinarriak ezarri zituztela, eta ondoren egin ziren eztabaiden arakastan lagundu zutela, eta azkenik Belfasteko Akordioaren sorreran.

Oro har, hobe da bake-prozesuak ezkutuan gauzatzea

Bake-akordio gehienak hilabete eta urte askotan eginiko elkarrizketa eta negoziazioen ondorioa dira, martxan jarri eta trabatu egiten diren prozesuen fruitu. Gehienak ezkutuan egiten dira. Elkarrizketa horiek sarritan «mezularien» bitartez eginiko bitartekaritza-prozesuei esker gauzatzen dira, mezulari horiek gatazkaren alderdi nagusien konfiantza irabazten dute eta akordio batera iristeko hartu beharreko konpromisoaren izaera eta ezaugarriak definitzen lagunduko dute. Komenigarria izaten da «mezulari» horiek pertsona ezezagunak eta gatazkan inpartzialak izatea, horrek guztiak elkarrizketak behar duen anonimotasunari lagunduko baitio.

Prozesu formalagoa hasten denean, beharrezkoa izaten da, bestalde, nolabaiteko intimitatean gauzatzea. Bake-prozesu baten zailtasun nagusietako bat honako hau da, negoziatzaileak sarritan konpromiso-aukerak aztertu behar dituztela komunikabideek eta hautsleek –eta batez ere konpromisoari beldur handiena dietenek– beren iradokizun guztiak disekzionatu egingo dituztela sentitu gabe. Gardentasuna eskatzea ulergarria den arren, sarritan hobe izaten da alderdiek akordioa pribatuan egitea. Nolanahi ere, onarpena eta egonkortasuna bermatzeko, erabilgarria izaten da akordioa erreferendum baten eraginpean jartzea, eta horren aurretik komunitateen artean adostasuna eraikitzeko lana egitea.

Barneko pizgarriak bake-prozesuan

Garrantzitsua da ahalik eta tokiko pizgarriarik gehienak sartzea alderdientzat bake-elkarrizketetan parte har dezaten eta elkarrizketa horiekiko etengabeko konpromisoa sustatzeko. Gizarte zibilaren –buruzagi erlijiosoak, komunitate erlijiosoak, gobernu kanpoko erakundeak, elizak, enpresak eta sindikatuak barne– parte-hartzea sustatzea erabakigarria izan daiteke Hegoafrikan⁸, Ipar Irlandan⁹ eta gatazkan dauden beste hainbat lekutan ikusi ahal izan zen bezala, non gizarte zibilaren parte-hartzea ezinbestekoa izan zen prozesuan eragiteko¹⁰.

Enpresariak, bereziki, ekarpen handiak egin ditzakete zentzu horretan. Hegoafrikan eta Ipar Irlandan presio mota hori erabakigarria izan zen, eta duela gutxi baita Sri Lankan ere¹¹. Ipar Irlandan zenbait enpresariri esker lortu zen, konturatu baitziren ez zela beharrezkoa jarrera bat hartzea etorkizuneko akordio politikoei buruz: haien lana elkarrizketa bultzatzea zen, alderdi politiko guztien artean harremanak egitea eta politikariei presioa egiten jarraitzea bakea ekar zezakeen akordio batera irits zitezten. Elkarrizketa babestu zuten hainbat GKEren parte-hartzea ere funtsezko faktorea izan zen lan politikoaren prestakuntzan aintzat hartuz lan hori ezinbestekoa zela bakerako negoziazio formalak hasi baino lehen.

Kanpoko esku-hartzeak lagundu egiten dute bake-prozesuetan

Bake-prozesuek eta horiekin datozen akordioek sarritan kanpoko eragileen laguntza izaten dute. Israeldar eta palestinarren arteko Osloko Akordioan norvegiar diplomatikoak izan ziren bitartekari nagusiak. Kanpoko eragile askok lagundu zuten Genevako Akordioen prozesuan ere. Gobernuaren eta Sri Lankako LTT gerrillaren arteko elkarrizketa formala kanpoko eragile askok bultzatu zuten¹². Belfasteko bake-akordioak Irlandako gobernuaren parte-hartzearen laguntza nabarmena jaso zuen eta ondoren, AEBko enpresari eta politikariena. Azken horiek urte asko igaro zituzten negoziazioaren alderdi guztiak adoretzen su-etenaren aurretik. Ipar Irlandako prozesuaren une zailtan hegoafrikan politikari eta agintariek Sinn Fein negoziazioekin aurrera jarraitzeko konbentzitzen lagundu zuten. Fijin, Australiako eta Erresuma Batuko kanpo-eragile askok ordena berrezartzeko eztabaidetan lagundu zuten 2000. urtean gertaturiko estatu-kolpearen ondoren. Mazedoniako bake-prozesuak AEBko eta Europar Batasuneko ordezkarien aldetik laguntza handia jaso zuen. Eta nola ez, NBEk sarritan lagundu du mundu osoko bake-akordio askotan. Hasieran ohikoa da gobernuak kanpoko esku-hartzerik nahi ez izatea, batez ere «barnekotzat» jotzen diren gatazketan. Nolanahi ere, esperientziak erakutsi du kasu askotan laguntza horrek, formala zein ez-formala, bake-prozesu baten garapenean lagun dezakeela, eta azkenik, bake-akordio baten garapenean.

Bake-akordioek gatazka baten arrazoiei heldu beharko liekete

Gatazka baten arrazoiak egiturazkoak edo kulturaren arlokoak badira, konpondu egin beharko dira, edo konponduko direla hitz eman, akordioaren zati direla aintzat hartuz. Hori errazagoa da kasu batzuetan besteetan baino, noski, –esaterako Ipar Irlandan errazagoa izan zen komunitateen arteko bidegabekeriak konpontzea Hegoafrikan baino, ezberdintasun ekonomikoak zirela-eta– baina hasiera bera da. Bake-akordioak ez dira gatazkek konpontzeko prozesuak soilik, gatazkek prebenitzeko prozesuak ere badira. Horregatik du horrenbesteko garrantzia akordio baten aurretik edo akordio batean politikoki, ekonomikoki edo kulturalki baztertuak izan direla sentitzen dutenen parte-hartzea bermatzeak.

Negoizazioetan «nahikoa» alderdi egongo dira

Indarkeriaren amaiera bermatzeko, baita adosturiko konponbide iraunkorra ere, alderdi politiko eta militante ohien kopuru nahikoa bildu beharko da, hori izan baitaiteke bake-prozesuaren arrakasta erabakiko duen faktoreetako bat¹³. Sarritan gatazkaren alderdi liberalenarekin eta itxuraz otzanenarekin negoziatu nahi izaten den arren, prozesua amaitzeko ahalmena dutenak baztertzeko akordio baten egonkortasunaren porrota eragiten du. Alderdiak baztertzeko direnean, edo alderdiek beren buruak baztertzeko dituztenean –Inkatha-k Hegoafrikan egin zuen moduan, edo Alderdi Unionista Demokratikoak Ipar Irlandan–, atea ireki beharko litzaieke hurrengo fase batean haiek prozesuan txertatzeko.

Horretaz gain, akordio baten negoziazioetan txikiagoak diren beste alderdi interesdun batzuk inplikatzeko ezinezkoa izan daitekeen arren, komenigarria izaten da haiei eskatzea akordioek bildu beharko luketenari buruz ideiak ematea eta gauza bera eskatzea gizarte zibileko eta erakundeetako eragileei. Haien iradokizunak akordioan bildu beharko lirateke, betiere ahal baldin bada. Akordioa eta haren idazpena sortzen lagundu dutela sentitzen dutenen kopurua gero eta handiagoa orduan eta handiagoa izango da ere hura babesteko interesa.

Su-etenaren ondoren, berehala, nolabaiteko eztabaida egin beharko litzateke

Su-etena eskaintzen bada ondoren negoziazioak izango diren itxaropenarekin eta negoziazio horiek gauzatzeko denbora luzea igarotzen bada –zailtasun politikoak direla-eta gertatu ohi dena–, indarkeria itzul daiteke, IRA-k Canary Wharf-en eginiko atentatua –bonba eta gutzi– bezala. Atzerapen horiek ere taldeen artean banaketak eragin ditzakete, eta aurkako talde paramilitarrak sortzea, duela gutxi Sri Lankan gertatu zen moduan. Kasu horretan, negoziazioak geratu egin ziren gobernuko alderdien arteko aldeak zirela-eta, eta Tamil Eelango Askatasun Tigreak taldearen (LTTE) aurkari bat agertu zen, eskualdeko komandante ohi batek –V. Muraleedharan– zuzendurikoa. Hortaz, garrantzitsua da eztabaidei eustea horiek hasi ondoren, hutsuneek negoziazioan konfiantza galarazten baitute.

Oro har falta dena borondate politikoa eta konfiantza da, ez konponbideak

Konponbideak ez dira gatazka bati irtenbidea aurkitzeko arazo nagusia izaten. Oro har, gatazka baten arazo jakinentzat konponbide asko izaten dira. Gatazka gehienak konpondu baino askoz ere lehenago prozesu horiek garatzen saiatzen diren pertsonak aukerez beteriko karpetak izan ohi dituzte. Adibidez, lurak partekatzea, mugak eta botere politikoa aldatzea, desmobilizazioari heltzeko eta borrokalariak birgizarteratzeko ideiak, hirietan elkarbizitzeko moduari buruzkoak, errefuxiatuei buruzko gaiak, eta abar. Zailtasun nagusia zera izan ohi da, negoziazio-mahaian eseri behar dutenek aukera horiek batera aztertzea gero bakea eraiartzeko erabiltzeko. Borondate politikoa eta harremanak finkatzea funtsezkoa izaten da arazoentzako konponbide sortzaileak prozesuari egokitu zaizkiola eta hari eusteko erabiliko direla bermatzeko.

123

Giza eskubideak bake-prozesuen zati gisa jorratu beharko dira

Tamalez, bake-akordio gehienak ez daude printzipioei lotuak eta ez dira justuak izaten, baizik eta pragmatikoak eta politikoak. Horrek esan nahi du konponketak presoak askatzearren ingurukoak izango direla, zigorren konmutazioaren ingurukoak edo militar ohiak edo paramilitarrak agintzeko postuetan jartzearen ingurukoak. Kasu askotan –ez ordea Ipar Irlandan–, giza eskubideen arloko erakundeek izugarri kritikatzeko konponketa horiek¹⁴. Adierazitako akordioak justifikatzea oso zaila da eta oro har sinatzeko arrazoi bakarra konpromiso horien bitartez beste heriotza eta giza eskubideen urraketa batzuk saihesteko itxaropena izaten da.

Nolanahi ere, garrantzitsua da sinatzen den edozein akordiotan, eraginpean dauden alderdi eta komunitate guztiek batera eraikiko duten etorkizunean giza eskubideak errespetatuko dituztela adieraztea¹⁵. Akordio mota horrek garrantzi handia izan dezake bake iraunkorraren eraikuntzan, eta etorkizunean gerta daitezkeen zailtasunak konpontzen lagunduko duen printzipioen markoa erraztu dezake. Belfasteko Akordioan, Ipar Irlandan, eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, erlijiosoak eta kulturalak funtsezko zati bat izan ziren. Horretaz gain, adostu zen Giza Eskubideen Europako Hitzarmena Ipar Irlandako eskubideari erantsiko zitzaioela eta Ipar Irlandako Giza Eskubideentzat Batzorde

berria sortuko zela, «bi komunitateek bakoitzaren nortasuna eta balioak elkarri errespetatzeko printzipioak– bilduko zituen Ipar Irlandarako Eskubideen Deklarazioaren garapenari buruz aholkua emateko.

Nahiz eta giza eskubideen interpretazioek ezin izan dituzten gai problematikoak behin betiko konpondu, esaterako desfilearen gai polemikoa, edo tokiko komunitateetan eginiko erasoena, bai lortu dute, ordea, gai horiek eztabaidatu ahal izateko printzipio-testuinguru bat ematea. Era berean, Eskubideen Deklarazio bat garatzeak –prozesua duela lau urte hasi zen eta oraindik irauten du– komunitateek elkarrekin oraindik dituzten eztabaidentzako esparru oso erabilgarria ekarri du, Ipar Irlandak, pixkanaka, bakerantz aurrera egiten duen heinean.

Ikuspuntu konstituzionala aintzat hartuz, sormenak arrakastara eraman gaitzake

Arraroa da bake-prozesuek arrakastaz heltzea dagoeneko gaur egungo munduarekin bat ez datozen lurraldearen eta nortasunaren gai. Estatu-nazioen ideia, edo eskualdeena bera –funtsean izaera homogenea dutenak, nortasun etnikoari, erlijiosoari edo kulturalari dagokionez–, anomalia bilakatu da azken mendeko migrazio handiak, nahitaezkoak zein borondatezkoak, direla-eta. Gaur egun ia herrialde guztiek gero eta aniztasun etniko handiagoa dute. Eta baliteke European bertan, gaur egun, mugaren «okerreko» aldean bizi direla uste duten ehun milioi lagun egotea. «Gutxiengoen» kontzeptua ere berrikusten ari gara, demografiak eta historiak sarritan termino hori gaizki erabiltzera bultzatzen baikaituzte. Adibidez, Kosovo edo Fijin. Ipar Irlandan, non nortasun-posizionamenduak eta lurralde politikoa elkarri guztiz loturiko kontzeptutzat hartzen ziren, konponketa sortzaile eta bakarren garapenak nabarmen lagundu du bakea eraikitzen.

124

Prozesuan zehar adostu zen Ipar Irlanda konstituzioari dagokionez Erresuma Batuaren barnean geratuko zen arren –mugaren bi aldeetako lagunek kontrakoa erabaki arte– Ipar Irlandan jaiotako lagun guztiek eskubidea izango zutela irlandar edo britainiar gisa, edo bi eratara, identifikatzeko eta horrela onartuak izateko, haien aukeraren arabera. Eta horren ondorioz Ipar Irlandan bizi diren guztiek herritartasun irlandarra edo britainiarra izateko duten eskubidea onartu zen, pasaporteak, laguntza diplomatikoa eta abar barne. Akordio hori bi gobernuek onartu zuten eta Ipar Irlandan etorkizunean gerta daitezkeen estatus aldaketek ez diote eragingo¹⁶. Ikuspegi bakar horrek ahalbidetu du lurralde horretan nortasun nazionalaren gaia eraginkortasunez jorratzea, eta itxuraz konponezinak diren beste lekuetako gatazketan –non nazionalitate-eta lurralde-eredu zaharrak akordioaren garapena oztopatzen dutela dirudien– imita liteke.

Bake-prozesu gehienetan alderdi guztiek zerbait galtzen dute

Bake-prozesuetan zailtasun nagusia zera da, nahiz eta bitartekariak eta beste eragile batzuek sarritan guztiek irabaziko duten prozesu gisa aurkeztu, egiaz guztiak *galtzaille* ateratzen diren konponbideak direla, eta alderdi bakoitzak kontzesioak egin behar dituela adostasunera iristeko. Hortaz, bakoitza ahalik eta gutxien galtzen saiatzen da, eta horrek, halaber, bake-prozesu gehienetara iraupena luzatzen du. Sarritan, alderdiak aukera bakoitza baliatzen saiatuko dira kontzesioak saihesten saiatzeko, eta agian prozesua bertan behera utziko dute kontzesio handiak egin behar dituztela ikusten dutenean. Askotan, horrelako arazoak sortzea, esaterako itzultzeko eskubidearena Ekialde Ertaineko prozesuan, indarkeriaren berraktibazioaren atzean egon daiteke, horrelako gai zailak ez jorratu behar izateko. Liderrek zein hautesleek bakea lortzeko zenbat amore eman behar den adostu behar dute eta horrek denbora luzea eskatzen du pertsonen pixkanaka balizko akordio batean galdu egingo dutela onartu arte.

Bake prozesua eta indarkeria

Bake-prozesuekin batera sarritan indarkeria-ekintzak izan ohi dira

Sarritan bake-prozesuekin batera indarkeria-ekintzak izan ohi dira, normalean bake-prozesuan adostasunera iritsiz gero galdu egingo dutenek eragiten dituzte. Bake-prozesuaren aurretik su-etena edo indarkeriaren erabateko uztea egongo dela uste dutenek sarritan desengainu handia izaten dute. Oro har bake-prozesuak negoziatu egin behar dira baita indarkeria berragertzen denean ere. Indarkeria erabat uztea bake-negoziazioak gauzatzeko alde aurreko eskakizuna bihurtzen bada, horrek betoa ezartzeko boterea emango die estremistei baita bake-prozesua eten edo deuseztatzeko aukera ere, eta hori da askotan nahi izaten dutena, horrelako prozesuetan beren ikuspegia galtzeko beldur baitira.

Dena den, indarkeria denbora-tarte labur batean uzteak aldaketa erraztu dezake. Indarkeriaren behin betiko amaiera lortzea zaila bada, negoziazioekin jarraitzeko aukera emango duen su-etanak sarritan arrakasta ekarriko duten neurriak lortzeko behar den testuingurua sortuko du. Arrakasta-neurri horiek areagotu egingo dute alderdien konfiantza, horrela hurrengo indarkeriaren uzteak –luzeagoak edo behin betikoak– adostu ahal izango direlarik.

Bake-prozesu batean ia beti daude «saboteatzaileak»

Bake-prozesuetan *negoziatzaileak* –beste alderdiarekin tratu bat egiteko prest daudenak– eta *saboteatzaileak* –bake-prozesuak indarkeriaren bitartez hankaz gora jarri, eragotzi edo blokea ditzaketenak– egon ohi dira. Saboteatzaileen taldeek ekintza probokatzaileak egiten dituzte bake-prozesua tentsioak handituz nahita ahultzeko, edo iritzi publikoa eskandalizatuz negoziazioak edo akordioak bertan behera utz daitezten. Ekintza horiek hainbat ekintza bildu ditzakete: zibilei zuzenduriko bonbak lehertzea, eraikin enblematikoak suntsitzea edo lider garrantzitsuak hiltzea. Ekintza horien helburua gatazkaren beste alderdiko liderrak eta publikoa zirikatzea izaten da indarkeria gehiagorekin erantzun dezaten¹⁷. Saboteatzaileak neutralizatzeko modurik onena aurreko militanteekin harreman aktiboa izatea da, horiek negoziatzaileak baino egoera hobean baitaude haiengana zuzentzeko eta konbentzitzeko. Militante horien iragana dela-eta arrakasta handiagoa izan ohi dute saboteatzaileen artean piztu behar diren eztabaidak errazten kontura daitezten bake-prozesuen bidea aukeratzeko ez badute gerta daitekeela etorkizuneko akordioetan ezin azaldu izatea beren iritzia. Behar beharrezkoa da saboteatzaileei etengabe aukerak ematea prozesuan sar daitezten eta bigarren ziklo baten negoziatzaile bilaka daitezten, prozesuak aurrera egiten duen bitartean.

Nolanahi ere, garrantzi handia du gogoratzeak saboteatzaileen artean zenbait *fanatiko* egon daitezkeela. Fanatikoek ez dute inolako erantzunik erakusten pizgarri politikoen edo botere-pizgarrien aurrean, oro har ideologia aldaezina izaten dute, eta zaila izaten da haiek negoziazioetan sartzeko konbentzitzea. Askotan fanatikoak akordioaren garapenetik kanpo uztea beharrezkoa bada ere, Hegoafrikako Inkatha mugimenduarekin edo Ipar Irlandako Alderdi Unionista Demokratikoarekin gertatzen den bezala, ona izaten da politikoki ondorengo faseetan sartzeko iraunkortasun arrazoiak direla-eta. Negoziatzaileez, saboteatzaileez eta fanatikoez gain beren buruak negoziatioetatik kanpo uzten dituzten *disidenteak* ere egon ohi dira. Haiek beren taldearen onura bilatzen dute jarduera kriminalen bitartez, eta gerta liteke haiek segurtasun-indarren bitartez kontrolatu behar izatea.

Erabateko armagabetzera bideraturiko ahaleginak ez dira eraginkorrak izaten

Ipar Irlandaren eta UNIDIREn azterlanek erakutsi dute armagabetzea beti izan ohi dela ordenarik gabeko prozesua¹⁸. Oro har, erabateko armagabetzea lortzeko saiakerak ez dute

emaitzarik lortzen. Alderdiek armak uzteko errezelo handiak izaten dituzte bake-akordioak gauzatu daitezkeela sinisten hasten diren arte, eta horrek urteak eraman ditzake. Horregatik, normalean zenbait arma gordetzen dituzte eta zaharragoak diren beste batzuk entregatu, askotan funtzionatzen ez dutenak. Edo beren armak beste gatazka bati saltzea erabakitzen dute, irabaziren bat ateratzeko. Armak entregatzea beste alderdiaren aurrean galdu izan baltz bezala hartzen bada zaila izango da zenbait alderdik horretarako bidea ematea bake-prozesuetan beren jarraitzaileen emozio hegazkorrak direla-eta. Bake-prozesuan erabateko armagabetzean tematzeak zera dakar berekin, gaur egungo merkatuan armak oso erraz ordeztu daitezkeela eta lehergailuetarako materialak –Ipar Irlandako bonbetan erabili zirenen %80a bezala– tokiko biltegietan aurkitzen direla. Hortaz, garrantzitsua da paramilitar ohien borondate eta konpromiso politikoa bermatzen saiatzea gatazka konpontzeko ikuspegi baketsua erabiliz, eta sarritan, armen gaiari dagokionez «oxidazio» konponbide baten mende jarritz. Nolanahi ere, akordioaren ondorengo urteetan «disidenteak» sor daitezkeen zenbait egoeratan –hau da, armak norberaren onurarako erabil ditzaketenak– segurtasun-indarrek pizgarriak eskaini beharko dituzte arma horiek suntsitzeko eta gauzaeztantzeko.

Segurtasun-indarrak eta paramilitarrak gatazkaren amaierarako prest egon behar dira

Gatazka funtzionala da eta askotan zentzua ematen dio ekonomikoki, politikoki eta sozialki baztertuak dauden pertsonen bizitzari. Bereziki gatazkan parte hartzen duten mutil gazteak, arma bat heltzeak garrantzitsu sentiarazten ditu eta zentzua ematen die haien bizitzei, Ipar Irlandan, Palestinan, Aljerian zein Sierra Leonan. Gatazkaren ankerkeria gorabehera, gerraren adrenalinak mendetasuna sor dezake. Paramilitarrak eta soldaduak zein estatuko polizia gerraren amaierarako prestatzea oso garrantzitsua da beren bizitzei zentzu berri bat eman diezaieten. Hori lortu daiteke pertsonak bizitza politikoa sartuz –Ipar Irlandako Hezkuntza Politikoko Taldearen, Political Education Group, kasuan bezala (Fitzduff 2002). Talde horrek modu aktiboan bilatu zituen paramilitar ohiak, eta baliabideak eta hezkuntza eskaini zizkien politika-sistema tradizionalan parte har zezaten–, edo jarduera paramilitarrak uzten dituzten pertsonak komunitatearentzako lanetan parte har dezaten edo lana bila dezaten bermatuz. Gatazka amaitu delako beren lanpostuak galtzen dituzten soldaduentzat eta polizientzat alternatibak bilatzea haiek adoretzea eta lan egiteko heztea aukera bat izan daiteke, adibidez, Nazio Batuen bakeari eusteko jardueratan, edo segurtasunarekin loturiko beste jarduera batzuetan. Zenbait kasutan funtsezkoa izan daiteke paramilitarrak eta segurtasun-indarrak integratzea batera adosturiko segurtasun-lanak gara ditzaten eskualde batean. Lan proaktibo hori egiten ez bada, eta gatazkaren izaera funtzionala aintzat hartuta, gerrara eta indarkeriara itzultzeko tentazioa oso handia eta arriskutsua da.

Bake prozesuak eta liderrak

Bake-prozesu batean liderren lan nagusia dagokiena betetzea da

Gatazkan dauden alderdien liderren zeregin nagusia beren jenderentzat edo alderdiarentzat ahalik eta akordiorik onena lortzea da, eta aldi berean, hautesleek bakea bermatzeko bete beharreko konpromisoak errespetatu ditzaten lortzea. Hautesleek arazo bat izan daitezke «negoziatzea» erabaki duten liderrentzat sarritan ez baitituzte beren helburuak utzi nahi –batzuetan beren liderrek hitz emandako helburuak direnak–. Hortaz, bake-prozesuan behar izaten dena «lider malguak» dira, hau da, hautesleek bake-prozesuarentzat beharrezkoak diren konpromisoak etengabe onartzea lor dezaketenak, hautesleek hori onartzeko ez gauza gehiegi edo azkarregi eginez haiek ez dezaten konfiantza galdu, oso kaltegarria izango bailitzateke prozesuarentzat¹⁹.

Liderrek uste izaten dute beste alderdiarentzat errazagoa dela

Liderrek izan ohi duten arazo nagusietako bat ez da beste alderdia izaten, baizik eta beren aldekoen itxaropenak betetzea. Liderrek ezinbestean uste dute beste alderdiarentzat beraientzat baino errazagoa dela hautesleen nahiak betetzea. Horregatik, urte askotan, David Trimble-ek, Ipar Irlandako Ulsterreko Unionisten liderrak, sinistu zuen eta adierazi zuen Gerry Adams-ek indarkeriaren behin betiko amaiera eta erabateko konfiskatzea gauza zitzakeela, eta ez zituen ulertzen Sinn Feinen zailtasunak. Era berean, urte askotan Sinn Fein alderdiak uste izan zuen britainiarrek, eta hortaz, David Trimblek, unionistak konbentzitu zitzaketela nahi izango balute –eta ez zuten sinistu nahi hori ez zela posible–. Era berean, Sharon (Ekialde Ertaina) Arafat-ek palestinarren indarkeria guztiarekin amaitzeko gaitasuna zuela esaten tematzea, Hamas-ena eta beste batzuen barne, beste alderdiaren ahalmenari buruzko interpretazio okerra da, nahita edo nahi gabe egina. Interpretazio oker horiek liderren sentazio baten ondorioa dira, beste alderdiarentzat kontzesioak egitea beraientzat baino errazagoa denaren sentazioa, hain zuzen.

Beharrezkoa da liderrek onurak ikustea

UNU/INCORE-k duela gutxi Kosovo, Sierra Leona eta Afganistango tokiko liderrei buruz eginiko azterlan batean argi geratu zenez, kasu askotan, bake-akordioaren sistema berriak haiei eta haien hautesleei begien bistako onurak ekarriko dizkiela ikusten dutenean bakarrik aldatzen dira liderrak. Liderrek akordio horiek onartzea erabakitzea sarritan interesen eta gai oso pragmatikoen ondorio izaten da. Liderrek sistema berri eta baketsuago bat babesteak haiei eta haien jarraitzaileei ekarriko dizkien balizko onurak sinetsaraziz bakarrik lortuko dugu lider horiek adierazitako sistema onartzea, haren hizkera asimilatzea eta jarraitzaileak berdin jokatzera adoretzea. Eta, liderrak prozesuak etorkizunean ekarriko dizkien hainbat onurez ohartzea funtsezkoa izan ohi den arren, justizia-gai garrantzitsuak sortu ohi dira iraganean gertaturiko giza eskubideen urraketak direla-eta. Bake-konpromisoaren iraunkortasunarekin loturiko arazoak ere sor daitezke nazioarteko komunitatearen baliabideak desagertzen diren eta haien arreta hurrengo gatazkan zehazten den heinean²⁰.

127

Bake prozesuak: bakerako prestatzea

Konpromisoa betetzeko bidea prestatu beharra

Akordio askok porrot egiten dute bidea ez delako prestatu bake-akordioak berekin dakartzan konpromisoak betetzeko, bereziki akordioa ezkutuan egin bada. Jendea ez badago prestatua laster bete beharko diren konpromisoetarako, eta bakoitzak bere helburu propioak betetzeko ametsari eusten jarraitzen badu, bake-akordio baten aurrean izan dezakeen erreakzioa alderdiak banatzekoa edo eskualdeak indarkeriaren bitartez hondoa jo dezan eragitea izan daiteke. Hori saihesten daiteke zenbait prozesuren bitartez. Ipar Irlandan kontsulta-prozesu asko gauzatu ziren konpromiso horiei buruz. Batez ere Opsahl-eko prozesua, 1992an, kontsulta zabala, publikoa eta pribatua egin zelarik, herri askotako aretoetan eta Ipar Irlandako beste erakunde batzuetan, eta ideien sintesia egin zuena. Ideia horietako asko erabilgarriak izan ziren 1998ko akordioan²¹. Azpimarratzekoa da politikariak, nahiz eta sarritan ez eraginkorrak izan akordioetara iristeari dagokionez, eztabaida horien kontrolari eutsi nahi diotela, eta horregatik, askotan ez dituztela prozesu politiko informalak onartzen. Ipar Irlandako pertsonen balizko konpromisoaren bidea ezagutzeko erabilgarria izan zen beste prozesu bat zundaketena izan zen, beste politikari batzuekin batera egin ziren galderak batera erabakiz konpromiso-premiak eta partaideen artean alderdi komunak ezartzera bideratuak²².

Adiskidetze-lanerako tokikoen ahalmena eraikitzea

Komunitatearen eta erakundeen mailan lan egiten duten gizarte zibileko taldeen parte-hartzea funtsezkoa izaten da bake-prozesuak funtziona dezan²³. Edozein aldi politikotan alderdien arteko elkarriketarako aukerak emateaz gain, eta bakea babesteko testuinguru bat sortzeaz gain, faktore garrantzitsua da edozein bake-akordio onartzeko unean. Ipar Irlandan, BAIaren aldeko kanpaina arrakasta handia izan zuen ekimen bat izan zen –gizarte zibilak Ipar Irlandako Belfasteko Akordioaren ondoren gauzaturikoa²⁴–. Marketing-kanpaina izugarria egin zen komunitate guztietan akordioari buruzko erreferenduma arrakastatsua izango zela bermatzeko behar adinako gehiengo lortzera begira. Gizarte zibila ere oso baliagarria izan daiteke biktimen premiak betetzen direla bermatzeko, premien atzean ezkutatzen den haserreak ez diezaion indarkeria-espinalari jarraipena eman, eta akordioa gerran gehien sufritu dutenengan ere errotu dadin²⁵.

Komeni da gogoratzea bakea eraikitzearekin galtzen ateratzen direnak ere badaudela

Askotan bakea guztiontzat onuragarria izango dela uste badugu ere, badaude taldeak gatazketatik irabaziak ateratzen dituztenak, eta ez bakarrik ikuspuntu politikoari eta militarri dagokionez. Gatazkek sarritan aurre egin nahi ez dieten barne-arazoak konpontzea saihesten duten politikariei mesede egiten diete, eta arazo horiek alde batera utz ditzakete arreta gerran eta hark sortutako arriskueta jartzen duten bitartean, eta gainera, hori egiten ospea irabazten dute. Gatazkek, bestalde, politikariei gizarte-kohesioari eusten laguntzen diete eta itxuraz nazioa bateratzen, gerrarik gabe nazio hori liskar kultural edo etnikoetan erori ahal izango bailitzateke. Sarritan, talde askok irabazi ekonomikoak ateratzen dituzte gerratik. Beste batzuek gerra botere pertsonala edo beren taldearen boterea lortzeko edo hari eusteko erabiltzen dute. Arrazoi ekonomikoak edo politikoak direla-eta gatazka luzatu nahi duten taldeak mehatxatuak senti daitezke bakerantz aurrera egiten den heinean. Batez ere gizarteak bazterturiko pertsonen kasuan gerra askotan bizitza-estilo bilakatzen da, batez ere mutil gazteentzat. Oro har, prozesuaren barnean, talde horietako gehiengoarentzat alternatibak aurkitu behar dira. Haiek gerratik urrunduko dituen eta bakerantz hurbilduko dituen –gehienetan mantso eta nekez– bake-prozesua bermatzean datza.

Hitzaldiaren inguruko oharrak

- ¹ Sollenberg (1997).
- ² Bake-akordioei buruzko UNU/INCOREren web-orria <http://www.incore.ulst.ac.uk/cds/agreements/>
- ³ Darby eta Mc Ginty (2000).
- ⁴ Zartman (1989).
- ⁵ Zartman (1985).
- ⁶ Mitchell (1986).
- ⁷ Darby eta Mc Ginty (2000).
- ⁸ Collin Marks (2001).
- ⁹ Fitzduff (2002).
- ¹⁰ Barnes (2003).
- ¹¹ International Alert (1999).
- ¹² Accord (1998).
- ¹³ Darby eta Mc Ginty (2000).
- ¹⁴ Fitzduff (2002).
- ¹⁵ Bell (2000).
- ¹⁶ Belfasteko Akordia (1998).
- ¹⁷ Stedman et al. (1999).
- ¹⁸ Hauswedell eta Kris Brown 2002, UNIDIR (1988-2004).
- ¹⁹ Gormley (1999).
- ²⁰ Peake, Gormley eta Fitzduff (2004).
- ²¹ Pollak (1992).
- ²² Irwin (2002).
- ²³ Fitzduff (2002).
- ²⁴ Oliver (2003).
- ²⁵ Hamber (2002).

Bibliografía

ACCORD

(1998) *Demanding Sacrifice: War and Negotiation en Sri Lanka*. Londres.

ARNSON, C.J. ARG.

(1999) *Comparative peace processes in Latin America*, Woodrow Wilson Center Press, Washington, D.C.

ASSOCIATION OF THE US ARMY & THE CENTER FOR STRATEGIC AND INTERNATIONAL STUDIES

(2003) *Play to win: Final report of the bi-partisan Commission on Post-Conflict Reconstruction*. Association of the US Army and the Center for Strategic and International Studies, Washington, D.C.

AZAR, EE.

(1990) *Management of protracted social conflicts: theory and cases Aldershot*, Dartmouth.

BARNES, C.

(2002) «Owning the process: public participation in peacemaking», *Accord 13*, Conciliation Resources, Londres. 2003ko martxoaren 17an errekueratua Conciliation Resources gobernuz kanpoko erakundearen honako web-horri honetatik: <http://www.c-r.org/accord/peace/accord13/index.htm>

BELFAST AGREEMENT

1998 <http://www.nio.gov.uk/issues/agreement.htm>

BELL, C.

(2000) *Peace Agreements and Human Rights*, Oxford Press, 2000.

HAUSWEDELL C., BROWNE K.

(2002) «Burying the Hatchet: The Decommissioning of Paramilitary Arms in Northern Ireland», *INCORE* publication, Derry/Londonderry.
<http://www.incore.ulst.ac.uk/home/research/ongoing/demilit.html>

CROCKER, CA., HAMPSON, FO. ARG.

(2000) *Herding cats: Multi party mediation in a complex world*, USIP Press, Washington D.C.

CROCKER, C., HAMPSON, F.O., AALL, P. ARG.

(2001) *Turbulent peace: The Challenges of managing international conflict*, Instituto de Paz de los Estados Unidos, Washington, D.C.

DARBY, J.

(2001) *The Effects of Violence on Peace Processes*, USIP, Washington.

DARBY, J. MAC GINTY R.

(2000) *The management of peace processes*, Macmillan, Londres.

DARBY, J. MAC GINTY R.

(2002) *Contemporary Peace Making*, Palgrave Press, Londres.

FITZDUFF, M.

(2002) *Beyond Violence: Conflict Resolution Processes in Northern Ireland*. UNU/ Brookings Press, Tokio eta Nueva York.


- FITZDUFF, M.
(2002) *Northern Ireland-Human Rights versus Conflict Resolution? Human Rights Dialogue*, Carnegie Council, Nueva York, 2002ko udaberria.
- GORMLEY-HEENAN, C.
2001 «From Protagonist to Pragmatist: Political Leadership in Societies in Transition». *INCORE*.
- HAMBER B.
2002 *Evaluation of the Core Funding Scheme for Victims/Survivors' Groups*, Community Foundation for Northern Ireland. http://www.brandonhamber.com/projects_clio.htm
- HAMPSON, FO.
(1996) *Nurturing peace: why peace settlements succeed or fail*, United States Institute for Peace Press, Washington, D.C.
- HOPMANN, P.
(1996) *The Negotiation Process and the Resolution of International Conflicts*, University of South Carolina Press, Columbia.
- HOROWITZ, D.
(1985) *Ethnic Groups in Conflict*, University of California Press, Berkeley, CA.
- INTERNATIONAL ORGANIZATION FOR MIGRATION AND US AGENCY FOR INTERNATIONAL DEVELOPMENT
Strengthening peace through civil society initiatives at the community Level: Final report, IOM y USAID, Washington, D.C.
- IRWIN, C.
(2002) *The people's peace process in Northern Ireland*, Houndmills, Basingstoke, Hampshire; Palgrave Macmillan, New York.
- LEDERACH, JP.
(1997) *Building peace: sustainable reconciliation in divided societies*, Prensa del Instituto de Paz de los Estados Unidos, Washington, D.C.
- MARKS, SUSAN COLLIN
(2001) *Watching the Wind: Conflict Resolution During South Africa's Transition to Democracy*, Washington, D. C.
- MIAL, H., O. RAMSBOTHAM, T. WOODHOUSE
(1999) *Contemporary Conflict Resolution: The prevention, management and transformation of deadly conflicts*, Polity Press, Cambridge.
- MITCHELL, C. R., K. WEBB, EDS.
(1988) *New Approaches to International Mediation*, Greenwood Press, New York.
- MITCHELL, C. R.
(1996) *Cutting Losses: Reflections On Appropriate Timing*. Institute for Conflict Analysis and Resolution at George Mason University. Columbia International Affairs Online, 1996-01-01. Honako helbide honetan: <http://www.ciaonet.org/wps/mic01/>


- OLIVER, Q.
 (2003) «Developing public capacities for participation in peacemaking», en Barnes, C., *Owning the process: Public participation in peacemaking*, ACCORD, Londres.
<http://www.c-r.org/accord/peace/accord13/pedev.shtml>
- PEAKE, G, GORMLEY, C, FITZDUFF, M.
 (2004) *War Lords versus Peace Lords: a Study of Local Leadership in Kosovo, Afghanistan, and Sierra Leone*, INCORE, Derry/Londonderry.
- POLLAK, A.
 (1992) *The Opsahl Report*, Blackstaff press, Belfast.
- RESPONDING TO CONFLICT.
Issue Paper on Dealing with Deliberate Disruptions of Peace Processes. http://www.cdainc.com/rpp/archives/2002/01/dealing_with_deliberate_disruptions_of_peace_processes.php
- ROTHSTEIN, RL. ARG.
 (1999) *After the peace: resistance and reconciliation*, Boulder, CO., Lynne Rienner.
- SANDOLE, D., CR. MITCHELL
 (1999) *Capturing the complexity of conflict*, Pinter, Londres.
- SISK, T.D. ARG.
 (1999) «New approaches to international negotiation and mediation: Findings from USIP-Sponsored research». *Peaceworks*, 30, United States Institute for Peace, Washington, D.C.
- 132 STEDMAN S. ET AL.
 (1999) *Ending Civil Wars. The Implementation of Peace Agreements*, Lynne Rienner Unidir publications (1988-2004). <http://www.unidir.ch/html/en/books-reports.php>
- WILLIAMS, SUE, STEVE WILLIAMS
 «Being in the middle by being at the edge: Quaker experience of non-official political mediation», *Quaker Peace and Service*, 1994.
- ZARTMAN, I.W.
 (1989) *Ripe for resolution: Conflict and intervention in Africa*, Oxford University Press, New York.
- ZARTMAN, IW. ED.
 (1995) *Evasive peace: negotiating an end to civil wars*, Brookings Institution. Washington, D.C.

Interneteko iturriak

INCORE erakundeak bere web-orrian azken hamar urteetan sinaturiko 200 bake-akordio baino gehiagoren testuak biltzen dituen atal bat du. <http://www.incore.ulst.ac.uk/cds/agreements/>

ACCORD -ek mundu osoko bake-prozesuei buruzko hamairu txostenez osaturiko bilduma osoa du. Honako helbide honetan: <http://www.c-r.org/accord/>





Subiranotasun-gatazkak eraldatzeko modu berriak

JAMES TULL JN.

Conflict Management Group taldearen programa-zuzendaria

James Tull Conflict Management Group taldearen programa-zuzendaria da; talde horrek aholkularitza-zerbitzuak, asistentzia, eta prestakuntza eskaintzen die erakunde publiko, pribatu eta irabazi-asmorik gabekoei, negoziazioaren, komunikazioaren, adostasuna ezartzearen, bitartekotzearen eta gatazkak konpontzearen eremuetan.

Sektore publikoan, Tull jaunak askotariko taldeei eman die aholkularitza eta prestakuntza; esate baterako, Atlantikoko Iparrekialdeko Itsas Aliantzari, El Salvadorreko Hezkuntza Ministerioari, Garapenerako Banku Inter-amerikarrari, Osasunaren Munduko Erakundeari, Osasunaren Erakunde Panamerikarrari eta Venezuelako eta Kolonbiako gobernuei, beren gatazka nazionaletan. Business Partners for Development (BPD) elkartearekin ere lan egin du Kolonbian eta Venezuelan.

Conflict Management Group taldean sartu aurretik, James Tull Erdialdeko Amerikan eta Hego Amerikan bizi izan zen eta han lan egin zuen Hábitat para la Humanidad irabazi-asmorik gabeko erakundearekin.



CURRÍCULUM

James Tull Filosofia eta Letretan lizentziaduna da, eta Masterra du Administrazio Publikoan. Kennedy School deitutako eskolaren Pekin beka jaso zuen. Administrazio, ekonomia, ingeles eta fisikako ikasketak ere egin ditu. Harvard Law School-eko Negoziario buruzko Programaren irakasle atxikia izan da, eta prestakuntza-zuzendaria The Support Center of New York erakundearen. Era berean, jardun komunitario asko bete ditu.

Erraz hitz egin eta idazten du espainieraz.

LABURPENA

Zalantzarik gabe, munduan dauden erronka politikoak eta harreman-gatazkak goitik behera aldatu dira azken 20 urteotan. Mendea aldatzearekin batera, badirudi paradigma guztiz bestelakoa sortu dugula, ia nahigabe; hain zuzen ere, Gatazkak Konpontzearen eremuko eraginkortasunarekin loturiko itxaropenak areagotu egin dituen paradigma.

Paradigma-aldaketa horren ardatza gatazkak konpontzeko teoria nahiz praktika izan dira. Eta galdera berria ez bada ere, bat-batean, orain inoiz baino lehentasunezkoagoa eta garrantzitsuagoa da: Zeintzuk dira gure gatazka zailenetan aplikatu ditzakegun tresna eta teknika eraginkorrenak?

Tamalez, mende honetan ez dugu lortu oraindik gatazkak konpontzearen eremua dagokion maila berrira egokitzea, ez diplomaziaren bidez, ezta bide militarretik ere.

Ponentzia honetan, galdera horri erantzun dion, baina soilik diplomaziari dagokionez, eta hain justu, indarkeriazko gatazkek eragiten dituzten arazoei aurre egiteko metodo izaki, negoziazioko eta elkarrizketako prozesuari dagokionez.

Subiranotasun-gatazkak eraldatzeko modu berriak

Laburpena

Ukaezina da mundu zabalean aurre egin behar diegun erronka politikoak eta harremanetakoak goitik behera aldatu direla azken 20 urteotan. Mende berrian sartzera, iduri luke, ia jakin gabe, oso paradigma ezberdina sortu dugula, Gatazkak Konpontzearen arloan eraginkortasunaren itxaropenak ikaragarri handitu dituen.

Paradigma berria

Paradigma berria honela labur genezake:

- 1) «Gerraren pribatizazioak» ahalbidetu du gizabanako-talde txikiek ere nazio osoetan eragina izan dezaten.
- 2) Nazioetako buruzagiek, baita naziorik handieneko eta boteretsuenekoen ere, XX. mendeko eredia erabiliz erreazionatzen dute, indarraren monopolioak bermatzen dituen boterean eta eraginean oinarritutako eredia erabiliz hain zuzen. Oso zaila dirudi buruzagi horiek pentsaeraz aldatu eta jokabide proaktibo eta eraginkorragoa hartzea.
- 3) Webari esker, ia mundu osoko herritarrek berehala jakin dezakete nazioarteko gertakarien berri, ezagutarazi bezain laster. Gau eta egun, albiste esanguratsuak zabaltzen direnean, mundu osoko jendeak irakurri, entzun eta ikusi egiten ditu garatzen diren neurrian.
- 4) Ondo informatutako herritarrek euren buruzagien gaineko eragina dute eta eragin hori denbora errealean erabil dezakete. Gertakari politiko esanguratsuak gure mugaz haraindi gertatzen direnean, baita munduko beste muturrean ere, gure buruzagiek erantzun dezaten espero dugu.
- 5) Horrek gure pentsaeraren eta jokabidearen aldaketa nabarmena eragin du. Goitik behera aldatu gara, lurralde batek bere independentziaren alde borroka egin zezakeen mundu batetik, *interdependentzia*-dosi handia onartzera behartzen gaituzten beste batera igaro gara. Beharbada, gutako gehienok nahiago genuke, neurri bateraino behintzat, gure burua besteekiko independentetzat hartzea. Hala ere, ahaleginik handienak egin arren, gero eta *interdependent*teagoak gara.

Paradigmaren aldaketa horrek, XXI. mendea hasi bezain laster Estatu Batuen aurkako irailaren 11ko atentatu koordinatuek ziprztinduta, gatazkak konpontzeko teoriarik eta praktikan jarri du arreta nagusia. Galdera berria ez izan arren, bat-batean inoiz baino premiazkoagoa eta garrantzitsuagoa da: Zein dira gure gatazkarik zailenetan erabil ditzakegun tresnarik eta teknikarik eraginkorrenak?

Gatazkak konpontzearen arloa

Zoritxarrez, mendea hasi zenetik hona, gatazkak konpontzearen arloak ez du lortu bere eginkizun berrian behar zuen maila ematea, ez diplomaziaren bidez ezta bitarteko militarrek erabiliz ere. Ponentzia honetan kontu horri helduko diot diplomaziari dagokion aldetik soilik, eta zehazkiago, gatazka bortitzen arazoei aurre egiteko negoziazio-eta eztabaida-prozesuari dagokion aldetik. Artikuluan zehar erabiltzen dudana legez, *Gatazkak Konpontzea* baliabide ez militarrei dagokien terminoa da. Hemen zera onartzea nahi dut, gatazkak konpontzeko prozesu batek ez duela eskatzen, derrigorrez, alderdietako batek bere esku dagoen indar militarren edo fisikoaren bidez bere agintea inposatzeko azken alternatibari uko egitea.

Azken 30 urteetan gatazkak konpontzeko eremua bilakatzen joan ahala, hainbat eredu garatu da, bikainak eta izugarri eraginkorrak. Gai horren inguruan idatzitako funtsezko lan eta artikulu ugari dago. Gero eta unibertsitate gehiago eskaintzen ari zaizkie beren ikasleei arlo horretako goi-tituluak. Ondorioz, Gatazkak Konpontzeko alorreko profesionalen kopurua biderkatzen ari da.

Eremu horretan aurrerapen zoragarriak eginda ere, Gatazkak Konpontzeko teorikoek eta profesionalek orain arte ez dute euren tresnak eta teknikak era eraginkorrean bateratzea lortu, gehitzen ari diren zereginak betetzeko. Dagoeneko gure esku dauzkagun teoriekin hasi eta hobetzen ahalegindu beharrean, maiz «gurpila berriro asmatzeari» ekin ohi diogu, guztiz ikuspegi berriak garatuz edo metodologia eraginkorrena norik ote duen elkarren lehian arituz. Beste hitz batzuetan, Gatazkak Konpontzeko alorreko akademikoek eta profesionalek ez dute ikasi oraindik lagunartean jokatzeko.

Artikulu hau profesional baten ikuspegitik idatzita dago. Conflict Management Groupen (CMG) egindako lanean gehien erabili ditudan teoriak, Harvardeko Zuzenbide Fakultateko Negoziazioari buruzko Programan garatu dira. Teoria nagusiak Interesetan Oinarritutako Negoziazioaren eredutik datoz, eta Roger Fisher irakasleak bere liburu *Getting to Yes*¹ izenekoan egindako lan aitzindaritik abiatuta garatu dira. Teoria horiek eta ondorengo metodologiek beren esparruan inperialista izateko asmorik ez izan arren, Gatazkak Konpontzeko gaur egungo ikasgaiaren erro nagusietakoak dira.

138

Dilema berria: Gerraren pribatizazioa

«Gerraren pribatizazioak» –horren arabera, lagun ausartez edo buru-hiltzailez osatutako talde txiki batek kalte handia eragin lezake nazio-estatu batean–, guztiok eraman gaitu galdetzerara nola aldatu behar duen gure etorkizun seguruaren paradigmatik. Askok argudia lezakete dagoeneko ez dela errealista gure gobernuak geure segurtasun fisikoa berma dezaten espero izatea. Beste batzuek arrazoituko dute, ingurune aldakorrek gora-behera, gobernuak barrura begira indarraren monopolioari eusteko erantzukizuna dutela, eta kanpora begira, gure sinesgarritasun militarren alde borrokatzeko erantzukizuna. Baina continuum horretan hartzen dugun egoeraz aparte, talde txiki horiek hainbat maniobra sasimilitar abian jartzea lortu dute, sormenezkoak, merkeak eta eragin handikoak, nazio-mailan erreakzioa eragin dezaketenak, eta baita nazioarteko mailan ere.

Gizakiek, konfrontazioaren aurrean, proaktiboak baino errektiboagoak izateko joera dute. Duela zenbait urte, Stanfordeko Zuzenbide Fakultateak ikerketa bat egin zuen abokatuak negoziatioetan erabili ohi dituzten estrategiei buruz. Haien estrategia zertan oinarritzen zuten galdetuta, inkestakuen %75ek baino gehiagok onartu zuten beste aldeak zer egiten zuten ikusi arte itxaron ohi zutela eta, hortik abiatuta, horren arabera erreakzionatu ohi zutela.

Nazioek gizabanakoek bezala erreakzionatzeko joera dute haien aurkako etsaitasunezko ekintza bati aurre egin behar izaten diotenean. Aurkako ekintza nahikoa garrantzitsua baldin bada, erreakzioak askotan militarrek izaten dira. Baina munduko indar militarrik garrantzitsuenak, batez ere, eskala handiko beste indar militar batzuen aurka borrokatzeko diseinatuta daude, eta ez ongi antolatutako eta armatutako lagunez osatutako talde txikien aurka. Horra hor gerra pribatizatuaren dilema. Oraindik ez dugu mekanismo egokirik garatu nazioek azkar eta eraginkortasunez erantzun ahal izateko beste nazio-estatu bat ez den kanpoko indar batek burututako eraso handiei.

Beraz, gaur egungo testuinguruan, independentziaren kontua berezia da. Arazoaren eskala konplexuago bilakatu da horrelako ezohiko indarraren eraginez, eta gainera, Internetek munduko ia leku guztietako informazioa denbora errealean eskuratzeko aukera eman digu. Tokian tokiko egunkaririk txikienek ere nazioarteko orriak argitaratzen dituzte gaur egun. *Interdependenteak* izan nahi dugula edo ez, gero eta areago gara. Nazio guztiek, handiek zein txikiek, elkarreragiten dute albokoekin eta baita mundu zabaleko beste batzuekin ere. Nazio handiek erreakzionatzeko joeratik libre daudela pentsatzea nahiago badute ere, AEBen aurkako 2001eko iraileko atentatuek eta Madrilgo 2004ko martxokoen –besteak beste– eszeptikorik xenofoboena ere behartzen dute burujabetzaren eta independentziaren definizioak birplanteatzera. Gero eta argiago dirudi interdependenteak garela, epe laburrera espero dezakegun gauzarik onena interdependentzia ez-suntsitzaila bada ere.

Nahiz eta elkarren ulermen eta onarpen perfektuek oraindik benetakoak baino utopikoagoak ematen duten, interdependentzia onartzearen ondorio bat zera da, gaur egungo superpotentziek ere sentikorak izan behar dutela talde txikiek esaten dutenarekin. Orduan, galdera zera da: Nola entzun ahal diegu talde guztiei eta haietako bakoitzari?

139

Emaitza: Teoriatik praktikara

Oraindik orain, nolabaiteko eztabaida izan da Gatazkak Konpontzeko teknika garatzeko erarik onena *Teoriatik praktikara* ala *Praktikatik teoriara* igarotzea ote den. *Praktikatik teoriara* iragaterako ereduak ez da berria inondik ere: planteatzen du gertatzen ari dena nola aztertu ahal dugun gatazken «laborategietan», eta hortik dagozkien ikasketak atera, teoria egokiak garatzen lagunduko digutenak. Alde batean edo bestean jarri gabe, onartu beharra dago eremu horretan etengabe sortzen ari diren ikasketen corpus nabarmena dagoela. Mundu osoko unibertsitateetako teoria asko eta esanguratsuak daude, lekuan bertan frogan jarri ohi direnak. Eta badira ikerketa ugariak ere, lekuan bertan arrakasta handiz frogatu eta gero, jakintsuek teorietan destilatu ohi dituztenak. Ideiak nolnahi garatzen diren, teoriaren eta praktikaren arteko lotura hori funtsezkoa da eskuartearen daukagun gaiak azkar eta era sinesgarrian aurrera egin dezan.

Teoriekin hainbat metodologia eta era anitzekoak sorrarazi dituzte. Artikulu honen helburua ez da ikuspegi horien zerrenda luzea edo definizio zehatzak aurkeztea, baina adibide esanguratsu batzuk aipa ditzakegu:

- *Interesetan oinarritutako teoria*: alde bakoitza bere interes nagusiak asetzen dituzten jarrerak dituela azaltzen da negozioazio-mahaira. Gatazka pizten da jarrerak elkarren aurkakoak direnean edo aldeek beren hasierako jarrera ez den beste edozein aukerari uko egiten diotenean.
- *Identitatean oinarritutako teoria*²: gatazkaren muina bestelako identitate pertsonal edo kolektiborik aintzat ez hartzea edo ez onartzea da.

- *Kultura arteko teoria*: jatorri kultural ezberdinek euren pertzepzioak edo esperientzia ezberdinak inposatzen dituzte gertakarien edo komunikazioen inguruan.
- *Erljioan oinarritutako teoria*: sinismen espiritualen arteko ezberdintasunak gatazkako bereizketa –ustezkoa edo erreala– eragiten du.
- *Adiskidetzaren teoria*³: gatazkaren eragileak iraganeko erasoek utzitako zauri sakonak dira –zenbait profesionalak diotenez, barkatzeko eta adiskidetzeko prozesua zabaldu behar da beste edozein eztabaidari heldu aurretik–.

Egunero aurki daitezke horrelako gatazken adibideak egunkari nagusietako azalean. Interesgarria da ikustea nazioarteko gatazka nagusiak aurreko sailkapeneko bi ataletan gutxienez sartzen direla. Adibidez, Ekialde Hurbileko gatazka. Sarritan eta zorrotasun handirik gabe, erlijioan oinarritutako gatazken sailean kokatu ohi da, baina agerikoa da identitatearen alorreko eta adiskidetzeko ezadostasun sakonak daudela. Kolonbiako gatazka interesetan oinarritutako gatazken kategorian sailkatu ohi da, baina adiskidetzeko kontuak eta baita kultur alorrekoak ere nahitaezkoak izango dira edozein baketzeko prozesutan, balio izango badu.

Bitxia bada ere, gatazka zehatz bati buruz zenbat eta gehiago dakigun, gatazka horri kategoria gehiago dagozkiola dirudi. Euskal gatazkari dagokionez, agian kategoriarik erabilgarrienetako bat identitatearena da. Ematen du oso aukera gutxi dagoela ezadostasunak epe luzera konpontzeko, aurretik identitatearen gaiari heldu barik. Eta horretaz guztiaz gain, badira ase beharreko interesak, errespetatu beharreko kulturak eta erlijioak eta, nola ez, aintzat hartu beharreko adiskidetzeko kontuak ere.

Sailkapen horrek eta ikuspegi ezberdin horiekin lotutako gogoeta eta ikerketa zabalak duten abantaila nagusia zera da: guk, profesionalok, era askotako metodologia daukagula aukeran. Gatazkaren ebaluazioa eta diagnostikoa egiteko beharrezko lekua eta denbora uzten badizkigute, gauzak aurrera eramateko moduko metodologia egokia landu ahal dugu.

Tamalez, profesionalen lanak mugak izan ohi ditu. Gutxienez, garrantzi handiko hiru erronkari aurre egin behar die profesional batek gatazka bati hasieran heltzen dionean.

- a) Diagnostikoa egiteko denbora gutxiegi: Profesionalak gutxitan izaten dute diagnostikoa egiteko behar besteko denbora gatazka baten erdian.
- b) «Erle langilearen desfasea»: gatazka jakin batean, egin beharreko epe luzeko lana egiten dutenak gutxitan izaten dira profesionalak. «Erle langileak» tokian tokiko pertsonak izaten dira, beste lanbide eta konpromiso batzuk izaten dituztenak eta, gehienetan, ez dute gatazka konpontzeko balio izango duen metodologia konplexua garatzeko nahikoa ezagupenik.
- c) Gatazka bakoitza bakana da: gatazka bakoitza bestelakoa da eta, gehienetan, kategoria batean baino gehiagotan sartzen da, beraz, bakoitzak berezko prozesua behar izaten du. Gatazka-mota baterako diseinatutako prozesuak eta metodologiak oso gutxitan egokitzen dira era naturalean beste kategoria bateko gatazketara.

Gauzak horrela, gatazka jakin baterako metodologia egokiak eraginkorra, moldakorra eta ikasteko nahiz aplikatzeko nahikoa erraza izan behar du. Gatazka guztien behar guztiak bete dituen metodologiarik ez dagoenez gero, badirudi interesgarria dela dauden teknikak konbinatzea, hutsetik abiatu eta metodologia berri bat garatu aurretik. Ideia berria ez bada ere, lekuan bertan Gatazkak Konpontzen diharduten erakundeen arteko elkarlanaren adibide

onak oso gutxi dira. Ematen du guk, arazoak elkarlanean konpontzea sustatzen dugunok, zailtasunak ditugula aldarrikatzen duguna praktikan jartzeko.

Gatazkak konpontzeko teknika ezberdinetako profesionalen artean, gatazkak eraldatzeko erarik onenaren gaineko kontua gai eztabaidatuenetako bat bilakatu da. Urtero dozenaka ikuspegi eta teoria garatzen eta frogatzen dira. Haietako batzuk guztiz berriak dira, baina gehienek ideia zaharrak berriz formulatu edo egokitu besterik ez dute egiten. Eraginkorrek eta trebeak izateko ahaleginetan, teorilariak maizegi azaltzen dituzte euren teoriak beste teoria batzuen okerkuntza aipatuz, aurrez egindakoan oinarritutako lan berriak aurkeztu behar direan. Gure lanbidean oso gutxitan esan dezakegu: «ohiko metodologiak funtzionatzen du, eta hobeto funtzionatzeko, nik tesi hau erantsi nahi nuke».

Horretan sentikorra naiz, gatazkak konpontzeko indarrean dagoen metodologiari zaharrenarekin lan egiten dudalako: *Getting to Yes* liburuak zirriboratu zuen interesetan oinarritutako teoriarekin hain zuzen. Teoria sendoa da. Frogatuta dago erabilgarria izan daitekeela munduko ia gatazka-mota guztietan. Hala ere, horrek ez du esan nahi gatazka bat konpontzeko behar den metodologia *bakarra* denik. Adimeneko akats handia egingo genuke interesetan oinarritutako teoria behar den bakarra dela uste izango bagenu.

Gatazkak Konpontzeko profesionalek arazo garrantzitsu hori bideratzeko moduak biltzen dituzten arren, guztiok dauzkagu gatazka bati heltzeko hobesten ditugun metodoak. Halako ikuspegiaren arteko ezberdintasunarekin, ezinezkoa dirudi ondorio orokor bakarra atera ahal izateak. Hala ere, bada ikuspegiak arrakastatsuenetan errepikatzen den elementua: ezberdintasunak konpontzeko erabiltzen den *prozesua* dela oinarritzkoa. Gure esperientziaren eta CMGn ikusitakoaren arabera, ohartu gara prozesua, berez, konponbidea bera baino arrakastaren adierazle garrantzitsuagoa izaten dela sarritan.

Roger Fisherek gogoko du «bakea ez da paper-zati bat» esatea –esan nahi du konponbidea edo adiskidetzeari prozesuaren ondorioak izaten direla, akordioaren ondorioak baino areago–. Konponbideak zinez garrantzitsuak dira. Hala ere, ezin dira aintzakotzat hartu prozesuaz aparte.

Munduko konponbiderik onenak askotan atzera botatzen dira soilik prozesu egokiari jarraitu ez diotelako. Duela gutxiko adibide bat: galde genezake ea «Genevako Akordioak» bi aldeentzat onargarriak izango ziren, baldin eta Israeli «Genevako Proposamen» gisa aurkeztu izan balitzaio. Paper berak hitz berberekin, baina beste prozesu batekin, oso bestelako erreakzioa eragin zezakeen bi aldeetan.

Horixe izan da eta jarraitzen du izaten gatazkak konpontzearen betiko eztabaida. Gaur egungo ezberdintasun nagusia zera da, bat-batean apustuak askoz ere altuagoak direla. Paradigma global berriari erantzuteko ahaleginak egiten ari gara. Beharbada, talde terroristetan eta euren erasotzeko metodoetan esanguratsuenak norabidez eta ikuspegiz aldatzeko azkartasuna da, «eraginkorragoak» izateko. Guk ezin badugu orobat egin eta eraso pribatizatuei erantzuteko gure buruzagientzako pautak berriak egokitzirik edo diseinatzerik ez badugu, emaitza gero eta errazagoa izango da aurreikusten eta, atentatu terroristak, gero eta eraginkorragoak.

AEBetan gaur egun eztabaida bizia dago 2001eko irailaren 11ko atentatuen aurretik eta ondoren Bushen administrazioan izandako eztabaidei buruz. Europako analista batzuek esan lezakete amerikarrek euren buruzagiak publikoki jipoitzeko duten joeraren beste adibide bat dela, baina AEBetako analista askok uste dute ikasteko aukera bat izan dela.

AEBetan gero eta nabariagoa da Bush lehendakariak 2001eko irailaren 11ko gertakarien ostean munduaren borondate ona alferrik galdu zuelako irudipena, eraso bortitz bati alde

bateko erantzuna era agresiboan eman ziolako, gaizki bideratutako indarkeria gehiagoren bitartez. Gehienak ados badaude ere nolabaiteko erantzun militarra eman beharra zegoela, bada uste duenik lehendakariak hobe egingo zuela AEBen erreakzioa arazoak konpontzeko jokabide baterantz bideratu izan balu, dilema berri bat konpontzeko ideia berriak bilatuz. Kontua zera zen, ordea: analisi hori nola egin zitekeen barrura nahiz kanpora ahuleziaren irudia eman gabe. Erronka horrexeri heldu beharko diote gure buruzagiek gero eta premia handiagoarekin.

Idea bat: Profesionalek elkarrekin eta eraginkortasunez jokatu behar dute

Profesionaloi gustatzen zaigu geure metodologia-multzoaz ari garenean «erreminta-kutxa» deitzea. Zereginen bat dugunean, gure erreminta-kutxatik erabili behar dugun erreminta ateratzen dugu. Nik neuk ere urte askotan arotz-lana egin nuen. Obra batera joaten nintzen bakoitzean, neure erreminta zaharrak gerrikotik zintzilik neuzkala heltzen nintzen. Gehien erabili ohi nuen erreminta mailua zen, noski. Hala ere, obra bakoitzean, bagenekien beste erreminta batzuk ere erabili behar genituela. Haietako batzuk lehenago erabiltita neuzkan; beste batzuk, inoiz ere ez. Lana bereziki zaila, garrantzitsua edo premiazkoa bazen, espezialista bati dei egin ohi nion, etor zedin eta bere erremintak nire proiektuan erabil zitzan. Erreminta asko eta berriak eduki arren, inoiz ez nion neure mailua erabiltzeari utzi. Eta, mailua oso ondo erabili arren, inoiz ez nuen pentsatu dena egin nezakeela beste erremintarik erabili gabe. Banekien zer zegoen neure erreminta-kutxan, banekien zer egin nezakeen, eta banekien noiz eskatu behar nuen laguntza.

Analogia errazak egokiak dira testuinguru honetan, erraztasunak Gatazken Konponbidera hurbiltzeko abiapuntua izan behar duelako. Gatazka baten inguruko analisi konplexuegiak oso ondo daude distantziatik begiratuta, edo testuinguru akademiko batean, baina lekuan bertan dagoen jendeak aldatzea nahi du, eta laster. Ebaluazio okerrak sarritan gatazkaren konponbidea atzera lezakeen arren, are garrantzitsuagoa da «konponbide perfektua konponbide onaren etsaia» delako nozioa. Nolabaiteko arrakasta edo aurrerapena berehala eragiten duten sistema erraz eta moldakorrek askotan aukerarik onenak izaten dira, eta oso gutxitan eskatzen dute analisi edo diseinu konplexurik. Venezuelako gatazkan lan egiten nuen bitartean, komunitate bateko buruzagiak zera esan zidan: «Munduko prozesurik onenak ez du ezertarako balio guretzat, funtzionatzeko 20 urte behar baditu. Emadazu gaur erabili ahal dudan zerbait».

Funtsezkoa da prozesuan zentratzea, baina hil ala bizikoa da prozesua epe labur eta luzera erabilgarria izatea. Ezinbestekoa da prozesu baliagarria eraikitzea, azken emaitza gisa irtenbidera eramango gaituena.

Hala, edozein metodologiatan derrigorrezkoa da elkarrizketa konstruktiboa, negoziazioa edo diplomazia bultzatzeko erabilitako prozesuan zentratzea, abiapuntu gisa. Erabakiak hartzea prozesuaren bukaeran egin behar da, elkarrizketa-prozesu sakonaren ostean. Prozesua gatazkarako egokia izan daiteke eta izan behar du, eta egindako diagnostiko zehatz batetik eratorria izan behar du. Hala ere, gatazka konpontzeko proposamen batekin hasten den edozein prozesu edo metodologia berehala susmagarri bilakatuko da eta, ziur aski, alde interesatuetako batek gutxienez arbuiatu egingo du. Horixe baita haietzako gauza zailenetariko bat. Talde gisa, buruan duten konponbideren batekin hasteko joera dute. Lan egiteko konponbideren bat ez badago, jarduera guztia «denbora galtzea» izan litekeelako irudipena dute.

Negoziazioen aurreko baldintzak, maiz, bake-prozesu batek inposatuta etortzen dira, batez ere gatazka bortitzetan. Hala ere, aurreko baldintzek gutxitan sorrarazten dute prozesu

emankorra edo irtenbide onargarria. Su-etena, burujabetza onartzea, errua nork bere gain hartzea, akordio marko batekiko konpromisoa, horiek guztiak dira ohiko aurreko baldintzak. Baldintza horien helburua askotan prozeduraren arauak edo konpromisoaren oinarri-zko arauak finkatzea bada ere, negoziazioa hasi ere ez dira egiten, aurreko baldintzak, azken batez, elkarrizketari ekiteko oztopoa besterik ez direlako...

Aurreko baldintzak eta prozeduraren arauak ezberdinak dira. Prozeduraren arauak, funtsean, negoziatzeko *prozesuari* buruzko akordio bat dira, eta hainbat iradokizun barne har dezakete, hala nola bileren egitaraua edo elkarrizketa antolatze edo koordinatzeko asmoak. Prozeduraren arauak, berez, gai garrantzitsuei buruzko negoziazioak hasi aurretik finkatu behar dira. Hala ere, aurreko baldintzak erantsi egin behar dira mahaiaren gainean jarritako kontu garrantzitsuen zerrendan.

Gatazkak Konpontzeko profesionalaren trebetasuna oreka ona lortzean datza, metodologia zehatzaren eta berehala abian jartzeko bezain sinplea den metodologiaren arteko oreka, hain zuzen. Horrek sarri askotan hautaketa eraginkorra eskatzen du sekuentziazio-prozesuaren barruan.

Adibidez, gatazka luze eta ez-bortitza dago AEBetako ekialdeko itsasertzean arrantza-eskubideen inguruan. 2003ko udan, Ingalaterra Berriko Arrantza-Kontseilua arrantza-kuoten murrizketa gehiago gomendatzeko prestatzen ari zen –horrek, iritzi guztien arabera, ez ziokeen alde bakar bati ere onurarik ekarriko–. Ahalegin berritzaile eta aurrekaririk gabekoa eginda, irabazteko asmorik gabeko erakunde txiki batek interesdun ez osatutako talde askotarikoa bildu zuen alternatibak aztertze, arrantzan egiteko murrizteak aurrera jarraituz gero «heriotza-zigorra» izango zelako irudipena baitzegoen. Ipar-Mendebaldeko Atlantikoko Itsas Aliantzak (NAMA) arrantzalez, ekologistaz, zientzialariz eta politikariz osatutako talde bati hiru eguneko ideia-jasako (brainstorming) saioa egiteko deia egin zion.

143

CMG gonbidatu egin zuten NAMAKo interesetan oinarritutako eztabaidetan eta ideia-jasetan moderatzaile izan zedin. Geroago, talde horrek eztabaida hurrengo mailara eraman nahi izan zuenean, argi zegoen identitatean oinarritutako lana eta interesetan oinarritutako lana bateratu beharra zegoela. Ondorioz, CMG Gatazkak Konpontzeko identitatean oinarritutako talde batekin elkartu zen, ARIA Taldearekin hain zuzen. Lehendabizi, analisi sakona egin zuten eragile guztien identitateari buruz, eta gero, interesetan oinarritutako analisisia eta ideia-jasa egin zuten, epe laburrera abian jar zitezkeen akordioei buruz.

Horixe izan liteke «elkarrekin eraginkortasunez jokatzearen» esanahia. Interesetan eta identitateetan oinarritutako teorien bateratze sekuentziala antolatu zen kasu horretan. Sekuentziazioa askotan elkarlanetarako jauzi-ohol ona izaten da. Agian egokiagoa izango litzateke pentsatzea elkarlanak nola bateratu eraginkortasun handiagoz. Adibide horretan, erraztasunak zera esan nahi du, bi erreminta sistemen balio erantsitik onenaz baliatzea, bertako eragileek ikasteko eta aplikatzeko erraza den testuinguru sinple batean.

Maila teorikoa: ikasteko marko bat funtsezkoa da analisi eraginkorragoa egiteko

Conflict Management Grouperako lanean hasi baino apur bat lehenago, Roger Fisher irakasle «legendarioa» ezagutzeko aukera izan nuen. Une hartan, bera 40 urtez ibilia zen hemisferio guztietan gatazkak konpontzen, eta ni hasten ari nintzen. Gure lehenengo elkarrizketan galdetu nion zer egin behar ote nuen eremu honetan trebea izateko. Haren erantzuna erraza izan zen: «saia zaitez egunero zerbait berria ikasten».

Buruzagientzat eta politikarientzat dagoen erronka zailenatariko bat lanean ari diren bitartean gauzak ikasten jarraitzea da. Horren arrazoia izan liteke haien hautesleen itxaropenak, errealak edo sumatuak; baina egia esanda, buruzagi publikoak eta gatazketako negoziatzaileak askotan zer ikasirik ez dutela pentsatzeko tranpan erortzen dira. Gure buruzagiengandik erabaki jakintsuak espero ditugu, eta zentzuzkoa da pentsatzea horretarako informazio osoa daukatela. Izan ere, gatazka konplexuetan, batik bat autonomia, independentzia edo identitate kontuak nahastuta daudenetan, informazioa faltan izaten da beti. Ikasten jarraitzeko dugun beharra amaigabea da. Negoziazio bat prestatzeko lehenengo eta azken urratsek beti galdera bat jaso behar dute: Zer gehiago jakin behar dute beste aldeari buruz?

Gehiegizko ziurtasuna eta jakinmin eskasa

Arazoaren alderdi bat gure hezkuntza-sisteman erabilitako pedagogia nagusia da. Mundu osoan, lehen eta bigarren hezkuntza-sistemek ziurtasunari jakin-minari baino baliario handiagoa ematen diote. 2+2 zenbat diren galdetzen digutenean, «4» erantzun behar dugula irakasten digute. Ez dute espero gugandik modu sortzailean pentsa dezagun edo galderaren inguruko gogoeta egin dezagun edo datu gehiago eska dezagun —«Nahi al duzu 10 oinarrian pentsatzea?»—. Zorritzarekin, horixe da mentalitate nagusia gatazka konplexuak konpontzen saiatzen garenean. Arazoak konplexuak direla eta, agian, gatazka horretako garrantzizko kontu guztien inguruko informazio guztia inork ere ez daukala jakin arren, badirudi psikologikoki dena dakigula uste dugula.

Garrantzitsua da «ezagupena» —erabil dezakegun informazioa— eta «datuak» bereiztea. Duela hilabete batzuk, talde indigena bati lagundu nion gobernu federalarekin egin beharreko negoziazioak prestatzen. Ia 10 urte eman zituzten negoziazio horietarako prestatzen. Prestatutako materialetako batzuk ikustea eskatu nuenean, esan zidaten 30 milioi orri baino gehiago zituzten agiriak zeudela biltegian gordeta. Galdetu nienean ea nork adieraz zitezadakeen zer zegoen agiri horietan, erantzuna aurreikusteko modukoa izan zen: informazio gehiegi zegoen pertsona bakar batek dena erabiltzeko eta, areago, ulertzeko. Argi zegoen informazio hura ez zela inorentzat ere erabilgarria izango. Hobe izango zen datuak zenbait kategoria baliagarritan sailkatu izana.

Ikasiz hasi behar dugu, eta hori alde guztiei dagokie: «boterea» dutenei eta gutxiago dutenei. Izan ere, ikastea boterea eskuratzea da. Roger Fisherek gogoz esaten duen bezala:

Zuk beste aldearen ikuspegia berak bezain ondo ulertzen ikasten ez duzun bitartean, ez zara negoziatzeko prest egongo.

Irailaren 11ren osteko munduan —eta orain, martxoaren 11ren osteko munduan—, erronka nagusia atentatuei ekintza egoki eta apropos batez erantzutea da, eta aldi berean, ikasteko ibilbideari lotzea. Eraso terrorista handiak gure bizitzako osagarriak diren garai honetan, geure buruzagienganako itxaropenak eta buruzagitzaren inguruko definizioa aldatu egin dira.

2001eko irailaren 11: ikasi nahi ez izatearen kasu praktikoa

Agian ezagun da AEBen aurkako 2001ko irailaren 11ko atentatuen ostean, 2001ko irailaren 12an, begien bistako hainbat lehentasun egon zela gure buruzagi nazionalentzat eta tokian tokikoentzat. Alde batetik, zaurituen, atentatuek eragindakoen eta bizirik irten zirenen beharrezanean erantzuteko premiazko lehentasuna. Beste aldetik, garrantzizko lehentasun bat: atentatuen egileak harrapatzea, etorkizunean beste atentatu batzuk izateko posibilitatea murriztearren.

Atentatutik denbora gutxira, ordea, badirudi nolabait ezabatu egin zela epe luzera Ikasteko Lehenetasuna finkatzeko ekimena. Gure buruzagiek ez zuten lortu gu ikasketaren bidetik eramatea, hurrengo galdera hau eginez: Zer ikas dezakegu guk, gizaki gisa, horren gertakari ikaragarri batetik? Galdera zaila da planteatzen, biktima bihurtzen garela sentitzen dugunean ez baitugu ikasteko alde aurreko joerarik. Horrenbestez, ikasi nahi badugu, argi jakin nahi dugu zer jakin nahi dugun. Kasu horretan, gutxienez hiru kategorია egongo lirateke:

- a) *Beste aldearen ikuspegiari buruz gehiago ikasteko ahaleginak egin ditzakegu.* Robert McNamara AEBetako Defentsako Idazkari ohiak –Kennedy eta Johnson lehen-dakariekin– zera esan zuen Kubako misilen krisialdiari buruz: «gure etsaiari enpatia hartzen⁴» ikasi behar genuela –ez sinpatia, enpatia baizik–. Adierazpen horiek arazoak konpontzeko testuinguruan egin zituen. Etsaiari enpatiarik hartu ezin diogunean, askoz arrisku handiagoa dago gatazka edo egoera horretarako egokiak ez diren ekintzak aukeratzeko.
- b) *Saia gaitzke kanporako erantzun eraginkorrei buruz gehiago ikasten.* Erronka berri eta aurrekusi ezinezkoiei aurre egin behar diegunez, erantzuteko era berriak aurkitu behar ditugu, era berriak eta terrorismoaren paradigma berrira egokituak. Hori AEBetako lehenetasun militarra izan da Koreako Gerratik hona: Nola erantzun eraginkortasunez talde armatu txikiago, mugikorrago eta ez-ohiko bati? Hala ere, AEBetako indar militarra eskala handiko borrokara zuzenduta dago. Gainera, gure parametro sozialak eta politikoak aldatu egin dira azken 20 urteetan. Gaur egun, nazioarteko politika ez da denbora-pasa soil bat: guztiongan du eragina egunero.
- c) *Gure buruaz gehiago ikasteko ahaleginak egin ditzakegu.* Zer da barne-erantzun aproposa, gatazka baten paradigma ezberdinetarako egokia? Nola ikasten dugu sendatzen? Nola ikasten dugu barkatzen? Azken urteetan, kontu horren inguruko ikerketa akademiko garrantzitsuak egin dira, baina badirudi estatuen aldetik ekintza gutxi dagoela. Wisconsingo Unibertsitateko doktore Robert Enrightek dioenez, barkatzeko prozesuan hogeitaurrats (eta lau fase) daude. Orain, New York eta Washingtongo atentatuetatik ia hiru urte igaro direnean, AEBak nazio gisa lanean hasi berriak dira 20 urrats horien alorrean⁵.

145

AEBak, argi eta garbi, ez zeuden 2001eko irailaren 11ko atentatuen parekoak edo taimainakoak bereganatzeko prest. Hala ere, atentatuak gainditzeko modurik eraginkorrena galdera zuzenak egitea da. Gure buruzagiei galdera zuzenak egin ditzaten eskatzea normala izan arren, maiz gehiegi eskatzen diegu erantzun zuzenak emateko galdegiten diegunean. Buruzagiek laguntza behar dute, eta horixe da prozesu zuzen batek eskaini lezakeena.

Maila praktikoa: erabakitzaileei laguntzea

Sarri askotan espero izaten dugu buruzagiek jakin behar dutena alde aurretik jakin dezaten. Buruzagiek, maiz, zailtasun izugarriak izaten dituzte arazo zaharrak sormenezko ikuspegiez begiratu edo aztertzeko. Ideia-jasako saiok lagundu egiten dute. Segurtasun Nazionalerako Aholkulari Condoleezza Riceren⁶ hastapaneko hitzaldian, galderak egiteko orduan, Lee Hamilton batzordekideak zera esan zuen: «politikariek inoiz ez dute informazio perfekturik izaten eta, askotan, larritu egiten dira hartu behar dituzten premiazko erabakiengatik».

Nahiz eta buruzagien erabakiekin ados ez gaudenean haien aurka egin ohi dugun, agian ikuspegi konstruktiboago bat izan liteke buruzagiei hobeto informatutako erabakiak hartzen laguntzeko mekanismoak bilatzea. Hautesleei gustatzen zaie pentsatzea euren buruzagiak adimendunak direla –uste zuzena izan ala ez–, baina adimendunek ere ideia onak behar izaten dituzte, eta ideia onak beste pertsona adimendunengandik etorri ohi dira.

Gure buruzagiek eskura dituzten informazioak eta ideiak optimizatzeko erarik onenetako bat, askoren pentsamenduak kategoriatan gutxitzea da. Modurik errazenean, gure buruzagiek ingurune konplexu, aldakor eta globalizatu honetan gehien behar dutena ideia-jasa gehiagotara jotzea da.

Hala ere, bi kontu nagusi izaten dira testuinguru politikoan egiten diren ohiko ideia-jasako saioetan:

- 1) Ideia-jasetan diharduten taldeek askotan galdera okerrak egiten dituzte, hain zuzen, taldeek *konponbideak* sorraraztera jo ohi dute, *prozesurik* baliagarrienaren inguruko iradokizunak egin beharrean.
- 2) Buruzagiek gutxitan prozesatu ahal dituzte konponbideetara zuzendutako ideia horiek, ideia-jasako mahaiaren inguruan dauden pertsonak eta arrazoi politikoak gainjarri gabe. Horregatik, ideia onak askotan atzera botatzen dituzte joko politikoaren inguruko susmoak direla medio, seriotasunez aintzat hartu aurretik.

CMGk tentsio horiek konpondu egin ditu, eta ez soilik partaidetza ordezkatzailea bilatuz, baizik eta ideia-jasako mahaiak zorrotzasunez *prozesurako* iradokizunetara zuzenduz, eta ez konponbiderako iradokizunetara. Adibidez, Kolonbiako gatazkan, drogarekin erlazionatutako buruzagi paramilitarren delituak zigortu gabe onartzeko egitura finkatzeko ideiak bilatu beharrean, negoziatzaileek aukera ezberdinen inguruan eztabaidatzeko prozesuari ekitea bultzatu genuen, irtenbiderik baliagarrienak aukeratzeko helburuz.

CMGk Ekialde Hurbileko gatazkari buruz egindako proiektu batean –«Israeldar-Palestinar Negoziazioaren Bazkideak» edo IPNP izenekoan– partaide palestinar batek aipatu zuen batzorde bat sortua zutela, azken urteetan huts egindako akordio guztiak aztertzeko. Batzordearen konklusioa zera izan zen, akordio horietatik batek ere funtzionatu ez izanaren arrazoiak prozesuan egindako akatsak izan zirela. Eta gehitu zuenez, IPNPkoek negoziazioen prozesua bultzatu behar zuten, baikorragoa zen akordio ona lortuko zela pentsatzeko. Israeldarrentzat eta palestinarrentzat akordio ona izan zitekeenari buruzko ideia-jasa egin beharrean, saiatu ginen israelarren eta palestinarren analisi-eta ebaluazio-prozesuari buruzkoa egiten.

Ikuspegia edukiari lotu beharrean prozesuari lotzeko helburuz, garrantzizkoa da abiapuntu gisa egiturazko baldintza batzuk planteatzea:

- a) *Partaidetza*: Talde interesatu guztien nolabaiteko partaidetza uniformea lortzen ahalegindu ginen. Ordezkar horiek «Track 1 1/2⁷» delakoaren eginkizuna dute, hau da, ez dira egiazko erabakitzaileak, baina erabakitzen dutenak ezagutzen dituzte eta haien gaineko eragina dute.
- b) *Hautaketa*: Idealki, ideia-jasako taldea, gatazkan esperientzia zuzena duten kide batzuek eta gatazkari buruzko oinarritzko ezagupenak dituzten baina, agian, esperientzia zuzenik ez duten beste batzuek osatzen dute. Ideia-jasako saio askotan bezala, norberaren izenean parte hartzera gonbidatu ohi dira, ordezkarri ofizial gisa

azaldu ordez. Ez zaie baimentzen ez negoziatzea ezta haien alderdia konprometitzea ere saioan zehar.

- c) *Eztabaiden ikuspegia ikastea da* eta ez erabakitzea. Kontu argi eta zehatz batetik abiatuta, bideratzaileak galdera garrantzitsua egin behar ditu, eta erantzunetan argitasuna eta adostasunak bilatu. Hala ere, bideratzaileak «birformulatu» behar du, kontu handiz, prozesura bideratutako edozein aukerari buruzko edozein eskaintza.
- d) *Sortutako ideien zerrenda aurkeztea*: Taldeak bere ideiak, zerrenda batean antolatuta eta lehentasunen arabera ordenatuta, zuzenean aurkeztuko dizkio erabakitzaileari edo erabakitzaileei. Eta aurkeztuko dio ez konponbide-multzo bat bailitzan, baizik eta aukera posiblez osatutako eta lehentasunen arabera sailkatutako zerrenda gisa, ideia horietatik baten alde ere egin gabe. Aurkezpena egin daitekeen modurik anonimoenean egingo da. Logikoki, ideia horiek ezin zaizkie pertsona konkretuei egokitu, baina erabakitzaileek aukera izan behar dute zerrenda mahaitik zuzenean jasotzeko. Nahikoa konpromiso argia egon behar da partaide guztien aldetik zerrenda hori prentsara ez helarazteko, bestela zerrenda hori tresna politiko bihurtuko bailitzateke.

Euskal egoeran egin litekeen erabilera

Euskal egoera bakarra izatea eragiten duten gauza ugarien artean, horietako bat zera da, agian ez dagoela beste gatazkarik urteetan hainbeste sormenezko konponbide eman zaionik. Gatazka horretako arazoen inguruan sormena eta gogoeta adimentsuak ez dira falta izan, baina agian gatazka, berez, *prozesuari* buruzko sormenezko iradokizunak falta ditu.

Batek gatazka horren inguruan kanpotik idatzitakoa irakurtzen duenean, badirudi ideia-jasako ekimenetatik gehienak konponbideetan eta eskaintzetan zentratu direla, eta ez irtenbidera iristeko prozesuan. Aipatutako arrazoiak direla medio, eta eskaintza horiek beti interesgarriak diren eta pentsarazten duten arren, ez du ematen irtenbide onargarri eta iraunkorrera eramango dutenik.

Elkarrik, alderdi askoren arteko elkarrizketa ordezkatzailearen bidez, bake-prozesua zabalteko egindako ahaleginak garrantzi handikoak dira. Hala ere, erronka eztabaidagune eta ideien sorgune bakarra finkatzea izango da, buruzagi politikoen ahaleginak optimizatzeko, ahalegin horiek negoziazioetan ahuldu edo ordezkatu beharrean. Eraginkorra izateko eta gaitzetsia ez izateko, prozesuak informazio erabilgarria eman behar die buruzagiei. Eskaintza politiko gisa aurkeztuko zaien edozer, ziur aski, atzera botako dute.

Elkarrizketa nola eraman aurrera, kontu garrantzitsu eta mingarria bilakatu da martxoaren 11ko atentatuaren eta martxoaren 14eko hauteskundearen ostean. Agian, oraingo hau aukera ezin hobea izan daiteke iraganeko ohitura erreaktiboekin hautsi eta, etorkizunean, kulturen artean ikasteko haziak ereiteko.

Espainiako gobernuaren hasierako erreakzioa ikusita, ETA errugabea zela onartu aurretik, atentatuak elkarrekin aztertzeke aukera dago orain, hirugarren pertsonaren ikuspegitik, nolabait esateko. Espainiarrek eta euskaldunek batera elkarrizketari ekiteko aukera ezin hobea dute, atentatu bortitzek inoren interesak asetzeke ez dutela balio izan ikasteko.

Kontu horren inguruko elkarrizketa, ETAREN su-etena posible ote den eztabaidatik askoz urrunago irits liteke. Aztertu beharreko galderak asko eta sakonak dira; ondorioz, analisiak luze joko du. Hala ere, buruzagi politikoei galdera horiek aurrera eramango dituzten

taldeak behar dituzte, zentzuzko eztabaida zabaltzeko. Eztabaida horrek, berriz, konponbidera eta adiskidetzera eramango duen PROZESUA abian jarriko duten sormenezko ideiak sorraraziko ditu.

Konklusioa

Joko politikoaren arauak aldatu egin dira gure munduan azken urteotan, baina gure politikoen jokaera ez da aldatu oraindik. Gatazkak Konpontzeko profesionalek aldaketa hori zuzentzen ahalegindu behar dute elkarlanean arituz, bai garapen akademikoan baita teoriaren erabilpen praktikoan ere. Arlo guztietan, oinarrizko printzipioak erraztasuna izan behar luke. Ikuspegi errazak ikuspegi konplexu eta sakonak baino eragin zabalago eta iraunkorragoa izango du.

Hitzaldiaren inguruko oharrak

¹ *Getting to Yes: Negotiating Agreement Without Giving In*, 2. Argitalpena, Roger Fisher, William Ury eta Bruce Patton (New York: Penguin Books, 1991).

² Interesetan oinarritutako teoriaren eta identitatean oinarritutako teoriaren arteko analisi konparatiboa egiteko, ikusi Rothman, J. *Resolving Identity Conflicts in Nations, organizations and Communities*. Jossey-Bass, 1997.

³ Identitatean oinarritutako teoriaren eta adiskidetzaren teoriaren arteko loturari buruzko informazio gehiago jasotzeko, ikusi Hicks, D. «The Role of Identity Reconstruction in Promoting Reconciliation», 7. atala, *Forgiveness and Reconciliation: Religion, Public Policy and Conflict Transformation*. Rempleton Foundation Press, 2001.

⁴ *The Fog of War*, 2004. Documental. Entrevistado por el Director Errol Morris.

⁵ *Exploring Forgiveness*, (1999). R.D. Enright, S. Freedman, J. Rique, University of WI Press, Madison WI. «Errebelazioaren fasearen» lehenengo hiru urratsak hauek dira: «1) Haserreari, erruari eta lotsari aurre egitea, sentimendu horiek adieraziz. 2) Iraina behin eta berriro errepikatzeak energia alferrik galtzea dakarrela onartzea.3) Aurreko estrategiak ez duela funtzionatzen ulertzea». AEBak 3. urratsean sartzen ari dira, baina badira oraindik 1. eta 2. urratsetan ere zeregin asko daukatela diotenak.

⁶ «11/9 Batzordearen» aurrean egindako testigantza –Estatu Batuen aurkako Ekintza Terroristei buruzko Batzorde Nazionala–. Zuzeneko emanaldia 2004ko apirilaren 8an.

⁷ «Track One» (Lehenengo Pista) maila ofizialean egindako negoziazioa da eta «Track Two» (Bigarren Pista) isilpeko negoziazio ez-ofiziala da. Ideia-jasen paradigma berri horren barruan, negoziazioetan aginterik ez izan arren, ondo informatuta egoteko eta eragina izateko Track Onetik eta Track Twotik aski gertu dauden solaskideak izendatzeko «Track 1 1/2» (Bat eta Erdi Pista) terminoa erabiliko dugu.

Bibliografía

ANDERSON, MARY

Do no harm. How Aid can Support Peace or War, Boulder: Lynne Rienner Publishers, 1999.

BROWN, MICHAEL E.

The International Dimensions of Internal Conflict, MIT Press, Cambridge, Massachusetts, 1996.

BURTON, J.W.

Resolving deep-rooted conflict: A handbook, University Press of America, Lanham, Maryland, 1987.

BURTON, JOHN ED.

Conflict: Human needs theory, Macmillan, Londres, 1990.

CHAYES, ANTONIA HANDLER, CHAYES, ABRAM

Planning for Intervention: International Cooperation in Conflict Management, Kluwer Law International, The Hague, 1999.

DIAMOND, LOUISE, McDONALD, JOHN

Multi-Track Diplomacy: A Systems Approach to Peace (3rd ed.), Kumarian Press, West Hartford, 1996.

FISHER, ROGER

Beyond Machiavelli: Tools for coping with conflict, Harvard University Press, London, 1992.

FISHER, ROGER, URY, WILLIAM. PATTON, BRUCE

Getting to Yes: negotiating agreement without giving in, (2nd ed.) Penguin Books, New York, 1991.

HANNUM, HURST

Autonomy, Sovereignty, and Self-Determination: The Accommodation of Conflicting Rights, University of Pennsylvania Press, Philadelphia, 1996.

HEEN, SHEILA; PATTON, BRUCE AND STONE, DOUGLAS

Difficult Conversations: How to Discuss What Matters Most, Penguin Putnam, New York, 1999.

HELMICK, R., PETERSON, R.

Forgiveness and Reconciliation: Religion, Public Policy, and Conflict Transformation, Templeton Foundation Press, 2001. De especial interés es el Capítulo 7 de Donna Hicks «The Role of Identity Reconstruction in Promoting Reconciliation», pp. 129-149.

HERACLIDES, A.

The Self-Determination of Minorities in International Politics, Frank Cass, London, 1991.

LARSEN, KNUD

Conflict and Social Psychology, PRIO, Sage Publications, 1993.

LEDERACH, JOHN PAUL

Preparing for Peace: Conflict Transformation Across Cultures, Syracuse University Press, Syracuse, New York, 1995.

LEDERACH, JOHN PAUL

Building Peace: Sustainable Reconciliation in Divided Societies, United States Institute of Peace Press, Washington, D.C., 1998.

ROTHMAN, JAY

From confrontation to cooperation: Resolving ethnic and regional conflict, Sage Publishers, London, 1992.

ROTHMAN, JAY

Resolving Identity Conflicts in Nations, Organizations, and Communities, Jossey-Bass, San Francisco, 1997.

SUSSKIND, LAWRENCE; CRUIKSHANK, JEFFREY

Breaking the impasse: Consensual approaches to resolving public disputes, Basic Books, USA, 1987.

URY, WILLIAM

Getting Past No: Negotiating with difficult people, Bantam Books, New York, 1991.

URY, WILLIAM


Getting to Peace: Transforming Conflict at Home, at Work, and on the World, Penguin, New York, 1999.

VOLKAN, VAMIK

The Need to Have Enemies and Allies: From Clinical Practice to International Relationships, Jason Aronson, Northvale, NJ/London, 1994.

ZARTMAN, I. WILLIAM

Ripe for Resolution, Oxford University Press, New York, 1985.



Lidertza eta gatazka: zenbait ikasgai

ROELF MEYER JN.

Hegoafrikako Gobernuko Kanpo Arazoetako ministro-obia

Roelf Meyer 1947ko uztailaren 16an jaio zen Eastern Cape-en, Hegoafrikan. Ekonomia Zientzietan eta Zuzenbidean lizentziatu zen Free State-eko Unibertsitatean, Hegoafrikan. 1980. urtera arte abokatu gisa jardun zuen Pretorian eta Johannesburgen.

Politika-zereginetan 1979. urtean hasi zen, parlamentari hautatu zutenean. Hainbat kargu bete zituen Alderdi Nazionalaren gobernuan trantsizioaren aurreko aldia Hegoafrikan: Zuzenbide eta Ordena Ministrorde (1986-1988), Konstituzio Arazoetako Ministrorde (1988-1991), Defentsa Ministro (1991-1992) eta Konstituzio Arazoetako Ministro (1992-1994).

Roelf Meyer-ek zuzenean parte hartu zuen Hegoafrikako gatazka konpontzeko negoziazioetan 1989tik amaieraraino. 1992 eta 1994 bitartean Alderdi Nazionalaren gobernuaren negoziatzaile nagusia izan zen. Negoziazio horien emaitza Hegoafrikako lehen hauteskunde demokratikoak izan ziren 1994ko apirilaren amaieran. Hauteskunde- en ondoren, Meyer-ek Konstituzio Arazoetako karteran jarraitu zuen Nelson Mandela presidente-ohiaren gobernuan, 1996ko martxora arte.



CURRÍCULUM

Hegoafrika berriaren sortzaileetako bat izanik, Meyer ez zen pozik geratu Alderdi Nazionalaren bake-erreformarekin, eta bereziki etsita geratu zen alderdiak ez zuelako borondaterik izan bere iraganarekin hausteko. Horregatik alderdia utzi eta Mugimendu Demokratiko Batuaren (UDM) sortzailekide izan zen 1997an. UDM alderdian parlamentari gisa jardun zuen 2000ko hasieran politika aktiboa utzi zuen arte. Orduz geroztik, hainbat negozio ditu eta zeregin aktiboa betetzen du gizarte zibilaren erakundeetan.

Negoziatorako duen gaitasunari eta gatazka-konponketaren alorrean duen esperientziari esker, Meyer-ek hainbat izendapen jaso ditu nazioartean. Esate baterako, Trantsizio Garaiko Justiziari buruzko Proiektuaren Estrategia Batzordeko kide da, Harvard Unibertsitatean. 2001ean Bake Zientzietako Tip O'Neill katedra jaso zuen Ulster-eko Unibertsitatean, Ipar Irlandan.

LABURPENA

Hegoafrika herrialde zatitua izan da denbora askoan, gatazka sakon batek bete-betean hartu baitzituen eraginpean bertako herritarrak, eta, gauzak horrela, alde guztiek onartzeko moduko konponbidea lortzeko, behar-beharrekoa zen liderrak jarraibide eta paradigma berriak eskaintzen hastea. Hala, arrazoibide dogmatiko zaharkitua alde batera utzi zen, eta, horren orde, beste alderdiarekiko benetako elkar ulertzerako eta konpromisorako urratsak egiten hasi ziren, eta gainera jendea prozesuan eta prozesuaren emaitzetan sinisten hasi zen. Orduantxe abiatu zen, hain zuzen ere, konponbide baketsua eta iraunkorra lortzeko prozesua.

Hegoafrikako esperientziak argi eta garbi uzten du gatazka bat, guztiz sustraitua egonagatik ere, konpon daitekeela, eta zenbait jarraibide eskaintzen ditu konpontze-prozesu hori abian jartzeko. Hegoafrikako kasua aztertzea lagungarri izan daiteke beste gatazka batzuk konpontzeko. Nire aurkezpenean prozesuaren fase guztiak aztertuko ditut: dogmatik pragmatismorako aldaketa, pragmatismotik paradigma berri baterako aldaketa eta herrialdearen erabateko eraldaketa, apartheidean oinarrituriko estatu bat izatetik pertsona guztien eskubide-berdintasuna babesten duen estatua izatera eraman duena.

Beste gatazka batzuk aztertzen baditugu, argi eta garbi geratzen da gatazka guztiek eta gatazka guztien konponbideak ezaugarri komun batzuk dituztela, nahiz eta gatazka bakoitzak bere izaera propioa izan. Horregatik, faktore horiek guztiak aztertu beharko lirateke, oro har gatazken konponbide iraunkorrerako garrantzizkoak edo funtsezkoak izan litezkeen ikuspegiak hobeto ulertu ahal izateko.

Lidertza eta Gatazka: zenbait ikasgai

Hegoafrikak 1950-1994 aldian izan zuen buruzagitza politikoaren ezaugarriak aztertu nahi nituzke, bertan gertatu zena errotutako gatazka bat jasaten duten beste leku batzuetan aplikatu daitekeelakoan bainago.

Apartheidari eusten edo apartheidaren amaieran funtsezko zeregina bete zuten buruzagiengan pentsatzen dudanean, horien lana aztertu dugu dokumentu honetan, buruzagitza-ezaugarrien sekuentzia bat dagoela dirudi. Sekuentzia horri *transformazio/trantsizio dogmatikoaren* sekuentzia deituko diot. Ildo dogmatiko gogorarekin hasi zen, 1950-1980 urteetan, fase pragmatikoarekin jarraitu zuen 1989-1992 aldian, eta paradigma berriaren sorkuntzarekin amaitu zen. Paradigma berri horretan, hegoafrikar guztiak berdintasunerako duten eskubidearen garrantzia onartu zuten buruzagiek.

Oro har, ez ziren bat-bateko aldaketak izan, une jakin batzuetan prozesua nabarmen bizkortu bazen ere. Nire ustez, Hegoafrikan gertatu zena konponbide naturala izan daiteke munduko leku askotan oso errotuta dauden eta ideologiek eragin dituzten gatazkei irtenbidea emateko. Kasu hori aztertzea lagungarria izan daiteke beste gatazka batzuen konponbidea aurkitzeko –eta apartheid-estatu bat demokraziaren aldeko estatu bihurtzeko prozesuari zuzenean lotuta egon nintzen aldetik diot hori–.

Hegoafrika oso une kritiko batera iritsi zen, eta ez zegoen apartheid-politikei eustetik. 1985-1990 aldian gertatu zen hori; trantsizioa ezinbestekoa zen. Beste une kritiko bat ere izan zen, trantsiziotik eraldaketara igaro behar izan zenean. Nire ustez, Hegoafrika Demokratiko baterako Konbentzioak CODESA porrot egin zuenean gertatu zen hori. CODESAk porrot egin zuenean, berriz hasteko beharrezkoa zen katarsia gertatu zen. Eraldaketa hori egiteko, paradigma goitik behera aldatu beharra zegoen, hau da, pentsamolde zaharra bertan behera utzi beharra zegoen erabat.

Horixe izan zen gobernuan zegoen Alderdi Nazionalako negoziatzaile nagusiak ikasi zuen lehen ikasgaia. Azpimarratu nahi nuke hori behar-beharrezkoa dela sakonean errotutako gatazka soziopolitiko bat konpontzeko.

Eraldaketarako buruzagitza baten funtsezko ezaugarritzat hartzen ditudanak aztertu nahi nituzke, eta Hegoafrikako testuingurura joko dut horretarako.

Buruzagitza dogmatikoa

Adierazitako aldian, gobernuan zegoen Alderdi Nazionalako buruzagiak –Verwoerd, Vorster, Botha– ideologian eta dogman oinarritu ziren. Hona hemen haien pentsatzeko moduaren ezaugarri bereizgarriak:

- *Bazterkeria*: afrikander zurien nagusitasunean oinarritu zen, eta, beraz, zuriak ez zirenak baztertu egin ziren.

- *Arrazoibide dogmatikoa, ziklikoa eta itxia*: ezarritako politikak justifikatzeko, Bibliako aginduetan oinarritutako dogmak sortu ziren. Politikak kosta ahala kosta betetzeko eta zabaltzeko erabili ziren.
- *Jarrenera baztertzailerak*: talde batzuei eta horien estatusari buruzko funtsezko erabakiak hartu ziren, talde haiek parte hartu gabe.
- *Etsaitasuna eta konfiantzarik eza*: zuriak ez zirenak etsai potentzialtzat hartu ziren, taldearentzat mehatxu zirelakoan.
- *Estigmatizazioa*: baztertutako taldeak Hegoafrika zuria osatzeko heldutasunik eta gaitasunik ez zuten taldeetat jotzen zituzten, baina, aldi berean, komunistak/sozialistak zirela eta, beraz, sistema arriskuan jartzen zutela esaten zuten.
- *Desindibidualizazioa*: apartheidaren aurka zeuden politikariak ezagutzeko aukerarik ez zen eman. «Eraso egiteko prest dagoen etsai beltzaren» irudi desindibidualizatua ematen zen.
- *Hurbilezintasuna eta egoskorkeria*: herrialdea etengabe sutan bazegoen ere, munduan apartheid-politiken aurkako protesta handiak egiten baziren ere, nazioartean zigor ekonomikoak ezarri baziren ere, hasiera batean gobernuan zegoen Alderdi Nazionalak ez zituen kontuan hartu Mandelak ANC alderdiarekin negoziatzeko egin zituen hurbilketa-ahaleginak.

Buruzagitza trantsizioan

Trantsizioan, buruzagitzaren ezaugarri bereizgarria pragmatismoa izan zen. Prozesu hori Botharen erregimenaren lehen etapan hastekotan egon zen, baina azkenean ez zen garai hartan hasi. De Klerken agintaldian, gobernuan zegoen Alderdi Nazionalaren modus operandi bihurtu zen. Mandelak negoziatzeko onartu zuen ikuspegia ere hori bera izan zen. Negoziazioan toki hobea lortzeko taktikak garatzea eta, era horretan, bakoitzaren alderdiaren helburuak lortzea zen bi buruzagien helburua. Ondoren, trantsizioaren faseko buruzagitzaren ezaugarri batzuk aurkeztuko ditut:

- *Behin-behineko elkarrizketak egiteko prestasuna*: herrialdea krisialdi handi batean murgilduta zegoenez gero, gobernuan zegoen Alderdi Nazionala eta ANC alderdia hitz egiten hasi ziren 1985/6 urteetatik aurrera.
- *Beste hasiera bat*: De Klerkek 1989an boterea hartu zuenean, aukera baliatu eta Mandelaren eta gainerako preso politiko guztien baldintzarik gabeko askatasuna, eta alderdi politiko guztien legeztatzea eskaini zuen 1990eko otsailaren 2an egin zuen diskurtsoan.
- *Baldintzarik eza*: De Klerken eskaintza baldintzarik gabea izateak desagerrarazi egin zituen aurrerapausoak egiteko eragozpen izan ziren zalantza guztiak, beste aldeari ez baitzitzaion konpromisorik eskatu.
- *Bake Akordioa*: Bake Akordioak gobernuan zegoen Alderdi Nazionala eta beste alderdi guztiak lotetsi zituen, konstituzioaren inguruko negoziazioak hasi aurretik indarkeria amaitzearen eta bakea berrezartzearen alde lan egiteko. Eremu nazionalean, eskualde-eremuan eta toki-eremuan alderdien arteko oinarri komunak finkatzeko lehen ahalegin positiboa izan zen Bake Akordioa. Bake Akordioaren bidez, nazioa batu egin zen une guztiz kritiko batean bakea eta egonkortasun politikoa irrikatzen zuela adierazteko.

- *Alderdien babesarekin negoziatzeko erantzukizunaren onarpena*: bitartekotza-eskaintzak gorabehera, alderdiek eta buruzagiek 300 urteko gatazka hura eurek konpontzeko erantzukizuna onartu zuten. Bi aldeek nahiago izan zuten gauzak herrialdearen barruan egin. Proiektua aurkako taldeen esku jarri ondoren, impasetik irteteko eta gatazka konpontzeko modua aurkitu behar izan zuten.
- *Pragmatismoa*: Ezinezkoa zen apartheid-politikei eustea, eta ANC alderdiak ezin zuen beti borrokan jardun. Aldaketa ezinbestekoa zen eta, denbora batean, bi aldeak neurri txikiagoan oinarritu ziren ideologian.
- *Edozein gertakizuni aurre egiteko neurriak*: egoera-aldaketen arabera, taktika berriak zehaztu ziren.
- *Arriskuak hartzea*: beren alderdiaren ohiko ideologia-esparrutik irtetean, gobernuan zegoen Alderdi Nazionala eta ANCko buruzagiak arriskatu egin ziren. Hautesleak kontra ager zitezkeen. Gainera, buruzagiek ez zuten batere garbi etorkizuna, eta galtzeko arriskua handia zen alde batekoentzat zein bestekoentzat.
- *Elkarrizketa irekia*: funtsezko desberdintasunak eta elkarrizketen porrotak gorabehera, berriz hasi ziren hitz egiten.
- *Irabazleak eta galtzaileak*: aldi horren ezaugarri bereizgarri bat irabazleak eta galtzaileak izango zituen emaitza baten ezinbesteko bilaketa izan zen. Gobernuan zegoen Alderdi Nazionalak ahalik eta boteretik handiena gorde nahi zuen zurientzat, eta ANC alderdiak bizkorrago egin nahi zuen botere-transferentzia.
- *Aldaketa konfiantza-mailetan*: irabazleak eta galtzaileak ardatz zituen estrategiarekin jarraituz gero, negoziatzaileek besteenganako konfiantza eta euren zintzotasuna gal zitzaizketen.
- *Alderdien ideologia*: buruzagiek beren alderdiaren ideologiari eutsi zioten.

Eraldaketarako buruzagitza

CODESA 2 konbentzioak porrot egin zuenean, negoziazioak blokeatu egin ziren erabat. Aldaketa bat gertatu zen: taldeen eskubideetan oinarritu ordez, eskubide indibidualen oinarritzen hasi ziren. Horren ondorioz, elkarrizketak berriz hasteko oinarriak finkatu ziren eta, are garrantzitsuagoa dena, paradigma guztiz berri baten zutabeak jarri ziren.

Hortaz, De Klerken eta Mandelaren trantsiziorako buruzagitzaren ondoren, eraldaketarako buruzagitza sortu zen. Hona hemen eraldaketarako buruzagitzaren alderdi bereizgarriak:

- *Beste hasiera bat CODESA 2 konbentzioaren ondoren*: CODESA konbentzioaren porrotak katarsia eragin zuen, eta oso bestelako pentsamoldea eta jarduna behar izan ziren horri erantzuteko.
- *Paradigmaren aldaketa*: katarsiak paradigmaren aldaketa eragin zuen negoziazioaren maila politikoan, pertsonalean eta prozedurazkoan. Horren ondorioz, negoziazio-prozesuaren kalitatea erabat aldatu zen CODESA konbentzioaren garaian eta aurretik egindako negoziazioen aldean.

Ikuspuntu politikotik, paradigma-aldaketaren ezaugarriak honako hauek izan ziren:

- *Pentsamoldearen funtsezko aldaketa*: gutxiengoaren eskubideen babesean (Alderdi Nazionala) eta boterearen transferentzian (ANC alderdia) oinarritutako ikuspegi ideologikoa alde batera utzi, eta berdintasun-eskubideak, eskubide indibidualak eta aukera-berdintasuna azpimarratu ziren.

Buruzagiek Cyril Ramaphosarengan –ANC alderdiaren negoziatzaile nagusi gisa– eta neuregan jarri zuten konfiantza blokeoaren ondoren aurrera egiteko. Negoziatzaile-lanetan jardun genuen aldian, honako hauek izan ziren aldaketaren ezaugarriak:

- *Konfiantza*: Ramaphosak eta neuk gure alderdien negoziatzaile gisa genituen gaitasunetan jarritako konfiantzan oinarritutako harremana. Konfiantza hori funtsezkoa izan zen jarraitu beharreko bidea adosteko eta konstituzioa lantzeko. Elkarrekiko konfiantzak indar handia hartu zuen, eta sortuko ziren arazo guztiak gainditzeko gai izango ginela uste izan genuen. Adostasuna lortzea ezinezkoa zirudien gaietan ere, konfiantzak konponbidea aurkitzen lagundu zigun.
- *Iritzi komuna*: Hegoafrikako gatazkarako konponbide iraunkor bakarra itundutako akordioa zela uste genuen Ramaphosak eta biok.
- *Ikuspegi komuna*: Hegoafrikan demokrazia bermatuko zuen estatu konstituzionala sortzea zen gure ikuspegi komuna. Kontrako inguruneak baginen ere, ikuspegi bera genuen Ramaphosak eta biok, eta horrek lagundu zigun lortzen.
- *Aurreko jarrerak eta alderdi negoziatzearen alde batera uzteko prestasuna*: gure azken helburuaren inguruko akordio batera iritsi ginenez gero, alde batera utzi genituen gure aurreko jarrerak eta gure iritzi ideologiko negoziatzearen alde.
- *Denek irabazi behar zuten*: gure ikuspegi komunari esker, elkarrekin zuzendu genuen negoziatze-prozesua, eta denok irabazle izango gineneko konponbide baten oinarriak finkatu genituen. Nire konponbidea alde batera utzi, eta konponbide komun batean sinetsi genuen.
- *Gune ireki baten sorkuntza*: Ramaphosak eta biok ikuspegi komuna genuen eta baterako negoziatze-prozesu bat egiteko konpromisoa hartu genuen. Horregatik, alde batera utzi genituen «ni irabazle, zu galtzaile» moduko egoera batera iristeko aurreko estrategiak. Horren ordez, gune ireki bat sortzeko zereginean oinarritu ginen.
- *Iritzi-desberdintasunak*: elkarrekiko konfiantzari esker, entzuteko eta bestearen ikuspuntua benetan ulertzeko gogoia piztu zitzaigun. Konponbideak aurkitzeko, besteak zer pentsatzen zuen jakin behar genuen. Horretarako, bestearen jatorriak ikusi eta errespetatu behar genituen.


Negoziatze-taldeetan, honako alderdi hauei esker geratu zen garbi paradigma-aldaketa:

- *Onura komuna lortuko zelako ustea*: negoziatzaile nagusiek ez ezik, taldeek ere Hegoafrika demokratikoa sortzeko ikuspegi komun baten alde jardun zuten.
- *Sinesgarritasuna*: aurreko taldeek ez bezala, eutsi egin genien agindutakoei eta amore emandakoei. Oso konpromiso moral eta etiko sendoa zegoen. Estrategiak helburu gisa erabiltzeko iraganeko joera alde batera utzi genuen.

- *Intentsitate handiko elkarrizketak*: bi taldeek, energia desberdintasun hutsaletan xahutu ordez, elkarrizketa serioak eta intentsitate handikoak egin ahal izan genituen konfiantzari, errespetuari eta ikuspegi komunari esker. Hori oso lagungarria izan zen prozesua garatzeko.
- *Arazo konplexuei eman beharreko erantzunen bilaketan oinarritzea*: deskribatzen ari garen negoziazio-ereduak alderdi bereizgarri bat izan zuen, hots, konponbide iraunkorra aurkitzeko baterako konpromiso batean oinarrituta, negoziazio-prozesuari eta konstituzioaren edukiari lotutako arazo konplexuei eman beharreko erantzunen bilaketan oinarritu ziren bi aldeak.
- *Ekitatezko parte-hartzea*: aldeek behin-behineko konstituzioaren xehetasunei buruzko eztabaiden bidez konpromisoa hartzeko aukerak sortu ziren. Sarritan, leku urrunetan egin zituzten eztabaida haiek, ordezkariak lasai lan egin zezaten. Hegoafrikako historian, zuriak eta beltzek bazkide gisa etorkizun komuna lantzeko elkarren ondoan eta maila berean lan egin zuten lehen aldia izan zen.
- *Irudi positiboa*: alde aurreko eztabaidetan, etsaiak aurrez aurre bildu ziren. Era horretan, aurkariaren irudi inbertsonalaren ordez, errespetua nagusitu zen. Hori funtsezkoa izan zen prozesua guztiona zelako ideia sortzeko, eta emaitza ona izan zen.
- *Barnean hartzea*: bidezkoak ziren uneetan, negoziazioetan parte hartu zuten alderdi politikoak, gobernu-egiturak eta buruzagi tradizionalen taldeak hogeitik gora izan ziren. Horrela, beraz, ezein talde ez zen prozesutik baztertuta sentitu. Alderdi txikiak eta handiak parte hartzeko aukera berak izan zituzten.

Negoiazioek esparru ezezagun batean sartzen ari ginela esan nahi zuten. Horregatik, erronka berriei aurre egiteko konponbide berritzaileak aurkitu behar izan genituen.

- *Adostasun nahikoa*: konstituzioa lantzeaz gain, prozedura-zailtasun bereziak gainditu behar izan ziren. Hainbat alderdiren arteko negoziazioetan erabakiak hartzeko metodoa izan zen arazoetako bat. Gehiengoa (berezia) eta adostasun orokorra ez ziren konponbidea lortzeko modu egokiak. Horregatik, «adostasun nahikoa» izeneko metodoa diseinatu genuen.



Gizarteko protagonista berriak

MARIANNE HEIBERG AND.

Nazioarteko Gaietarako Norvegiako Institutuan. (NUPI)

Marianne Heiberg Oslon (Norvegia) jaio zen baina Estatu Batuetan eta Britainia Handian ikasi zuen; 1981. urtean doktoregoa atera zuen London School of Economics and Political Science eskolan.

Jarduera akademikoaren ardatza honako gai hauek izan dira: gatazka etnikoak, nazionalismoa, garapen ekonomikoa, modernizazio politikoa eta bakerako misio multilateralak eta esku-hartze militarra. Gai horiei buruz asko idatzi du. Eskualde-mailan, Mediterraneo inguruko herrialdeak izan ditu aztergai.

Azken 25 urteotan, Heiberg doktoreak Ekialde Ertainean lan egin du: lehenik Libanon, eta Zisjordanian eta Gazan gero. Norvegiar talde txiki batekin batera –eta talde horretan zegoen orain hila dagoen Johan Jørgen Holst bere senarra, garai hartan Norvegiako kanpo-gaietarako ministroa–, Israelgo gobernuaren eta OLP Palestina Askatzeko Erakundearen arteko negoziazioetan parte hartu zuen Oslon; negoziazio horien ondorioz 1993ko irailaren 13an Printzipioen Deklarazioa sinatu zuten.



CURRÍCULUM

Ekialde Ertainean, aholkulari ere izan da Norvegiako Kanpo Gaietarako Ministerioarentzat, Norvegiako Garapen Lankidetzarentzat eta Munduko Bankuarentzat.

Nazio Batuekin lan egin zuen Jerusalemenean, eta 1995. urtean, Marianne Heiberg Ikerketako Senior Bazkide postura itzuli zen, Nazioarteko Gaietarako Norvegiako Institutuan. 1995tik 1996ra bitarte, UNESCOren zuzendari nagusiaren aholkulari berezia izan zen.

Honako elkarte hauetako kide da: International Crisis Group (Brusela), International Alert (Londres), eta Peres Centre for Peace (Tel Aviv). Hona hemen idatzi dituen liburu aipagarrienak: *The Making of the Basque Nation, Palestinian Society in the Gaza Strip, West Bank and Arab Jerusalem, eta Subduing Sovereignty: Sovereignty and the Right to Intervene.*

LABURPENA

Europako historia sozialak komunitatearen zentzua bere-berea du, tributik herrixkara, herrixkatik hirira, hiritik nazio-estatu burujabera. Gaur egun, Europan nazio-estatu burujabearen zentzua lasaitzen ari da, nazioz gaindiko komunitatea sortzeko prozesuaren bidez aldatzen ari baita, tokiko komunitateak elkarre handiagoetan batuta, lurralde-estatuaren monopolioa urratuta, lurralde-estatuari biltzeko ahalmena eta subiranotasun-maila gutxituta, identitate anizkoitzak sortuta mugak gaindituz, herritarren eta gizartearen arteko nahiz gizartearen eta estatuen arteko harremanak aldatuta.

Doktrina nazionalistak ikasi du estatuerako mugen barnean «komunitate nazional» bereizgarria biltzen dela, eta komunitate horren nortasuna pribilegiatua da, gainerako komunitateekin alderatuta. Baina gure munduan jendeak elkarren artean libreki nahastu eta ezkontzeko joera du, komunikaziorako kultura-oztopoak ia desagertzeaz daude, norbanakoez zenbait leialtasun eta hainbat identitate izan ditzakete; horrelako mundu batean, estatu etnikoa anakronismoa ez ezik, etengabe gatazkan egoteko formula ere izango da.

Gizarteko protagonista berriak

Sarrera

«Jabetzaren ideia edo esklabotasunaren ideia ulertzeko gai bazara, subiranotasunaren ideia ere oso erraz ulertuko duzu. Subiranotasunak bezala, jabetzak eta esklabotasunak bazterkeria-eta agintarritza-ideiak dakarzkigute».

Allott, Eunomia, 15.37. paragrafoa.

Nire hitzaldiari alderdirik nabarienari helduz emango diot hasiera. Nazioarteko komunitatea 190 bat estatu independentek osatzen dute gaur egun. Baina horietako dozena bat baino ezin dira hartu estatu-naziotzat, hitzaren zentzurik zorrotzenaren arabera. Munduko biztanle gehienak kultur, etnia eta hizkuntza aniztasuna ezaugarri duten inguruneetan bizi dira. Bestalde, ia denok dugu gizarte kultur aniztetasun bizitzeko joera, eta horretan nahiko arrakasta handiz jardun ohi dugu, gainera. Maila guztietako giza harremanetan gatazka normala eta beharrezkoa dela esatea ere agian jakinekoea irudituko zaizue. Gatazkarik gabe, ez dago aldaketarik. Oro har, gatazka onartu egiten da, muga onargarriak gaintzen ez baditu behintzat. Gatazkan indarkeria nagusitzen denean sortzen dira arazoak: adibidez, aurrez aurre dauden botere, identitate, lurralde eta/edo subiranotasunari lotutako aldarrikapenetan gizaki moduan hobetzeko nahi konpartituen mugak gaintzen direnean edo gizakien arteko desberdintasunen kontra jotzen denean horien gizatasuna kontuan hartu gabe.

Gerra Hotzaren amaiera gutxienez XVII. mendean hasitako garai historikoaren bukaera logikotzat har daiteke. Estatu subiranoetan oinarritutako Ordena Zaharra 1648an eratu zen European Westfaliako Bakearen bidez, Hogeita Hamar Urteko Gerraren ondoren. Hizpide dudak garaietan, estatuaren kategoriatan sortu, hedatu eta indartu zen, lehenbizi European eta gero mundu osoan, indar handiz hedatu ere. XIX. mendearen bukaeran, Europako herri menderatuen –poloniarren, serbiarren, armeniarren...– ametsa lurralde-berriak sortzea zen. Lehen Mundu Gerra bukatu eta gero, Habsburgotarren inperioa eta inperio otomandarra eta errusiarra erori ondoren, «nazio» horietako liderrak egoeraz baliatu ziren hondarren artean hainbat estatu-nazio eratzeko. Bigarren Mundu Gerraren ostean, estatu berriak sortu ziren herri kolonizatuak askatzeko. Gehiegi erreparatu ez zitzaion jokabide bat nagusitu zen orduan: estatuaren lider berrietako askoren lehen eginkizuna, bai European bai beste leku batzuetan, «gehiengo etniko» nagusia sustatzea izan zen. Gehiengoaren ezaugarri bereizgarria hizkuntza, erlijio edo antzinatasuna izan ohi zen, batzuetan hiru ezaugarri horiek batera egokitzen ziren arren. Tokian tokiko gutxiengoei, ados ez zeudela, bigarren mailako estatusa eman zieten, eta atzeritartzat edo beraien etxean bizi ziren egoiliar iraunkortzat hartu zituzten¹.

Gerra Hotzak ezarritako ordena agian ez zen izan bereziki atsegina edo bidezkoa, baina nahiko egonkortasun handia lortu zuen. Estatu sobietarra erori izanaren eta Gerra Hotzaren logika nuklearrak ezarritako ordena eta diziplinaren ondorioz, erabat paisaia berria nagusitu da. Lehengo «estatu-nazio» asko desegin eta zatitu egin dira, sarri askotan etnien arteko hutsuneen bidez. Eta zati horietako askotan gatazka fratizidak piztu dira.

Nazioarteko erakundeak eta erakunde horiek ezarritako jardunbideak kolokan geratu dira gertakarion eraginez, eta orain lehentasunak eta funtzioak berriro finkatzeko ahaleginetan dabilta buru-belarri. Paradoxa dirudien arren, Abba Eban israeldarrak dioenez, mundua aldi berean bateratzen eta zatitzen ari dela ematen du.

Ekialdeko Europan, Europar Batasun ohiaren eremu batzuetan eta urrunagoko beste lurralde batzuetan sortutako zoritzarreko tentsio etniko larriei dagokienez, sezesionismo etnikoaren alde borrokatzen duten militante etnikoen eta kultur aniztasuna suntsitu nahi dutenen helburu estrategikoa berbera dela uste dut. Ez dute gutxiengoa izan nahi beraientzat aldarrikatzen duten lurraldean. Izan ere, nazionalismo baztertzailaren elokuentziarekin txundituta dauden ingurune politikoetan hori gertatzeko arrazoi ugari egoten dira. Aipatutako helburu estrategikoa doktrina nazionalista etnikoa baldintzatzen duen funtsezko ikuspegiaren emaitza logikoa dugu, besteak beste. Eta ikuspegi hori lurralde-subiranotasun kontzeptuan datza, lurralde jakin baten gaineko aldarrikapen eta jurisdikzio osoan.

Subiranotasunak aurrez aurre. Jerusalem

Aipatutako arazoa ez da ernaldu Europan bakarrik, inondik inora. Ekialde Ertainean Jerusalem, askorentzat hiri sakratua, dugu subiranotasun kontzeptuak sortutako auziaren adibiderik argiena. Jerusalem izango da, ziur aski, Israelen eta palestinarren arteko negoziatioetan konpontzeke dagoen arazorik korapilatsuen. Jerusalem izenaren esanahia «bakearen hiria» den arren, ez dute ia inoiz bakerik ezagutu. Egiptoarrek, babiloniarrek, greziarrek, erromatarrek, pertsiarrek, musulmanek, kristauak, mamelukoen eta turkoek inbaditu dute, besteak beste. Mendeen joanean, gainera, are herri gehiagotako jendea iritsi da Jerusalemera bizitzera, hiriaren demografiaren egungo osaerak agerian uzten duenez. Bertako kultura eta tradizio ugariak aparteko aberastasuna ematen diote hiriari.

164

Hiriaren erronka nagusia hau da: bertan bizi diren kultur eta erlijio-taldeen arteko etorkizuneko harremanak tolerantzian, elkar onarpenean eta kultur eta politika-berdintasunean oinarrituko diren jakitea. Ala intolerantzia handiagoa, bazterkeria oldarkorra eta hierarkia etniko zorrotza izango dira nagusi? Ildo horretan, kontuan hartu behar da Jerusalem jabetza konpartitu denean izan dituztela garairik baketsuenak.

Gaur egun, israeldar eta palestinarrek hiriburu politiko subiranotzat aldarrikatzen dute Jerusalem. Israeldar gobernuak behin eta berriro dio Jerusalem osoak izan behar duela bere hiriburua betirako. Palestinarrek, aldiz, Jerusalemeko Ekialdea aldarrikatzen dute hiriburutzat. Eta bi aldeek ustez subiranotasuna ezaugarri absolutua da. Logika horren batura zero da, dena ala ezer ez dion proposamena egiten baitu. Izatez, israeldarren eta palestinarren aldarrikapenak bateraezinak dira, gaindiezinak. Baina subiranotasuna horrela ulertu behar al da? Kontzeptua, berez duen esanahi absolutuaren arabera, ez al dago zaharkituta?

Subiranotasuna

Estatuen subiranotasuna funtsezkoa izan da egungo nazioarteko ordena eraikitzeko. Doktrina horrek erabateko jurisdikzioa ematen die estatuko gobernuari lurralde-eremu jakin batean eta, halaber, aginte eskusiboa bertan bizi direnen gain. Subiranotasuna autoritate-mota berezi bat da eta oinarri hauek ditu:

- 1) boterea legearen gainetik dago eta

- 2) ustez, agintariak eta agintarien esanetara daudenak integraturik daude. Subiranotasuna ez da egitezko gertakaria, energia bezala, neurtzerik edo kuantifikatzerik ez dagoen ezaugarria baizik. Behin betikoa da eta ezin da indargabetu, ilogiko bihurtzen ez bada².

Esanak esan, nola teorian hala praktikan, subiranotasunak beti izan du ahultzeko joera, praktikaren mugen baitan. Eta teorian, subiranotasun absolutua mugatuta geratu da, besteak beste, gerraren legeen eraginez, kontuan hartu behar baita legeen arabera estatuek ezin dutela gerrara jo, besterik gabe, nahi dutelako edo denbora pasatzeko. Lege horiek estatuen «gainetik» daude eta estatuek onartu egin dituzte, nahiz eta gero batzuetan ez bete³. Estatuak ez zaie gerran aritzeko eskubiderik aitortzen, beren burua defendatzeko ez bada. Dena dela, subiranotasunak oro har itxurak errealitatea baino gehiago izan ditu kontuan.

Subiranotasunaren doktrina nazioartean sortarazi dituen portaera-arauak oso baliagarriak izan dira nazioarteko komunitatearentzat. Nazioarteko sistemaren errealitateak estatu independentez osatutako sistemak dira. Estatu horietan boterearen banaketa irregularra da oso eta ia inoiz ez da koherentzia etikoz gauzatzen. Aipatutako sisteman printzipioak aipatuz biztanleen bihotzak biguntzea lortzen dute batzuetan, baina interes nazionalak aipatzea aski izaten da beti gobernuak estatuaren aurrekontuen kontura mugitzen hasteko. Subiranotasunak eta bere ondorioak, interbentzionik ezak, muga handiak jartzen dizkie goi-boterearen gehiegikeriei. Beraz, estatuaren subiranotasunarekiko errespetuak nazioarteko egonkortasunaren oinarria izaten jarraitu behar du ezinbestean. Baina geroago planteatuko dugun moduan, estatuaren subiranotasuna oso bestela ulertu behar dugu, Westfaliako Bakearen bidez ezarritako ordena ia bete-betean erori baita.

Subiranotasunaren doktrina mendebaldean sortua da, baina gaur egun mendebaldetik kanpoko estatuek aldarrikatzen dute tinkoen. Eta hamaika arrazoi dituzte horretarako. Benetan, kanpoko interferentzien kontrako immunitate subiranoa ez da subiranotasunaren kontua, boterearena baizik, garapen-bidean dauden herrialde gehienetan nahiko urria den jabetza horrena, alegia. Subiranotasunak duintasunaren, babesaren eta lasaitasunaren zentzua eman die estatu indibiduali, tokian tokiko botere militar erlatiboa edo biztanleria-kopurua gorabehera. Bereziki estatu txiki ahuletan –estatu gehienak horrelakoak dira– mugen lurralde-subiranotasunak eta bortxa-ezintasunak segurtasunarentzat funtsezkoa izaten jarraitzen du, eta era berean, behar-beharrezkoa da nazioarteko komunitatean botere-kuotak negoziatu ahal izateko.

Dena dela, Gerra Hotzak sortutako gatazka egituratzailea bukatu ondoren, nazioarteko segurtasuna helburu konplexuagoa, ilunagoa eta zailagoa da orain. Besteak beste, hain azkar eraturako estatu berrien eta zaharragoen desintegrazioak agerian utzi du estatuetan oinarritutako nazioarteko sistemak jadanik ez duela lehengo balioa. Lehen onartzen ziren ideia zahar eta erosoan ordez, gero eta gehiago nagusitu da ziurgabetasun eta zalantza berri anitzez jabetzeko jarrera.

Bada are garrantzitsuagoa den beste zerbait: lurralde-estatuaren inguruko nazioarteko jardunbide eta arauekin batera, ibilbide berria sortu da nazioarteko arauetan, eta ibilbide berri horren iturburuek ere oso erro historiko sakonak dituzte. Denbora errealeko masa-komunikabideen eta interneten garaian gauden honetan, badirudi balio eta arau unibertsalak, hala nola giza eskubideekiko errespetua, gero eta baldintza garrantzitsuagoak direla munduaren egonkortasunerako. Duela urte asko, San Frantziskon Nazio Batuen Gutuna egiten ari zirela, Frantziak honakoa proposatu zuen, European azken urteetan egindako sarraskiak kontuan hartuta: biztanleen giza eskubideak bete-betean urratzen

zituzten estatuei subiranotasuna kentzea. Baina zoritxarrez, proposamenak ez zuen inolako atxikimendurik lortu. Handik 50 urtera, ordea, arau transnazionalen eta toki-hautesleria gogorren garaian, litekeena da mugen eta gizabanakoaren bortxa-ezintasunaren arteko tentsioak hausteko zorian egotea. Auzi hori funtsezko da atzerriko politikaren egungo agendan. Eta Estatu Batuek eta Britainia Handiak arrazoi horretan oinarrituta –batzuen ustez oinarri zinikoa izan den arren– inbaditu dute Irak.

Subiranotasunari erronka

Nire ustez, egun orokorrean nagusi den mehatxu-egoeraren eta segurtasun-faltaren sorburu nagusiak lau eremu nagusi dira. Eremu orokorrak dira, hedadurari dagokionez, eta ahuldu egiten dituzte lurralde-subiranotasunak mundu-ordenaren zutabe gisa dituen lehentasuna eta garrantzia. Mehatxuen eraginak ere orokorrak direnez, guztion arteko konponbideak baino ez dira izango baliagarriak. Nire ustez, nazioartean gero eta segurtasun-falta handiagoa izango dugu, nazioarteko gizartearen ezaugarri nagusiekin bat datorren oinarri berria aurkitzen ez badugu.

Lehenik eta behin, neurritz kanpoko ustiapenaren eta baliabideen erabilera desegokiaren ondorioz, sistema ekologikoa kalte larriak ari da jasaten, eta ezin dugu ahaztu erabilera desegokietarako joera are gehiago indartuko dela biztanleriaren hazkundearengatik eta mendebaldeko kontsumo-ereduengatik. Ozonoa agortzeko prozesuan, kutsaduran eta berotegi-efektuan, subiranotasunak ez du inolako garrantzirik.

Bestalde, ekonomia politikoaren funtzionamendu interdependenteak finantza-eta zerga-autonomia kendu die estatuei neurri handi batean⁴. Estatuak dagoeneko ez ditu bere funtzioak, hala nola moneta nazionalaren babesa, erabat kontrolatzen. Eta bada beste datu are garrantzitsuago bat: munduko ekonomi sistema ireki ahala, nazioarteko ekonomi transakzio kriminalek berebiziko gorakada izan dute. Era guztietako adibideak ditugu: gizaki eta estupefazianteen trafikoaren ondoriozko etekinak, terrorismoaren finantzaketa, etab. Sortu zaigun erronkak orain arte muzin egin die estatuen ahaleginei, baina denak elkartuz gero, benetako aurrerapausoak eman ahal izango dira.

Hirugarren mehatxuak teknologia militarrek ditugu, suntsipen handiko armek, bonbaketeriek eta irismen luzeko misilek duela hamarkada asko gainditu baitzuten lurralde-estatuaren gailurra. Gainera, 2001eko irailaren 11ko sarraskian agerian geratu zen estaturik boteretsuenak ezin duela bere burua erabat babestu ezta kanpoan antolatutako teknologi txikiko erasoek kontra ere.

Esanak esan, laugarren mehatxua izango da, ziur aski, subiranotasun-arazorik berehalakoena sor dezakeen ezaugarriaren iturburua: lurralde-kontrolarekiko erabateko lotura. Modernizazio politiko eta ekonomikorako prozesuak dituen egiturazko hutsune eta desberdintasunen ondorioz, berpiztu egin dira ideologia militante baztertzailak, batzuk ikuspegi erlijiosoetan eta beste batzuk nahi sekularretan oinarrituak. Arrazoiak eta helburuak anitzak diren arren, militante etniko eta erlijiosoek kolokan jartzen dituzte egungo estatuen mugak eta, halaber, muga horiek zatitu eta eraldatzeko benetako edo ustezko boterea dute.

Nazionalismoak hauxe azpimarratzen du: kultura bera daukatenek lurralde-estatu bera izateko eskubidea dutela. Baina historiaren joanean etniak nahastu egin direla kontuan hartuta, nazionalismoak aldarrikatu ohi duen kultur taldeen –hizkuntza edo erlijio jakin bat ezaugarri dutenen– eta lurraldearen arteko lotura ezegonkortasun-eta indarkeria-iturri handia dugu bai estatuen artean, eta baita estatuen baitan ere. Nortasun etnikoa ez da egitezko

gertakaria, genotipoak edo odol-taldeak bezala, gizartearen sorkuntza baizik, neurri handia batean asmatutako gizarte-irudikapena. Berez, beraien desberdintasuna indartu nahi duten taldeei potentzialki irekitako aukera da. Izan ere, ia gutxiengo guztien artean beste gutxiengo batzuk ere badaude. Estatuak sortzeko egungo prozesu bukatu gabeen kaosa saihesteko, nahitaezkoa da subiranotasunaren eta lurraldearen arteko loturak haustea. Dena ala ezer ez: subiranotasuna ez dugu horrela ulertu behar. Eta hori nahitaezkoa da bai Europako zenbait aldetan, eta baita Ekialde Ertainean, Asian eta Afrikan ere. Gerrari etnikoentzat eta aurrez aurre dituzten taldeentzat, subiranotasun politiko eta kulturalaren oinarria bizi diren lurraldearen erabateko kontrola lortzea da, eta ondorioz, jakina, eginahalak egiten dituzte talde etniko etsaiak menperatzeko edo kanpora bidaltzeko. Lurralde berean erabateko subiranotasuna aldarrikatzen duten eta elkarren kontra ari diren hainbat talde daudenean, lurralde-subiranotasun kontzeptuak garbikuntza etnikoari edo intolerantzia areriotuari ematen dio bidea.

Subiranotasuna mitotzat baino gehiago ezaugarri egiaztagarrien multzotzat hartzen badugu, agian uste baino lehenago hasiko da gainbeheran. Subiranotasunaren oinarritzko printzipio bat agintaritza eskusiboaren presuntzioa zen. Eta estatu batek ere ezin du agintaritza hori aldarrikatu edo eskuratu. Estatuak neurri bateraino baino ezin dute lortu. Baina hori horrela bada ere, erabilitako formulak edo kontzeptuak ez luke ideia absoluturik adieraziko Jarat Choprak galdera hau egiten du: «Demagun absolutu bat partzial bihurtzen dela, lehen ustez horrela zena eta legearen gainetik eta kanpo zegoena halako batean, legearen eraginez, higitzen hasten dela; egitura bateratu batek halabeharrez funtzionamendu erlatibo izaten hasi behar badu, ba al du zentzurik subiranotasunaren zerbitzuei eustek?». Subiranotasun mugatua termino kontraesankorra da, baina hala ere, egia bihurtu da. Ekonomiaren interdependentzia, globalizazioa, teknologiek mugez gaindi izandako sarbidea, albisteek eta bizimoduek mugak jarri dizkiote subiranotasunari eta agintaritza eskusiboari. Jendeak gero eta komunitate zabalagoekin ditu loturak, eta gero eta lotura handiagoak dira gainera. Beraz, hori ez dator bat lurralde-estatu subiranoa nazioarteko gizartearen unitatetzat hartzen duen ikuspegiarekin.

167

Hedatzen ari diren komunitate berriak

Europako gizartearen historia komunitatearekin gero eta lotura handiagoa izan duen ikuspegiaren emaitza dugu: familiatik tribura, tributik herrixkara, herrixkatik hirira eta hiritik estatu-nazio subiranora⁶ jo dugu. Europan, gaur egun, estatu-nazio subirano kontzeptua eraldatzen ari da nazioz gaindiko eraikuntza komunitarioako prozesuaren bidez, toki-komunitateak talde zabalagoetan elkartu eta lurralde-estatuaren monopolioa bertan behera geratu baita, hiritarren eta gizartearen eta gizartearen eta estatuaren artean beste era bateko harremanak sortuz. Doktrina nazionalistaren ustez, estatuaren muga baitan «ezaugarri bereizgarriak dituen komunitate nazional bat» dago eta haren nortasunari besteei baino garrantzi handiagoa ematen diote. Egungo mundu honetan gizakiek askatasunez nahasteko eta ezkontzeko joera dute, komunikazioarako muga kultural gehienak hautsi egin dira, gizabanakoek leialtasun ugari dituzte eta identitate anitzak baloratzen dituzte. Hori guztia kontuan hartuta, estatu etnikoa anakronismo hutsa da.

Europan bakeari eusteko oinarri nagusietakoa lurraldeaz kanpoko subiranotasun kultural funtzionalez osatutako Europako Erkidegoa sortzea da. Baina Europatik kanpo gauzak ez daude hain ongi. Errebelamenduaren eta errepresioaren dialektika izango da, ziur aski, garapen-bidean dauden herrialde askoren etorkizunaren ezaugarria. Duela bi hamarkada Libanoren balkanizazioak kezkatzen gintuen. Atzo, Balkanen libanizazioaren lekuko izan

ginen. Gaur, Kaukasoa zapuzten ari dela ikusten dugu. Eta Europako mugetan, Georgian, Azerbaijanen eta Txetxenian lurraldearen eta subiranotasunaren inguruan sortutako gatazken ondorioz milaka lagun hil dira eta milioika errefuxiatu ditugu.


Europako estatu gehienak multinazionalak dira, estatu-nazionalak baino gehiago, etnien ikuspegiari dagokionez. Estatuaren eta etnien mugak bat etorri behar zutela aldarrikatzen zuten preskripzio nazionalista ezin da gauzatu, argi eta garbi, milaka urte igaro ondoren gizakia nola nahastu den ikusita. Gainera, aipatutako preskripzioak gerra iraunkorrari emango lioke bidea, eta ez bake iraunkorrari.

Estatu subiranoan oinarritutako ordena zaharra Hogeita Hamar Urteko Gerraren ondoren eratu zuten Europan. Eta orokor bihurtu zen 1914tik 1945ra bitartean beste hogeita hamar urte gerretan murgildurik eman zituztenean. Baina berrogei urtez baino gehiagoz Gerra Hotza nagusi izan eta gero, ordena berriari eman zaio hasiera. Ia Europa osoan subiranotasun zatigarria eta besteganagarria ari dira aldarrikatzen eta ezartzen. Boterea gero eta dimentsio anitzagoa eta zatigarriagoa da, eta egiturak gero eta konplexuagoak eta malguagoak.

Ikuspegi hori gure planetako lekurik gatazkatsuenetan errotzen denean, konfrontazioaren kontrako kontsentsu zabala lortzeko aukera izango dute etsai etnikoek. Izan ere konfrontazioaren logika, «irabazleak dena eramaten du» ustean oinarritua, subiranotasun absolutuaren ezaugarri bereizgarria dugu; ikuspegi berriaren bidez, ordea, orain hain zaitiketa gogorrak sortzen ari diren gairik korapilatsuenei ikuspegi eraikitzaileagoaz heltzeko aukera izango lukete.

Hitzaldiaren inguruko oharrak

- ¹ Judt, Tony, «Israel: The Alternative» *The New York Review of Books*, 50. bol., 2003ko urriak 23.
- ² Chopra, Jarat, «The Obsolescence of Intervention under International Law», en M.Heiberg, *Subduing Sovereignty: Sovereignty and the Right to Intervene*, London:Pinter Press, 1994.
- ³ Calvo-coressi, Peter, «A problem and its dimensions», Nigel Rodley, *To Loosen the Banks of Wickness*, Brassey's, London,1992.
- ⁴ Hoffman, Stanley, «Delusions of World Order», *The New York Review of Books*, 39. bol., 7. zenb., 2002ko apirilak 9.
- ⁵ Chopra, Jarat, *opp.cite*.
- ⁶ Eban, Abba,«The U.N. Idea Revisited», *Foreign Affairs*, 74. bol., 5. zenb., 1995.



Emakumeek egin al diote ekarpen espezifikorik Bakerako Giza Eskubideari?

CARMEN MAGALLÓN AND.

Bakerako Ikerketa Mintegia Fundazioaren kidea. Zaragozako Unibertsitatea

Fisika eta Kimikako Katedraduna eta Institutuko irakaslea, irakasle elkartua izan da Zaragozako Unibertsitatean. Fisika Zientzietan Doktorea, Fisikan lizentziaduna da, eta hirugarren zikloko ikasketak ditu Psikologian eta Filosofian.



CURRÍCULUM

1984. urtean sortu zenetik, Pignatelli Zentroan Aragoiko Gobernuaren aginduz sortu zen Bakerako Ikerketa Mintegian parte hartzen du. *En Pie de Paz* aldizkariaren editore taldeko kidea da 1986. urtean sortu zenetik.

Zaragozako Unibertsitateko Emakumearen inguruko Azterlanen Diziplinarteko Mintegiaren kide eta sortzaile da, AIPAZ Bakerako Ikerketarako Espainiako Elkarteko presidenteordea, eta Bakerako Ikerketa Mintegia Fundazioaren zuzendaria.

Gai hauek ikertzen dituzte: emakumeen historia zientzian, zeregin zientifikoaren azterketa epistemologikoa, eta generoa, zientzia eta bakekulturraren arteko harremanak. Hainbat liburu argitaratu ditu eta beste hainbatetan parte hartu du, eta honako hauek azpimarra daitezke: *Pioneras españolas en las ciencias. Las mujeres del Instituto Nacional de Física y Química e Interacciones ciencia y género.*

Era berean, hainbat artikulua argitaratu ditu aldizkarietan eta prentsan. Azkenen artean honako hauek dira aipagarrienak: «Mujeres en la ciencia. Martina Casiano, profesora en Bilbao. Primera socia de la Sociedad española de Física y Química».

LABURPENA

Zenbait juristaren ustez, Bakerako Giza Eskubidea Giza Eskubideen *corpusean* txertatzeko baldintzak ez dira egokiak oraindik, oraindik balio unibertsaltzat berretsi behar da, eta arlo politiko eta juridikora eraman. Bakerako eskubidea balio sakontzat, eskubidetzat defendatzea gainerako eskubideak arriskuan jarri eta horiei kontra egitea baino gehiago, beste eskubide horien laburpena izateaz gain, eskubide horiek ahalbidetzeko ezinbesteko baldintza da; esparru horretan kokatzen da emakumeen ekarpenari buruzko eztabaida.

Emakumeak orain arte baztertuta egon dira politikan eta orain hasi dira politikan sartzen. Giza Eskubideak barnean hartzen dituzten nazioarteko legediaren jatorri historikoa osatzen duten narratibak eta fundazio-kontzeptuak, itun politikoa eta unibertsaltasunaren kontzeptua bera emakumeak alde batera utzita sortu dira. Bazterkeria horrek zentzu bikoitza du: alde batetik, eskubideen subjektu gisa ukatzea, eta bestetik, zaintzarekin eta bizitzaren iraunkortasunarekin loturiko eta femeninotzat jotzen den unibertso sinboliko osoa mendean jartzea. Eta tradizio hori bera da emakumeak bakearekin eta gizonak gerrarekin edo, oro har, indarkeriarekin lotzen dituen modu sinbolikoan; emakumeak –haurrekin batera– bakearen sinbolo naturalizat hartzen dituen, babestu beharreko ororen sinbolotzat, eta beraz, horren alde borrokatu behar dena.

172

Hortaz, emakumeek Bakerako Giza Eskubideari egin diezaioketen ekarpena gabezia batean erortzen da, hain zuzen ere, Giza Eskubideak txertatzen diren tradizio politikoaren gabeziatako batean. Gabezia horietako bat giza bizitzaren balioari buruzkoa da. Bakerako eskubidearen eta bizitzeko eskubidearen arteko lotura estua dela eta –Adrián Nastase-ren ustez, bakerako eskubidea «bizitzeko eskubidearen nazioarteko dimentsioa» izango litzateke–, esperientzian, teorian eta ekintzan oinarrituta emakumeek egindako ekarpenak ardatz bihurtzen dira, elkarren artean nahastu eta elkar-elikatuta.

Pontentzia honetan, bakea giza balio unibertsaltzat berresteko emakumeek egindako ekarpen espezifiko gisa aztertzen dira honako hauek:

- Sexuen naturalizazioaren kritika, emakume baketsu/gizon biolento dikotomian.
- Bizitza kulturaren eta arrazionaltasun politikoaren erdian kokatzeko ahalegin teoriko eta praktikoa, honako kontzeptu hauek agerian utzi eta badirela adieraziz: jaiotza, zaintza, amatasun-pentsamendua, mendekotasuna eta gorputza, betiere bizitzeko aukerarekin zuzenean loturik.
- Emakumeen ondare zibilizatzailea unibertsalizatzearen garrantzia, gizakien bizirautean eta zaintzan irudikatuta.
- Historia hurbilean, bakea lortzen emakumeek izandako protagonismoa.
- Nazioarteko erakundeetako emakumeen pentsamenduei eta ekintzei buruzko zenbait proposamen eta ondorio. CLADEM batzordeak egindako proposamena, Seguratasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenaren –emakumeak bake-prozesuetan txertatzeari buruzkoa– eta bakerako eskubidearen inguruan.

Emakumeek egin al diote ekarpen espezifikorik Bakerako Giza Eskubideari?

Sarrera

Hirugarren belaunaldiaren eskubideek edo elkartasunaren eskubideek hainbat eragozpen eta traba topatu dituzte, eta horiek hiru guneren inguruan antolatu daitezke: lehena, argudio gisa eskubideen zerrenda luzatzeak lehendik onartuta dauden eskubideak arriskuan jar ditzakeela aipatzen duena, hots, lehen eta bigarren belaunaldikoak; bigarrena, eskubide horien subjektu eta zordunaren gaia arazo bihurtzen duena, aldi berean indibidualak eta kolektiboak baitira; eta hirugarrena, horiei babesa emango liekeen nazioarteko tresna juridikorik ez izatea nabarmentzen duena (Alemany, 1998). Bakearen eskubideari dagokionez, arestian aipatutako eragozpen horiei beste sakonago batzuk ere gehitzen zaizkie. Horregatik, zenbait legelarik uste dute oraindik ez daudela guztiz landuak Giza Eskubideen *korpusaren* baitan biltzeko baldintzak, oraindik balio unibertsal gisa berrestea eta arlo politiko eta juridikora eramatea falta dela, beharrezkoa dela bakea balio gisa defendatuko duen lan bat egitea, gizarte-katalizatzaile gisa jokatu duena, hori juridikoki egituratzeari, onartzeari eta giza eskubide gisa unibertsalizatzeari ekin ahal izateko.

Testuinguru horretan, emakumeek gizakiaren bake-eskubideari egin diezaioketen ekarpena bakearen balioa aldeztu, sustengatu, defendatu eta sustraitzeko analisisien eremu horretan koka liteke; eta hori bakearen eskubidea unibertsalizatu dadila lortzea baino lehena-gokoa da, eta eskubide den aldetik, gainerako eskubideak kontraesanean eta arriskuan jarri baino gehiago, haiek gauzatzeko ezinbesteko baldintza eta sintesia da.

173

Eskubideak birformulatzea, bazterkeriazko tradizio batetik

Susana Chiarotti-k, CLADEM¹ izeneko sarearen arduradunak –Latinoamerikako sare honek Giza Eskubideen birformulazioa proposatu zuen Bakearen Eskubidea barneratuz, baina proposamen horri aurrerago helduko diot–, agerian jartzen du nolako haustura dakarren orain artekoarekin emakumeek legeak aldatzeak. Haustura hori, aspaldiko erroak dituen, emakumei eta gizonezkoei gizartearen egotzi izan zaien eginkizunarekin loturik ageri da historian. *Antigona* izeneko lanean, Sofoklesek Kreonteren ahoan jarri zituen hitzok: «Hiri hau nire agindupean dagoen bitartean, emakumeek ez dute legerik egingo». Haren aginduak ez obeditu eta anaia ehorzteagatik ezarritako zigorra, leize batean bizirik lurperatzea, emakumeentzako adibide gisa erabili zuten, ikas zezaten, Chiarotti-ren arabera, emakumeak ezin zitezkeela ausartu legea aldatzera.

Jatorri hori eta horren atzetik etorritako historia abiapuntutzat harturik, jabetu behar dugu emakumeen ekarpenak, baita bakearen eskubideari dagokionez ere, bazterkeriazko esperientzia horretatik sortzen joan direla. Emakumeen esperientziaz hitz egitea, singularrean, korapilotsua da, emakumeak desberdinak direlako eta beren esperientzia askotarikoa delako. Baina munduaren luze-zabalean, izan dute, eta egun oraindik ere badute, antzik funtsezko gauza batean: gizonezkoei aplikatzen zaiena ez bezalako arau baten xede izatea.

Emakumeen eta gizonezkoen bizitzarako arau bikoitza izateak batzuen eta besteen jardueren eta bizimoduaren arteko bereizketa dakar, eta hori, Annas-en hitzetan, «indar handiz nahitaezkoa» da gizarte tradizionalan eta «ahulki nahitaezkoa» gizarte liberalan. Arau bikoitz horrekin batera eta era guztietako gizarte, kultura eta gizarte-mailak zeharkatuz, munduko emakume guztiek batean dute, beren aniztasuna gorabehera, gehiegikeria jakin batzuen xede izatea, beren funtsezko giza eskubideen aurka jotzen dutenak, eta halaber, eskubide horiek erreklamatzeko tinkoki eta hainbestetan jardun izana (Annas, 1996, 364).

Androzentrismoa mendebaldeko pentsamenduaren eta giza eskubideen tradizioaren ezaugarri bereizleetakoa bat dugu. Giza eskubideak, itun politikoa eta unibertsaltasunaren zentzua bera barne biltzen dituen nazioarteko legeria eratzeko jatorri historikoan aurkitzen diren fundazioko kontzeptu eta narratibak ere emakumeak baztertuz jaito dira. Iusnaturalismo modernoak asko zor die Ilustrazioko ideiei, aurreko pribilegioak apurtu arren sexuaren araberako bazterkeriari tinko eusten baitiote. Tradizio horrek eskubideen subjektu izatea ukatu zien emakumei, eta politikaren aurreko eremura zokoratu zuen femeninotzat hartzen zen unibertsu sinboliko hura guztia, biziaren zainketarekin hertsiki lotua. Eta horrela iritsi ziren politikara, politikaren aurreko eremu hori modu *natural*/batez berezkoa zutela egotzi ziren tradizio batetik, hots, ordena politikoak eta ekonomikoak ikusezin bihurtu dituen eginkizunak, –bizitzari kontu egiteko eta eusteko eginkizunak– egiten diren horretatik.

Egiaztapen horretatik abiatuta, iritsi berrien egoera horretan, hanka bat testuinguru politikoaren barruan eta bestea kanpoan dutelarik oraindik, epistemologa feminista batzuen arabera ikuspegi bikoitzerako gaitasun hori dute. Batetik, paradigma nagusi baten ikuspegia, non boterearen antolamendua, legezketasuna eta segurtasuna nozio egiturazaila baitira. Bestetik, berriz, bazterkeriaren ikuspegia, non kategoria batzuk funtsezkoak baitira, hala nola jaiotza, gorputza eta mendekotasuna, biziak duen balioari berari hertsiki loturik, bakearen eskubiderako funtsezko giltzarri gisa. Emakumeek badakite zer den legearen hizkuntzan eta baieztapen unibertsalaren egotea eta ez egotea. Eta jakituria horrek sinesgogortasun apur bat dakar baieztapen unibertsalen eta horiei babesa ematen dien legezketasunaren inguruan. Eszeptizismo horrekin, eta hori aski ez dela jakinda ere, ikasi dute legeak eta eskubideak, gizonezkoekin berdintasunezko egoeran, biziraupenerako premia bat direla berentzat.

Giza eskubideei buruzko azterlanek, gehienetan, biktima gisa ikusten dituzte emakumeak, eta zaugarritasunaren tokia izendatzen diete. Baina loturaren bat dagoen arren, ez da gauza bera zaugarria eta baztertua izatea. Emakumeen esperientziaz galdetzea, eta horiek bazterkeria politikoaren lekua okupatu izan dutela aitortzea, ez da maila biktimista batean jartzea, eta erreklamazioak egitea ere ez da aukera bakarra. Emakumeen esperientziak kontuak eskatzen dizkio mendebaldeko tradizio nagusia osatzen duen paradigmari, bere inkoherezkiak agerian utziz, baina aldi berean, ikuspegiak eta balioak sortzen ditu, kultura desberdin batean errotuta egoteagatik haren unibertsalizazio-prozesua aberastu dezaketenak giza eskubideen formulazioa oinarriz hornitzean. Bazterkeriari esker hutsuneak atzeman ditzakegu, baina baita ere, ikuspegi berriak zabal daitezke daukan ondare horretatik abiatuta, baztertuak izan diren balioen artetik sortua delako. Zeren Alexandra Bochetti-k dioen moduan: «ez dago politikan sartzetik geure gabeziatik abiatuta, baina daukagun horretatik abiatuta, aldiz, politikan sar gaitzake» (Bochetti, 1996, 314).

Tradizioa androzentrikoa izateak ez du esan nahi emakumeek aurrerapenik lortu ez dutenik beren eskubideen aitorpenean. 1791. urtean Olympe de Gouges-ek *Emakumearen eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena idatzi* eta emakumeentzat askatasuna, berdintasuna eta kidetasuna eskatzeagatik frantziar iraultzaileek gillotinatuz hil zutenetik, emakumeen zortea aldatuz joan da. Urte horretan bertan, Mary Woollstonecraft-ek *Emakumeen eskubideen*

Errebindikazioa idatzi zuen, feminismoaren fundazio-lana, eta mugimendu horretaz esan daiteke arrakastaz burutu duela ez-indarkeriazko benetako iraultza bat. 1948ko Adierazpen Unibertsalaren Hitzaurreak gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna aldarrikatzen du, eta halaxe jasotzen da Nazio Batuen Gutunaren Hitzaurrean, nahiz adierazpen horrek emakumeentzat negatiboak diren hainbat alderdi jasotzen dituen². Urrats garrantzitsua izango da Batzar Nagusiak, 1979. urtean, *emakumeen aurkako diskriminazio-mota oro ezabatze*ko Hitzarmena erabaki izana, hori sinatu zuten Estatuak behartuta geratu baitziren sexuagatik diskriminatzailea izango ez zen politika bat gauzatzera; gizartean eta familian eskubideen berdintasuna berrestera; emakumeen desberdintasunaren gizarte-arrazoien aurka jokatzera eta horren kontra egiten duten lege, estereotipo, jarduera eta aurre-iritziak ezabatzerara. Bestea, Vienan, 1993. urtean Giza Eskubideen Munduko Konferentziaren Adierazpenean emandakoa, orduan hauxe esan baitzen: «Emakumearen eta neskatoaren giza eskubideak giza eskubide unibertsalen zati besterenezin, osatzaile eta banaezinak dira³».

Politikatik baztertuak, sinbolikoki elkartuak: emakumeen eskubideak eta bakerako eskubidea

Emakumeak baztertzen dituen tradizioa bakea baztertzen duen tradizio politiko berbera da: Maquiavelo, Clausewitz eta gerraren ezinbestekotasuna, Bismark eta realpolitik izenekoa: errealista, praktiko eta abertzaletzat jotzen den nazioarteko politika gerrarako eskubidearen gainean oinarritua dago.

Bakeari eman ohi zaion balioak baliotasun femenino bat ere badu eta gizateriaren erdiari emandako balioen zokoratzea partekatzen du harekin. Maila sinbolikotik jardunez, erresistentziarako iturri bat da hori, bakearen balioa unibertsalizatu dadila eragozten jarraitzen duena.

Begirada nagusiak bakea emakumeekin uztartzen duen neurrian, emakumeak komunitate politikoan barneratzea lortu nahi duten analisi, argudio, teoria eta gizarte-mugimenduak eta, horien esperientzian oinarriturik, eskubideak proposatzea baliagarria gertatzen da bakearen balioa eskubideen komunitatean sartzeko. Horregatik, bakearen eskubidea aitortzeko sortzen ari diren erresistentzia jakin batzuk ulertzearen, oso esanguratsua da, eta genero-azterketen ekarpen bat da⁴, emakumeak baztertzeko mekanismoetan eta izaeran sakontzea, bakeak ere bazterketa horren gorabehera berak bizi izan dituelako, sinbolikoki emakumeekin lotu izan denez gero.

Emakumeen bazterketa naturalizatu egin zen, eta beren sexuarekin loturik zegoen egoera gisa ikusi. Naturalizazioa gizartearen aurrean desberdintasuna legezkotzat jotzeko metodo bat da, gizakion askatasunaren kontra eta gizarte-aldaketaren kontra egiten duena. Sexuen naturalizazio horrek, generoaren esleipen estereotipatuen barruan, balio dikotomiko bereziak izendatzen dizkie gizonei eta emakumei, balio-pareak sortuz: publikoa-pribatua, adimena-gorputza, kultura-natura, arrazioa-sentimenduak, objektibotasuna-subjektibotasuna, aktibitatea-pasibitatea, produkzioa-erreproduktzioa, sistema sinboliko horrek ezartzen dituen pareetako batzuk dira, lehenengo kontzeptuak maskulinoak eta bigarrenak femeninoak izanik, eta horien balorazioan hierarkia bat ezarriz: gizonezkoen kategoriak emakumezkoenak baino balio handiagoak direla jotzen da.

Emakumeen naturalizazio hori balio eta eginkizunen multzo batekin lotu izan da, eta horien artean bakearen balioa egongo litzateke. Emakumeak, hurrekin batera, bakearen sinbolo naturalizat hartu ziren, babestu beharreko eta, beraz, defendatu beharreko gutziaren sinbolotzat. Emakumeen eta bakearen arteko identifikazio hori, denboran iraun duena,

bi oinarriren gainean bermatua dago. Lehena, boterearen aparatuetatik, erabakiak hartzen diren eremuetatik eta instituzioen armadetatik historikoki urrunduta egotea; gaur egun, oraindik ere, emakumeek ez dute parte hartzerik edo garrantzi txikiagoa dute gerra, diplomazia eta nazioarteko gaietarako erabakiak hartzean. Eta bigarrena, hor dago amatasunaren esperientzia emakume gehientzat. Horren azpian dagoen ideia, hain zuzen ere, emakumeek bizia sortzeko gai izateagatik, gizonak baino baketsuagoak direla dago, alegia, ama eta borrokalaria izatea kontraesana dela berez.

Emakumei bakearekin loturik eginkizun berezia esleitzea generoaren estereotipoen barruan sartzen dela esan liteke, zeren horren ezaugarrietako bat, hain justu ere, emakume baketsu/gizon indarkeriazale dikotomia baita. Horren arabera, emakumeak egozten zaizkio gizakion zainketaarekin loturiko etxeko lanak, gorputzarekiko hurbiltasun handiagoa, sentimendu eta maitasun-kontuak indar handiagoz bizi izatea, eta horrekin uztarturik, aukera baketsuen aldeko jarrera hobea. Gizonari legezkioko arlo publikoko lanak, produkzioa bere esanahirik zabalenean, arrazoiari eta legeei garrantzi handiagoa ematea, eta boterearen nozioarekin identifikatzea, nagusitasuna gauzatzera eta, behar izanez gero, indarkeria erabiltzera bultzatzen duena. Emakumea «arima eder» gisa eta gizona «gerlari zuzen» gisa kontraesanean dauden bi paradigma dira, eta mendebaldeko pentsamenduaren tradizioan jarrai dezakegu hori nola eraikitzen joan den. Txanpon beraren bi aldeak bezala, elkar elikatzen eta elkar indartzen dute⁵.

Emakumeen eta bakearen arteko uztarketa sinboliko indartsu hori modu iraunkorrez mantenduko da, errealitateko datu ugariaren aurka talka egin arren, bai iraganeko historian eta bai historiarik berrienean ere. Datu horiek agerian uzten dute emakumeek nolako partaidetza izan duten eta nolako babesa eman dioten gerrari, era askotara: talde armatuetako borrokalari gisa, munizioaren produkzioan lan eginez, borrokalarietarako laguntza logistikoa eskainiz edo Virginia Woolf-ek adierazitako modu berezi horretan (1938), hots: heroiak miretsiz.

Naturalizazioa, emakumeak-bakea uztartzea eta diskriminatzea-natura, emakumeak eta bakea debluatzea elkarrekin erlazionaturik dagoen pentsamendu-multzo sinbolikoa da.

Karakterizazio dikotomiko horren barruan dagoen determinismo biologikoa asko kritikatu izan dute zientziaren jakintza-arloetatik pentsamendu-korronte feministek. Simone de Beauvoir-ek esandako hura, alegia, emakumea ez dela jaiotzen baizik eta egin egiten dela, gizonetzako buruz ere esan dezakegu. Gizonezkoak ere naturalizatu egin zirelako. Beren sexuagatik, arma-zerbitzua egitera behartuak eta herritar gisa onartuak izan ziren. Aldea zera da: ezaugarri natural horri esker, bere sexua-gizonezkoa, indarrarekin lotzen duena, boterezko egoera batean aurkitzen dela, eta emakumei ukatu egiten zaie hori. Hiritarra, hiritartasunaren kontzeptua, gizonetzako jaiotzen da *naturalki*, eta indarkeriazko iraultza baten testuinguruan gainera. Arma-zerbitzua eta hiritartasuna, uztarturik daude ondare ilustratuaren barruan. Beren sexuaren arabera, emakumeak arma-zerbitzutik baztertuak izan ziren, hiritartasunetik eta eremu publikoetatik baztertuak eta amaren eginkizunera zokoratuak, bizia arriskuan jartzeari eta batez ere bizia kendu ahal izateari bizia sortzeari baino garrantzi handiagoa ematen zion –eta dion– sistema batean.

Emakume baketsua-gizon indarkeriazalea dikotomiari eusteak ez du errazten bakearen kulturak aurrera egitea, baizik eta gauzen eta erlazioen munduko egungo egoera bere horretan mantentzeko hazia da. Azterlan feministek dikotomia horri egindako kritikari esker, bakearen balioa estereotipo batekin lotu beharrik ez izateko argudioak ugaritzen ari dira, eta ikuspegi ez androzentrikoetatik abiatuta, debluazioan ez erortzeko eta egoki den eran unibertsalizatzea merezi duen ondare gisa defendatzeko bultzatzen ari da.

Bizitza batek balio duena: bake-eskubidea eta bizi-eskubidea

Emakumeek bizitza zaintzen egiten duten lana berebiziko ekarpena dela esan liteke, funtsezkoa bakearen eskubideak erro sakonak egin ditzan. Betiere unibertsalizatu egiten baldin bada.

Adrian Nastase-ren arabera, harreman berezi bat dago bake-eskubidearen eta bizi-eskubidearen artean; haren ustez, bake-eskubidea «bizi-eskubideak nazioartean duen hedadura» baino ez litzateke izango⁶, eskubide indibidualen artean jasoa dagoen eskubide bat⁷, baina ordena ekonomikoak edota ordena politikoak bermatzen ez dutena. Bizi-eskubidea batez ere Estatuaren aurrean jasoa dago, baina nazioarteko politikan onartzen da eskubide hori menpekota izatea eta zalantzan jartzea, Estatu baten iritziz gerrara joatea ezinbestekoa egiten duen arrazoi bat dagoenean, eta horrelakoetan, nahitaez, gizakion bizitza truke-txanpon bihurtzen da beste ondasun batzuk lortzeko: lurraldea, subiranotasuna, interes ekonomikoak, etab. Bere hiritarren bizitza babesteko eginkizuna duen Estatu batek gerra batean haien bizia arriskuan jartzeko eskumena ere badu, eta gainera, bere aurka dagoen taldeko beste gizaki batzuen biziaren aurka ere egiten du zuzen-zuzenean. Kontraesan horrek agerian uzten du bizi-eskubidea, gaur egungo egoeran, zalantzezko egoeran dagoela, neurri batean bake-eskubidea aitortzea falta delako.

Bake-eskubidea, bere zentzurik positiboenean hartuta, gerrarik edo zuzeneko indarkeriarik ez izatea baino harantzago doana, baldin eta kontuan hartzen bada egiturazko indarkeriak eta indarkeria kulturalak ere gizakion bizitzaren kontra eraso egiten dutela, bizi-eskubidearekin hertsiki loturik dagoen eskubide-sintesia izango litzateke. Elkartasunezko gainerako eskubideak bezala, hori gauzatzeko bermea «ez dago Estatu baten menpe, baizik eta guztien ahalegin bateratuaren menpe: Estatu, antolamendu publiko edo pribatu, nahiz norbanako». Bere hedadura nazioarte mailakoa da bereziki, eta horrexegatik, «beharrezkoa da nazioarte mailan elkartasunezko gizarte bat osatzea. Eta testuinguru horretan hartzen du bere zentzu osoa Adierazpen Unibertsalaren 28. artikulua, non esaten baita pertsona orok duela eskubidea nazioarteko gizarte-ordena bat ezarria izateko, Adierazpen horretan aldarrikatutako eskubide eta askatasunak guztiz eraginkor egingo dituen» (Abellan, 1997, 20).

Gizakiaren bake-eskubidea aitortzen aurrera egin dezagun, oso garrantzitsua da gizaki zehatzon bizitzak eta bizitza hori zaintzeak merezi duten garrantzia bereganatzea, toki nagusi bat izatea kulturen eta politikan, beste interes batzuen gainetik, baita nazioarte mailan ere. Hori asmo etiko bat da, zeren «bake-eskubideari atxikia baitago egun denaren eta izan beharko lukeenaren arteko nolabaiteko nahasketa bat, arauen eta asmoen artekoa. Hori legezkatat jotzeko oinarriak, nahitaez eta ezinbestean, iturri juridikoen eta manu etikoen gainean bermaturik egongo dira. Horrexegatik, beste eskubide indibidual batzuk baino are indar gehiagorekin ageri da adibide gisa «eskubidearen» eta «eginbeharraren» arteko atxikimendua» (Alemany, 1998, 25).

Neurri handiago batean, emakumeak dira norabide horretan bultzaka ari direnak. Gaur egun oraindik ere, munduko emakume gehienek eguneroko eginkizuna bizitzari sostengua emateko lan ikusezin hori da; eta horrenbestez, harreman berezi bat dute bizitzarekin. Eta ez naiz ari bizitza biologikoki sortzeaz, baizik eta bizitza zaintzeaz. Bizitzaren zainketan parte-hartze txikiagoa dutenak, gizonetakoak, ez dira ohartzen nolako balioa duen hark. 1911n, Olive Schreiner feminista zuri hegoafrikarrak idatzi zuzenez, «emakume batek beti daki zenbat balio duen bizitza batek; zeren eta askoz errazagoa baita bizitza suntsitzea sortzea baino». Horrek ez die emakumei dohain handiagorik egozten, Schreiner-en arabera, ezta krudelkeria gutxiago ere, zeren eta «emakume batek gorrotatutako aurkari edo etsai baten bizia sakrifikatu baitezake gizonetako baten krudelkeria berberaz; baina hura beti da

kontziente egiten ari denaz eta suntsitzen ari den biziaren balioaz [...] Puntu horrexetan bakarrik da emakume baten ezagutza gizonezko batena baino handiagoa: emakumeak giza haragiaren historia ezagutzen du, gizonezkoak ez [...]»⁸. Nahiz eta, zalantzarik gabe, eta hori nahiko genuke, ikasi egin dezakeen.

Atzo eta gaur, emakumeek beren denbora eskaini dute beste batzuk ongi senti daitezzen. Inor izatekotan, emakumeak izan dira entzuleak, sendatzaileak eta zaintzaileak. Beren esperientziaren alderdi hori ondare garrantzitsua da gizateria osoarentzat. Premiazkoa da zibilizazioaren ondare hori denon parte izatea, zeren eta «Eginkizun horiek sortzen baitituzte giza espeziaren gizarte-bizitzaren eguneroko baldintzak. Bai baldintza materialak eta bai psikoafektiboak ere. Baldintza horietan pertsonak norbanako bihurtzen dira eta gizarteratu egiten dira [...] Baina gizateriaren baldintza horiek ez dira aipatu, ezta lantzat hartu ere horiek bideragarri egin dituzten jarduerak ere [...] emakumeok bakarrik bihurtzakegu denon parte –Hannah Arendt-ek ematen dion zentzuan– eginkizun zibilizatzaile gisa ikusten baldin baditugu»⁹.

Eskubideen berdintasunari garrantzi handia emateaz gain, emakumeek, biktima gisa ikusiak eta horretara mugatuak izateak dakarren zama astuna atzean utziz, esperientzia zibilizatzaile hori ezagutaraztea eta kontuanago hartzea lortzen ari dira, guztiz gizabidetsua dela aldarrikatuz eta unibertsalizatu dadila proposatuz.

Zainketaren lan horretatik ondoriotzen den ikuspegia ere funtsezkoa bihurtzen da gizakien komunitate bat eraikitzeko, Estatuak edo talde-kidetasunek ezarritako hesien gainetik. Zainketari eskainitako dedikazioak erlatibizatu eta zalantzan jartzen du interesen eta boterearen logika. Erlatibizazio hori funtsezkoa da Gizakiaren Bake Eskubidea, biziarekiko errespetuan finkatua, nazioarte mailara zabaldu dadin, Estatuak gerrara joateko baliatzen dituzten motibazio eta «kausen» gainetik. Ildo horretatik, neurri handi batean, emakumeen ekimenek eta mugimenduek defendatu izan dute eta oraindik ere defendatzen dute bakea, Estatuak, kidetasunek eta leinuek ezarritako hesien gainetik. Emakumeek ezagutzen dute jatorrizko mendetasuna, arrazoia baliatzen hasi aurretik existitu izan den hori, baita zahartzaroan eta gaixoaldian ere. Horregatik, politikan gorputzei leku bat ematen ahalegintzen dira, bakea eta bakearen aldeko negoziazioak modu zehatzago batez enfokatzen dituzte, biziraupenarekin loturiko eguneroko premietatik hurbilago dagoen modu batez.

Emakumeek gizakiaren bake-eskubideari egin dioten ekarpen garrantzitsu bat, hain zuzen ere, nazioarteko harremanetan boterearen logikaren ordez biziari sostengua ematen dion logika jartzea izan da.

Emakumeek bakearen kausan duten parte-hartzea

Boutros Boutros-Ghaliren *Bake Programa* bat izeneko txostenean, 1992an, dio bakea eraikitzeko beharrezkoa dela prebentziozko diplomatika lantzea, bakea ezarri, mantendu eta finkatzearen alde lan egitea, gatazken arrazoi sakonei amaiera ematea, hala nola etsipen ekonomikoa, bidegabekeria soziala eta zapalketa politikoari. Ikusmolde hori ikuspegi militarraz baino harago doa, eta bakea modu gizatiarrago batez ulertzen du. Esan liteke «bakearen kontzeptua zenbat eta gizatiarrago izan, orduan eta hurbilago egongo gara bake-eskubidea ere modu gizatiarrago batetik ikustetik» (Alemany, 1998, 39).

Bakea modu gizatiarrago batez ulertzeko eta eraikitzeko joera horretan, nazioarteko erakundeak emakumeen garrantzia aitortzen ari dira, oso aktiboak baitira bakearen aldeko oinarritzko lanean, nahiz erabakiak hartzeko beste maila batzuetan ez ageri. Biziraupene-

tik hurbilago daudenez, bakearen ikusmolde konplexuagoa dute, gizakion oinarrizko premietatik hurbilagoa. Emakumeak gizonezkoak baino baketsuagoak edo hobeak ez direla esatearekin batera, aitortu eta nabarmendu beharra dago gauza garrantzitsu bat: bakearen kausa azken mende honetan emakume gehien mugiarazi duen mugimendu politikoetako bat da.

a) Hurbileko historian

Joan den mendeko pasarterik esanguratsu eta zibilizatzaileenetako bat emakumeek I. Mundu Gerran abian jarri zuten bake-ekimena izan genuen. 1914. urtean, gerra hasi baino lehen, *Emakumearen Botoaren aldeko Nazioarteko Itunak*, 26 herrialdetako hamabi milioi emakumeren izenean, manifestu bat zabaldu zuen kontziliaziorako eta arbitrajearako deia eginez. Hilabete batzuk geroago, 1915eko maiatzean, 12 herrialde beligerante nahiz neutral ordezkatzan zituzten mila inguru emakume Hagan elkartu ziren, Emakumeen Lehen Nazioarteko Biltzarra izan zen hartan. Bertatik *Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Liga* sortuko zen, indar handiz elkarri atxikiak sentitzen ziren bi mugimendu elkartzeko asmoz: mugimendu feminista eta mugimendu bakezalea. 1931. urtean Bakearen Nobel Saria jaso zuen Jane Adams buru zela, Biltzar horrek gerraren erokeriaren eta izugarrikeriaren aurka protesta egin zuen, eta herrialde neutralek berehala bitartekari-lanak egin zitazela gomendatu zuen; Biltzarra amaitu zenean, hautatutako ordezkariak emakumeek adostutako bake-ebazpenak jakinarazi zizkieten gobernuei.

Emakumeek bakearen alde ekimenak gauzatzeko duten gaitasuna eta ikusmoldea behin eta berriz agertzen da. Gandhik adierazi zuen indarkeria-ezaren eta desobedientzia zibilaren teknikak emakumeengandik ikasi zituela, batez ere sufragista britainiarrengandik. Espainiako gerra zibilean gerrako izugarrikerien argazkiak Boolmsbury taldearen barruan zebilen Virginia Woolf-en eskuetara iritsi ziren. Lagun batek bidali zizkion, gerra eragozteko moduari buruz bere iritzia eman zezala ere eskatuz. Helburu horrekin *Hiru Ginea* idatzi zuen. Liburu horretan, Virginia Woolf-ek gizonezkoek sortutako erakundeen aurrean jarrera kritikoa hartzeko gonbidapena egiten du, eta emakumeek beren sormena garatu dezatela aholkatzen du, munduaz beren baitatik pentsatzeko. Emakumeek gerra nola eragotzi zezaketen galdetu ziotenenean, honela idatzi zuen: «gerra eragozten laguntzeko dugun modurik onena ez da haren hitzak eta haren metodoak errepikatzea, baizik eta hitz berriak aurkitzea eta metodo berriak sortzea» (Woolf, 1938, 193).

Bigarren Mundu Gerran, emakumeek Erresistentzian parte hartu zuten, eta zenbait izen esanguratsu, hala nola Simone Weil Frantziar, Hellen Keller AEBetan edo Sophie Schöll Alemaniar, gerraren aurka aktiboki lan egin ondoren, beren bakezaletasuna alde batera utzi, eta nazismoaren aurkako borrokan parte hartzen hasi ziren, zenbait bakezalek egin zuten modura.

Mendearen bigarren erdian, emakumeek bakearen aldeko mugimenduan izandako parte-hartzea, batez ere bakezaletasun nuklearraren barruan, ukaezina da. Oraindik oso hurbil daude Europa osoko emakumeen taldeek 80ko hamarraldian misil nuklearren instalazioen aurka burutu zituzten ekimenak. Urtetan hainbat ekimen bultzatu zituzten, esate baterako, Greenham Common-eko kanpalekua, Britainia Handiko misilen base baten aurrean.

Pentsamendu-korronte honen barruan inskribaturik, Luisa Murarok, Simone Weil-ek Troiako gerrari buruz idatzitakoaren haritik, Antzinarotik gaur egun arte garatu omen den hari baten ospea eta independentzia berreskuratzen du. Weil-ek dioenarekin bat eginez, giza historiaren zentzugabekeriaren sustraia beste zentzugabekeria batetik sortua dela dio: boterearen naturatik sortua. Weil-en iritziz, «mugarik gabe zabaltzeko joera duen boterea-

ren mekanismo horri kontra egin behar diogu gure erlatibotasunaren zentzuak bakarrik eman diezagukeen adimenaren bitartez. Gerraren –eta boterearen– gaiztakeria sinbolikoa adimen horren suntsipenean oinarritzen da funtsean. Edo are okerrago, hori gauzaezin bihurtu nahi du, zeren gerra bat dagoenean aurkariarekin negoziatzerik ez duen ospe baten gurpil zoroaren inguruan baitabil dena, norbera suntsituko bailitzateke bestela [...] Politikak eteten du indar-erlazioen mekanismoa, bai mundu honetan eta bai gure arimetan ere. Politika, hain zuzen ere, boterearen/botere-ezaren mekanismo itsuetan askatasunak irekitako arrakala da, eta horixe izan zen bere bakezaletasunaren zentzu sakon eta iraunkorra: gerrari ekin diezaiotela eragozte gatazka politikoei leku egiteko¹⁰».

Beste ekarpen garrantzitsu bat Sara Ruddick-ek egindakoa da, amatasun-lanetik –emakumeek nahiz gizonezkoek egin dezaketena– sortutako pentsamenduaren ahalmena aipatu zuenean, bakearen kultura bat eraikitzeke baliabide-iturri gisa. Berak dio abstraktu eta suntsizaile gisa ageri diren pentsamendu-mota nagusien aurrean, amatasunaren pentsamenduak ikuspegi kritiko bat eskaintzen duela, gerraren suntsikortasuna eta bake-eskakizunak argitzen dituena. Pentsamendu militaristaren barruan gorputzak kausa abstraktuen menpe aurkitzen dira. Amatasun-lan guztia indarkeriak mehatxatu eta sarritan suntsitu egiten du. Gerrak, pobreak eta arrazakeriak ama baten ahalegin onenak osten dituzte: funtsezko oinarri horretan sustengatzen da amaren jardueran ahalmen sor bat dagoela dioen baieztapena, bake-politika bati lagun diezaiokena. Eta halere, Ruddick-ek uste du, halaber, amatasun-pentsamendu hori bera sarritan militarista dela, zeren eta amek seme-alabei eta beren buruzagiei eskaintzen dieten babesak jarrera erasokorrek eta tribalak ahalbidetzen baititu¹¹. Nolanahi ere, Ruddick-ek dio amatasuna «entrenamendu bat izan daitekeela desberdintasun asaldatzailez arduratzeko, amatasunaren identifikazioa “beste” haur batzuen biziak babesteko konpromiso bihur daitekeela, haurren izenean jaiotzaren zina bortxatzen duten gorputz nahiz espirituaren aurkako erasoei aurre egiteko» (Ruddick, 1989, 57).

180

b) Bakea eraikitzeke antolatutako emakumeak

Bakearen eraikuntzan emakumeek izan duten parte-hartzea mundu osoan zehar hainbat emakume-taldek buru-belarri eta sormen handiz egiten duten oinarritzko lanean funtsatzen da. Biziraupenaz eta hazkuntzaz arduratzen direnez gero, emakumeek ikusten dute nola beren lanaren fruitua, hots, gizakiak, mehatxatu eta suntsitu egiten dituela indarkeriak. Eta horren aurka errebelatzen dira, horren ardura duten boterearen aurrean protesta egin eta zubiak eta ulermenerako bideak eraikitzen ahalegintzen dira buruzagi gerrazaleen erabakiak sufritzen dituzten biztanleen artean. Lehen hurbilpen gisa, talde horien lan-esperientzia eta motibazio aberats eta ugarietara hurbiltzeko, antolatutako bultzatzen dituzten helburu nagusien arabera sailka ditzakegu. Antolatutako emakume-taldeak honelakoak izan daitezke:

1. Gerraren aurka edo beren gobernuak daramaten politika militarista eta erasokorren aurka egiten dutenak –Beltzeko Emakumeen Taldeak, mundu osoan barreiatuak–.
2. Adostasunezko puntuen bidez, aurka dauden taldeetako pertsonak elkarrengana hurbiltzen dituztenak –Irlandako Emakumeen Koalizioa, Emakume Afrikarren Sareak eta beste batzuk–.
3. Egiturazko gatazkei soluzio ez-militarrak bilatzen dituztenak –Kolonbiako emakumeen bide baketsua eta beste batzuk–.
4. Zigorgabetasunaren aurkakoak: genozidioak eta pertsonen jazarraldi eta desagertpen behartuak berriro gerta ez daitezen –Maiatzeko Plazako Amak eta Amonak, CONAVIGUA (Guatemala), COMADRES (El Salvador) eta beste batzuk–.

5. Gerra-egoeran edo askatasunik eta giza eskubiderik gabeko egoeran bizi diren emakumeei laguntzen dietenak, norberarena ez den beste herrialdeetan –Taldeak Europan, AEBetan eta beste batzuetan–.
6. Emakumeen oinarrizko lana erabakiak hartzeko garaian kontuan har dadila lortzen ahalegintzen direnak –Emakumeen GKEen Sareak, parlamentarioekin egiten diren aliantzetan eta nazioarteko erakundeetako emakumeak–.

1325 Ebazpena eta CLADEMen proposamena

Bake gizatiarrago bat eraiki dadila sustatzeko ildo horretatik, aipa liteke nazioarteko erakundeak agertzen ari diren kezka aktiboa, ez halere tentsiorik gabea, emakumeak bakearekin erlazioa duten gaietan barneratu daitezten. Lehenengo aldiz, sortu zenetik daramatzan berrogeita hamar urteotan, 2000ko urrian, Segurtasun Kontseiluak ebazpen bat eztabaidatu eta onetsi zuen, 1325garrena, eta bertan, Idazkari Nagusiari eta estatu kideei eskatzen zaie bakea eraikitzeko nola gatazka ostean berreraikitzeko prozesuetan emakumeen parte-hartze handiagoa lortzearen alde jardun dezatela.

1325 Ebazpenak dei egiten die Segurtasun Kontseiluari, Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari, estatu kideei eta gainerako alderdiei –gizaldeko agentziak, militarrek, gizarte zibila-elkarrekin loturik dauden lau eremutan ekintzak abiarazteko:

1. Emakumeek bake-prozesuetan eta erabakiak hartzeko garaian parte hartze handiagoa izateko.
2. Generoaren ikuspegitik bakearen sostenguan trebatzeko.
3. Gatazka armatuetan eta gatazka osteko egoeretan emakumeak babesteko.
4. Nazio Batuetako datu-bilketaren eta informazio-sistemaren korrante nagusian generoa zeharka sartzeko, eta halaber, programak gauzatzeko orduan ere bai.

Ebazpen honetan, Segurtasun Kontseiluak aitortzen du ez bakarrik «bakea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin katramilatsuki loturik dagoela», baizik eta «emakumeek botere-egituretan erabat parte hartzea eta gatazken prebentzio eta konponketarako ahaleginetan guztiz murgiltzea funtsezkoak direla bakea eta segurtasuna mantentzeko eta sustatzeko». Theo-Ben Gurirab dk.ak, Namibiako Kanpo Arazoetarako Ministroak, 1325 Ebazpena onetsi zenean Segurtasun Kontseiluko lehendakaria zenak, honela azaldu zuen: «emakumeak komunitate guztietan erdiak baldin badira[...], ez al dute izan behar edozein soluziotan ere erdiak?¹²».

1995. urtean, Emakumeari buruzko Nazio Batuen Laugarren Mundu Konferentziak, 1995eko irailaren 4tik 15era Pekinen bildua zegoela, emakumeek bake-kulturari egindako ekarpenari buruzko Adierazpenean, honela zioen:

XXI. mendearen atarian, bake-kultura baten aldeko mugimendu dinamiko batek bere inspirazioa eta bere itzaropena emakumeen ikusmoldeetatik eta ekintzetatik jasotzen ditu (...) Emakumeen zuzendaritza-gaitasuna erabat eta denon mesederako aprobetxatu behar da, bake-kultura baterantz aurrera egiteko. Gobernuan historikoki izan duen partaidetza eskasak kontzeptuak itxuraldatzea ekarri du, eta halaber, prozesuak mugatzea. Gatazken prebentzioa, kulturen arteko elkarriketaren sustapena eta bidegabekeria sozio-ekonomikoen konponketa bezalako eremuetan, emakumeek ikuspegi berritzaileak eta behar-beharrezkoak sor ditzakete bakea eraiki ahal izateko.

Emakumeek esperientzia, gaitasun eta ikuspegi desberdinak eskaintzen dizkigute herrien eta nazioen arteko bakea bultzatzeko. Emakumeek bizia sortzeko eta iraunarazteko ardura izan dute eta horrek giza harreman baketsuak eta gizartearen garapena lortu ahal izateko funtsezko gaitasun eta ideia batzuk eman dizkie. Emakumeek ez dute gizonek bezain erraz onartzen indarkeriaren eraginkortasunaren mitoa eta, alde horretatik, kalitatezko ikuspegi zabal eta orekatsu berri bat eskain dezakete, gerra-kulturatik bake-kulturara igarotzeko denon arten egin behar dugun ahaleginari begira¹³.

1998. urtean, Giza Baliabideen Agiria argitaratu zenetik 50 urte bete zirela gogoratu, emakumeek agiri hori berrikusteko proposamena egin zuten ekimen berritzaile baten bidez, generoaren ikuspegitik begiratu. Amerika Latino eta Karibeko emakumeen eskubideak defendatzeko batzordeak (CLADEM) prestatuiko Giza Eskubideen Adierazpenak sarrera bat eta bost kapitulu ditu. Horietako batean, II.ean hain zuzen, bakerako eta indarkeriarik gabeko bizitza aske baterako Eskubidea jaso zuten.

Lehenengo pausoak 1992. urtean eman zituzten, Costa Ricako San José-n, bertan Konferentzia bat antolatu baitzuten Latinoamerikak 1993. urteko Vienako Mundu Konferentzian egin behar zuen ekarpena prestatzeko. Brasilen proposamen bat prestatu ondoren, hura Vienan aurkeztu eta Afrikako eta Asiako emakumeekin batera aztertu zuten. Beste bertsio bat prestatu eta Argentinan aurkeztu zuten 1994ko irailean, eta 1995eko Pekingo Emakumeen Mundu Konferentziara eraman zuten. 1997. urtean, mundu osoko 180 erakunde eta pertsona baino gehiagoren kritikak eta iradokizunak kontuan hartu ondoren, beste bertsio bat idatzi eta Ginebran egoitza duen Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordean aurkeztu zuten. Dokumentua 1.500 hitzetara murriztu ondoren, Batzorde horren eskariz, E/CN.4/1998/NGO/3 agiria onartu zuten. 1998. urtean, CLADEMek kanpaina bat antolatu zuen erregioko 17 herrialdeetan hedabideen eta emakumeen erakundeen bitartez; horren alde milaka sinadura bildu eta urte bereko abenduaren 10ean New York-en aurkeztu zuten Nazio Batuen egoitzan.

Agiria berrikusteko proposamen horretan bake-eskubidea agertzea ez da kasualitate hutsa. Gizarte desberdinetan oraindik bizi-bizirik dagoen pentsamolde batek eguneroko bizimoduan emakumeen kontra egiten den gerra partikular batera behartzen ditu emakumeak; genero-indarkeriara hain zuzen. Indarkeriari buruzko azterketa feministetan esan ohi da indarkeria etxetik guda-zelairako jarraipena dela. Ikuspegi integral horrek bakea modu berean ikustera bultzatzen gaitu. Horri dagokionez, HCLADEM-ek egindako Adierazpenaren 7. artikuluan hauxe dio: «Gizaki guztiak dute eskubidea indarkeriarik gabeko bizitza libre bat egiteko eta bakeaz gozatzeko, bai arlo publikoan eta bai pribatuan. Inork ez du torturarik jasango, ezta tratu anker, bihotz-gabe edo iraingaririk ere. Emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak giza eskubideen aurkako bortxakeria dira. Indarkeria ezin izango da erabili gizakiei etxebizitza-eskubidea ukatzeko, batez ere nahitaezko ebikzioetatik abiatuta».

Hitzaldiaren inguruko oharra

¹ Amerika Latino eta Karibeko emakumeen eskubideak defendatzeko batzordea, Susana Chiarotti, *Derechos Humanos, más derechos*: <http://www.iigov.org/dhial>

² Ikus Gómez Isa, 1999, 48-51 orr.

³ Ikus Álvarez Molinero, 1999, 167-169 orr.

⁴ Aldagai horrek kontuan hartzen du munduan gizonak eta emakumeak daudela, horien artean botere-harremanak ezartzen direla eta maskulintzat eta feminintzat hartzen dena gizartean eraikitzekeo prozesu errekurtsiboak daudela.

⁵ Hegelen arabera «arima ederra» gizon edo amakumeari «garbitasun-itxura» babesteko aukera ematen dion kontzientzia-modua da, horretarako munduko gertakari historikoaren ibilerari buruzko xalotasuna lantzen duena.

⁶ Nastase, Adrian (1991) «Le droit a la paix», Droit Internacional, Tome 2, Paris, Éditions A. Pedone, 1291 or. Alemany-n aipatua, 1998, 25 or.

⁷ Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 3 art. eta Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituna, 6. art.

⁸ Schreiner, Olive (1911) *Woman and Labor*. London, Virago, 1978, 173 eta 178 orr. Egileak azpimarratua eta hemen aipatua: Ruth Roach Pierson (1987) «Did your mother wear army boots? Feminist theory and women's relation to war, peace and revolution». Non: Sharon Macdonald, Pat Holden and Shirley Ardener (ed.) *Images of Women in Peace and War. Cross-Cultural and Historical Perspectives*. London, Macmillan Education, 205-227.

⁹ Bosch, Anna eta Grau, Elena (1997) «Construyendo un mundo común. La tarea civilizatoria de las mujeres». *En Pie de Paz*, 45, 45-48, 46-47.

¹⁰ Muraro, Luisa (1999) «Si la política vence a la guerra», *L'Unità*, ostirala, ekainak 4, 1999.

¹¹ Amen jokabide erasokorraz aztertzekeo, Ruddick-ez gain, ikus Elsthain (1995) eta Magallón (2001). Beste interpretazio baterako, ikus Kaplan (1994).

¹² Hemen aipatua: Rehn, 2002, 76 or.

¹³ Ikus <http://www.unesco.org/cpp/sp/declaraciones/women.htm>

Bibliografía

ABELLÁN HONRUBIA, VICTORIA

(1997) «Internacionalización del concepto y de los contenidos de los derechos humanos».

Non Seminario de Investigación para la Paz (ed.) *Los Derechos Humanos, camino hacia la paz*, Pignatelli Zentroa, Aragoiko Gobernua, 15-28.

ALEMANY, JESÚS MARÍA

(1998) «La paz, ¿un derecho humano?». *Administrazio Publikoaren Aragoiko Aldizkaria*, II Gaibakarra, 17-45.

ALVAREZ MOLINERO, NATALIA

(1999) «La evolución de los derechos humanos a partir de 1948: hitos más relevantes». Non Instituto de Derechos Humanos (ed.) *La Declaración Universal de Derechos Humanos en su cincuenta aniversario*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 93-178.

ANNAS, JULIA

(1996) «Las mujeres y la calidad de vida: ¿Dos normas o una?». Non: Martha C. Nussbaum y Amartya Sen (comp.) *La calidad de vida*, Mexiko, Kultura Ekonomikoaren Fonda, 363-385.

BOCCHETTI, ALESSANDRA

(1995) *Lo que quiere una mujer*, Cátedra, Madril, 1996.

CLADEM

(1995) «Declaración de Derechos Humanos para el siglo XXI», *Bidalia*, Managua, 198 zk., 25-29.

GÓMEZ ISA, FELIPE

(1999) «La Declaración Universal de Derechos Humanos: algunas reflexiones en torno a su génesis y a su contenido». Non Instituto de Derechos Humanos (ed.) *Op. Cit.*, 17-92.

184

ELSHTAIN, JEAN BETHKE

(1995) *Women and War*, The University of Chicago Press, Chicago.

RUDDICK, SARA

(1989) *Maternal Thinking: Toward a Politics of Peace*, The Women Press, London, 1990.

KAPLAN, LAURA DUHAN

(1994) «Woman as Caretaker: An Archetype that supports Patriarchal Militarism», *Hypatia. A Journal of Feminist Philosophy*, 2 zk./9 bol., 123-133.

MAGALLÓN PORTOLÉS, CARMEN

(2001) «El pensamiento maternal, una epistemología feminista para una cultura de paz». Non Francisco A. Muñoz (ed.) *La paz imperfecta*, Bakearen eta Gatazken Institutua, Granadako Unibertsitatea, col. Eirene, Granada, 123-141.

—(1998) «Contribuciones feministas a una política de paz». Non Ana M. Portal (ed.) *Mujeres, ecología y paz. Derecho, participación política y empleo*, Universitat Jaume I, Castelló, 87-106.

—(1997) «Los derechos humanos desde el género». Non Seminario de Investigación para la Paz (ed.) *Los derechos humanos, camino hacia la paz*, Aragoiko Gobernua, Zaragoza, 249-267.

REHN, ELIZABETH, SIRLEAF, ELLEN J.

(2002). *Women War and Peace. The Independent Experts' Assesment on the Impact of Armed Conflict on Women and Women's Role in Peace-building*, The United Nations Development


Fund for Women, UNIFEM, New York.

VELASCO CRIADO, DEMETRIO

(1999) «Los antecedentes histórico-ideológicos de la Declaración Universal de los Derechos del Hombre de 1948». Non Instituto de Derechos Humanos (ed.) *Op. Cit.*, 205-308.

WOOLF, VIRGINIA

(1938) *Tres Guineas*, Lumen, Bartzelona, 1977.



Bake prozesuak erakitzeko eskubidea

VICENÇ FISAS JN.


Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko UNESCO Katedra

Bartzelonan jaioa 1952. urtean

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Bake Kulturaren Eskolaren zuzendaria Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Bakeari eta Giza Eskubideei buruzko UNESCO katedraren titularra Erresuma Batuko Bradfordeko Unibertsitatean Bakeari buruzko Azterlanetan doktorea.

Giza Eskubideen Sari Nazionala, 1988

30 liburu idatzi ditu honako gai hauen inguruan: bakea, armagabetzea, segurtasun-aukerak, gatazkak eta bake-kultura. Hona hemen argitaratu dituen azken liburuetako zenbait: *Procesos de paz y negociación en conflictos armados*, *La paz es posible*, *Cultura de paz y gestión de conflictos* eta *Adiós a las armas*.



CURRÍCULUM

LABURPENA

Mendeak joan eta mendeak etorri, bakea lortzeko itzaropena beti hor egon da kultura eta erlijio guztietan, betiere bakea ordenatzen, indarkeriarik ezatzen, orekatzen, armoniatzen edo justizia sozialtzat hartuta; baina XX. mendearen erdialdera arte, eta Nazio Batuen sistemaren bidez eskubideak arautu arte itxaron behar izan dugu bakea hirugarren belaunaldiko eskubidetzat ere hartzeko. Eta are gehiago, bakerako eskubidea eskubide guztien laburpentzat har daiteke, baita eskubide guztiak betetzea ere, eta bereziki, elkartasuneko eskubideak. Hori horrela izanik, ikuspegi horretatik begiratuta, Bakerako Giza Eskubidearen barnean hartzen dira, gutxienez, honako eskubide hauek: bizitzeko eskubidea, segurtasun pertsonalerako eta babeserako eskubidea, elikatzeko eta ura izateko eskubidea, baliabideak modu orekatuan banatzeko eskubidea, hezkuntzarako, justizia sozialerako, garapen pertsonalerako, ingurumen osasungarria izateko, askatasunerako, aukera-berdintasunerako, garapen iraunkorrerako, parte-hartzeko, armagabetzeko, duintasunez bizitzeko, aniztasunerako eta ezberdin izateko eskubideak.

Elkartasun-eskubide gisa, bakerako eskubidea aldarrika daitekeen eskubidea da, eta eskubide horren titularrak Estatuak, gizarteak, pertsonak eta gizateria osoa direnez, maila horiek guztiek dute eskubide hori eskatzeko eskubidea, baina baita erantzuteko betebeharra ere. Ikuspegi horretatik begiratuta, Bakerako Giza Eskubideak gerrei –desadostasunak kudeatzeko mekanismo gisa– amaiera emateko konpromisoa gainditu egiten du, konpromiso soziala eskatzeko, hau da, itun unibertsal berria, pertsona eta herri guzti-guztien oinarrizko premiak –materialak eta ez-materialak– betetze aldera. Bake-prozesuak eraiki ahal izateko eskubidea ere hartzen du barnean, hau da, elkarren aurka dauden aldean arteko konpromisoak bilatzea eta hitz egitea, gatazkari irtenbide negoziatua emate aldera. Ezein gatazka armatu ez da ezinbestekoa, eta ezein gizartek ezin du horrelako gatazka batengatik sufritzen egon. Beraz, bake-prozesuak eraikitzeko eskubidearen barnean hartzen da ikuspegi prebentiboa ez ezik, konponbiderako ikuspegia ere, adiskidetzea eta kalteak konpontzea bilatzen duena.

Unibertsala izanik ere, Bakerako Giza Eskubidea modu askotara interpreta daiteke testuinguruaren arabera, zeren eskubide bakoitzaren lehentasunak aldatu egiten baitira egoera jakin batetik bestera. Esate baterako, Afrikako herrialde bat, gerran egoteaz gain, lehortea eta HIESa pairatzen ari dena; bakea lortzeko herrialde horren lehentasunak ez dira izango Europaren iparraldeko herrialde baten berdinak. Bukatzeko, Euskal Herriaren kasuan Bakerako Giza Eskubideak bizitzeko eta segurtasun pertsonalerako eskubidea hartzen ditu barnean, lehenik, baina askatasunerako, aukera-berdintasunerako edo ezberdin izateko eskubidea alde batera utzi gabe betiere, zeren bakea, bizipen gisa, eskubideen aldarrikapenak eragiten dituen halabeharrezko tentsioen arteko oreka jakintsua baino ez baita.

Bake prozesuak erakitzekeo eskubidea

Bakea lortzeko nahia etengabekoa izan da mendeetan zehar, kultura eta erlijio guztietan, bake hori edozein eratan ulertzen dela ere, hau da, ordena, indarkeria-eza, oreka, harmonia edo gizarte-justizia bezala. Dena den, XX. mende erdialdera arte ez gara hasi bakea hirugarren belaunaldiko eskubidetzat hartzen, Nazio Batuen sistemak arautzen dituen eskubideen bidez, hain zuzen. Areago, bakerako eskubidea eskubide guztien laburpen edo gauzatzeko bezala uler daiteke, elkartasunezko eskubideei dagokienez bereziki. Ikuspegi horretatik abiatuta, gizakiaren bake-eskubideak oinarrizko eskubide batzuk dakartza berekin, hala nola, bizitzeko eskubidea, norbere segurtasun eta babeserako eskubidea, jatekoa eta edatekoa izateko eskubidea, baliabideen banaketa bidezkoa, hezkuntza, gizarte-justizia, norberaren garapena, ingurumen osasuntsua, askatasuna, aukera-berdintasuna, garapen iraunkorra, parte-hartzeko eskubidea, desarma, bizitza duina, aniztasuna eta desberdintasuna.

Elkartasunezko eskubidea den aldetik, bakerako eskubidea exijitu daitekeen eskubidea da, eta eskubide horren titularrak estatuak, gizarteak, gizabanakoak eta gizateria osoa direnez, maila horietako edozeinek du eskubide hori eskatzeko eskubidea eta eskubide horri erantzuteko betebeharra. Horrenbestez, gatazkak konpontzeko garaian gerra erabiltzeko joerarekin bukatzeko konpromisoa baino zerbait gehiago da gizakiaren bake-eskubidea, pertsona eta herri guztien oinarrizko premia material zein inmaterialei erantzuteko gizarteak hartzen duen konpromiso edo itun unibertsal bat, alegia. Hemen sartzen da bake-prozesuak eratzekeo eskubidea ere, hau da, liskartuta dauden aldean artean konpromisoak bilatzea eta gatazkari irtenbide negoziatua aurkitzeko elkarrizketa bultzatzea. Ez dago gainditu ezineko gatazka armaturik, ez eta horrelako gatazkak ezinbestean jasan behar dituen gizarterik. Bake-prozesuak eratzekeo eskubideak, beraz, bi ikuspegi uztartzen ditu: prebentzioaren ikuspegia, batetik, eta irtenbidea, adiskidetzeko eta konponbidea lortzeko ikuspegia, bestetik.

Unibertsala izanik ere, gizakiaren bake-eskubidea era askotara interpretatu daiteke testuinguruaren arabera, eskubide bakoitzari eman beharreko lehentasuna aldatu egiten baita egoera batetik bestera. Afrikako herri batean, adibidez, gerrak, lehortek eta hiesak jota badago, bakea lortzeko lehentasuna ez da Ipar Europako herri batekoa bezalakoa izango. Euskal Herrian, berriz, gizakiaren bake-eskubideak norbanakoen bizitzeko eta segurtasunerako eskubidea esan nahi du, lehenik eta behin, nahiz eta horrek ez baztertu askatasunerako, aukera-berdintasunerako edo desberdina izateko eskubideak. Azken batean, bakea, bizipen bezala, eskubideak eskatzean ezinbestean sortzen diren tirabirak orekatzen asmatzea da.

Gaur egun gatazka armatuez, negoziazio-saiakerez edo bake-prozesuez hitz egiten dugunean, zenbaitetan hogeita hamarretik gora urte badituzten gatazkei aurre egiteko moduz ari gara. Gatazka horietako batzuek hiru miloi hildako eragin dituzte, eta 200.000 soldadu irregular edo gerrillari dabilta gatazka horietako batzuetan. Horrez gain, gatazkek irauten duen bitartean milioika lagunek beren herria utzi eta erbesteratu behar izaten dute. Halako egoeretan konponbide bidezko eta duinak bilatzen saiatzea funtsezko eginbehar politiko eta morala da, eta txosten honen bidez gaur egun helburu horri begira egiten ari diren zenbait ekimen aurkeztu nahi ditugu¹.

Lehenik eta behin, ondokoa nabarmendu behar dugu: *jardunean dabiltzan taldearmatuak dituzten gatazken erdian negoziatzen ari dira* gobernu eta talde armatuak, eta zenbait egoeratan bake-prozesu sendo samarrak dituzte, gainera. Hori erronka handia da bake-diplomazientzat, eragile armatuek osatzen dituztenak barne hartuta, esku hartzen duten alde guztien eginahal eta adimenaren mende egongo baita prozesuok bide onetik aurrera egitea eta indarkeria amaitzea. Hori ikusita, galdera hau sortzen zaigu: Euskal Herriko gatazka zergatik daramatza hainbeste urte ez atzera ez aurrera, konponketarako itxaropenik gabe?, eta euskal gatazka baino askoz hildako gehiago eragiten dituzten eta askoz ondorio larriagoak dituzten beste gatazka asko nolatan sartzen dira konponbidean? Galdera horri Espainiako zein Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak erantzun behar diote, baina ETAk ere bai eta bereziki, munduan dagoeneko ez dagoelako euskal gatazka bezalakorik, hau da, hain luze jo duen eta hain zentzu gutxi duen beste gatazkarik.

Nazioartera itzulita, gaur egungo gatazka armatuak eta konpondu gabeko zenbait gatazka aztertuz gero aurkitzen dugun beste berezitasun bat *independentzia edo autonomiaren inguruan sortutako gatazken ugaritasuna* da. Gutxienez hamabost herritan daude halakoak, eta, ondorioz, bake-prozesu asko tarteko egitura politikoak –autogobernu, autonomia, federalismoa, estatu libre elkartua, burujabetza banatua, etab.– eratzeari lotuta daude, batzuek eta bestek egiten dituzten eskariei erantzuteko formulak aurkitzeko. Halakoetan, lurraldearen inguruko arazoaz gain, norbanakoen nortasuna onartzearen inguruko zenbait alderdi adostu beharra egoten da –haien hizkuntza onartzea, hezkuntza-sisteman ibiltzeko aukera, nork bere erlijio-aukerak gauzatzeko eskubidea, inor baztertzen ez duten legeak, berdintasun ekonomikoa, kolonizazio-mugimenduen kontrola, herri-administrazioan sartu ahal izatea, etab.–. Bitxia bada ere, Nazio Batuetako Deskolonizazio Batzordeak aztergai dituen 16 lurraldeen artean Sahara Mendebaldea dugu. Hortaz, desoreka handia dago deskolonizatu beharreko herrialdeen eta munduan autogobernu handiagoa eskatzen duten lurraldeen artean, azken horiei erantzuteko ezin baita deskolonizazioari buruzko betiko irizpidea erabili, eta, koloniak ez diren aldetik, ez dutelako lekurik Nazio Batuen diplomazian.

Gatazka horietako askotako eragileen oinarritzko beharrak, haien jatorrizko eskakizunak eta gatazka armatuen azpian dautzan erroak, gatazka luzeetan bereziki, desitxuratuta gelditu daitezke talde armatuek egindako indarkeria-ekintzek eta urteetan jorratu dituzten estrategia suntsitzaileek herrian eragindako gaitzespenaren ondorioz. Areago, gatazkan erabilitako bitartekoez hasiera bateko helburuak eraldatzea, eta, azkenerako, inolako zentzurik gabe borrokatzea eragin dezakete, gatazkako eragileak bere burua justifikatzen duen aterabiderik gabeko espiral batean harrapatuta.

Halakorik gertatu ala ez, nola hasten eta sendotzen dira bakera eraman gaitzaketen negoziazio-prozesuak? Oro har, *negoziazio-prozesuek* antzeko bideak jarraitzen dituzte, eta alde bakarrak neurri bakoitzaren eragin edo garrantzia, ekimen bakoitza burutzeko behar izandako denbora eta urrats bakoitzaren egokitasuna izaten dira. Negoziazio guztietan malgutasun pixka bat behar da, aurretik iragarri ezineko gaiei erantzuteko garaian, bereziki.

Erantzun beharreko lehen galdera era horretako prozesu bati ekiteko moduari buruzkoa dugu. Burura etortzen zaigun lehen erantzunaren arabera, *aldeetako batek gutxienez halako prozesu bati ekiteko borondatea izan behar du eta gai izan behar du beste aldeak elkarrekin jarduteko konbentzitzeko*, baina hori ez da aski. Beste aukera bat litzateke behar adina indar duten kanpo-eragileek eskainitako aukerak ondo erabiltzen jakitea. Modu askotara saiatu gaitzke horretan, baina, horretarako, hasieran behintzat, garrantzi handia du konfiantza ematen duten neurriak jartzea, alegia, alde batek beste aldeak ondo ulertuko dituen ekintza eta keinu sinbolikoak egitea. Era horretako keinuen artean alde batek su-etena ematea

dago. Hori ez da beti gertatzen, halere, eta negoziazio asko gatazka armatuak dirauten bitartean egiten dira. Beste batzuetan, kanpo-eragileek egindako presioak eragin handia izaten du liskartuta daudenengan, eta presio hori bi eratakoa izan daiteke: zigorrak ala pizgarriak. Beste batzuetan «itxaropenerako leihoak» zabaltzen dira, alegia, oso egoera bereziak, eta halakoetan «pasatzen den trenera» igo eta elkarrizketa errazten duen beste egoera bat sortzea gerta daiteke. Bestelako gertakariak ere badaude, negoziazioaren aurka dauden buruzagiak hiltzea, adibidez, eta haien heriotzaren ondoren bide berriak irekitzea.

Era horretako jarduerak agerikoak izaten dira batzuetan eta isilpekoak bestetan, baina, nolana ere, negoziazio formalei ekiten lagundu dezakete, edo elkarrizketa, kontsulta eta elkarren egoeraren azterketak egiteko aurreko etapa ekar dezakete, bestela, bai artekarien bidez, bai kanpoko eragileen bidez, ondoren negoziazio formalei ekiteko. Negoziazio-prozesu gehienetan *hirugarren alderdiek* –pertsonek, herri edo erakundeek– esku hartzen dute, negoziazioan lagunduz, aholku emanaz edo behatzaile lana eginez, besteak beste, jarduera-eremu zabal baten baitan. Halakoetan era askotako bideak erabiltzen dira: paraleloan jokatzea –multi-track–, hainbat talde armaturekin negoziatu behar denean aldi berean –Kolonbian eta Burundin, esaterako–; «herritarren diplomazia» edo «track two» delakoa, elkar ezagutzeko lehen faseetan. Beste kontu bat da negoziazio horiek emaitza onak ematen dituzten edo porrot egiten duten, eta bata zein bestea zergatik gertatzen diren.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat hau da: *zeinekin negoziatu jakitea da, alegia, bidezko mintzakideak zein diren jakitea*. Zenbaitetan, bake-prozesuak hasi ere ez dira egiten, ez dute behar beste aurrera egiten edo porrot egiten dute lagunekin negoziatzen saiatzen garelako, *negoziatu etsaiekin egin behar denean*. Israel eta Palestinaren arteko gatazkan Israelgo gobernuak uko egiten dio Arafat mintzakidetzat onartzeari eta, hori ikusita, ondokoa idatzi du Amos Oz israeldar idazleak, argitasun handia erakutsiz: «Arafatekin negoziatu behar badugu ez da hura atsegina eta maitagarria delako, edo gure laguna delako, gure etsaien buruzagia delako baizik²».

Gatazka-egoera askotan talde armatuak terroristatzat jotzen dira eta, ondorioz, Estatu Batuetako edo Europar Batasuneko talde terroristen zerrendan daude batzuk. Egoera horri nola aurre egin asmatzea erronka politiko handia izaten da, *terroristatzat sailkatutako taldeekin negoziatu ala ez erabakitzeak garaian*, bi jarrera nagusi agertzen baitira: batzuek ezezko biribila ematen diote era horretako taldeekin elkarrizketatzeari, eta horrela ezinezkoa da bake-prozesurik eratzea, gobernuak bide militarra edo poliziaren bidea beste aukerarik ez duelako uzten. Beste aukera bat elkarrizketa eta negoziazioa bideratzen saiatzea da, talde armatuak bide terroristak eta indarkeria utzi eta araubide demokratikoa aukeratuko duen itxaropenez, edo talde hori desegiteko baldintzak negoziatzeko, besterik gabe. Paradoxikoa bada ere, gaur egun terroristen zerrendetan dauden zenbait talde negoziatzen dabilta gobernuarekin, hala nola, Kolonbiako autodefentsa-taldeak, Filipinetako NPA, New People's Army, Nepalgo maostatik, Sri Lankako LTTE, askapenerako tamil tigreak. Egipton ere hainbat negoziazio-saiakera egin izan dira Palestinako talde erradikalekin. Halakoetan, negoziatzen hasteko gutxieneko baldintzak adostu ondoren, hainbat konpromiso hartzen dira talde horiek terroristatzat gaitzetsi ahal izateko, taldeok ekintza terroristak egiteari uzteko egindako adierazpen baten bidez; jarraian, eragile politikotzat onartzen dira, gobernuak taldeok legez kanpokotzat jotzeari utziko diola esaten du, talde armatuak eremu jakin batzuetan armarik ez eramateko konpromisoa hartzen du, etab. Sri Lankan, adibidez, gobernuak tamilak terroristen zerrendatik kentzeko konpromisoa hartu zuen negoziazio formalak hasi baino egun batzuk lehenago. Beste kasu batzuetan, ondorengo negoziazio politikoa ahalbidetu duen hitzarmen humanitario baten bidez ekin zaio prozesuari.

Zenbaitetan, gutxitan ordea, «bidezko mintzakidea» ezin da talde armatu edo terroristata bera izan, haren zuzeneko ordezkari politikoa baizik, edo talde armatuaren eskakizun politikoa argi eta garbi adierazten dituen talde politikoa, gutxieneko babes baldin badu gizartean. Halakoetan, negoziazioa ez da talde armatuarekin egiten –gizartean ez baitute babesik–, dagokion talde politikorekin baizik. Arazo horrek ez du konponbide errazik, talde politikoa negoziazioan aurrea hartzen duen eta, orduan, armak isilarazteko ahalmena duen araberakoa izango baita emaitza. Izan ere, horrela gertatzen ez bada, hau da, talde armatu edo terroristata baldin bada erabakiak hartzen dituena, negoziazio-prozesua guztiz blokeatua gelditu daiteke, ezin delako baldintza soilik politikotik jokatu. Gaur egun Euskal Herrian dagoen arazoa era horretakoa izan liteke, adibidez.

Zenbait egoeratan, gatazka armatua egon ala ez, negoziazio formalei ekin aurretik beste fase bat egoten da, gizartean eta alor politikoan adostasun zabala bilatzeko, atakatik ateratzeko egin behar denaren inguruan. *Behar besteko adostasuna* bilatzea alternatiba bat izan daiteke «denok esku hartzen dute» edo «honek ezin du esku hartu» bezalako egoeren aurrean. Horrelakoetan, konponbide jakin baten aldeko jarrera ahalik eta zabalena bilatzen da iritzi publikoan, edo konponbidea bilatzeko moduaren inguruko aldeko jarrera, besterik ez bada. Hori egin da Hego Afrikan, arrakastaz egin ere, eta Somalian ere horretan saiatzen ari dira, nolabait ere. Nire iritziak, Euskal Herrikoa bezalako gatazketan ere horixe da erronka, izan ere, aritmetika politikoa %51ean banatuta dago, eta botoen %70 inguruko adostasunik lortu ezean ez dut nik konponbiderik ikusten aurrera begira, izan ere, kopuru horrek ETArri ederki erakutsiko lioke bere jardunak ez duela ez aukerarik ez zentzurik. Era horretako adostasuna lortzeko, ordea, legebiltzarreko talde guztiek ken batek eztabaidatzeko metodologia bat adostu beharra daukate, eta gaur egungo muturreko egoeran ken bat hori PP edo Batasuneko ondorengoak besterik ezin daitezke izan, eta behar adinako adostasuna ahalbidetuko lukeena, berriz, Alderdi Sozialista (PSE), gatazkaren inguruan denari buruz eta denekin hitz egiteko jarrera hartuz gero.

192

Behar besteko adostasuna lortzen saiatzea saski bat lehen hitzarmenekin edo gehienek onartzen dituzten ikuspegiekin betetzearen berdina da, nolabait ere, horrek elkarriketaren bidez, elkarri entzunez eta elkarren ideiak alderatuz pixkanaka bat-etorritik joateko prozesu baten hezurdura edo zimendua osatuko baitu. Oso litekeena da gizartean ikuspegi bateratua egotea gai askoren inguruan, legebiltzarreko eztabaidetan ikusten diren liskar eta tirabirek erakusten dutena baino handiagoa, han elkar iraindu eta gutxiestea baita arruntena, eta, hortaz, ezinezkoa da edozein talde politikok egindako proposamen baterako beharrezko oinarriak buruz eztabaidatu. Hala eta guztiz ere, legebiltzarreko talde gehienak prest egongo dira, ziurrenik, herritarren kezka bide diren zenbait gaiez osatutako saskiren batekin bat egiteko. Orain saski horretako osagaiak argitu beharra dago, beraz.

Polarizazio handiko egoeretan zaila izaten da adostasuna bilatzea, areago polarizazioa areagotzeko helburua duten estrategiak bultzatzen badira. Halakoetan, Euskal Herriaren kasuan, esate baterako, jendea sailkatu eta banantzen duen joera hori gainditzeko *hirugarren espazio bat sortu* beharra dago, jende guzti-guztiak lekua izan dezan eta bere iritzia eman dezan, edozein aukerakoa izanik ere: abertzalea, espainiar Konstituzioaren aldekoa, espainiarra baino euskaldunagoa, euskalduna baino espainiarragoa, euskalduna bezain espainiarra edo nortasun-bikote horien inguruko kezkarik gabekoak. Pertsona horiek guztiak batzen dituen ezaugarria errespetuz eta askatasunez bizi nahi izatea eta indarkeriari ezetz esatea izango litzateke. Espazio berri hori ideia guztiak bilduko litzuzkeen herritarren bilgune edo foroa izan liteke, legebiltzarreko jardun politikoan nagusi den amorru eta tirabirarik gabea, eta politikariei mezuak bidaltzeko ahalmena duena, ideia, proposamen eta elkar-onartze bateratuak aditzera emateari dagokionez, bereziki.

Askotan egin beharreko lehenbiziko gauza *metagatazka* argitzea izaten da, hau da, gatazka zeren ingurukoa den eztabaidatzean sortzen den eztabaida. Euskal Herrian horixe gertatzen da, zenbait sektore politikok ukatu egiten baitute «gatazka politikorik» dagoenik ere, eta gertatzen dena gaizkileen jardun hutsa besterik ez dela esaten dute. Negoziatzen hasteko, beraz, lehenik eta behin *metaitun bat lortu behar da, hots, gatazkaren izaerari buruzko gutxieneko –ez gehienezko– hitzarmena*. Xehetasun hori negoziazio formalak hasten direnerako utziz gero, amaierarik gabe luzatu litezke negoziazio horiek. Negoziatu aurreko faseak arrakasta izateko, lortu nahi dena zer den –indar militarra, parte-hartze politikoa, eskubideak onartzea, etab.– zehaztu eta liskartutako alderdien estrategia eta ikuspegia ulertu beharra dago. Aurre-negoiazioan era askotako alderdiak aztertzen dira, teknikoak, logistikoak eta zuzenbidezkoak, adibidez, baina fase hori *elkarrizketa lortzera* eta funtsezko gainen inguruko negoziazioa hastera *bideratutako prozesu politikoa* izaten da, gehienbat. Nolanahi ere, alde guztiek ziur ikusi behar dute elkarrizketak ez dakarrela iruzurrik, alegia, ez direla denbora irabazi edo abantaila militarra lortzeko amarrua, askotan gertatzen baita hori. Izan ere, aurre-negoiazioa edo negoziazio bera gerrako fase baten emaitza izan daitezke, bi aldeak berdinduta daudelako, alderen bat ahul dagoelako, etab., eta egoera horretan alderen batek indarrak berritzeko ekin nahi liezaioke negoziazioari. Hortaz, alde bakoitza prozesu horretan zergatik sartzen den argi eta garbi zehaztu beharra dago, askotan eragile bezala zilegitasuna eskuratzeko egiten baitira negoziazioak, edo nork bere eskakizunei oihartzun politiko handiagoa emateko, negoziazio formaletatik kanpo ez zaielako jaramonik egiten.

Zenbait bake-prozesu *prozesuan zehar jarraitu beharreko jarraibide nagusiak*, eta ez azken emaitzaren xehetasunak, *zehazten dituen ibilbide-orri* bati esker hasten dira. Era horretako «ibilbide-orri» batzuek porrot egiten dute hasi eta berehala, ezinezkoa den amaierako erabaki edo hitzarmen bat zehazten saiatzen direlako hasiera-hasieratik, eta aldeetako batek ados ez egonik bertan behera uzten duelako proposamena, inposiziotzat hartuta. «Ibilbide-orriak» osatu beharreko bide orokorra besterik ez du izan behar, hau da, aldeek negoziatzeko izango duten esparrua, aztertu beharreko funtsezko gaiak, laguntzarako azpiegitura eta beharrezko autobidea. Hortaz, orri gutxiko dokumentua izango da, eskema baten modukoa, egingo dena eta nola egingo den zehaztuko dituen. Euskal Herrian, Ibarretxe Plana, adibidez, ez litzateke «ibilbide-orri» bat izango, bere azken edukian, baina, behar bada, 2002ko irailean planari buruz idatzitako lehen agiriak hartu zitezkeen halakotzat, edo 1998ko Ardanza Plana, esate baterako. Gauza bera esan daiteke beste proposamen batzuek ere: Erandioko Udalak 2002an «Topaguneak bilatuz» proposamena plazaratu zuenean, PSEk, IU/EBk, EAJk, EAK eta Batasunaren babesarekin, eta Batasunak 2002ko urtarrilean «Bake-eszenatokia Euskal Herriarentzat» dokumentua argitaratu zuenean, testuok ibilbide-orriaren aurreko proposamentzat hartu zitezkeen, hau da, geroago, beste alderdi politiko batzuekin eztabaidatu eta haien ekarpenekin osatuz gero, esparru garatuago bat osatzeko ekarpenentzat. «Ibilbide-orrien» gakoa ez datza, beraz, talde edo alderdi bakar baten adierazpena izatean –Euskal Herrian sei edo zazpi proposamen edo orri izan genitzake, bestela–, abiapuntu bateratua edo nolabaiteko adostasuna jasotzen duten testuak izatean, baizik.

«Ibilbide-orri» edo bake-proposamen batek ez du emaitzarik izango proposamena zeini zuzentzen zaion zehaztu ezean, edo aldeetako batzuek proposamenaren asmoa garbi ikusten ez badute. Ekimena ezin hobea izan liteke edukiari dagokionez, baina alferrikakoa gerta liteke komunikazioan kale egiten badu, edo funtsezko eragileren batek berari zuzentzen zaiola ikusten ez badu. Euskal Herrian, adibidez, zenbait proposamen abertzaleei bakarrik zuzentzen zaizkie, eta, halakoekin ezinezkoa da euskal gizartean behar besteko adostasunik lortzea, are gutxiago Espainiako gizartean. Beste proposamen batzuek Espainiako Estatuarekin bestelako

harremanak izateko ituna proposatzen dute, alde zurretik negoziatu ez diren proposamen oso zehatzen bidez –Ibarretxe Plana, adibidez–. Beste proposamen orokorrago batzuek, Espainiako gizarteari zuzentzen zaizkionak harekin itun bat lortzeko, ezezko biribila jasotzen dute –entzun edo irakurri ere egin gabe–, gorroto den eragile batek eginak direlako –Batasunak, adibidez–. Hemen, beraz, gako nagusia da jakitea «ibilbide-orri», plan edo proposamen baten helburua zein den: negoziatzea, ituna egitea, baten proposamena indarrez ezartzea, baten ikuspegia aditzera ematea, arerioa akuilatzea, arerioaren egoera zertan den ikustea edo harengana hurbiltzea. Gainera, «zer nahi dugun» eta «nori zuzentzen gatzaizkion» ez da oso garbi gelditzen proposamenaren testuan edo proposamena aurkezteko moduan, eta proposamen bezala aurkeztu arren, batzuetan aurkakoa bezala hartzen da, hau da, ekimen pozoitsu bat bezala. Laburbilduz, eraginkorra izango bada, «ibilbide-orri» batean edukiak ez ezik pedagogiak eta besteak erakartzeko ahalmenak ere garrantzi handia dute, eta, bestiere, gogoeta, interesa eta eztabaida eragin behar ditu hasieratik bertatik, eta ez, aldiz, haustura edo tirabirak.

«Ibilbide-orriak», negoziazioa lortzeko edozein estrategia bezalaxe, erabilgarriak dira ahalik eta zabalena diren heinean, hitz egiteko eta ideiak aurrez aurre jartzeko beldurra galtzen denean, ahalik eta adostasun zabalena lortzen saiatzen garenean, «arazo bat daukagu eta denon artean konpondu behar dugula» la onartzen denean –politikari ezin bada gizartean egin beharko–, eta proposamenak ahalik eta alderdi eta eragile gehien biltzen dituenen. Ez da barne-dokumentu bat, ez alde bat bakarrik pozteko dokumentua, ez eta beste alderdi guztiz onartezina zaion proposamena egiteko eta haren itxikeria eta egoskorkeria agerian uzteko idatzitako dokumentua ere, baizik eta oinarrizko gaiak eztabaidatzean bat-etortzeak bilatzeko ahaleginean malgutasunez eta argitasunez jokatu izanaren emaitza.

194

Euskal Herrian baliagarri izan litekeen «ibilbide-orri» batek alderdi bakoitzari bazterrezinak zaizkion osagai sinboliko eta funtsezkoak jaso beharko lituzke, eta horretarako elkar ulertu, elkarrekin moldatu eta bat-etortzeak bilatzeko ahalegina egin beharra dago, bestea ulertu eta gauza batzuetan amore emateko prest egonik, baina ordura arte erabilitakoez bestelako bitarteko, bide, adierazpide eta metodoak erabiliz. Zein da alde bakoitza, ordea? ETA eta Espainiako gobernuak, euskal gizartea, bateko zein besteko alderdi politikoak, espainiar gizartea?

Negoizazio batean era askotako alderdiak jorratu daitezke, eta gatazka bakoitzak bere ezaugarri bereziak ditu, beste edozein gatazkatakoak ez bezalakoa, antz handiak izan arren. Historiak, uneak, indar-korrelazioak, zilegitasunak, herriaren sentipenak eta beste aldagai askok baldintzatu egiten dute une jakin batean hizpide hartu beharrekoa. Euskal Herrian, adibidez, ETArekin negoziatu beharrekoa talde hori desegiteko baldintzak dira, nire ustez, eta negoziazio horren barruan presoan tratamendua sartu beharko litzateke, halaber. Legebiltzarreko alderdiekin, berriz, Batasunaren ondorengoak barne hartuta, oinarrizko gai politikoa eztabaidatu behar da, alegia, eskubidea izateko eskubidea, Euskal Herriak nahi duenari buruz eta nahi duen hori nahi duen moduari buruz galde diezaioten finkatu beharreko bermeak, alegia.

Ez dago konponbide magikorik edo emaitza ona ziurtatzen duen errezetarik, bai, ordea, gatazketan urtetan esku hartu ondoren bildutako esperientziatik ateratako hainbat aholku, ondo gogoan izan beharrekoak. Christopher R. Mitchell-ek³, adibidez, gatazka armatuei aurre egiteko bildutako esperientzia laburbildu du, gatazkek konpontzeko prozesuak errazteko hainbat gako edo giltzarri proposatuz, eta nire ustez baliagarriak direnez, gako edo giltzarri horiei buruz mintzatuko naiz jarraian. Hona oinarrizko gako horietako batzuk:

- Gatazken konponketa *epe luzerako prozesua* dela onartzea, eta, hortaz, egonarrria, irmotasuna eta ahalegin handia eskatzen dituela. Bake-prozesua eratzea bateraezina da hauteskunderen logikak berekin dakarren epe laburreko ikuspegiarekin edo presaka aritzearekin.
- Lehenago edo geroago, modu batera zein bestera, *alderdi guztiek* edo, bestela haien ordezkari zuzen zein zeharkakoek, funtsezko eztabaida eta erabakietan *parte hartu beharkodutela* ulertu behar da. Hortaz, hasieratik bertatik ondo zehaztu behar da zein diren gatazkako alderdiak, eta gatazkari indarkeriarik gabeko irtenbidea eman nahi dioten alderdien artean gorago aipatu dudak behar besteko adostasuna bilatu behar da, prozesuari boikot egiteko ahalmena duten eragileak zein diren ikusi eta prozesura erakarri behar dira, eta uneren batean kanpoan gelditu diren funtsezko eragileei lekua eman behar zaie prozesuan. Euskal Herriko gatazkan, hori guztia funtsezkoa da, proposamen gehienetan ez delako oinarritzat hartzen «behar beste alderdi edo eragile sartzea» prozesuan, eta funtsezko eragileak sartzea onartzen da, besterik gabe.
- *Prozesuak elkarreeragileak dira*, eta ekimenak proposatzea edo aurrea hartzea beti bestearen esku dagoeneko sentimendua ezabatu beharra dago, beraz. Bakea erakitzea bateraezina da etsaitasun irudiak edo «haien» eta «gure» arteko dikotomiak zabaltzen ibiltzearekin, erruduna beti bestea dela sinesteko jarrera patologikoarekin, edo aldatzeko proposamenak egin behar dituen eta fede ona erakutsi behar duena bestea dela uste izatearekin. Bakezko ikuspegi batetik arituz gero, beste aldeko buruzagiak guk nahi dugun norabidetik etortzeko, gure negoziatu nahiarekin fidatzeko eta seguru sentitzeko zer egin dezakegun pentsatu beharko genuke, adostasuna lortzera begira betiere. Proposamenak eta ekimenak bi aldetatik egin behar dira, beraz, eta etengabe aztertu behar dugu aurrea hartzeko zer-nolako ahalmen eta borondatea dugu, besteen atzetik ibili gabe.

195

Euskal Herriko gatazkari dagokionez, «20 zentimetroen metafora» erabili izan dut batzuetan. Eusko Legebiltzarrean, Talde Popularraren eta Batasunaren bulegoak elkarren ondoan daude, 20 cm-ko horma batek bananduta. Halere, urtetan bizilagunak izan arren, inor ez da gai izan gatazka konpontzeko ezinbestekoak diren bi eragile horien arteko inkomunikazio-etena zeharkatu eta besteari norberaren mezu, ikuspegi edo egitasmoen berri emateko. Izugarritzko oztopo ideologiko zein sentimentalak banantzen ditu bi taldeak, elkarren arteko distantzia fisikoa hain txikia izan arren. Bakea sortzea, ordea, hormak zeharkatzea, norberaren sentipenak gainditzea, bestearen arrazioak entzutea eta amore handia erakustea izan da beti.

Azken batean, «bake-prozesu» *deritzoguna, liskartuta dauden aldean arteankonpromiso bat lortzeko egiten den ibilbidea da*. Halere, ulertu behar da «alde liskartuen» artean ez dagoela talde armatua bakarrik, hura bazterrekoa eta ia inor ordezkatzeko ez duena izan daiteke eta, baizik eta konpondu beharreko arazoak dituzten sektore politiko eta sozialak, eta, hortaz, bake-prozesuaren bidez konponbide egokia eman behar zaie hasierako bateraezintasunei, konpromisoak betetz. Prozesua hasteko aurre-negoiazioa eta dauden aukeren azterketa egiten da, lehenik eta behin, jarraian negoziazio-faseari ekiten zaio, adostasuna eta hitzarmena datoz ondoren eta hitzarmena gauzatzea, azkenik. Hitzarmen idatzia, «bake-hitzarmen» deritzoguna, prozesu osoko etapa bat besterik ez da, eta etapa hori ez da argazkia egitean eta elkarri bostekoa ematean bukatzen, adostutakoa betetzean baizik.

Bake-prozesu bat bideragarria izango bada, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dira, haiek gabe ezinezkoa izango baita prozesuarekin jarraitzea, prozesu horretan hainbat

negoiazio egin baitaitezke denbora luzean zehar. Bake-prozesu batean murgiltzea ezin da erabili gerra beste bitarteko batzuekin egiteko amarru bezala, eta ez du izan zenbait potentzien presioaren ondorioz sortutako prozesu artifiziala, edo Gerra Hotzaren zein Irailaren 11ren ondoren inguruko erakundeek hartutako jarrerren emaitza ere. Horregatik, *bake-prozesu bati-kiteko beharrezkoak diren gutxieneko baldintza* hauek laburbildu ditut dekalogo moduan.

1. *Mintzakideen onarpen politiko implizitua* –hobe da esplizitua izatea, nahiz eta horretarako molde bihurri, diplomatiko, korapilatsuak edo iraganeko argudioak erabili–, besterik ezean, talde armatuaren bitarteko edo ordezkarien bidez.
2. *Erabateko segurtasuna* negoziatzaileentzat.
3. Adostutakoa beteko dela ziurtatzeko *bermeak*.
4. *Metagatazkari buruzko gutxieneko adostasuna* –arazo bat dugula onartzea..., aurre-negoiazioan arazo horren funtsa zehaztu behar den arren–, alegia, gatazkaren izaera argitzeko borondatea.
5. *Zerbaitetan amore emateko prest egotea*, beste aldearentzat funtsezkoa den gauzetan –negoiazio guztiek zerbaitetan amore ematea dakartela onartu behar da–.
6. *Prozesuan murgiltzeak zerbait berriaren eraikuntzan parte hartzeko aukera ekarrikoduela* ikustea argi eta garbi –esku hartzeko eta gauzak aldatzeko nahia–.
7. Prozesuan sartuz gero galtzeko baino *zerbait irabazteko* –norberarentzat eta besteentzat– *aukera* gehiago daudela ikustea argi eta garbi –prozesuan konfiantza izatea–.
8. Egindakoa norbere jarraitzailei zein besteei *azaltzeko modua izatea*, ez porrot edo apalkuntza bezala, ekarpen erabakigarri, eskuzabal eta lagungarri bezala baizik –komunikazio eta interpretazio ideologikoa kontrolatzea–.
9. Kanpotik *zorionak* jasoz gero, alde biek onartzea eta zorion horietan erabateko konfiantza izatea –kanpoko ekarpenak onartzea, hala badagokio–.
10. *Nork ordezkaturiko duen herriak berak, zuzenean, aukeratu behar duela* ulertzea –umil jokatzeko ordezkariak kontuetan, autokritika ohiko prozeduretan–.

Zuen esku uzten dut Euskal Herrian baldintza horietakoren bat betetzen ote den aztertu eta erabakitzea. Nire ustez, behintzat, oso urruti gaude bake-prozesu bati ekiteko gutxieneko baldintzak betetzetik.

Azken urteotan izandako edo aurki hastekoak diren *bake-prozesuak* aztertzen baditugu, prozesu horiek bost ataletan sailkatu ditzakegu, lortu nahi diren helburuen arabera. Lehen atalean borrokalari edo *soldaduak desmobilizatzea eta birgizarteratzea* da helburua, su-etena lortu ondoren, amnistia ematen da eta soldaduetako batzuk Gobernuaren indar armatuetan sartzen dira. Ondoren, pribilegio politiko edo ekonomiko batzuk ematen zaizkie desmobilizatutako taldeetako buruzagiei. Horixe gertatu da Angolako (Cabinda) FLEC-FA-Cekin edo Kongoko Ninja miliziekin. Zenbait eskakizun politikotan amore eman da kasu horietan, baina oso gutxi. Era horretako prozesuek ez dute oso egitura korapilatsua izaten: gizarte zibilak presioa egiten du eta hirugarren alderdi batek artekari lanak egiten ditu.

Bigarren aukera bat, maizago gertatzen dena, *botere politiko, ekonomiko edo militarra banatzea* da. Horrelako prozesuak askoz korapilatsuago, motelago eta zailagoak izaten dira, noski. Burundin, Boli Kostan, Kongoko Errepublika Demokratikoan edo Somalian horixe

gertatu da, desberdintasunak desberdintasun. Hirugarren atal edo aukera *trukean* oinarritzen da, hau da, bi aldeek zerbaitetan amore ematean. Atal horretan sartzen da gaur egun Ipar Korea eta Estatu Batuak liskartuta dituen gatazka, gatazka armatua ez den arren, tirabira militar handiko gatazka baita. Kasu horretan honetan datza trukea: Estatu Batuek Ipar Korea ez erasotzeko konpromisoa hartzen dute, eta Ipar Koreak, berriz, desnuklearizatzea. Atal honetan bigarren aukera bat dago, «bakea demokraziaren truke» deritzona, eta horixe gertatu zen Nepalen 2003ko lehen seihilekoan, kanpoko artekaririk gabe, gerri-lla maoistak alde guztiak barne hartzen zituen hauteskundeak eskatu baitzituen bakearen truke. Hirugarren aukera «bakea lurren truke» deritzona dugu, eta Israel eta Palestinaren arteko gatazka horren adibide dugu.

Truke-ereduaren barruan laugarren aukera bat dugu: *bakea eskubideak onartzearen truke*, autodeterminazio-eskubidea bereziki, eta hortxe kokatzen dira Euskal Herriko eta Irlandako gatazkak. Nabardura handiak ditu eredu horrek, kasuak oso desberdinak baitira batean eta bestean. Hala eta guztiz ere, tarteko egitura politikoak aipatu ditudan bezalaxe, kasu hauetan funtsezkoak dira «erabakiak hartzeko egiturak», alegia, lotesleak diren eta estatus politiko jakin batzuk aldatzeko aukera ematen duten erabakiak hartzeko behar bes-teko adostasunak hitzartzeko ahalmena. Ipar Irlandan, adibidez, aurrerapauso handia eman zen norabide horretan. Euskal Herrian, ordea, oraindik ez da horrelako prozesurik hasi.

Laugarren eredu *konfiantza-neurriak* ezartzean datza. 2002 eta 2003an, adibidez, Indiak eta Pakistanek hainbat ekimen bultzatu dituzte bien arteko tentsio nuklearra arintzeko. Bake-prozesuetan dugun bosgarren eredu, azkenik, *autogobernu-formulak* bilatzean datza, eta hemen sartzen dira Filipinak, Indonesia, Mendebaldeko Sahara, Sri Lanka, Sudan edo Senegal. Prozesu horietako gehienetan kanpo-arte-kari-ek hartu dute parte. Eredu horrek antza pixka bat du «bakea eskubideak onartzearen truke» ereduarekin. Lurren-erakizunei lotutako prozesuak, lurraldearen independentzia, autonomia edo autogobernua eskatuta ere, oso korapilatsu eta hauskorak izaten dira beti, eta autogobernu-eskari-
en protagonistak terroristatzat jotzeko estigma gainditu beharra egoten da, askotan.


Gizakiak gai izan dira gerra egiteko eta suntsipena ekartzeko ezin konta ahala bide eta modu asmatzeko. Hortaz, guk ere gai izan behar dugu bake-prozesuak eratzeko bide eta modu ugari sortzeko. Horretarako bost eredu nagusiez mintzatu natzaizue, baina askoz gehiago ere egon daitezke. Indarkeria gainditzeko gure ahaleginak adina eredu, bakea lortzea inolako azalpen edo ikuspegi politikok oztopatu ezineko betekizun morala dela ulertu eta etengabe liskarren aurrean ez etsitzeko egiten ditugun ahaleginak adina eredu, hain zuzen ere.


Hitzaldiaren inguruko oharrak

¹ Bake-prozesuen funtzionamendua hobeto ezagutzeko, ikus berriki argitaratu dudana liburu hau: *Procesos de paz y negociación en conflictos armados*, Paidós.

² El País, 2003ko irailaren 14a.

³ Christopher Mitchell, *Conflictos intratables: claves de tratamiento*, Gernika Gogoratu, 10. dok., 1997, 21 or.





Proposamen formalak. Bakerako Giza Eskubidearen aitorpen judikoa

JANUSZ SYMONIDES JN.

UNESCOren Giza Eskubideen eta Bakearen Dibisioko zuzendari-ohia

Janusz Symonides Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazioarteko Harremanetako katedraduna da. Honoris Causa doktorea Kanadako Sistemen Ikerketako Azterlan Aurreratuen Nazioarteko Institutuan. 1959an lizentziatu zen Varsovian, eta bere prestakuntza Hagako Nazioarteko Zuzenbideko Akademian eta Londresko University College-en osatu zuen. Irakasle bisitaria izan da Columbiako Unibertsitatean, Aditu Egoiliarra New York-eko East-West Security Studies Institute institutuan, eta era berean irakasle gisa jardun du Varsoviako eta Nicolaus Copernicus (Torun) Unibertsitatean, azken honen errektoreorde izanik.



CURRÍCULUM

Bete dituen karguen artean, honako hauek azpimarra daitezke: UNESCOren Giza Eskubideen eta Bakearen Dibisioko zuzendaria, Parisen (1989-2000), eta Poloniako Kanpo Arazoetako Ministerioko Aholkularitza Batzorde Juridikoko kide (2002).

Hainbat elkartetako kide da, hala nola, Zuzenbidearen Nazioarteko Elkarte, Bakeari buruzko Ikerketarako Nazioarteko Elkarte, Nazioarteko Azterlanen Elkarte, Pugwash, baita kontseilu editorial eta kontseilu zientifiko ugariren kide ere.

550 argitalpen baino gehiago kaleratu ditu, 35 libururik eta eskuliburu barnean hartuta, polonieraz, ingelesez, frantsesez, alemanez eta errusieraz, giza eskubideei, nazioarteko zuzenbidearen teoriari eta nazioarteko harremanei, itsas zuzenbideari, ingurumenaren babesari eta elkarte eta erakundeei buruz.

Sari eta golardo asko jaso ditu, eta honako hauek dira azpimarragarriak: Polonia Restituta Ordenaren Ofizial Gurutzea (1977), Polonia Restituta Ordenaren Komandante Gurutzea (1983).

LABURPENA

Bakerako Giza Eskubidearen errekonozimendu juridikoa ez da oraindik lortu. Errekono-
zimendu hori lortzeko bidea aspaldi hasi zen, besteak beste Gurutze Gorriaren 1969ko
Nazioarteko Batzarraren Istanbulgo Deklarazioan errekonozimendu horri buruzko zenbait
aipamen biltzen baitziren.

Horri dagokionez, honako hau da gako nagusia: zer egin daiteke Bakerako Giza Eskubide-
aren errekonozimendua lortzeko edo errekonozimendu-prozesu hori azkartzeko?

Galdera horri erantzuteko, Nazio Batuen Batzar Nagusiak horri buruzko deklarazioa egin
behar du, edo bestela Bakerako Giza Eskubidea eskubide konbentzionala dela hartu behar
da aintzat. 2003ko Afrikako Gutunerako Protokoloa horren aurrekaria dela esan dezakegu,
10. artikuluan bakerako eskubidea aipatzen baitu. UNESCOk, ordea, ez du horrenbesteko
zortzerik eduki errekonozimendu horri buruzko deklarazio bat lortzeko ahaleginetan.

Honako galdera hau egin liteke: zer aukera daude Nazio Batuak Bakerako Giza Eskubidea
legez sendotzeko prozesuan inplikatzeko? Erakunde hori osatzen duten estatuak dute erantzuna,
hots, estatu horiek garrantzizko deklarazioa edo hitzarmena prestatu eta onartzeko prest ote
dauden jakin behar da lehenik eta behin. Eta, esperientziaren arabera, aurreikustekoa da
estatu batzuk horren aurka egotea.

202

Nolanahi ere, nabarmentzeko moduko zenbait gertaera, hala nola 2008an Giza Eskubide-
en Deklarazio Unibertsalaren 60. urteurrena ospatzea, lagungarri gerta daitezke Bakerako
Giza Eskubideari lotutako ekimenen aldeko giroa sortzeko.

Laguntza handikoa gerta liteke, halaber, Bakerako Giza Eskubidearen aldeko Nazioarte-
ko Sarea sortzea. Nazioarteko Gorte Penalaren kasuan jarduten duenaren antzekoa izango
litzateke, eta jendea eskubide horrekiko kontzientziatzeko eta eskubide horren alde indar
handiagoa egiteko ahaleginak bateratu, koordinatu eta areagotzeko erantzukizuna har le-
zake bere gain. Bitartekotza-lana ere egin lezake, gobernu, eskualde-erakunde eta Nazio
Batuen artean.

Proposamen formalak. Bakerako Giza Eskubidearen aitorten judikoa

Bakerako giza eskubidearen legezko izaera eta edukia

Atariko oharra

Istanbulgo Adierazpenak, Gurezte Gorriak 1969an egindako 21. Nazioarteko Konferentzian onartuak, bake iraunkorrerako eskubidea giza eskubidetzat hartu zuen lehenengo aldiz. 1976an, Giza Eskubideen Batzordearen 5/XXXII Ebazpenak bakean bizitzeko eskubidea aldarrikatu zuen, honakoa esanez: «Gizaki guztiek nazioarteko bake-eta segurtasun baldintzetan bizitzeko eskubidea dute [...]». 1978an, Batzar Nagusiak, Gizarteak Bakean Bizitzeko Prestatzeari buruzko Adierazpenean, zera adierazi zuen: «1. Nazio guztiek eta gizaki guztiek, euren arraza, kontzientzia, hizkuntza edo sexua edozein dela ere, bakean bizitzeko berezko eskubidea dute. Eskubide horren errespetua, gainerako giza eskubideen errespetua bezalaxe, gizateria osoaren onerako da eta bete beharreko baldintza da, nazio guztiek, handiek nahiz txikiak, alor guztietan aurrera egin dezaten». Herrien bake-eskubidea Afrikako Giza eta Herrien Eskubideen Gutunak onartu zuen 23. artikuluan: «Herri guztiek bakerako eta nazioko nahiz nazioarteko segurtasunerako eskubidea dute».

203

1984an, Batzar Nagusiak bere egin zuen Herrien Bake-Eskubideei buruzko Adierazpena. Adierazpen horrek «handikiro aldarrikatzen du gure munduko herri guztiek bakean bizitzeko eskubide sakratua dutela» eta «handikiro adierazten du herrien bake-eskubidea babestea eta sustatzea edozein Estaturen funtsezko betebeharra dela». Tolerantziari buruzko Oinarrien Adierazpenak, UNESCOren Konferentzia Nagusiak 1995ean onartuak, zera aldarrikatzen du 1. artikuluko 1. paragrafoan, gizakiek «bakean bizitzeko eta diren bezalakoak izateko eskubidea» dutela.

Era berean, esan liteke nazioarteko zuzenbideko eta giza eskubideetako gero eta aditu gehiagok aintzat hartzen dutela bakerako giza eskubidearen kontzeptua¹. Hala ere, haren legezko izaera eztabaidagai dago oraindik.

Bakearen eta giza eskubideen arteko harremana

Bakerako giza eskubidearen oinarria, giza eskubideek eta bakeak lotura eta erlazio estua dutela eta interdependentek direla onartzea da. Bakearen eta giza eskubideen arteko lotura estu horiek Nazio Batuetako Gutunak aintzat hartu zituen, bere hitzaurrean zera adierazten baitu: «Guk, Nazio Batuetako herriok, ondorengo belaunaldiak gerraren azorriatik babes-teko [...] eta oinarrizko giza eskubideetan dugun sinestea berresteko erabakita [...]»

Giza eskubideen arloko nazioarteko tresnen analisiak egiaztatu egiten du nazioarteko komunitatearen uste sendoa: eskubideen errespetua bakearen oinarria dela. Beraz, ondoko esaldi hau: «giza familiako kide guztien berezko duintasunaren eta eskubide berdin eta besterezinen onarpena munduko askatasun, justizia eta bakearen oinarria da», 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren hitzaurrean jaso, beste bi hitzaurretan errepikatu

zen, hain zuzen ere 1966ko Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenaren eta Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmenaren hitzaurretan, hain zuzen. Hainbat tresnak azpimarratzen dutenez, giza eskubideen berariazko urratzeek, hala nola arraza-diskriminazioak edo apartheidak, bakea asaldatu eta nazioarteko segurtasuna mehatxupean jar dezakete².

Teherango Giza Eskubideei buruzko Konferentziako Adierazpena (1968) lehenengoa izan zen bakearen eta giza eskubideen erlazioaren beste dimentsioa jasotzen, aldarrikatu baitzuen bakea eta justizia nahitaezkoak direla giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak osorik betetzeko. Beste dimentsio hori islatu egin da gero Batzordeak Giza Eskubideei buruz onartutako hainbat ebazpenetan.

Alderdi garrantzitsu hori ahotara ekarri dute Nazio Batuek ere, pixkanaka onartzen ari baitira bakearen definizio positiboa, zeinen arabera, gerrarik ez izateaz gain, justizia soziala izatea ere izango bailitzateke. Gizarteak bakean Bizitzeko Prestatzeari buruzko Adierazpenak «bidezko bake iraunkor» delako esamoldea erabiltzen du, eta horrek, opresioetatik libre izateaz gain, nazio guztien garapena eta elkarlana ere adierazten ditu. Nazio Batuek 1981ean antolatutako giza eskubideen, bakearen eta garapenaren arteko erlazioari buruzko mintegiak, izenburuan bertan, hiru dimentsio horiei aldi berean eta sakon heldu behar zaiela erakusten du.

Vienako Giza Eskubideei buruzko Konferentzia (1993ko ekaina), beste gauza batzuen artean, garapenaren, demokraziaren eta giza eskubide guztiez baliatzearen arteko erlazioaz eztabaidatzeko antolatu zen. Konferentzia horrek onartutako Adierazpenak eta Egitamauk aipatzen dutenez, herri guztien helburua nazioarteko ordena bat lortzea da, hurrengo eskubide hauen errespetua eta sustapena oinarritzat izango dituen: guztion giza eskubideak, oinarritzko askatasunak, eskubideen berdintasuna eta herrien autodeterminazioa, baita bakea, demokrazia, justizia, berdintasuna, zuzenbide-estatua, aniztasuna, garapena, bizi-baldintza hobek eta elkartasuna ere³.

XX. mendearen bukaera aldera, nazioarteko komunitateak *giza eskubideen, bakearen, demokraziaren eta garapenaren artean dauden lotura estuak eta interdependentzia berretsi ez ezik*, sendotu eta aberastu ere egin zituen, dimentsio berriak emanda. 1990ko hamarkadan izandako mundu mailako konferentzietako eta goi-bileretako adierazpenek, programek eta ekintza-plataformek oso agenda anbigua sorrarazi zuten Nazio Batuentzat. Giza eskubide guztien garrantzia nabarmendu egin zen, eta *gizakiak nahiz giza beharrianak nazioarteko ekintza eta ahalegin guztien erdialdean kokatu ziren*. Giza eskubideen dimentsio berri hori, XXI. mendean onartzen eta aintzat hartzen diren kontzeptuetan islatzen da sinbolikoki, bereziki «giza segurtasun» eta «giza garapen» kontzeptuetan.

Bakerako giza eskubidearen edukia

Bakerako giza eskubidearen legezko edukia *dagoeneko existitzen diren hainbat giza eskubidek zehaztuta* dago, beste eskubide horien aplikazioak bakeari eusteko eta gatazkak nahiz indarkeria eragozteko eragin zuzena baitu. Hortxe ditugu, lehenik, gizakiak bizitzeko, askatasunerako eta segurtasunerako duten eskubidea, baita esklabutza eta morrontza kentzeko eta tortura eta tratamendu edo zigor anker, iraingarri eta jasangaitzak desagertzeko eskubidea, pentsamendu, kontzientzia eta erlijioaren alorretako askatasunak, baita soldadutzari kontzientzia-eragozpena adierazteko eskubidea, adierazpen-eta iritzi-askatasuna, bakean biltzeko eta elkartzeko askatasuna eta, azkenik, herritar guztiek beren lurraldeko gobernuko partaide izateko eskubidea ere.

Giza eskubideen alorreko agiriek zehatz-mehatz adierazten dituzten Estatuaren betebeharren artean, merezi du bereziki aipatzea legez debekatuta dagoela gerraren aldeko edozein propaganda egitea, baita diskriminazioa, etsaitasuna edo indarkeria bultzatzen dituen nazio, arraza edo erlijioen arteko gorrotoa sustatzea ere –Eskubide Zibilen eta Politikoen Hitzarmenaren 20. artikulua–. Estatuak bakearen aldeko heziketa ematera ere behartuta daude. Giza Eskubideen aldeko Adierazpen Unibertsalaren 26. artikuluan jasotzen denez, «Heziketak [...] nazio eta talde etniko nahiz erlijioso guztien arteko ulermena, tolerantzia eta adiskidetasuna erraztuko ditu eta Nazio Batuek bakeari eusteko jarduerak aurrera eramatea sustatuko du». Betebehar hori Heziketako Diskriminazioaren aurkako Konbentzioaren (1960) 4. artikuluan, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen gaineko Hitzarmenaren 13. artikuluan eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 29. artikuluan ere errepikatzen da.

Bakerako eskubideak ez dizkie Estatuari soilik betebeharrak inposatzen. Gizaki guztiak, onuradunak ez ezik, eskubide hori abian jartzeko eta betearazteko zordunak eta arduradunak ere badira. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 29. artikulua dioenez, «1. Gizabanako guztiak komunitatearekiko betebeharrak dituzte, komunitatean soilik garatu ahal baitute beren pertsonalitatea askatasunez eta osotasunez. [...] 3. Eskubide eta askatasun horiek ezin dira erabili, inondik ere, Nazio Batuen helburuen eta oinarrien aurka».

Nazioarteko Gorte Penalaren Estatutuak⁴, 2002ko uztailaren 1ean indarrean jarritakoak, zera adierazten du bere 25. artikuluan, «[...] pertsona batek erantzukizun penalak izango ditu eta zigortu ahal izango dute Gortearen eskumeneko krimen bat egiteagatik.» 5. artikulua azaltzen duenez, «Gortearen eskumena nazioarteko komunitate osoarentzat larritasunik handiena duten krimenetara mugatuko da». *Gortearen eskumena du genozidio-krimenen, lesa gizateriako krimenen, gerrako krimenen eta agresio krimenen gainean*⁵. Esan gabe doa krimen horiek zuzenean lotuta daude bakerako giza eskubidea urratzearekin.

205

Nola izan liteke bakerako giza eskubidea erabat loteslea?

Zein da bakerako giza eskubidearen estatus legala? Nazioarteko hainbat tresnatan adierazita agertzen da, nahiz eta tresna horiek lotesleak ez izan eta lege arineko kalifikazioa eman behar zaien. Gainera, dauden tresnetatik bat ere ez dago eskubide horretara erabat eta soilik zuzenduta, edo ez dute izenburuan ere jasotzen. Haietako batzuek bake-eskubidea gizakien banako eskubide eta herrien eskubide kolektibo gisa hartzen dute, nahiz eta giza eskubideek, izatez, gizakien eskubideetara mugatu behar lukete. Paradoxikoki, nazioarteko zuzenbidean, gizaldeko zuzenbidean eta giza eskubideetan formulatuta dauden eskubide horren oinarritzko elementuak lotesleak dira, izendatzaile komunak izaera hori ez duen bitartean. Beraz, ezinbestekoa da Estatuaren, nazioarteko erakundearen, jurisprudentziaren eta doktrinaren aldetik eskubide hori sendotzeko eta legeak jasotzeko prozesua azkartu eta indartzea. Hori lortzeko bidea arauak finkatzeko tresna konbentzionala ezartzea edo ohiturazko arau berri bat sortzea izan liteke.

Adierazpen Unibertsal ez-loteslea, Batzar Nagusiaren ebazpen gisa, bete beharrekoa izatera heldu zen, derrigorrezko izaera hori sendotu, praktikan jarri eta onartzeko prozesu baten ondorioz. Beste horrenbeste ikus daiteke garapenerako eskubideari buruz. Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena, Batzar Nagusiak 1986an onartua, hasieran gogor gaitzetsi eta zalantzan jarri zuten lurralde garatuenean. Hala ere, 1993ko Vienako Giza Eskubideei buruzko Konferentzian, eskubide hori legez loteslea zela onartu zen, adostasun orokor baten inguruan.

Zer egin liteke bakerako giza eskubidea legez onartzeko etengabeko prozesua sendotu eta azkartzeko? Era askotako urratsak eman litezke. Zalantzarik gabe, Batzar Nagusiak kontu horren inguruan adierazpen bat egitea oso lagungarria izan liteke. Adierazpenen ostean konbentzioak etorri ohi dira sarritan, Nazio Batuetako giza eskubideen praktikak erakusten duten bezala⁶. Ohiturazko prozesua ere sorraraz lezakete. Era berean, bakerako giza eskubideak izaera konbentzionala ere har lezake.

Aurrekari garrantzitsu bat Afrikako Batasunak planteatu du, 2003an Afrikako Gutunerako Protokoloa onartu baitzuen, bake-eskubideari buruzko artikulua batekin⁷. 2003ko abenduaren 4an, Ugandako Giza Eskubideen Batzordeak antolatutako Elkarrizketa Publikoan, ondorengo ebazpen hau onartu zen: «[...] bakea defenditu eta sustatzeko helburuz, eta Ugandan, hemen ordezkaturako Afrikako lurralde guztietan eta mundu osoan bake-kultura iraunkorra eraikitzeko helburuz, honen bidez berresten dugu beharrezkoa dela gure lurraldeetan eztabaida bat eta goi mailako elkarrizketak zabaltea, behar besteko laguntzak jaso eta Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari Nazio Batuetan Bakerako Giza Eskubideari buruzko Hitzarmen sendoa egotea premiazkoa dela adierazteko⁸». Bakerako giza eskubidea sendotzeko egindako elkarrizketa eta eztabaiden inguruan, UNESCOk egindako lan garrantzitsu baina «amaitu gabea» ere gogora ekarri beharra dago.

UNESCOren amaitu gabeko lana

UNESCOko Zuzendari Nagusi ohiak, 1997ko⁹ urtarrileko Adierazpenean, bakerako giza eskubideak aldarrikatzeko ideia proposatu zuen, etorkizun-sen handia erakutsiz. Garrantzizko ekimen hori testuinguru zabalagoan aurkeztu zen, UNESCOk bake-kultura sustatu eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. urteurrena ospatzeko antolatutako aktibitateen testuinguruan, hain zuzen. Garrantzitsua da azaltzea 1995ean, UNESCOren Konferentzia Nagusiak bake-kultura sustatzeko programa bat onartua zuela.

Batzar Nagusiak gogo onez hartu zuen UNESCOk «Bake-kultura baterantz» aurkeztutako diziplina arteko proiektua, eta adore eman zien lurraldeei, erregio-erakundeei, gobernu kanpoko erakundeei eta UNESCOko Zuzendari Nagusiari beharrezko ekintza guztiak aurrera eramateko, proiektu horren bidez bake, giza eskubide, demokrazia, nazioarteko ulermen eta tolerantziarako heziketa bermatzeko¹⁰. Urtebete geroago, Batzar Nagusiak berriro ere bake-kultura sustatzeko deia egin zuen, Nazio Batuen Gutuneko printzipioak, giza eskubideen errespetua, demokrazia, tolerantzia, elkarrizketa, aniztasun kulturala eta adiskidetzeari izango zituen bake-kultura sustatzeko deia hain zuzen. Hala, Batzarrak ikuspegi integrala eman zion indarkeria eta gatazkak eragozteko eta bakea sendotzeko baldintzak sorrarazteari¹¹.

Bakerako giza eskubidea aldarrikatzeko ideiak erantzun positiboa izan zuen eta eztabaidagai izan zen Las Palmasen, Espainian, 1997ko¹² otsailean izandako nazioarteko adituen bilera batean¹⁰. Bileraren bukaerako agirian, partaideek iritzi zioten bakerako giza eskubidea nazioarte mailan onartu, bermatu eta babestu beharra zegoela. Partaideek Zuzendari Nagusiari *Las Palmasko bileran hasitako lanari jarrai ziezaion* eskatu zioten, gai horren inguruko aurretiko adierazpena egin eta, 1998ko bezperan, Konferentzia Nagusiaren 29. bilera aurkezteko, urte horretan Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. Urteurrena beteko baitzen.

Eskubide horren ildotik, Oslon kokaturako Norvegiako Giza Eskubideetarako Institutuan 1997ko ekainean izandako bakerako giza eskubideari buruzko nazioarteko adituen bilera batek Bakerako Giza Eskubideari buruzko Osloko Aurretiko Adierazpena onartu

zuen, UNESCOren Konferentzia Nagusiak geroago bere egiteko helburuz¹³. Hitzaurrean, Adierazpenak Nazio Batuetako Gutunaren xedapen egokia, UNESCOren Konstituzioa eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aipatzen ditu. Esaten du bakea gizateria osoaren helburu bateratua eta gizaki guztiek lortu nahi duten balio unibertsala dela, eta bakerako giza eskubidea onartzeak bakeari dimentsio gizatiarra emango liokeela.

Aurretiko bertsio horrek dioenez, gizaki guztiek bakerako eskubidea dute eta gerra, gatazka armatuak eta indarkeria eskubide horrekin bateraezinak direla, eskubide hori estatu guztiek eta nazioarteko komunitateko gainerako kide guztiek bermatu, errespetatu eta aplikatu behar baitute. Adierazten du, gainera, gizaki guztiek, estatu eta nazioarteko komunitateko kide guztiek eta herri guztiek bakeari eutsi eta eraiki behar dutela, eta gatazka armatuak naiz era guztietako indarkeria eragoztera behartuta daudela; desarma sustatu eta bide zilegi guztiak erabili behar lukete edozein eraso-ekintzari aurre egiteko, baita bakea mehatxatzen duten giza eskubideen urratze sistematiko, masibo eta nabarmenei aurre egiteko ere. Horrela, bakerako giza eskubidea orokorki abian jartzeko bidea bake-kultura dela ulertzen da.

1997ko uztailaren hasieran, Zuzendari Nagusiak gutun bat igorri zien Estatu Kide guztietako agintariei, Osloko Aurretiko Adierazpenaren testuarekin, haien iritzia eta iruzkinak jasotzeko helburuz¹⁴. Zuzendari Nagusiak bakerako giza eskubideari buruz egindako txostena 1997ko urrian aurkeztu zen Konferentzia Nagusiaren 29. bileran. Konferentzia Nagusi horretan bi jarrera artikulatu ziren. Estatu gehientsuenek Osloko bileran onetsitako *Bakerako Giza Eskubideari buruzko Aurretiko Adierazpenaren oinarriak onartzea* proposatu zuten, eta ados jarri ziren Zuzendari Nagusiari gobernuetako adituen nazioarteko kontsulta bat antola zezan eskatzeko, Estatu Kideei onartzeko helburuz eman zekiekeen *testua hobetzeko* helburuz. Laurogeita hamaika estatuk onetsi egin zuten jokaera horren aldeko ebazpena¹⁵. Europako Batasuneko hamabost kidek, ordea, jarrera ezberdina hartu zuten. Lurralde horiek zuzenketa hau proposatu zuten¹⁶, «aurretiko adierazpenaren printzipioak onartu» jarri ordez, «aurretiko adierazpenaren azpiko helburua onartu» idaztea. Gobernuetako adituen arteko nazioarteko kontsultaren helburuei zegokienez, berriz, talde horrek «testua hobetzea» jarri ordez, «testua aztertzea» idaztea nahi zuen.

43. Konpromiso-Ebazpenak¹⁷ adierazten duenez, Konferentzia Nagusiak bat egiten du Aurretiko Adierazpenaren azpiko helburu eta ideiekin, eta Zuzendari Nagusiari gobernuetako adituen nazioarteko kontsulta antolatze eskatzen dio, gaia Konferentzia Nagusiaren 29. bileran egindako eztabaidaren bidetik eta estatuburuen eta gobernuburuen erreakzioen bidetik aztertzeko.

43. Ebazpenak aurreikusi bezala, Bakerako Giza Eskubideetako Gobernuetako Adituen Nazioarteko Kontsulta 1998ko martxoaren 5etik 9ra bitartean elkartu zen UNESCOk Parisen daukan egoitzan¹⁸. Zuzendari Nagusiak hasiera eman zion bilerari eta, bertan, Estatuei igorria zien Bakerako Giza Eskubidearen Aurretiko Adierazpena Bake-Kulturaren oinarri gisa aurkeztu zuen. Aurretiko bertsio horrek dagoeneko Estatu Kideen iruzkinak eta iradokizunak jasotzen zituen, Osloko bileran zirriborratutako aurretiko adierazpena gutunez jaso eta gero egindako erantzunetan jasoak.

Bileran izandako eztabaidagai nagusiak ondoko hauek izan ziren: bakerako giza eskubidearen izaera, haren definizioa, haren edukia eta irismena. Partaideek bat egin zuten Zuzendari Nagusiak hasitako prozesuaren azpiko helburu eta ideiekin. Aho bateko adostasuna egon zen giza eskubideen eta bakearen arteko lotura zatiezina dagoela esatean. Hirurogeita zazpi hizlarietatik gehientsuenek Aurretiko Adierazpenari ongietorria egin zioten eta bakerako giza

eskubidearen formulazio zehatza onetsi zuten arren¹⁹, baten batzuk, batik bat europarrek, euren gobernuen izenean, zalantzak eta zuhurtasuna adierazi zituzten bakerako giza eskubidearen definizioari eta eskubideari buruz, baita UNESCOk gai horren inguruko araudia finkatzeko izan zezakeen eskumenari buruz ere²⁰.

Kontsultaren ostean sortutako Erredakzio-Batzordea, Aurretiko Adierazpenaren testua lantzeko lanean ari zela, adostasuna bilatzen saiatu zen, egindako zuzenketak eta iradokizunak kontutan hartuko zituen konpromiso-testu bat egiteko. Aztertu ostean, adostasuna lortu zuen Aurretiko Adierazpenaren I. zatia hitzaurreko paragrafo guztietan. Hala ere, denborarik ez eta, Batzordeak ezin izan zuen II. zatia aztertu, eta kortxete artean geratu zen geroagoko egunen batean hartu zitekeen erabakiaren zain. Gauzak horrela, agiriari izenbururik ez ematea erabaki zuten.

1998tik hona, bakerako giza eskubidearen adierazpena lantzeko lana etenda geratu da, baina esan liteke UNESCOren agendan egiteke jarraitzen duela. Erakunde horrek bukatu gabeko lanak bukatu behar al lituzke? Bakerako giza eskubideari buruzko adierazpen bat egitea UNESCOren eskumena al da? Galdera hori erantzuteko irakur daiteke UNESCOren Konstituzioak, 1. artikuluan, bakea eta giza eskubideak uztartu egiten dituela, zera esaten duenean, «Erakundeak bakea eta segurtasuna lagundu egin nahi ditu, heziketa, zientzia eta kulturaren bidez nazioen arteko lankidetzara sendotuz, justizia, lege, giza eskubide eta oinarritzko askatasunetikiko errespetu unibertsala ziurtatzeko helbur [...]». Lotura hori Konstituzioaren Hitzaurreak ere azpimarratzen du, zera azpimarratzen baitu, «[...] gizateria justizian, askatasunean eta bakean heztea ezinbestekoa da gizakiaren duintasunerako eta nazio guztiek betebeharreko eginkizuna da [...]». Bakea eta segurtasuna laguntzeko helburu horrekin bat, UNESCOren Konferentzia Nagusiak 1974an bakerako heziketaren inguruko tresnarik osoena onartu zuen: Nazioarteko Ulermen, Lankidetzara eta Bakerako Heziketaren gaineko Gomendioak eta Giza Eskubide eta Oinarritzko Askatasunetarako Heziketaren gainekoak.

Bakean bizitzeko eskubidea indarrean jartzeko UNESCOk daukan eginkizun berezia Gizarteak Bakean Bizitzeko Prestatzeari buruzko Adierazpenak (1978) aintzat hartu zuen, bere III. zatian, 2. paragrafoan honako hau eskatzen baitzuen, «[...] Gobernuen, Nazio Batuen eta Agentzia Espezializatuen ekintza adostua, bereziki Nazio Batuetako Heziketa, Zientzia eta Kulturarako Erakundearena eta baita nazio mailako eta nazioarteko beste erakunde interesdun batzuen ere, direla gobernuetakoak direla gobernu kanpokoak».

Nazio Batuetako Idazkari Nagusiak, Bakerako Giza Eskubideetako Gobernuetako Adituen Nazioarteko Kontsultari eginiko mezuan, norabide horretan lan egiteko adorea eman zien partaideei, eta adierazi zuenez, «Atsegin dut bereziki bakean bizitzeko eskubidea oinarritzko giza eskubide gisa sortzearen lekuko izatea eta zuek zeuen elkarrizketetan eskubide horretan sakontzea. Zuen eztabaidetan ahalik eta arrakastarik handiena izatea eta bilera horrekin deontzako giza eskubide guztiak bermatzeko bidaian aurrerapausoa ematea opa dizuet²¹».

Azkenik, baina garrantzi gutxiago eduki gabe, Batzar Nagusiak, 1998ko azaroaren 19ko ebazpenean, Munduko Haurrentzako Bake eta Indarkeriarik gabeko Kulturaren Nazioarteko Hamarkada (2001-2010)²² aldarrikatu zuenean, birritan aipatu zuen eta dei egin zion UNESCOri Hamarkada aktiboki laguntzeko. *Horrek esan nahi du bake-kulturari lortutako ekintzek aurrera jarraitu behar zutela.*

Afrikako Giza eta Herrien Eskubideei buruzko Gutunerako Protokoloa Emakume Afrikarren eskubideei buruz. Urrats garrantzitsua bakerako giza eskubidea legez onartzeko.

2003ko uztailaren 11n, Afrikako Batasuneko Estatuburuen eta Gobernuburuen Batzarrak protokolo bat onartu zuen Afrikako Emakumeen Eskubideei buruz, Afrikako Gutunaren protokolo osagarria, hain zuzen. Aurretiko bertsioa Afrikako Giza Eskubideen Batzordearen ebazpenaren arabera egin zuten²³. Afrikako Gutunak 66. artikuluan jasotzen duenez, beharrezkoa izango balitz, bere xedapenak protokolo edo akordio bereziekin osatuko lirateke.

Garrantzitsua da esatea, lehenengo aldiz nazioarteko zuzenbidean, konbentzio baten testuak bakerako giza eskubiderik badela jasotzen duela. Hala, «Bake-Eskubidea» izenburuko.

10. artikulua zera adierazten du:

1. Emakumeek bakean bizitzeko eta bakea sustatzean eta mantentzean parte hartzeko eskubidea dute.
2. Estatu Partaideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte emakumezkoen partaidetza handiagoa bermatzeko hurrengo kontu hauetan:
 - a) bakean eta bake-kulturan hezteko programetan;
 - b) gatazkak saihesteko tokian tokiko, nazio mailako, erregioko, kontinenteko edo nazioarteko gestioetarako nahiz konponbideetarako egitura eta prozesuetan;
 - c) asilo-eskatzaile, errefuxiatu, itzultako eta desplazatuena-batez ere emakumezkoak direnean-babes fisikoa, psikologikoa, soziala eta legala bermatzeko tokian tokiko, nazio mailako, erregioko, kontinenteko eta nazioarteko erabakiak hartzeko egituretan.
 - d) asilo-eskatzaile, errefuxiatu, itzultako eta desplazatuena -batez emakumezkoak direnean kanpamenduak eta asentamenduak gestionatzeko finkatutako egituretako maila guztietan;
 - e) gatazken osteko berreraikitze eta birgaitze lan guztiak planifikatu, formulatu eta aplikatzeko alderdi guztietan.
3. Estatu sinatzaileek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte gastu militarra gutxitzeko, garapen sozialerako gastuaren mesedean orokorki, eta emakumezkoak sustatzeko gastuaren mesedean zehazki.

10. artikulua ez da bake-eskubidea oro har onartzera mugatzen, baizik eta haren edukia xehetasun handiekin azaltzen du. Bake-eskubideak barne hartzen ditu bakean bizitzeko eskubidea eta bakea sustatzean eta mantentzean parte hartzeko eskubidea. Hala ere, 10. artikulua, 2. paragrafoan, Estatu sinatzaileak emakumezkoen partaidetza gero eta handiagoa bermatzera behartzen ditu, hain zuzen ere ondoko kontu hauetan: bakean eta bake-kulturan hezteko programetan, baita asilo-eskatzaile, errefuxiatu, itzultako eta desplazatuentzako babes-sistema, kanpamendu eta establezimenduetako erabakiak hartzeko egituretan ere.

Bake-eskubidearen aplikazioan parte hartzearen garrantzia azaltzeko, esan liteke Protokoloaren helburuak emakumezkoen eskubideak sustatzea eta emakumezkoek nahiz gizonezkoek tratamendu berdina jasotzen dutela eta eskubide berdinak dituztela bermatzea

Nazio Batuetako arauak finkatzeko tresnarantz

Estatuek Batzar Nagusiaren ekintza arauemaile bat onartzeko aukera

Zer aukera dago Nazio Batuek bakerako giza eskubidea legez gauzatzeko prozesuan esku hartzeko? Galdera horri erantzuteko kontutan hartu behar dugu Batzar Nagusiak birritan, 1978an eta 1984an, gizakien eta herrien bake-eskubideak aipatzen zituzten adierazpenak onartu zituela. Zalantzarik gabe, horiek garrantzi handiko aurrekariak dira. Hala ere, gaur egun garrantzitsuena Estatuak adierazpen edo hitzarmen nabarmen bat onartzeko erakusten duten gertutasuna da.

Nazioarteko zuzenbidearen bilakaera berriaren gaineko analisiak baikortasunerako bidea zabaltzen du, baina tentuz. Azken hamarkada honetan subjektibotasuna eta gizabanakoen jarrera sendotu egin dira. Hainbat komunikazio-prozedura onartu da. Gizabanakoek sarbide zuzena dute Europako Giza Eskubideetarako Gortean. Nazioarteko Gorte Penala abian dago jada, eta gobernu kanpoko erakundeek nahiz gizabanakoek euren kezka eta informazio-eskariak aurkeztu ahal dituzte Fiskaltzan.

Nazio Batuak berregituratzeko eta aldatzeko elkarrizketa eta eztabaidetan, garrantziko eta nonahiko kontuetako bat Erakundeak gizabanakoen eta gizateriaren interesak nola izan behar lituzkeen kontuan asmatzea da. Ildo beretik, giza segurtasuna estatuz kanpoko protagonisten mehatxu asimetrikoek planteatzen dituzten erronka berriei buruzko gogoeta orokorraren barruko osagarri gisa sumatzen da. Terrorismoaren eta suntsipen masiboko armen ugaritzearen aurkako borrokan, lurreko minak eta arma txikiak ez dira ahazteko modukoak. Giza segurtasunaren kontua giza eskubideen ikuspegitik sumatzen da.

Aurrekari adoregarri horiek esan nahi ote dute Estatu guztiek gogoz onartuko dutela Nazio Batuen edozein proposamen edo ekintza bake-eskubideari buruz? UNESCOk 1990ko hamarkadan aurrera eraman dituen ekimenen esperientziak erakusten digu zenbait Estaturen oposizioa aurreikus daitekeela. Izan ere, Batzar Nagusiek bake-eskubideari buruz egin dituen bi adierazpenetatik bat ere ez da aho batez onartu²⁷. Gaur egungo nazioarteko egoeran, Irakeko eskuarte militarren ondoren, oso litekeena da Estatu Batuen, Erresuma Batuen eta Koalizioko beste lurralde batzuen oposizioa izatea. Eta litekeena da, eskuarte hori bakerako giza eskubideak urratu izanaren erakusgarri nabarmena delako, legez kanpoko eta alde bateko indarra erabiliz, Segurtasun-Kontseiluaren erabakia alde aurretik aintzat hartu gabe.

Hala ere, badirudi lurralde gehienak bakerako giza eskubidearen aldekoak direla. Afrikako Batasunaren bilakaera berriak, eskubide horri lehentasunezko tratamendua ematen dion Protokoloa onartu izanak, eta baita Asiatik eta Latinamerikatik datozen ahotsek itxaropenerako bidea zabaltzen dute. Horrenbestez, Estatu gutxiengoaren oposizioa aurreikusitako arren, aukera handiak daude Batzar Nagusiak arauak finkatzeko tresna bat onartzea. Hala ere, horrelako tresna bat adostasunez lortzeko ahaleginak, gaur egun, nahikoa irrealistak dira.

Nazio Batuetako zein organok esku har lezake arauak finkatzeko tresna bat prestatzeko?

Bakerako giza eskubidearen aldeko ekimenetarako giro aproposa sortzen lagun lezaketen gertakariak edo «uneak» bilatuz gero, aipa genezake, lehenengo eta behin, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena (2008). Nazio Batuetako agendan bakerako giza eskubidea sartzeko aukerak lotuta daude Munduko Haurrentzako Bake eta

Indarkeriarik Gabeko Kulturaren Nazioarteko Hamarkadarekin, 2010era arte abian egongo baita. Idazkari Nagusiari eskatu zioten Hamarkadaren erdialdean, 2005ean, egindako aurrerabideari buruzko txostena aurkezteko, eragile guztien ekarpenak jasota. Helburu horrekin deitutako Konferentziak aukera ezin hobea emango die Estatuei, gobernuetako eta gobernu kanpoko erakundeei nahiz beste protagonista batzuei Erakundea kontu horretaz ohartarazteko.

Hala ere, ekimen horien azken helburua Batza Nagusiak tresna arauemaile bat prestatu eta onartzea baldin bada, *ez da helburu hori lortzeko modurik izango, Nazio Batuetako giza eskubideen inguruko makineria osoa erabili gabe*. Horrek esan nahi du Giza Eskubideen Batzordeak edota Giza Eskubideak Sustatzeko eta Babesteko Azpibatzaordeak aurretiko bertsio bat prestatu behar izango duela, edo bestela erakunde horiek lantaldeak ere eratu ahal dituzte aurretiko bertsioak lantzeko. Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak eta Batzar Nagusiko Hirugarren Komiteak ere parte har lezake prozesu horretan. Aurretiko bertsioak egiteko ekimenak hainbat aldetatik etor litezke: NBEko organoetatik, barne hartuta Idazkari Nagusia, ki-deak, behatzaileak, gobernu kanpoko erakundeak eta baita banakako adituak ere, Azpibatzaordearen kasuan.

Egia da Nazio Batuetako giza eskubideetako organoetan oposizioa dagoela giza eskubide gehiago onartzeko. Askok zalantzan jartzen dute nazioarteko komunitateak bere katalogoaren zabaltze «horizontala» behar ote duen, eta azpimarratzen dutenez, arreta handiago jarri beharko litzateke dauden eskubideak sendotzean, hau da, garapen «bertikalean». Hori ulertzeko kontuan izan behar da Giza Eskubideen Batzordea gaur egun lanean ari dela dauden giza eskubideen inguruko hitzarmenak osatzeko protokolo gehigarriak lantzen. Tes-tuinguru horretan, garrantzitsua da azaltzea bakerako giza eskubidea eskubide autonomo eta «berria» dela, baina aldi berean, ikusi dugun bezala, izendatzaile komuna da, lehendik dauden giza eskubideen orokortzea da. Bereziki, gizakiek bizitzeko, askatasunerako eta segurtasunerako duten eskubidearen bilakaeratzat har liteke.

Giza Eskubideen Batzordeak aztertu egin zuen gizaki guztiei dagokien bizitzeko eskubidea, Eskubide Zibilen eta Politikoaren Nazioarteko Hitzarmenaren 6. artikulua jasotzen duen bezala. 6. artikuluari buruz 1982an egindako iruzkin orokorrean zera azaldu zuen Batzordeak, besteak beste: «[...] Interpretazio murriztailerik eman behar ez zaion eskubidea da. Batzordeak ikusten du gerra eta bestelako bortxa masiboko ekintzak oraindik azorria direla gizateriarentzat eta urtero milaka gizaki errugaberen bizitzak sakrifikatzen direla. Nazio Batuetako Gutunak debekatu egiten du edozein Estatu beste Estatu baten aurka mehatxua egitea eta indarra erabiltzea, bidezko defentsarako berezko eskubidea erabiltzean izan ezik. Batzordeak uste du Estatuak gerrak, genozidio-ekintzak eta bizitzak era arbitrarioan galtzea eragiten duten bestelako indarkeria masiboko ekintzak eragozteko beharra daukarela²⁸». Horregatik hain zuzen, arauan finkatzeko tresna berri batek Eskubide Zibilen eta Politikoaren Nazioarteko Hitzarmenaren protokolo osagarri baten itxura har lezake.

Ekintza arauemaile mota guztiak aztertu eta jarraitu beharko liratekeen arren, hitzarmen bat egiteko aukera barne, ekimen horien emaitzarik errazena adierazpen bat egitea dela dirudi. Adierazpen hori, tresna ospetsu eta formala izanik, Batzar Nagusiaren ebazpena izango litzateke, baina bere legezko ondorioak eta bakerako giza eskubidea aintzat hartzeko prozesuan izango lukeen eragina, erredakzioaren arabekoak izango dira. Estatuarentzat loteslea ez izanik ere²⁹, Nazio Batuentzat bete beharrekoa izango da, beraz, Nazio Batuetako sistema osoaren gainean bakerako giza eskubideari lotutako betebeharrak ezar litezake. Beraz, estatuarentzat derrigorrez bete beharrekoak ez izan arren, eskubidea aplikatzeko neurri zehatzak hartzera behartu ahal izango ditu.

Gobernuz kanpoko erakundeen eta gizarte zibileko eragileen sare bat osatzea, ezinbesteko baldintza bakerako giza eskubidea legez onartzera zuzendutako ekintzetan arrakasta izateko.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala idazten ari zenean, aholkulari-estatusa zuten hamabost bat GKEk prozesuan parte hartu zuten. Giza eskubideen aldeko mugimendu indartsua ia lurralde eta erregio guztietan sortu izana gure garaiko ezaugarritzat har liteke, eta giza eskubideen unibertsaltasunaren ebidentziarik onena. GKEen eginkizuna nabarmen zabaldu da azken hamarkadetan.

Gobernuz kanpoko erakundeek parte hartzen dute Nazio Batuetako arauak finkatzeko ekintzetan eta erakunde erregionaletan. Ekintza arauemailetan eragina izan dezakete bai presioa eginez, bai aurretiko erredakzio-prozesuan zuzenean parte hartuz, baita arauak finkatzeko tresnak prestatzeko eta eztabaidatzeko hitzaldietan eta lantaldeetan ere, haien eza-gupenak aportatuz edo testuak proposatuz. Zenbait kasutan, gobernuz kanpoko erakundeek aurretiko erredakzio-prozesuari ekin izan diote. Hala, GKE askok tresnak lantzeko esku hartu dute, hala nola: Haurren Eskubideetarako Hitzarmena (1989), Torturari buruzko Nazioarteko Konbentzioa (1984), Emakumeen aurkako Indarkeria Desagertzeko Adierazpena (1993) edo Erljioan edo Sinesmenetan oinarritutako Intolerantzia eta Diskriminazio Mota guztiak Desagertzeko Adierazpena (1981).

GKEen lankidetzaren garrantzia, baita gobernuen gaineko presioa ere, Lurreko Minei buruzko Hitzarmena eta Nazioarteko Gorte Penalaren Estatutua onartzeko onartzerakoan ikusi ahal izan da. Azken kasu horretan, Nazioarteko Gorte Penalerako Koalizioa eratzea faktore erabakigarria izan zen Estatutua ezartzeko. Koalizioa ia 2.000 erakundez osatutako sare zabala bilakatu da, gobernuz kanpoko erakundeen, nazioarteko adituen eta gizarte zibileko beste taldeen artean, Estatutua lantzeko partaidetza aktiboa izan duena. Sare horrek bere oinarriaren sostengu indartsua mugiarazi du Nazioarteko Gortearen alde. Koalizioaren ikuspegi anitzak barne hartzen ditu, besteak beste, kontzientziazio publikoa eta hezigarria eta Erromako Estatutua mundu osoan onartu eta berrestea sustatzea. Zuzendaritza-Batzorde³⁰ informal batek gidatzen du Koalizioa.

Nahiz eta gobernuz kanpoko erakunde, erakunde pribatu, fundazio eta espezialista askok bakerako giza eskubidea sustatzeko parte hartu izan duten, aurrerapauso garrantzitsua izan liteke Bakerako Giza Eskubidearen aldeko Nazioarteko Sare bat eratzea, Nazioarteko Gorte Penalarekin jarduten duena bezalako sarea hain justu. Sare horrek ahaleginak harmonizatu, koordinatu eta indartu egingo lituzke, eta kontzientzia publikoa handitu eta eskubide horren aldeko sostengu zabalagoa lortu ez ezik, gobernuen, erregioetako erakundeen eta Nazio Batuetako sistemaren arteko bitartekari-eginkizuna ere egin lezake. Giza Eskubideak Sustatu eta Babesteko Azpibatzerdeko lanean eta Giza Eskubideetarako Batzordearen lanean zuzenean parte hartzea, baita bakeari eta giza eskubideari buruzko hitzaldietan parte hartzea ere, aukera ezin hobea izan liteke bakerako giza eskubidearen aldeko presioa egin eta hainbat ekimen, proiektu eta testu aurkezteko. Era berean, Sareak elkarlanean jardun lezake bakearekin harreman estua duten giza eskubideen aplikazioa ikuskatzeko hitzarmenek sorrarazitako organoekin.

Azkenik, baina garrantzi gutxiago izan gabe, *azken gertakariak erakutsi dute bakerako giza eskubidea urratzeak zigor soziologikoa eragin dezaketela*, iritzi publikoaren erreakzio negatiboa, nazioarteko harremanetan indarra eta indarkeria legez kanpo eta alde batez erabiltzeko debekua hautsi duten hainbat lurraldetan ondorioak izan dituen. Arlo hori ere garrantzi handikoa izan liteke Sarearentzat.

Hitzaldiaren inguruko oharrak

¹ Bakerako giza eskubidearen aldeko adituen zerrendak hurrengo hauek barne hartzen ditu: Ph. Alston, C. Bay, J. M. Becet, M. Bedjoui, A. Boltineau, A. A. Caçado Trindade, K. Drzewicki, N. Ecobescu, A. Eide, G. Fillibeck, A. P. Flores, H. Gross Espiel, P. Hamilton, A. Łopatka, S. Marks, F. Mayor, A. Michalska, A. Nastaze, I. Nguema, D. Roche, J. Sandorski, J. Symonides, K. Tomaszewski, D. Uribe Vargas, K. Vasak eta beste asko.

² Edonolako Arraza-Diskriminazioa Desagertzeari buruzko Nazioarteko Biltzarraren Hitzaurreak (1965) eta Apartheid Krimena Desagertu eta Zigortzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioarenak (1983).

³ Horrek jarraitu egiten dio Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren ildoari: «1. Gizaki guztiek eskubidea dute Adierazpen honetan aldarrikatutako eskubide eta askatasun guztiak erabat gauzatuko diren ordena soziala eta nazioartekoa ezartzeko».

⁴ <http://www.un.org/law/icc/statute/rome.htm>

⁵ Gortearen Estatutuak azaltzen duenez, erasotzeko krimenaren gaineko eskumena erabiliko du 121 eta 123. artikuluen arabera xedapena onartutakoan, xedapen horrek krimenaren definizioa egin eta Gorteak krimenari dagokion eskumena erabili ahal izateko baldintzak zehaztu egingo baititu.

⁶ Hala nola Edonolako Arraza-Diskriminazioa Desagertzeari buruzko Adierazpena, Emakumeen aurkako Diskriminazioa Desagertzeari buruzko Adierazpena eta Haurren Eskubideen Adierazpena, guztien ostean konbentzioak etorri baitira.

⁷ Horren inguruko xehetasunak daude agiri honetako 3. zatian.

⁸ <http://www.upeace.org/news/index>.

⁹ Giza Eskubideen Adierazpen UNESCOko Zuzendari Nagusi, Doc. SHS-97/WS/6.

¹⁰ 1995eko abenduaren 22ko 50/173 Ebazpena: «Giza Eskubideen inguruko Heziketarako Nazio Batuen Hamarkada: Bake-kultura baterantz».

¹¹ 1996ko abenduaren 12ko 51/101 Ebazpena, «Bake-kultura».


¹² Nazioarteko zuzenbidearen eta giza eskubideen alorretako 30 aditu ospetsu bildu zituen, Nazioarteko Justizia-Gorteko epaileak barne: M. Bedjaoui, Algeria; R. Ranjeva, Madagaskar; A. Caçado Trindade Amerikako Justizia-Gorteko epailea; I. Nguema, Gabon, Afrikako Giza Eskubideen eta Herrien Batzordeko Lehendakaria; E. Roucouas Irakaslea, Grezia, Nazio Batuetako Nazioarteko Zuzenbiderako Batzordekidea; eta Dr. A. Eide, Norvegiako Giza Eskubideetarako Institutuko Zuzendaria. Bileraren bukaerako agiriaren testua Zuzendari Nagusiak bakerako giza eskubideari buruz egindako txostenari erantsita dago, Konferentzia Nagusia, 29. bilera, Paris 1997, 29C/59 dok., 1997ko urriaren 29koa, I. Eranskina.

¹³ *Ibid.* II. Eranskina

¹⁴ Zuzendari Nagusiak 44 erantzun jaso zituen. Gehienetan, Estatu Kideak bat etorri ziren ekimenarekin. UNESCOk adierazpen hori jasotzea Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. urteurreneko ospakizunari egindako ekarpen garrantzitsutzat hartu zen. Estatu Kideek aldaketak iradoki edo zuzenketak proposatu egin zituzten. Lau Estatu Kidek soilik adierazi zituzten erreparorak.

¹⁵ Konferentzia Nagusia, 29. bilera, V. Batzardea, 29 C/COM.V/DR.3 dok., 1997ko urriaren 29koa.

- ¹⁶ 29C/COM.V/DR.5 dok., 1997ko azaroaren 4koa.
- ¹⁷ 154EX/40 dok., I. Eranskina. Ebazpena 27. osoko bilkuran onartu zen, 1997ko azaroaren 12an.
- ¹⁸ Kontsulta horretan 117 Estatu Kideetako gobernuetako ordezkariak parte hartu zuten, baita Palestinako eta Vatikanoko behatzaileak ere.
- ¹⁹ Ikusi Zuzendari Nagusiaren txostena Gobernuetako Giza Eskubideetako Adituen Nazioarteko Kontsultaren emaitzei buruz, 154 Ex/40 dok., Paris, 1998ko apirilaren 17koa.
- ²⁰ Partaide guztiak ados etorri ziren kontsultaren bidez prestatuko zuten Aurretiko Adierazpena, gehien bat, tresna etikoa izango zela esatean.
- ²¹ 154 Ex/40 dok., IV. Eranskina, p. 1-2. orr.
- ²² Nazio Batuak, Batzar Nagusia, A/RES/53/25 dok., 1998ko azaroaren 19koa.
- ²³ Afrikako Batasunerako Erakundeko Estaturuuen eta Gobernuburuen Batzarrak, 1995eko ekainean egindako 31. bilera arruntean, berretsi egin zuen gomendio hori AHG/res. 240 (XXXI) ebazpenaren bidez.
- ²⁴ Merezi du aipatzea Afrikako Gutunak, 23. artikuluan, zera adierazten duela: «Nazio Batuetako Gutunak inplizituki baieztatutako eta Afrikako Batasunerako Erakundeak berretsitako elkartasun eta lagunarteko harremanetarako oinarriak Estatuaren arteko harremanak arautuko dituzte.
- ²⁵ 26. artikuluko 2. paragrafoak adierazten duenez, Estatu Partaideek «beharrezko neurri guztiak jarriko dituzte indarrean eta, bereziki, diru nahiz bestelako baliabideak jarriko dituzte hemen onartutako eskubideak erabat eta eraginkortasunez gauzatzeko».
- ²⁶ Zuzendari Nagusiak Bakerako Giza Eskubideari buruz egindako txostena, Konferentzia Nagusia, 29. bilera, Paris 1997. 29C/59 dok., 1997ko urriaren 29koa, III eta IV. Eranskinak.
- ²⁷ 1978an, Gizarteak Bakean Bizitzeko Prestatzeko Adierazpena bi abstentziorekin onartu zen: Estatu Batuen eta Israelena. Abstentzio gehiago egon zen 1984an, Herrien Bake-Eskubideari buruzko Adierazpena 34 abstentziorekin onartu zenean –mendebaldeko lurraldeenak bereziki–.
- ²⁸ Testua: HRI/GEN/1/Rev. 4 dok., 85.orr.
- ²⁹ H. Gross-Espiel, *The International Implementation of the Human Right to Peace*, Dialogo, *The Human Right to Peace: Send for a possible future*, 21. zbk., Ekaina, 1997, 23.orr.
- ³⁰ J. Scheuse, *Necessary Steps for the Creation of the International Criminal Court*, Fordham International Law Journal, 25. bol, 2002ko martxoa, 3. zenbakia, 717. orr.; R. S. Lee (ed.), *The International Criminal Court*, Transnational Publishers, Ardsley 2001, p. LXV.



Bakerako Giza Eskubidearekin zerikusia duten eragile nagusientzako proposamenak

ANA ISABEL PRERA AND.

Bake Kulturarako Nazioarteko Fundazioaren zuzendari nagusia

Anaisabel Prera Flores-ek Merkataritza Zuzendaritzako eta Artearen Historiako Doktorego ikasketak egin ditu. Abokatua eta Notarioa da, eta Irakaslea honako gai hauetan: Merkataritza Zuzenbidea II, Zuzenbide Zibila I eta Jurisprudentzia Analitikoa.

Era berean Bake Kulturarako Nazioarteko Fundazioaren zuzendari nagusia da, eta Nazio Batuen Bakerako Unibertsitateko Kontseilu Betearazleko (1999-2004) eta Erromako Klubeko kidea.

Unescoren Bake Kulturantz Programaren koordinatzaile nagusia izan da (Paris, 1994-1999), UNESCOren Latinoamerikarako eta Kariberako zuzendari nagusiaren aholkulari berezia, aldi berean zehar, eta UNESCOren Kontseilu Betearazlearen presidenteordea (1990-1993).

Guatemalan, Guatemalako Errepublikako Kongresuko Diputatua eta Kultura batzordeko Presidentea izan da (1990-1994), Guatemalako Kultura eta Kirol Ministroa (1986-1990) eta Guatemalako Erakunde Judizialaren eta Justiziako Gorte Gorenaren idazkari nagusia (1986).



CURRÍCULUM

Hainbat saiakera eta artikulu argitaratu ditu, eta honako hauek azpimarra daitezke: *The Right to Food and the Culture of Peace*, *Philosophie de la Culture de la Paix*, *Los Nuevos Rostros de la Esclavitud*, *Cambios etno-sociales y políticos en Guatemala*, *Los efectos de las privatizaciones y los Derechos Humanos*, *La Cultura de Paz*, *un Nuevo Contrato Moral de la sociedad*, *El refugiado: contexto y condiciones para el retorno*, *Reflexiones para la Conceptualización de una Cultura de Paz*, *Solidaridad y Cultura de Paz*.

LABURPENA

Bakerako Giza Eskubidea *sine qua non* baldintza da demokraziak, garapenak eta giza segurtasunak gizaki «guztien» bizitza eta duintasuna bermatzeko lehentasuneko eginkizuna bete dezaten. Eskubide hori gizateriari datzekio, baina Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean ez dago aintzat hartuta, ezta 1966ko itunetan ere; alabaina, indarkeria inoiz ez bezala igo da, eta, horri aurre egiteko, inperatibo etiko eta politikoa da gaur egun.

Azken urteotan, gatazka armatuak eta indarkeria, oro har, hazi egin dira, nola kopuruari dagokionez, hala krudelkeriari dagokionez; hainbat adibide aipa genitzake: lehengo hainbat estatu ahuldu eta zatikatzea eta biztanleria-masa handiak guztiz pobretzea; «aurpegiarik gabeko botere» ugari sortzea, Estatuarekiko alternatiboak direnak eta gerran eta kontrolean oinarritutako politikei eusten dietenak, nazioz gairikiko monopolioen bitartez, «gerra prebentibo» gaitzesgarria justifikatzeko eta oinarritzeko segurtasunari maila globalean eusteko tresna gisa, hori guztia kohesio sozialeko gune tradizionalak –hala nola, familia eta lana– desegituratzera iritsi arte, familia barneko, eta gazte-nahiz eskola-arloko indarkeria sortuz. Horrek guztiak indarkeria-agertoki berriak sortu eta areagotu ditu. Panorama hori kontuan izanik, Bakerako Giza Eskubidea eta Bake Kultura egungo norabidea aldatzeko proposamena eta alternatiba dira biak ere.

218

Zeintzuk dira Bakerako Giza Eskubidearen eragileak eta zer proposamen egin daitezke gaur egun, etorkizunari begira?

Nazio Batuen Erakundea, nazioarteko eta eskualdeko elkarte eta erakundeak, nazioz gairikiko korporazioak, botere mediatikoa eta teknologia berriak, gizarte zibil antolatua eta munduko herritarra dira bakerako giza eskubidearen nazioarteko eragile nagusiak.

Bestalde, estatuak, erakunde nazionalak, gizarte zibila, erabaki politiko, sozial eta ekonomikoak hartzen dituztenak, eta herritarra dira bakerako giza eskubidearen nazioarteko eragile nagusiak, udal-kontseilu, alkate, eliza, armada, sindikatu, unibertsitate eta abarrekin batera.

Eragile horiei guztiei hainbat iradokizun egiten dizkiegu, bakerako giza eskubidea egia bihurtu dadin; esate baterako, gatazken jatorrian sakontzea, bakearen zatiezintasuna errespetatzea, garapenik eta demokraziarik gabe bakea lortzea ezinezkoa dela onartzea, bakearen prebentzio-lanak zeregin eta eginkizun nagusia izan behar duela. Gerra-ekonomia gaitzetsi eta zigortua izan dadin. Bakearen balioak zabaldu eta horien alde egiteko bitarteko pribilegiatu izaki, kultura-aniztasuna eta hezkuntza errespetatzea.

Bakerako Giza Eskubidearekin zerikusia duten eragile nagusientzako proposamenak

Bakerako Giza Eskubidea *sine qua non* baldintza da demokraziak, garapenak eta giza segurtasunak gizaki «guztien» bizitza eta duintasuna bermatzeko lehentasuneko eginkizuna bete dezaten. Diego Uribe Vargas-en esanetan, «sintesi-eskubidea» da; izan ere, eskubide hori gauzatu ezean, gainerako prerrogatiba indibidualek ez dute gauzatzeko aukerarik. Eskubide hori gizateriari datzekio, baina ez dago aintzat hartuta, ez Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean, ez 1966ko itunetan ere, eta 3. Belaunaldiko eskubidetzat hartzen da. Alabaina, indarkeria inoiz ez bezala igo da, eta, horri aurre egiteko, inperatibo etiko eta politikoa da gaur egun.

Azken 10 urteotan, gatazka armatuak eta indarkeria oro har hazi egin dira, nola kopuruari dagokionez hala krudelkeriari dagokionez; tentsio eta interes berriak sortu dira, indarkeriaren erabilera areagotu egin dutenak; edo planetako leku askotan ezkutuan zeuden eta jaramonik egiten ez zitzairen edo isilpean zeuden gatazkek piztu dira. Horri dagokionez, hainbat adibide aipa genezake: lehengo hainbat estatu ahuldu eta zatikatzea eta biztanleria-masa handiak guztiz pobretzea; «aurpegirik gabeko botere» ugari sortzea, Estatuarekiko alternatiboak direnak eta gerran eta kontrolean oinarritutako politikiei eusten dietenak, nazioz gaindiko monopolioen bitartez, «gerra prebentibo» gaitzesgarria justifikatzeko eta oinarritzeko segurtasunari maila globalean eusteko tresna gisa; herri askorekiko eta haien baliabide naturalekiko nagusitasun kolonialista, baita era guztietako trafikoen inguruan sortzen diren mafiak ere; nazioarteko terrorismoa hein handi batean bultzatzen duen estremismo erlijiosoa, etnikoa edo nazionalista; kohesio sozialeko gunek tradizionalak –hala nola familia eta lana– desegituratzea, familia barneko eta gazte- nahiz eskola-arloko indarkeria sortzen duena. Horren guztiaren eraginez, indarkeria-jokaleku gehiago sortu dira, pertsonen bizitza, duintasuna eta segurtasuna arriskuan jartzen dituztenak. Eta horiek funtsezko baldintzak dira tokiko gobernagarritasunerako eta gobernagarritasun nazional eta globalerako, baita demokraziak aurrera egiteko eta garapena luzarokoa izateko ere.

219

Panorama hori kontuan izanik, Bakerako Giza Eskubidea eta Bake Kultura egungo norabidea aldatzeko proposamena eta alternatiba dira biak ere. Ezinbestekoa da gaur egun bizi dugun indarkeria-inertzia, bestela bideratzeko modua aurkitzea, irudimenez, buru-argitasunez eta irmotasunez, baita inertzia horri bestela heltzeko modua aurkitzea ere. Era berean, ezinbestekoa da «beste mundu bat posible da» goiburua biltzen duen itxaropena utopia hutsa ez izatea. Aldiz, laster gauzatu beharreko errealitatea izan behar du, gure sormenari eta ikuskera politikoiari esker.

Bakean bizitzeko eskubidea nazio, herri eta gizabanako guztien nahia da. Hala ere, zergatik gertatzen da kontrakoa errealitatean? Zergatik gizakiok ez dugu lortzen gerra eta indarkeria saihestezintzat, eta are gehiago, giza izaeraren berezkozat jotzen dituen manipulazio historikoaren aurka egitea? Hainbat mendetan, «bakea nahi baduzu, presta ezazu gerra» dioen leloa onartu dugu. Izen handiko egileek ere, Mohammed Bedjaoui-k esaterako, honako galdera hau plazaratzen dute: «Ez ote da ameskeria hutsa bakea eskubide bihurtu

nahi izatea gizakia gerrari beti ekin eta ekin diharduen artisaua dela jakinik?». Gizakia oro har ez da gerraren «artisaua», baizik eta gerraren tresna izan ohi da.

Badirudi gatazka gure izaeraren zati dela, eta gizakiek gerran dihardute, baina, paradokiko, aldi berean hiltzeko lizentzia ohore-kode moduko baten eraginpean jarri nahi dute, hain zuzen ere nazioarteko eskubidean txertatutako eta gatazkak humanizatzeko helburua duen ohore-kode modukoaren eraginpean, indarkeria armatuko egoeren biktimen babesa eta laguntza bermatuz. Eta Bedajouik honako galdera hau plazaratu du berriz ere: «Nola humanizatu edo gizatiartu berez gizatiarra ez dena?». Eta are gehiago: «Zergatik ez kokatu gerra legez kanpo?». Nire ustez, galdera horrek garbi erakusten du nazioarteko eskubideak zergatik ez duen bakerako berezko eskubidea aintzat hartu. Bakerako eskubidea onartzen bada, bakea eraiki eta ahalbidetu egin behar da. Gerrak ezabatzea da helburua, baina helburu hori oraindik ere urrun dago legegileen borondatek.

Indarkerian, gerran, inposizioan, botere-anbizioa arrazoiari gailentzen zaio, atabismo primarioaren arabera menderatu nahi izaten da boterea. Indarrez inposatzeko ez da beharrezkoa izaten irudimenez edo sormenez jardutea; inposizioa «monokromatikoa» da, lineabakarrekoa, zuria ala beltza. Horregatik, autoritarismoaren eredu kulturalak uniformeak dira.

Gerrak suntsitu egiten du, ez du eraikitzen, gizartearen oinarri moralak ahuldu, eta, ondoren, banaketa eta tentsio iraunkorrak eragiten ditu (Joan Paulo II.a).

Gerra luze eta araurik gabe orok Zuzenbide Estatuak galbideratu eta hondatzen ditu azkenean: *Inter arma, silent leges*.

Hala ere, bakean «alteritaterako» borondatea dago, kidesun-sentimendu bat, berehala «beste» tartean hartzen duena; hortaz, «beste» dagoeneko ez da «aurkari» gisa agertzen, baterako eraiketako solaskide gisa baizik. Bakeak interpretazio-kode konplexuagoak ditu. Gatazkei aurre egiteko, sormena, irudimena, eskuzabaltasuna, ahalegina eta ziurtasuna eskatzen ditu. 1938an Ortega y Gassetek adierazi zuenez, «Gerrak eskatzen duen ahalegin handia saihesteko modu bakarra honako hau da: bakea ahalegin are handiagotzat hartzea, zailtasun handiko ahaleginen sistematza[...]. Bestea akats hutsa da. Bestea bakea hutsune soiltzat hartzea da, gerrak, desagertuko balitz, utziko lukeen hutsune soiltzat, hain zuzen ere; hortaz, honako hau kontuan ez hartzea da: gerra egiten den zerbait bada, bakea ere egin behar den eta fabrikatu behar den zerbait da».

Bakerako eskubidea sustatzeak, nolabait ere, eskubide guztien errespetua ziurtatzen du; izan ere, indar-erlazioen ordez lankidetz-erlazioak ezartzen dituen gizartea eraikitzea errazten du, betiere guztien ongiari begira.

Zeintzuk dira Bakerako Giza Eskubidearen eragileak eta zer proposamen egin daitezke gaur egun, etorkizunari begira?

Orain arte bakerako eskubideari buruz idatzi den guztia bakea nazioartean formalizatzerantz bideratu da. Adibidez, bakerako eskubideak subjektu ugari dituela nabarmendu da –gainerako elkartasun-eskubideek bezalaxe, hala nola garapenerako eskubideak–: gizabanakoak, herriak, Estatuak, baita gizateria guztia ere.

Las Palmaseko nahiz Osloko Deklarazioek adierazten dutenez, Estatuak, gizabanakoak, nazioarteko erakundeak –gubernukoak nahiz gobernuz kanpokoak–, entitateak eta bizitza sozialeko gainerako eragileak dira eskubide horren eragileak.

Asdrúbal Aguiar-ek adierazi duenez, eragile sozial orok du bakea susta dezaketen prebentzio-, mantentze- eta eraikitze-zereginetan laguntzeko betebeharra gutxienez, baita gatazka

armatuak zein gainerako indarkeria moduak saihestekoa ere. «Bereziki armagabetzea sustatzea dagokie, baita bitarteko legitimo guztien bidez giza eskubideen aurkako eraso-ekintzei eta urraketa sistematiko, masibo eta ageri-agerikoen aurka egitea ere (izan ere) ekintza eta urraketa horiek bakea arriskuan jartzen dute». UNESCOren deklarazioa.

Nazioarteko eragileak

A) 1945ean Nazio Batuen Erakundea sortu zen, bakea eta munduko potentzien arteko oreka lortu eta bakeari eta ez-erasotze belikoari euts diezaiekeen nazioarteko bizitza publikoko eragile nagusi gisa. Nazio Batuen Gutuna hitzaurrean ezartzen duenez, «Guk, herriok [...] hurrengo belaunaldiek gerraren lazgarrikeria jasan dezaten saihestea erabaki dugu [...]».

Gerra bakoitzaren ondoren beste ordena bat ezartzeko proposamena egiten da beti, bertan balioak, printzipioak eta nahiak bilduta, gatazkan aritutako alderdien interesak adostearren. «Gerra hotzaren» ondoren, ez zen ondorengo hori betetzeko ideiarik proposatu. Ezereza izan zuen aurrekari. Eta «globalizazioak» bete zuen, gutxi batzuei mesede egin dien eta askoren kalterakoa izan den globalizazioak bete ere. Berlingo harresiak eta sobietar sistemak porrot egin zutenetik, NBEren zereginak inoiz baino garrantzitsuagoa izan behar zuen bakearen eraikuntzari dagokionez, baina pixkanaka urritu eta ahuldu egin zuten, bai baliabideei dagokienez, bai erabaki politikoak hartzeko ahalmenari dagokionez, eta, azkenean, baztertuta geratu zen «gerra prebentiboan» eta Irakeko inbasioan.

Gure ustez, sortu zenean oinarritzat hartu zituen printzipioei heldu behar die berriz ere NBEk. Hain zuzen ere, printzipio horiek honako honetan biltzen dira: bakea eraikitzea eta bakeari eustea izateko arrazoitzat zuen –eta oraindik ere baduen– nazioarteko erakundearen sistema. Eta, hori oinarritzat hartuta, sistema berria berrikusi eta birsortu egin behar du, XXI. mendeko erronkei erantzun diezaien.

221

Testuinguru horretan, bakerako giza eskubidea nazioarteko ordena berria eraikitzeko baliorik eta eskubiderik garrantzitsuentzat hartu beharko litzateke. Nazio Batuek eskubide hori Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako Deklarazio batean bil dadin onartzea eta aldarrikatzea sustatu behar lukete Estatu Kideetan, Gizarte Zibilaren laguntzarekin. Eta horren ondoren, dagokien legedietan txertatzea. Eta UNESCOn bil zezaten ahalegindu ginen 1997-99 aldian. Zoritxarrez, gerra-ekonomia ordurako errotuta zegoen planetako herrialde aberats eta hegemonikoen anbizio politikoetan. UNESCOko kideak diren Estatu gehienak bakerako giza eskubidea aintzat hartzeko saiakeraren alde agertu ziren, baina saiakera hori neutralizatu egin zen. Hala ere, gaur egun, nazioarteko ordena ezegonkorra askotan hausten eta urratzen dela kontuan izanik, eskubide horrek garrantzi handia hartu du, eta premiazkoa da.

Nazio Batuen Sistemaren Erreforma inoiz baino premiazkoagoa da gaur egun. Horri buruzko hainbat ekimen dago. Alde batetik, NBEren Idazkari Nagusiak batzorde bat sortu du, mundu mailako izen handiko hainbat pertsonak osatua.

Bestetik, orain dela 3 urte baino gehiago gizarte zibilak Erreformari buruzko kontsultakantapaina bati ekin zion, «Ubuntu» izeneko sareen sarearen bitartez, Erreforma zer eta nola egin behar den aztertzeko. Erreforma horrek nazioarteko harremanetan etika-kode jakin batzuk sortzea biltzen du batez ere, nola estatuei hala multzo ekonomiko handiei dagokienez. Nazioarteko erakundearen sistema errotik aldatzeko munduko kanpaina horren arabera, premiazkoa da erreforma hori egitea:

- a) planetako biztanleen zati handi batek jasaten duen pobrezia ezabatzeko, pertsona bakoitzaren duintasunarekin bat datozen bizi-baldintzak ziurtatzuz;
- b) bakea eta segurtasuna bermatzeko, justizian, askatasunean eta giza eskubide indibidual eta kolektiboak baliatzeko aukera besterenezinean oinarrituta;
- c) ingurumena eta kultura-aniztasuna zaintzeko eta giza garapen ekitatibo eta iraunkorrerako bidean aurrera egiteko;
- d) gaur egun garapen solidario eta bidezkoa eragozten duten desoreka sozial, ekonomiko eta politikoak saihesteko

Horretarako, ezinbestekoa da:

- a) Globalizazioa gobernatzea, nazioarteko erakundeen sistema demokratiko, koherente, arduratsu eta eraginkorraren bidez.
- b) Munduko herritarrek erabakitze globaleko prozesuetan parte hartzea, beren bizitzetan eragin handia duelako, eta bake-kulturari begira munduko herritartasuna eraikitzeko oinarria ezartzearen.

B) 60ko eta 70eko hamarkadetatik aurrera, lehen integrazio-prozesuak agertu ziren, eta, horiekin batera, *nazioarteko eta eskualdeko elkarteak eta erakundeak* sortu ziren, hala nola Asean erakundea, Erdialdeko Amerikako Merkatu Batua, Europako Ekonomia Erki-degoa, MERCOSUR erakundea, Europako Parlamentua, Parlacen Erdialdeko Amerikako Parlamentua, Latinoamerikako Parlamentua, etab. Erakunde horiek guztiek funtsezko protagonismoa dute bakerako giza eskubideari dagokionez.

222

C) Aldi berean, politika neoliberaletan, halabehar globalizatzailaren izenean, Estatu nazionalei beren subiranotasunaren zati bat kendu zieten botere pribatuei emateko –batzuetan edozein Estatuk baino indar handiagoa zuten–, eta horrela gauzatu zen Estatuaren boterearen transferentzia. *Korporazio transnazional* handiak sortu ziren eta erabaki garrantzitsuak hartzen hasi ziren mundu osoan, batez ere interes pribatuan oinarrituta eta ez gizartearen interes orokorrean oinarrituta. Ekonomia «merkatu libre» izenekoaren mende geratu zen eta aberastasunaren banaketan, bizi-ohituretan eta harreman sozial, juridiko eta politikoen kodeetan eragiten hasi zen, baita horiek guztiak aldatzen ere. «Merkatua» helburu gisa, ez bitarteko gisa. Dena pribatizatu da. Pribatizazioa muturreraino eramane da: zerbitzu publikoak, segurtasuna, armadak, osasuna, hezkuntza, etab., baita politika eta politikariak ere; horiek modu askotan pribatizatu dira, alderdien eta hautagaien hauteskunde-kanpainak diruz lagunduta batez ere.

Egoera izugarri honda daiteke; izan ere, aberastasunaren banaketa eta herri eta giza-banako guztien parte-hartzea modu demokratiko eta bidezkoan azkar aldatzen ez bada, desestabilizazioak eta kaosak kolokan jarri eta ondoren suntsitu egin ditzakete boterearen oinarria diren egungo egiturak. Gaur egun, inoiz baino gehiago, gizaki bakoitzaren etorkizuna bere parekoen etorkizunari guztiz loturik dago. Eragin orok du kausa bat. Ekintza orok erreakzioa. Beharrezkoa da nazioartean arau etiko eta juridikoak sortu eta aplikatzea Bakerako Giza Eskubidea gauza dadin, herritar bakoitzari eta gizarte bakoitzari dagokienez.

Gaur egun ez dugu legitimitaterik, ez legezkotasunik, eta Irakeko egoeraren ondorioz, ezta sinesgarritasunik ere. Mendebaldeak duen gauza bakarra honako hau da: nagusitasuna gerrarako teknologiaren arloan. Hala ere, oker daude armak eta efektibo militarrek areagotuta bidegabekeria, marjinalitatea eta gosea ezabatzea lortuko dutela uste dutenak.

Ez dugu segurtasunean, beldurrean eta kontrolean oinarritutako bakerik, bakean, justizian, askatasunean eta denon ongizatean oinarrituriko segurtasuna baizik.

D) Bestalde, *botere mediatikoa*, «merkatu librearen» korrante horren barruan, enpresa bihurtu da pixkanaka, iritzi publikoa informatzeko eta prestatzeko lanbide garrantzitsua bazter uzteko joerari eutsiz. Luzaroan irrikatutako «adierazpen-askatasuna» ekonomia-aren munduan murgilduta eta bahituta geratu da. Eman nahi den eta merkatuan saltzen den informazioaren berri besterik ez da izaten. Hainbat komunikabide nazioz haraindiko enpresak dituzten botere berberen eskuetan dago, eta beren interes pribatuen arabera manipulatzeko dute informazioa.

Aditzera eman beharra dago Latinoamerikako egunkarietako editoreek eta zuzendariak, UNESCOren babespean Puebla Mexikon elkaturik (1997), egindako deklarazioa: «gizarteetako barne-harmoniarako eta nazioek modu baketsuan elkar ulertzeko beharrezkoa da informazio- eta iritzi-gardentasuna, desadostasunak gainditzearren eta akordioak erakitzearen». Deklarazio horrek garbi erakusten du komunikabideek zeregin garrantzitsua dutela bakearen eta bakerako giza eskubidearen eraikuntzan.

Etika profesionalak gizarte zibilak sustatu beharreko eskakizuna izan beharko luke.

Zeintzuk dira sare sozialarentzat gaur egun iraultza informatikoak dituen ondorioak, gutako bakoitza hainbat eta hainbat lekualdatze birtualetako motor ibilge bihurtzen gaituen iraultza informatikoaren ondorioak, alegia?

Informatika, bitarteko gisa eta ez helburu gisa, hartarako sarbidea izateko pribilegioa dutenengana denboran eta espazioan hurbiltzen gaituen tresna da. Alabaina, gero eta hesi handiagoa eraikitzen ari da bi munduren artean, ziberaberatsen eta ziberpobreen munduen artean, hain zuzen ere. Gaur egun «analfabetismo informatikoa» terminoa erabiltzen dugu.

E) Mundializazioak ez ditu bakarrik eraginpean hartzen ordenagailuak, telekomunikazioak, finantza-merkatuak eta krimen antolatua; izan ere, ez da birtuala soilik. Mundualizazioak *munduko kide izateko sentimendua* ere eragiten du, baita elkarrekiko mendetasuna ere. Horregatik, gertakarien mundualizazioak borondateen mundualizazioa eragiten du. *Gizarte zibilaren* eta nazioarteko elkartasun-mugimenduen goraldia dira horren erakusgarri. Horren ondorioz, XXI. mendeko eragile berria sortu da: gizarte zibil antolatua eta horren sareak. Gizarte zibil hori egiten ari da XXI. mendeko Lehen Iraultza, globalizazioaren aurkako «Beste Mundu bat Posible» da izeneko mugimenduaren bidez.

Gizarte zibila oso zeregin garrantzitsua egiten ari da nazioarteko jokalekuan, gizabako eta elkarte gisa zuzenean edo zeharka eragiten diguten egoerei erantzutearren jendea mobilizatzeko duen ahalmenaren bitartez. Mugimendu hori besteak beste Seattle, Davos, Washington, Praga eta Porto Alegre hirietan hasi zen, eta eztabaidatu nahi ez ziren gai ugari nazioarteko agendan txertatzea lortu du.

Demokrazia herria da, herritarrok gara. Herriak deuseztatu egin dira pixkanaka. Alabaina, egoeraz jabetu direnean, eta indarkeriarik eza erabiliz, herrien ahotsa mundu osoan entzun da. Zeregin garrantzitsua izan dute «Irakeko gerrari ez» goiburuko mugimenduan. Horren adibide dira 2003ko otsailaren 15ean antolatutako martxa eta 2004ko martxoaren 14ko Espainiako hauteskunde-eguna; izan ere, martxa horren eta hauteskundeetan adierazitako borondatearen bitartez bakerako giza eskubidea baliatu eta defendatu zuten.

F) Munduko herritartasuna: honako hauei aurre egiteko: ekonomia-, finantza- eta komunikazio-arloko erakundeen bat egite handien fenomenoari; Estatuaren eta Gobernuko

Nazioarteko Erakundeen etengabeko ahultzeari; lehiakortasun insolidarioak eta arrakasta edozein preziotan lehenesten eta sustatzen duen balio etikorik gabeko kultura homogeneizatu eta globalaren presentzia handiari; baita gero eta indar handiagoa duen robotizazio masiboari ere. Izan ere, robotizazio horren ondorioz, gizarte garatuetan, eragileak izan ordez, gero eta joera handiagoa dugu ikusle hutsak izateko, eta, gainera, desberdintasuna eta bazterkeria gero eta azkarrago areagotzen ari dira, gizateriaren zati handi baten deskalkifikazioan oinarrituta.

Modu batean edo bestean, denok sentitzen dugu «globalizazioaren» botereak gure nortasuna arriskuan jartzen duela. Errealitate horri erantzuteko, gizabanakoak bi jarrera hartu ditu: edo bere nortasuna babesten duten baina tokikoa eta unibertsala osagarriak izan daitezkeela ulertzeko ikuspegi kosmopolita edukitzea eragozten dioten «nazionalismoetan» babestu da, edo antolatu egin da bere ahotsa entzunarazteko.

Otsailaren 15ean munduko demokrazia berriaren erlojuek herri guztien ordua eman zuten eta munduko demokrazia eraikitzeke lehen urratsak egin ziren. Demokrazia hori unibertsalki onartutako balio ez-iragankorretan oinarrituta dago, tokiko sistema demokratikoen eta nazioz gaindiko oligokraziaren –gaur egun botere hegemonikoa dela esan daiteke– artean gaur egun dagoen kontraesan handia saihesteko. *Egun hartan jabetu ziren herritarrak eta gobernuak nazioarteko jokalekuan lehen aldiz sortzen ari dela munduko herritartasuna.*

Munduko herritartasun horren nolabaiteko heldutasunaren emaitza izan zen, giza eskubideen eta bakean nahiz demokrazian oinarritutako hezkuntzaren hedapenak eman ditudun kontzientzian oinarrituta. Teknologia berrien bitartez azkar mundializatzen den gizarte zibilaren emaitza izan zen; izan ere, teknologia horiek egoki erabiliz, gizarte zibila giza aurrerapena ematen ari zaio «globalizazioa» deiturikoari. «Beste mundu bat posible da» goiburua inguruan Porto Alegren hasitako mobilizazioaren emaitza izan zen: bakea, justizia eta askatasuna denontzat, ez gutxi batzuentzat. Manifestazio horrek, halaber, Kantek 1795ean «Betiereko Bakea» izeneko proiektuan amestu zuena adierazten du. Izan ere, Kanten hitzetan, herritartasun kosmopolita –«munduko herritarrak», alegia– bakea bitarteko gisa baino helburu gisa lortu nahi izatean oinarritzen da; izan ere, gerraren arbuioa printzipio moral batean oinarritzen da.

Historiaren bilakaera alda dezaketen herrien bizitzan eta adorean dago itzaropena, hainbat gobernarik, herriei jakinarazi gabe, munduari inposatu nahi dioten bilakaera gauza ez dadin.

Bestalde, munduko herritartasuna planetako gizarte berria –gizarte berri horrek arazoak maila globalean ulertzen dituzten buruzagiak behar ditu– eratzeko ezinbesteko fenomeno gisa sortu da.

Buruzagitza globalik ez dagoenez, gaur egun, gobernatzen den mundua ezagutu eta ulertu gabe hartzen dira mundu mailako erabaki politikoak. Ezin dugu aldatu ezagutzen ez duguna. Munduko buruzagiak munduko aniztasun kultural, sozial eta politikoaz jabetuta dagoen eta aniztasun hori errespetatzen duen munduko herritarra izan behar du.

«Zibilizazioen arteko talka» gertatzeko aukerak beldurra eragiten du, baina hori gertatzea ezinezkoa da munduko herritarrek aldi berean tokiko mailan eta maila unibertsalean badihardute. Kontzientzia unibertsal hori sozietate planetarioan oinarrituriko mugimendua da eta bakearen kulturaren aldeko mugimenduaren zati da, gizateriaren elkartasun moral eta intelektualari lehentasuna ematen dion mugimenduaren zati, hain zuzen ere.

Maila nazionaleko eta tokiko mailako eragileak

Estatuak, erakundeak, gizarte zibila, eragile politiko, sozial eta ekonomikoak, eta herritarra.

Hobbes gure gizarteetako batera etorriko balitz, eredu gehiago izango lituzke Leviatan obrarako, bereziki XXIV. kapitulurako. Izan ere, «Estatua ahultzen duten edo desegite-ra bultzatzen duten barne-arrazoiak» landu zituen kapitulu horretan. Errealitateak fikzioa gainditu du, eta gaur egungo esperientziak garbi erakusten du Estatuak huts egiten duenean bizitza oso «bakarti, pobre, desatsegin, zakar eta labur» bihurtzen dela.

Estatuak politika nazionalen arduradunak dira eta nazioarteko eremu eta erabakiekiko duten mendetasuna gero eta handiagoa da, gero eta deszentralizatuago daude eta egin dizkieten pribatizazioek gero eta gehiago ahultzen dituzte. Aldi berean, beren herritarren aurrean gutxieneko demokrazia, garapena, bakea eta segurtasuna bermatzeko ardura dute, eguneroko gobernarritasunerako behar den kohesio sozialari eusteko.

Bakerako giza eskubidea konstituzioetan bildu beharko litzateke eta Estatuak zeharkako politika egin beharko luke jardun publiko guztiak eskubide horren eraginpean jartzeko, Osloko Deklarazioak nabarmentzen duenaren arabera: «[...] Konstituzio-, legegintza- eta administrazio-arloko neurriak, maila ekonomiko, sozial eta politikoan eta irakaskuntzaren, zientziaren eta hezkuntzaren esferan».

Estatuek ezin dituzte xahutu oraindik dituzten baliabide oparoak. Nola liteke herrialderik pobreenek, maileguz bidez, beren herritarrak suntsitu eta hiltzeko armetan inbertitzea, garapenean, hezkuntzan eta osasunean inbertitu beharrean? Ez dago gerra-ekonomiarik gerrarik gabe. Gerra eta indarkeria soziala dira edozein gizarte pobretzeko biderik eraginkorrena.

Maila nazionalean, garrantzitsua da *parlamentuen* zeregina; Konstituzioan oinarrituta bakerako giza eskubidearen espiritua txertatuta egin beharko lituzkete legeak, legedi nazionalean baliabideak banatzeko bidezko arauak txertatzea sustatzearen, hezkuntzaren, osasunaren eta lan duinerako aukeraren bitartez. «Gerra ezabatzea, eta horren ondorioz bakerako eskubidea konstituzio bidez egiaz zaintzea, nire ustez, etorkizuneko bakezaletasunaren emaitza izango da» (Jiménez de Parga, 1998). Eta, ondoren, hau adierazi zuen: «Gerrak ezabatu egin behar dira, errotik kendu. Bakerako eskubidea gaur egun inork zalantzan jartzen ez dituen oinarrizko eskubideen zerrendari gehituko zaio etorkizunean»:

Botere Judiziala, udal-kontseiluak, alkateak, elizak, armadak, sindikatuak, unibertsitateak, etab., denak dira bakerako giza eskubidearen eragileak, eta horren arabera jardun beharko lukete.

Herritarra, bere eguneroko portaeran, adostasuna edo desadostasuna balio jakin batzuen bidez adierazita: tolerantzia, elkarriketa, elkar ulertzea, bakea, askatasuna, berdintasuna. Balio horiek ez dira dohain bat; zeregin pertsonal eta besterenezina dira. Erantzuna ez dago kanpoan. Gutako bakoitzaren baitan dago, herritar bakoitzaren baitan.

Indarkeriari oro har uko egiteak gizarte osoaren konpromisoa eskatzen du; ez da gobernuari dagokion gaia, Estatuari baizik; ez da agintari jakin batzuei dagokien gaia, herritar guzti-guztiori dagokigun gaia baizik.

Bakerako giza eskubidearen eragileentzako *iradokizun orokorrak*, eragile horiek beren testuinguru sozialean duten egoera eta posizioa edozein izanik ere:

- a) Indarkeria eta gatazkak eragiten dituzten *arrazoietan sakontzea*, indarkeriaren kultura osatzen duten faktore konplexu eta askotarikoak aztertu eta konpontzeko, betiere kultura horren ordez «bakearen kultura» ezartzearen. Ortega y Gassetek «gatazkak eta indarkeria geldiarazteko ahalegina ez ezik, horiek eragiten dituzten gaitzei errotik erasotzeko ekimenak sustatzekoa ere» gomendatzen zuen.

Federico Mayorren esanetan, «XXI. mendeko erronkarik handiena ez da borrokariaren artean tregoa lortzea, baizik eta gatazka jatorritik prebenitzea, indarkeriaren arrazoi sakonak errotik kentzeko lanaren bidez». Horiek horrela ez da desegokia adieraztea bidegabekeria eta bazterkeria direla gatazken eta indarkeriaren arrazoi nagusiak.

- b) Beti kontuan edukitzea *zatiezintasuna* dela bakearen ezaugarri nagusia. Denak du eragina denean. Geografikoki eta politikoki elkarren mendekoa den munduan, batzuei eragiten dienak besteei eragingo die ezinbestean. Bakearen zatiezintasunaren ondorioa eragile sozial guztien elkartasuna da.

- c) Bakea hazia eta fruitua, premisa eta emaitza, da aldi berean. *Garapenik eta demokraziarik gabe ezin da lortu*. Egiazkoa eta luzarokoa izan dadin, bakea desberdintasun eta diskriminazio guztietatik bereizi behar da, Paulo VI.a Aita Santuak irmo adierazi zuenez: «Garapena da bakearen izen berria».

- d) Bake egonkor eta luzarokoa lortzeko beharrezkoa da *gatazken prebentziorako zeregina*. Gatazkak epe labur eta ertainean aurreikusteko ahalmenik ez badago, gatazkek gainezka egingo digute; horixe gertatzen zaigu gaur egun. Bizikidetzarako demokratikoak soilik ahalbidetuko du bakerako giza eskubidea sendotzea eta behar diren egonkortasuna eta segurtasuna epe luzera ematea. «Prebentiboa» den gauza bakarra bakea da, inoiz ez gerra!!

«Giza izaeraren ahalmen bereizgarriekin bat datorren garaipena da prebentzioa». Federico Mayor.

- e) Bakeak *zeregin eta eginkizun* nagusia izan behar du, denon zeregin gisa, eta ez gerrarik ez izate soil gisa edo etendako indarkeriak uzten duen huts soil gisa.

- f) Gaur egun dugun «herri globalak» *mundu mailako gobernagarritasuna* eskatzen du premiaz. Hori ezinezkoa izango da denontzako justiziako testuingurua sortu gabe, eta, horretarako, gaur egungo munduaren egitura ekonomiko, politiko eta soziala zehatz-mehatz berrikusi behar da. Horri dagokionez, Nazio Batuek mundu hori ordezkatu behar dute, baita eraginkor jardun ere, arau etiko jakin batzuk landu eta betearazteko, gaur egun inoren lurra ez diren nazioarteko fluxu guztiak arautzen dituzten arau etikoak landu eta betearazteko, hain zuzen ere.

- g) Eragin unibertsala duten botere faktikoei gaur egun inposaturiko *gerra-ekonomia arbuiatzea eta zigortzea*, eta bake-ekonomiako alternatibak proposatzea, betiere bakearen, justiziaren, askatasunaren, berdintasunaren eta elkartasunaren balioetan oinarrituta.

- h) *Bakerako eskubidea ez da formulazio abstraktu hutsa*; hainbat tresna eta mekanismo dago bakea lortu eta bakeari eusteko. Horregatik, beharrezkoa da *gaur egun dauden eta eskura ditugun legezko baliabideak* zeintzuk diren jakitea eta baliabide hori aplikatzea. Hona hemen horietako batzuk: Nazio Batuen Gutuna, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, UNESCOren Konstituzioa, Bake Kulturarako


Deklarazioa eta Ekintza Plana, eta bakea nazioarteko politikaren eta politika nazionalaren oinarritzat hartzen duten deklarazio eta ebazpen guztiak.

Hain zuzen ere, bakerako giza eskubideari dagokionez, honako hauek ditugu: Gizarteak bakean bizitzeko prestatzeari buruzko Nazio Batuen Deklarazioa, 1978koa; Herriek duten bakerako eskubideari buruzko Nazio Batuen Deklarazioa, 1984koa; Giza Eskubideei buruzko Afrikako Gutuna; Kolonbiako Konstituzioa; etab.

- i) *Kultura-aniztasuna* giza bizikidetzaren oinarri gisa onartu behar da eta ez da aitzakiatzat erabili behar batzuk besteei gailentzeko. Aniztasuna gure aberastasuna da, batasuna gure indarra. *Kultura-elkarreragina eta mestizajea* sormenerako oinarria eta giza espeziearen bereizgarria dira, eta ezinbestekoak dira bizitzaren garatzeko eta eguneroko erronkei aurre egiteko. Mundializazioak uniformizaziora mugatu nahi gaitu eta horrek arriskua, gure baitan biltzea, endogamia eta ghettoak eratzea dakar, eta, beraz, elkarreragina eragozten du. Eta elkarreragina da, hain zuzen ere, irudimena eta elkartzasuna sortzen dituen indarra.
- j) *Bakerako hezkuntzak* –zentzu zabalean– soilik bihurtu dezake bake-nahia eguneroko portaera, hots, kultura.

Hezkuntza da bakearen balioak sustatu eta hedatzeko baliabide nagusia, eta, lehen adierazi dugunez, bakea ez da dohaina, baizik eta kontzientzia, onarpena eta batez ere eraikuntza.

Federico Mayorrek, horri dagokionez, zera diosku: «Gizaki guztiei bizitzaren osoan hezkuntza bermatzeak honako hauetarako aukera emango luke: hazkunde demografikoa erregulatzea, bizi-kalitatea hobetzea, herritarren partaidetza areagotzea, migrazio-fluxuak gutxitzea, banaketa-desberdintasunak gutxitzea, kultura-identitateak berrestea, ingurumenaren narriadura eragozteko, garapen endogenoa eta jakintzen transferentzia sustatzea, justiziaren funtzionamendua bultzatzea: Nazio Batuen sistemari nazioz haraindikoa gaiei heltzeko ahalmen egokiak ematea. Adierazitako ezer ezin da egin gerra-testuinguruan. Hortaz, armetarako eta suntsitzeko egiten diren inbertsioak murriztu egin beharko dira eta bakea eraikitzeko inbertsioak areagotu».



Nazio Batuetarako proposamenak

SR. CARLOS VILLÁN

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioa

Carlos Villán Durán Asturiasen jaio zen, Espainian, 1950eko maiatzaren 22an. Zuzenbidean Lizentziaduna da Oviedoko Unibertsitatean, eta bertan doktorego-ikasketak eginak ditu. Hagako (Herbehereak) Centre d'Etudes de Droit International et Relations Internationales de l'Académie de Droit International-eko diploma eta Strasbourg-eko Institut International des Droits de l'Homme (René Cassin Institutua) institutuko diploma dauzka.

Azterlanak eta ikerlanak egin ditu Collège Universitaire d'Etudes Fédéralistes erakundeetan, Aostan (Italia), Lanaren Nazioarteko Bulegoan eta Nazio Batuen Erakundeetan, Hagako Académie de Droit International akademian, Institut International des Droits de l'Homme institutuan, Centre International de Formation et de Recyclage des Enseignants des Droits de l'homme erakundeetan, Palais de l'Europe-en eta René Cassin Institutuan.

Europako Kontseiluan ikerketak gin ditu Giza Eskubideen Europako Hitzarmenari eta Europako Gutun Sozialari buruz, baita Hagako Centre d'étude et de recherche de Droit International et de Relations Internationales de l'Académie de Droit International erakundeetan ere.



CURRÍCULUM

Hizlari edo txostengile gonbidatua izan da eta parte hartu du (Nazio Batuak ordezkatzuz) nazioarteko 150 ekitalditan –konferentziak, tailerrak, mintegiak eta ikastaroak–, eta era berean irakasle-jardun zabala du Nazio Batuen Erakundeetan duen lan-jardunaz gain.

Bibliografia zabala du, eta aipagarriak dira Lanaren Nazioarteko Zuzenbideari, Nazioarteko Zuzenbide Publikoari eta Giza Eskubideen Nazioarteko Eskubideari buruzko argitalpenak, hala nola: *Los derechos humanos y su contribución a la consecución de la paz.*

Honako erakunde hauetako kide da: Asociación Española de Profesores de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales, Asociación Española Pro-Derechos Humanos, Institut International des Droits de l'Homme, Asociación Iberoamericana del Ombudsman, American Society of International Law eta Istituto Internazionale Jacques Maritain (Erroma).

LABURPENA

Nazioarteko komunitateak erantzuna eman behar dio egungo nazioarteko krisiari, bakerako giza eskubidea behin betiko kodifikatuta, pertsonak nahiz herriak baitira eskubide horren hartzekodun, edo gobernuz kanpoko erakundeak, Estatuak, baita nazioarteko komunitatea bera ere. Eskubide autonomoa da, bokazio unibertuala eta eduki propioak dituena; bakearen ikuskera positiboa du –egiturazko indarkeriarik eza–; bi motatakoa izan daiteke: banakakoa eta kolektiboa; eta elkartasun- eta sintesi-eskubidea da, gainerako giza eskubideak biltzen dituelako –baita garapenerako eskubidea ere–, elkarrekiko mendekoak izanik.

Banakako eskubide gisa, besteak beste, edozein gerraren aurka egoteko eta bidezkoak ez diren aginduei kasurik ez egiteko eskubidea hartzen ditu barnean; kontzientzia-eragozlearen estatutua; gerraren aldeko propaganda debekatzea; bake zibilaren eskubidea; giza eskubideak modu sistematikoan urratzeari aurka egiteko eskubidea; armagabetzeko eskubidea; eta segurtasun kolektiboko sistema eraginkorra izateko eskubidea.

Legegintza-teknika honako hau izango da: Genevan bakerako giza eskubidearen deklarazioaren proiektua kodifikatzea, Nazio Batuen organo teknikoen egoitza han baitago. Amaitutakoan, Batzar Nagusiaren ebazpen bidez, deklarazioaren behin betiko testua Eranskin gisa txertatuko da. Gizarte zibilak –hau da, gobernuz kanpoko erakundeek, giza eskubideetan eta eskubide akademikoetan adituek– prozedura osoan parte hartuko duela bermatuko da.

Nazio Batuetarako proposamenak

Sarrera

Gaur egungo nazioarteko gizartean globalizazio ekonomikoa eta nazioarteko terrorismoaren aurkako borroka dira nagusi, eta gizarte hori krisi larrian murgilduta dago. 2001eko irailaren 11ko ekintza terroristek eta, nazioarteko terrorismoari aurre egin nahian, Estatu Batuek izandako erantzunak eta herri horren aliatuek hartutako neurri zapaltzaileak –poliziaren zein armadaren bidez– errotik aldatu dituzte nazioarteko harremanak eta urratu egin dituzte nazioarteko legeak, nazioarteko bakeari eta segurtasunari dagokienez. Izan ere, neurri horietako asko ez datoz bat nazioarteko zuzenbidearekin, hau da, giza eskubideak, zuzenbide estatua eta printzipio demokratikoak babesten dituen nazioarteko zuzenbidearekin.

Nazioarteko terrorismoari aurre egiteko ezin dira armak erabili soilik, egoera oso sakon baten adierazpide baita terrorismo hori: gizateriako behartsuenen etsipenaren adierazpide, hain zuzen. Gure garaiko hiru bilioi paria horiek beren lekua aldarrikatzen dute ekonomia globalizazioaren erdian; herri aberatsenen elkartasuna behar dute jasaten duten pobrezia erabatekoari, goseari eta gaixotasunei aurre egiteko. Beharrezkoa zaie nazioarteko elkartasun hori beren herrietan zuzenbidezko estatu sendoak, ustelkeriarik gabeko erakunde demokratiko libreak eta giza eskubideak behar bezala zaintzen dituzten justizia-administrazio independenteak sortzeko.

231

Gaur egun nazioartean dagoen segurtasun-faltari aurre egiteko bide onena estatuei hiru alor hauetan koherentziaz jokatzeko eskatzea da:

Lehenik eta behin, koherentziaz jokatu behar dute Milurtekoko Adierazpenean jasotako aurrerapenerako helburuak betetzeko konpromiso politikoarekin. Helburu hauek jasotzen ziren adierazpen horretan: 2015erako muturreko pobrezia jasaten duten, goseak bizi diren, edateko urik, komunik, oinarrizko hezkuntzarik, etxebizitza duinik edo osasun-zerbitzuak erabiltzerik ez duten baztertuen kopurua (1,3 bilioi) erdira murriztea¹. Helburu horiek uste irmo hau dute oinarrian: *nazioarteko bakea eta segurtasuna* lortzeko, ezinbestekoa dela Nazio Batuen Gutuneko printzipio eta asmoak zorrozki errespetatzea, giza eskubideei dagokienez, bereziki, eta eskubide horiek beren adiera zabalenean hartuta².

Bigarrenik, estatuak beraiek onartu dituzten giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbideko arauetako koherentzia eskatzen zaie, bereziki pertsonen bizi, askatasun, segurtasun eta osotasunerako eskubideekin zerikusia duten arauak dagokienez, arauok nahitaez bete behar baitira, eta, gainera, ezin dira inoiz indargabetu, egoera oso larria izanik ere –nazioarteko terrorismoaren aurkako borroka, adibidez–.

Hirugarrenik, koherentziaz jokatu behar dute Nazio Batuen Gutunak nazioarteko bakea eta segurtasuna gordetzeko finkatutako segurtasun kolektiborako sistemarekin. Zentzu horretan, beharrezkoa da *gizakiaren bake-eskubidea* eskubide beregain bezala kodetzea, lehenbailehen.

Aurrekariak

Nazio Batuen Gutunak berebiziko garrantzia ematen dio nazioarteko bakea eta segurtasuna gordetzeari, baina, halere, nazioarteko komunitatea ez da oraindik gai izan *gizakiaren bake-eskubidea* eskubide beregain bezala aldarrikatzeko prozesua burutzeko, *garapenerako eskubidearekin* gertatu zen antzera. Izan ere, biak ere nazioarteko elkartasunaren oinarri izateaz gain, gaur egungo giza eskubideei buruzko zuzenbidean sartuz joan diren giza eskubideen adierazpide ere badira.

Nazio Batuen Gutuna

Bakea da Nazio Batuen Erakundeak sortzean finkatu zuen helburu nagusia. Bigarren Mundu Gerra amaitu berrikan, horixe zen Nazio Batuen Gutuna idaztean (1945) zegoen asmo handiena. Testu hura gaur egungo nazioarteko komunitatea eta komunitate horren legedia eratuko zituen oinarritzko testua izan zen. Hitzaurrean bertan bakearen asmoa jasotzen da, «etorkizuneko belaunaldiak gerraren zigorretik babesteko». Horrekin batera, «oinarritzko eskubideetan [...] (eta) pertsonen duintasunean fedea» adierazten dira, «aurrerapen soziala bultzatzeko» beharra azpimarratzearekin batera, «askatasun kontzeptu zabalena baita».

Horrela, helburu horiek lortzeko, Nazio Batuetako herriek adierazten dute «tolerantziatz jokatzeko eta elkarrekin bakean bizitzeko» nahia dutela; «nazioarteko bakea eta segurtasuna» gorde nahi dituztela; «indar armatua ez dutela erabiliko, interes komunaren mesedetan ez bada»; eta «herri guztiek aurrerapen ekonomiko eta soziala bultzatuko» dutela. Ikusten dugunez, bake, garapen eta giza eskubideen aldarrikapenak gaur egungo nazioarteko komunitatearen sorrerari lotuta daude, ezinbestean.

Jarraian, Gutunaren 1. artikuluan, NBEren *Helburuak* zehazten dira, hiru kategoriatan banatuta. Lehenik eta behin, nazioarteko *bakea eta segurtasuna* gorde beharra aipatzen da. Horretarako, neurri eraginkorrek hartu behar dira *bakearen aurkako mehatxuak* eragotzi eta ezabatzeko, eta erasoak edo bakearen bestelako urraketak zapuzteko. Bakea urratzea eragin lezaketen liskarrak bide baketsuez konpondu behar dira.

Bigarren kategorian nazioen artean adiskidetasun-harremanak bultzatzea dugu, eskubideen berdintasuna eta herrien autodeterminazio-eskubidea oinarritzat hartuta.

Hirugarren kategorian, azkenik, nazioarteko arazoak konpontzeko nazioarteko lankidetzak behar dela esaten da, hiru alor nagusitan:

arazo ekonomiko, sozial eta kulturaletan.

arazo humanitarioetan.

denon giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak garatu eta bultzatzea, arraza, sexu, hizkuntza edo erlijioagatik inor baztertu gabe.

Estatuen arteko nazioarteko lankidetzak goian aipatutako hiru alorrei erantzun behar die, hirurak ere elkarren mendekoak baitira, eta ezin zaio, beraz, alor bati lehentasuna eman besteen kaltetan. Horrek berriro nabarmentzen du bakearen, garapenaren eta giza eskubideen arteko mendetasuna eta lotura estua.

Gutuneko 2. artikuluan NBE eta erakundeko kide diren 191 estatuek 1. artikuluan jasotako helburuak betetzeko garaian jarraitu beharreko *Printzipioak* zehazten dira: estatuen berdintasun burujabea, Gutunari jarraiki hartutako betebeharrak fede onez betetzea, nazioarteko liskarrak modu baketsuan konpontzea, estatuen lurralde-batasunaren edo independentzia politikoaren aurka *indarra ez erabiltzea edo indarra erabiltzeko mehatxurik ez egitea*, eta estatuen barruko arazoetan eskurik ez hartzea.

Bestalde, Gutuneko 55. eta 56. artikuluek diotenari jarraiki, estatuek giza eskubideak garatzen eta bultzatzen laguntzea, eta giza eskubideen errespetu unibertsala eta eraginkortasuna zabaltzen laguntzeko duten betebeharra, ezinbestekoak dira Gutunaren helburu nagusia lortzeko, hots, nazioarteko *bakea eta segurtasuna* gordetzea.

Erakundeek dagokienez, Gutunak eskumen handiak ematen dizkie Segurtasun Kontseiluari eta Biltzar Nagusiari liskarrak modu baketsuan konpontzeko garaian, liskarrok nazioarteko bakea eta segurtasuna gordetzeko helburua arriskuan jartzen dutenean, bereziki (VI. idazpurua). Bakea mehatxatuta dagoenean, bakea urratzen denean edo erasorik egiten denean (VII. idazpurua), Segurtasun Kontseilua da estatu bati zigorrak jartzea duen nazioarteko organo bakarra. Zigorrak jartzeaz gain indarra erabili dezake –edo estatu batzuei indarra erabiltzeko baimena eman diezaieke, nazioarteko komunitatearen izenean jarduteko–, bakea urratu duen estatua Kontseiluak erabakitako zigor-neurriak betetzera behartzeko.

Horrela, Gutunak debekatu egiten die estatuei beren kasa beste estatu baten kontra indarra erabiltzea, edozein arrazoi ematen dutela ere –humanitarioa edo bestelakoa–. Salbuespen bakarra bidezko defentsa da, «Nazio Batuetako kide baten aurkako eraso armatua gertatzen bada, eta Segurtasun Kontseiluak nazioarteko bakea eta segurtasuna gordetzeko beharrezko neurriak hartzen dituen artean» (Gutuneko 51. art.). Hortaz, nazioarteko zuzenbidean Segurtasun Kontseiluak du indarra erabiltzeko monopolioa, nazioarteko komunitatearen izenean jarduteko betiere.

Dena den, Gutuna onartu eta hurrengo hamarkada luzeetan, Gerra Hotzaren inguruko gorabeherek baldintzatu zuten Gutunean onartutakoa betetzea. «Bizikidetzak baketsuko» garai horretan, munduan agintzen zuten bi bloke hegemonikoen elkar zirikatzeak aitzakia bezala erabili zituzten giza eskubideak: sobietar blokeak herriek bakerako eskubidea zutela aldarrikatzen zuten, eskubide absolututzat hartuta eta gainerako giza eskubideen aurretik jarritz; mendebaldeko blokeak, berriz, eskubide zibil eta politikoei ematen zien lehentasuna, demokrazia parlamentarioko erregimenen oinarritzat hartuta³.

Gainera, Segurtasun Kontseiluaren osaketak –15 kide, bost iraunkorrak– eta Bigarren Mundu Gerra irabazi zuten potentziek –kide iraunkorrek– oraindik duten beto-eskubideak Kontseiluaren lana oztopatu du, bakea urratu den kasu askotan, edota eraso-gerrak gertatu direnetan, blokeatuta gelditu delako, eta, ondorioz, Gutunean aurreikusitako segurtasun kolektiborako sistema ezin izan da garatu edo erabili, azken hamarkada hauetan.

Gerra Hotza amaituz geroztik –Berlingo harresia erortzean irudikatu zen amaiera, 1989ko azaroaren 9an– eztabaida sakona sortu da Biltzar Nagusian Segurtasun Kontseiluaren osaketa handitzeko egokitasunaren inguruan, NBE osatzen duten 191 estatuak hobeto ordezkatzeko. Horrez gain, auzitan jartzen da «kide iraunkorren» estatutua eta, batez ere, «beto-eskubidea». Hala eta guztiz ere, Nazio Batuen Gutuna aldatzeko proposamenak ez dira gauzatu oraindik, halakorik egiteko Biltzar Nagusiaren bi herenek eta Kontseiluko bost kide iraunkorrek ados egon behar dutelako (Gutuneko 108. art.).

Bestalde, azken urteotan sortu diren bi gertakari zeharo baldintzatzen ari dira gure garaiko nazioarteko harremanak eta, gainera, arriskuan jartzen ari dira nazioarteko zuzenbidea, nazioarteko bakea eta segurtasuna: globalizazioa eta nazioarteko terrorismoa.

Globalizazioa, ekonomian, nazioarteko finantza-erlazioetan eta euskarri elektronikoen bidezko komunikazioetan eragina duen prozesu bizkorra dugu. AEBak eta haien Europako aliatuek aitzindaritzat hartu dute prozesu horretan, ideologia soilik kapitalistari jarraitzen dio eta merkatuen eta merkataritzen askatasunean, hazkunde ekonomikoan, finantza-espekulazioan,

ekonomiaren pribatizazioan, neurri sozialak ezabatzean eta estatuaren zeregin ekonomikoaren murrizketan gauzatzen da, funtsean. «Washingtongo adostasuna» deritzona gauzatzeko erabili diren tresnak nazioarteko finantza-erakundeak –Mundu Bankua, Nazioarteko Moneta Funtza– eta Munduko Merkataritza Erakundea izan dira, eta enpresa transnazionalak ditugu globalizazio-prozesuaren onuradun nagusiak.

Bigarren gertakariak 2001eko irailaren 11n izandako ekintza terrorista larrietan du jatorria. Ekintza haiek hildako ugari eragin zituzten, eta New Yorkeko Dorre Bikiak txikitu eta Pentagonoak Washingtonen duen egoitzako atal batzuk suntsitu zituen. Bi eraikinok AEBetako botere ekonomiko eta militarren ikur nagusiak ziren⁴.

Ekintza haien ondoren, AEBek eta NATOn zituzten aliatuek *nazioarteko terrorismoaren* adierazpide guztien aurkako borroka jarri zuten beren nazioarteko politikaren erdigunean. Horretarako, indarra erabili dute beren kasa, legea urratuz –Segurtasun Kontseiluaren baimenik gabe– hainbat aitzakia emanaz: arrazoi humanitarioak (Kosovo) edo sekula aurkitu ez zituzten suntsipen handiko armen ustezko erabilpena eragozte⁵ (Irak). Beste batzuetan, Segurtasun Kontseiluaren baimena zutela, zigor-ekintzak egin dituzte biztanleria zibila ere jo duten bonbardaketa masiboen ondoren, nazioarteko zuzenbide humanitarioa modu nabarmenean urratuz, –Al Qaeda talde terrorista babesten zuen Afganistango talibanen erregimena boteretik kentzeko–.

Era horretako gerra-egoera larrian auzitan jarri dira nazioarteko harremanen oinarriak eta nazioarteko zuzenbidearen printzipioak (NBERen Gutuneko 2. artikuluan zehazten direnak), eta nazioarteko bakea eta segurtasuna urratu dira, modu larrian urratu ere. Horrelakoetan, nazioarteko komunitateak ahalegindu egin beharko luke Gutunean jasotako bake-asmoak estatuek bete beharreko neurri juridiko zorrotzagoetan gauzatzeko. Horretarako egokia izan liteke *gizakiaren bake-eskubidea* kodetzea. Erakundeen alorrean, Segurtasun Kontseiluaren osaketa eta erabakiak hartzeko prozedura aldatu beharra dago, ezinbestean, Nazio Batuen Gutunak organo horren esku utzitako zereginak bete ahal izan ditzan.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala 1948an onartu zen, eta Nazio Batuen Gutunean aipatzen ziren giza eskubideen edukia hogeita hamar artikulutan zehaztu zuen. Artikulu horietako bakar batek ere ez du «bakerako eskubidea» aipatzen, baina Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 28. artikulua honakoa dio:

Pertsona guztiek eskubidea dute adierazpen honetan aldarrikatzen diren eskubide eta askatasunak zeharo gauzatzeko dituen nazioarteko antolamendu sozialerako.

Abellán irakaslearen iritziz, «nazioarteko antolamendu sozial» horretarako eskubideaz ari garenean ikuspegi zabala hartu behar dugu «bakearen, garapenaren, ingurumenaren eta giza eskubideen artean dagoen lotura batasun zatiezin bat bezala hartzeko⁶». Estatuak eta nazioarteko komunitateak lehentasuna eman behar diote, beraz, eskubide hori gauzatzeari zuzenbide, politika, ekonomia, gizarte eta ingurumenaren alorretan, enpresa transnazionalen esanetara dagoen globalizazio ekonomiko-finantzarioari aurre egiteko. Horrenbestez, bakerako eskubidea funtsezko elementu bezala agertzen zaigu «nazioarteko antolamendu sozial» horretarako eskubidearen baitan.

Hari horri jarraiki, 2003an Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak azpimarratu egin zuen berriro *estatuak behartuta daudela* bakea eta gerrarik eza ziurtatzera. Horrela, Giza

Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 28. artikulua aipatuz, Batzordeak adierazi zuen «gerrarik gabeko bizitza nazioartean ezinbestean bete beharreko lehentasunezko baldintza» zela, «ongizate materiala eta herrien garapen eta aurrerapena lortzeko, eta Nazio Batuek aldarrikatutako gizakion eskubide eta oinarritzko askatasunak modu eraginkorrean gauzatzeko». Horregatik, «bakea gorde eta bultzatzea estatu guztien nahitaezko betekizuna da», eta estatuon politikak helburu hauetara bideratuta egon behar du: «gerraren mehatxua ezabatzera, gerra nuklearrarena bereziki, nazioarteko harremanetan indarra erabiltzeari edo indarra erabiltzeko mehatxu egiteari uko egitera, eta nazioarteko liskarrak modu baketsuan konpontzera, Nazio Batuen Gutunean finkatutakoarekin bat etorri⁷».

Era berean, estatuak «Gutunean aipatutako printzipioen errespetuan eta giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztien sustapenean oinarritutako nazioarteko sistema bat» bultzatu behar dute, «garapenerako eskubidea eta herrien autodeterminazio-eskubideak ere barne hartuta⁸».

2003an bertan, Batzordeak berriro lotu zituen bakea eta *desarma*, herri guztiak ordezkatzen dituen nazioarteko antolamendu demokratikoa lortzeko «herri guztien bakerako eskubidea» gauzatu beharra dagoela esan baitzuen, besteak beste. Horretarako, estatuak «nazioarteko bakea eta segurtasuna ezartzea, gordetzea eta sendotzea bultzatu» behar dute, eta «horretarako, beren esku dagoen guztia egin behar dute, desarme orokor eta erabatekoa lortzeko, nazioarteko kontrol eraginkorrari jarraiki, eta neurrian bidez eskuratutako baliabideak garapen orokorrerako erabiltzen direla ziurtatzeko, garapen-bidean dauden herrietan bereziki⁹».

Giza eskubideen nazioarteko itunak

Bai Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna bai Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna –biak ere 1966an onartuak– Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako giza eskubideen printzipioak legezko betebeharrak bihurtzen dituzten nazioarteko itunak dira. Itunok sinatu dituzten estatuak nahitaez bete beharreko itun horietan ez da «bakerako eskubidea» berariaz aipatzen giza eskubideen artean, baina, halere, zeharkako erreferentzia batzuk egiten dira.

Lehenik eta behin, bi itunetako Hitzaurreko 1. paragrafoan (bietan ere berdina dena) gogora ekartzen denez, Nazio Batuen Gutunean jasotako printzipioei jarraiki,

[...] askatasunak, justiziak eta bakeak giza familiako kide guztiek berezkoa duten duintasuna eta horien eskubide berdina eta besterenezinak onartzea dute oinarritzat, mundu osoan.

Hortaz, berretsi egiten da bakearen eta giza eskubideen arteko lotura estua.

Bigarrenik, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna betetzen dela zaintzeko ardura duen adituen batzordeak, hots, Giza Eskubideen Batzordeak, itun horretako xedapen askoren edukia eta hedadura zehaztu ditu hainbat «ohar orokorren» bidez. Interpretazio-teknika horrezaz baliatuz, agerian utzi du bizitzeko eskubidearen, gerrak saihestearen eta gerraren aldeko propaganda guztia debekatzearen artean dagoen lotura estua, eta legez kanpokotzat jo du arma nuklearrak ugaritzea.

Horrela, 1982an, Ituneko 6. artikuluari buruz ari zela –bizitzeko eskubideaz ari dena– ondokoa adierazi zuen batzorde horrek: «gerra eta indarkeria masiboko bestelako ekintzak gizateriaren aurkako zigorra dira, eta urtero-urtero milaka hildako errugabe uzten dituzten gizakien artean»; horregatik, «estatuak betebeharrak goren da gizakien heriotza bidegabeak

eragiten dituzten gerrak, genozidio-ekintzak eta masa-indarkeriazko gainerako ekintzak eragozte¹⁰».

Batzordea ondorio honetara iritsi zen: estatuek «gerra-arriskua –termonuklearra bereziki– eragozteko eta nazioarteko bakea eta segurtasuna sendotzeko egiten dituzten ahalegin guztiak bizitzeko eskubidea babesteko baldintza eta berme sendoenak izango dira¹¹».

Era berean, Ituneko 6. eta 20. artikuluen arteko lotura nabarmendu zuen Batzordeak, bertan esaten denez, legez debekatuta baitago gerraren aldeko propaganda guztia, bai eta indarkeria, etsaigoa edo bazterketa bultzatzen duten jarduera guztiak ere –nazio, arraza edo erlijio baten aurkako gorrotoaren apologia esate baterako–¹².

Arrazoibide berari jarraiki, 1983an batzordeak esan zuen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 20. artikuluan finkatutako debekuak «guztiz bateragarriak» direla «19. artikuluan jasotako adierazpen-askatasunarekin, askatasun hori gauzatzeak hainbat eskubide eta erantzukizun berezi baitakartza berekin». 20.1. artikuluan ezartzen den debekuan «Nazio Batuen Gutunak dioenaren aurkako eraso-ekintza edo bake-urraketa egiteko mehatxua dakarten edo horretara bultzatu dezaketen propaganda era guztiak sartzen dira». 20.2. artikuluan, berriz, «indarkeria, etsaigoa edo bazterketa bultzatzen duten nazio, arraza edo erlijioaren baten aurkako gorrotoaren apologia guztiak» gaitzesten dira, «propaganda edo apologia hori dagokion estatu barrura zein estatu horren kanpora zuzenduta egonda ere». 20.1. artikulua ezarpen-eremutik kanpo gelditzen da «zuzenbide burujabeak defentsa nazionalaren (eta) herrien autodeterminazio eta independentziaren alde egindako apologia, Nazio Batuen Gutunari jarraiki eginez gero¹³».

236

Geroago, batzordeak berak geroz eta zabalduago zegoen kezka baten berri eman zuen, «suntsipen handiko arma geroz eta beldurgarriagoak garatzen eta ugaritzen ari baitira. Arma horiek gizakien bizitza arriskuan jartzeaz gain, funtsezko helburu sozial eta ekonomikoetarako erabili zitezkeen baliabideak bereganatzen dituzte, garapen-bidean dauden herrietan bereziki». Hortaz, Batzordearen iritziz, «arma nuklearrak ekoitzi, frogatu, eduki, zabaldu eta erabiltzea debekatu beharko litzateke, eta halakorik egitea humanitatea kaltetzen duen delitu larritzat hartu beharko litzateke». Estatu guztiek «neurriak hartu behar dituzte berehala, norik bere aldetik eta adostasunak bilatuz, mehatxu hori mundutik ezabatze¹⁴».

Gizakiaren bake-eskubidea nazioarteko tresna berrienetan

Bakerako eskubidea berariaz aldarrikatzen duen itun moduko testu bakarra *Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutuna* da. 1981eko ekainaren 26an onartutako testu horretako 23.1. artikuluan «herriek bakerako eta segurtasunerako eskubidea» dutela aldarrikatzen da, «bai maila nazionalan bai nazioartean ere. Nazio Batuen Erakundearen Gutunean inplizituki adierazten den elkartasunaren eta adiskidetasun-harremanen printzipioa izan behar da nagusi estatuen arteko harremanetan».

Bakea sendotzeko, gutun horretako 23.2. artikulua behartu egiten ditu estatu guztiak pertsonak beren kasa beren jatorrizko herriaren zein beste edozein herriren aurka egin ditzaketan jarduera subertsiboak debekatzera. Estatu horiek ere ezin izango dira erabili beste edozein estatutako herritarren aurkako jarduera subertsibo edo terroristak antolatzekeko abiapuntu bezala.

Nazio Batuen eremu unibertsalari dagokionez, bi egoera politiko desberdinetan, Bilzar Nagusiak bakerako eskubideari buruz onartutako bi adierazpen nabarmendu behar ditugu:

Lehenbizikoa, *Gizarteak Bakean Bizitzeko Prestatzeari buruzko Adierazpena* dugu (1978). Adierazpen horretan berretsi egiten da gizabanakoek eta herriek bakean bizitzeko eskubidea dutela, eta eskubide hori ziurtatzeko estatuen betebeharrak zehazten dira¹⁵.

Bigarrena, *Herrien Bakerako Eskubideari buruzko Adierazpena* (1984) dugu. Horixe dugu testu garrantzitsuena alor honetan, «Gerra Hotzaren» erdian onartu baitzen, gerra nuklearreko mehatxua pil-pilean zegoen garaian. Estatu Batuetan Reagan zegoen gobernuan eta «euromisilen krisialdia» orduantxe gertatu zen. Adierazpen horretan Biltzar Nagusiak adierazi zuen «Lurreko herriek bakerako eskubide sakratua» dutela eta «herrien bakerako eskubidea babestea eta bake hori bultzatzea estatu guztien oinarrizko betebeharrak dela»¹⁶. Adierazpen horretan, Afrikako Adierazpenean bezalaxe, «herriak» aipatzen dira bakerako eskubidearen titular bakartzat, eta «estatuak», berriz, bake hori zaintzeko betebeharrak dutenak dira. Estatuari dagokienez, hizpide dugun adierazpenean esaten da estatuon politikak helburu hauetara bideratuta egon behar duela: «gerraren mehatxua ezabatzerako, gerra nuklearrarena bereziki, nazioarteko harremanetan indarra erabiltzeari uko egitera eta nazioarteko liskarrak modu baketsuan konpontzerako».

Azkenik, 90eko hamarkadan UNESCOk hainbat saiakera egin zituen bakerako eskubide giza eskubide bezala aldarrikatuko zuen nazioarteko arau-multzo bat adosteko. Horrela, UNESCOk Las Palmasen (1997ko otsailan) eta Oslon (1997ko ekainean) deitutako adituen bilkura batzuetan hainbat proiektu onartu ziren.

Azken bilkura horretan *Gizakien Bake Eskubideari buruzko Adierazpenerako* proiektua osatu zen. Testu horretan bakea eskubide eta betebeharrak bezala jasotzen da, zentzu positiboan eta bakearen osagai guztiak bilduz: gizarte-berdintasuna, norbanakoen eskubideak, gerrak eragozteko eta desarmarako eskubidea¹⁷. Dena den, bakerako eskubide kolektiboa, herriek onartzen zaiena, aipatu ere ez zen egin proiektu hartan. Gainera, UNESCOk 1997an eta 1998an deitutako gobernu arteko biltzar banatan ezezkua jaso zuen proiektu hark.

Las Palmasen aurkeztutako proiektuaren egileetako baten arabera, Europa eta Latinoamerikako zenbait estatuk –Suitzak eta Brasilek, bereziki– ez zuten UNESCOren baitan gai hori eztabaidatu nahi, haien iritziz Biltzar Nagusiaren edo NBEko Segurtasun Batzordearen eskumenekoa baitzen gaia. Bestalde, estatu askok eragozpenak jarri zituzten *bakerako eskubidea* eduki juridikoz hornitzeko garaian. Azkenean, estatuen aurkako jarrera ikusita, UNESCOko zuzendari nagusiak testu ez arauemaile bat proposatu zuen Bakerako Kulturaren aldeko Adierazpenean eta Ekintza Programaren oinarri bezala erabiltzeko¹⁸.

Gizakiaren Bake-Eskubideari Buruzko arauen edukia

Bakerako eskubidea giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen baitan giza eskubide bezala kodetzen duen arau-multzo baten beharrean gaude oraindik, eta hainbatetik kezagarritzat jo izan dute egoera hori¹⁹. Hala eta guztiz ere, bidea errazago da gaur egun, urte luzeetan zehar bateratuz joan baitira giza eskubideak eta bakea, bai teoriaren bai praktikaren alorrean: bakeak hainbat giza eskubide eskatzen ditu eta giza eskubide horiek errespetatzeak bakea dakar. Bakea galarazten duten eragozpen guztiak giza eskubideen urraketak ere badira, aldi berean. Ondorioz, gerra, muturreko pobrezia eta azpigarapena bakearen zein giza eskubideen ukazio direla ulertu behar dugu. Garai batean, batzuetan bakea giza eskubideak gauzatu ahal izateko aurre-baldintza izan zen, baina, gaur egun, gehienek onartzen dute giza eskubide guztiak *laburbiltzen* eta uztartzen dituen eskubidea dela bakea.

Horrela, dotrina onenak eskubide beregain bezala jorratu du *gizakiaren bake eskubidea*, asmo unibertuala eta berezko edukiak dituen aldetik, bakea estatuen artean gerrarik ez egotea dela ulertzen zuen ideia tradizionala gainditzen baitu ikuspegi horrek, bakearen ikuspegi positiboa emanez –egiturazko indarkeriarik eza–. *Elkartasunezko* beste eskubide batzuekin²⁰ batera ulertzen du eskubide hori, hala nola, eskubide hauekin: garapenerako eskubidea, autodeterminaziorakoa, ingurumen osasuntsua izatekoa eta gizateriaren ondare komunerako eskubidea. Eskubide horiek bezalaxe izaera bikoitza du –norbanakoei dago-kie, batetik, eta giza taldeei bestetik, hau da, giza eskubidea da eta baita herrien eskubidea ere–, eta hainbat titular ditu –gizabanakoak, gobernuz kanpoko erakundeak, estatuak²¹ eta nazioarteko komunitatea–. Bestalde, gizarte zibileko eragile guztiak dira *elkartasunezko* eskubide horien zordun.

Ondorioz, giza eskubideak nazioartean zabaltzeak, bakerako eta garapenerako eskubideak barne hartuta²², nazio-mailako zein nazioarteko eragina du, eta maila bietan ere gizarte solidarioa sortzea eskatzen du horrek, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 28. artikuluan aipaturako baldintzetan –giza eskubideak zeharo gauzatuko dituen nazioarteko *antolamendu* sozialerako eskubidea–.

Era berean, *elkartasunezko* eskubideak *laburpen* moduko eskubidetzat jotzen dira²³, gainerako giza eskubide guztiak beren baitan biltzen dituztelako, eta elkarren mendekoak dira guztiak ere. Izan ere, laburpen eskubideak betetzeak giza eskubide guztiak gauzatzea dakar. Bestalde, *laburpen* eskubideek nazioarteko jatorri garbia dute, haiek betetzeko bermea ez delako «estatu bakar batean oinarritzen, estatu, antolakunde publiko eta pribatu eta gizabanakoaren arteko ahalegin bateratuan baizik²⁴».

Gizakiaren bake eskubideak badu bere zeresana banakako eskubide bezala ere. Bakerako eskubidearen alderdi hori kodetzen duen etorkizuneko tresna batek izan dezakeen edukien artean, K. VASAKek ondokoak proposatu ditu:

- Gerra guztiei ezetz esateko eskubidea, gerra-krimenen eta gizateriaren eta bakearen aurkako krimenen aurka –eraso-gerrak ere barne hartuta– borrokatzeko eskubidea bereziki.
- Estatuak legez onartu behar dute kontzientzia-eragozleen estatutu bat.
- Gatazka armatuetan agindu bidegabeak ez betetzeko eskubidea.
- Gerraren aldeko propaganda guztia debekatzea.
- Erasorako armak, suntsipen handikoak bereziki, garatzeko ikerketa zientifikoetan ez parte hartzeko eskubidea.
- Bakearen alde eta gerraren aurka jarduteagatik jazarriak direnek asiloa eskuratzeko eskubidea.
- Bake zibilerako eskubidea –indarkeria-ekintza guztien eta terrorismoaren aurkako babes–.
- Nazio Batuen Gutunean finkatutakoari jarraiki, bakearen mehatxua dakarten giza eskubideen urraketa sistematiko, masibo eta larriei aurre egiteko eskubidea.
- Desarme orokor eta erabatekorako eskubidea, nazioarteko kontrolpean.

- Estatuei Nazio Batuen Gutunaren baitan finkatutako segurtasun kolektiborako sistema ezartzeko konpromisoa hartzeko eskatzeko nazioarteko laguntza jasotzeko eskubidea²⁵.

Eskubidea arautzeko teknika

Bakerako eskubidea giza eskubide bat da eta, halatan, kodetu egin behar da giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen baitan. Gure iritziz, UNESCOk eskubide hori kodetzeko ahaleginetan berriki izandako porrota zeregin horretarako nazioarteko eztabaidagune bat aukeratu izanari zor zaio, hein handi batean, horrek baldintzatu egin baitzuen legeak finkatzeko erabili beharreko teknika.

Izan ere, garai hartan UNESCOko idazkari nagusi zenak izugarriko borondate ona eta amore handia erakutsi zituen zenbait aditu independentek hainbat bilkuratan egin zuten *Gizakiaren Bake Eskubideari buruzko Adierazpenerako* proiektua onartuko zuen estatuen nazioarteko biltzar bat osatzeko, eta ahalegin horretan asmatu egin zuen zenbait gauzatan. Asmatu egin zuen sortu nahi zen tresna berriak izango zuen *forman* –adierazpen bat–, adibidez, guztiz bideraezina gertatuko baitzen itun edo hitzarmenik lortzea²⁶.

Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena onartzea ekarri zuen prozesuan gertatu zen bezala, giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidean sakontzeko garaian ere pixkana-pixkana joatea komeni da, estatuen arteko adostasuna lortuz joateko. Gizakiaren bake-eskubideari buruzko adierazpen baten testua onartu ondoren, hurrengo urratsari ekiten saiatu gintezke, hau da, eskubide hori gauzatzeko neurri zehatz eta lotesleak ezartzen, itun edo hitzarmen baten bidez. Zentzu horretan, *elkartasunezko* eskubideak –bakerako eskubidea barne hartuta– jasoko lituzkeen hirugarren itun baten beharra aipatu izan dute zenbaitek.

239

UNESCOren hutsegite nagusia hauxe izan zen: adierazpen-proiektua onartzeko lana gobernuarteko biltzar baten esku uztea, han bildutako ordezkariak giza eskubideetan aditu izan ez eta biltzarra prestatzeko lanetan parte hartu ez zutenean, bilera tekniko guztiak aditu independenteen esku utzi baitzituzten. Gainera, proposatutako testuan gizakiaren bake-eskubidearen alderdi bakar bat hartzen zen aintzat –banakakoa–, eta eskubide horren alderdi kolektiboa –herriei dagokiena– baztertu egiten zen.

Horrenbestez, *gizakiaren bake-eskubideari* buruzko adierazpen-proiektu bat kodetzeko bilgune egokiena *Geneva* delakoan gaude, hortxe baitute egoitza Nazio Batuetako organo teknikoek –aditu independenteek zein gobernuetako adituek osatuak–, eta haiek dira giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea kodetzen eta garatzen esperientzia zabalena dutenak. 80ko hamarkadan zehar, garapenerako eskubideari buruzko adierazpen-proiektua hantxe kodetu zen, hain zuzen ere.

Gorago nabarmendu dugunez²⁷, giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidea kodetzeko prozesua bost etapaz osatzen da, ondo gogoan izan beharrekoak bostak ere. Lehenbizikoan, gizakiaren bake-eskubidea kodetuz eta garatuz joateko beharraz jabetu diren gizarte zibileko ordezkarien, erakundeen eta estatuen ekimen guztiak jaso behar dira. Etapa horretan gaudela, giza eskubideen inguruan lan egiten duten GKEen eta ekimen akademikoen arteko bat-etortzea lortu behar da, iritzi publikoaren eta hedabideen bidez gobernuak sentsibilizatzen.

Bigarren etapa *Giza Eskubideak Sustatzeko eta Babesteko Azpibatzerdean* gauzatu ohi da. Azpibatzerde hori Giza Eskubideen Batzordearen mende dago eta 26 aditu independentek

osatzen dute. Azpibatzen kontalari bat izendatuko du azpibatzen kideen artean –Batzenaren baimenarekin– gizakiaren bake-eskubideak jaso beharko lituzkeen eduki guztiei buruzko azterketa egiteko. Kontalari horrek hiru urte izango ditu, batez beste, azterketa hori osatzeko, eta denbora horretan elkarlanean jardun beharko du gaien interesa duten alderdiekin: estatuak, nazioarteko erakundeak, gai horretan espezializatutako organismoak, giza eskubideetako organo teknikoak –itunetan eraturako batzenak, lan-taldeak, Batzenak izendatutako kontalari bereziak– eta, batez ere, interesa duten gizarte zibileko erakundeak, erakunde akademiko espezializatuak bereziki. Azterketa amaitu ondoren, kontalariak azpibatzen aurkeztuko du osoko bilkuran eztabaidatzeko, gizakiaren bake-eskubideari buruzko adierazpenerako lehen aurreproiektu batekin batera. Azpibatzenak, bestalde, aurreproiektu hori onartu beharko du.

Hirugarren etapaz azpibatzenaren mende dagoen organo politikoa arduratzen da: *Giza Eskubideen Batzena*. Azpibatzenak Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari (EDOSOC) osakeria irekiko gobernuarteko lan-talde bat eratzeko baimena eskatzeko esango dio batzenari. Talde horren egitekoa *gizakiaren bake-eskubideari* buruzko arau-multzoa adierazpen moduan jasotzea izango da, azpibatzenak onartutako aurreproiektua abiapuntutzat hartuta.

Estatuen ordezkariak osatutako lan-taldea izan arren, aholku-emaile estatusa duten GKEek eztabaida guztietan parte hartu eta, nahi izanez gero, testu alternatiboak proposatu ahal izango dituzte, bertan bildutako estatuen arteko adostasuna errazte aldera. Nazio Batuetan giza eskubideen inguruan lan egiten duten gainerako organoak ere gonbidatu daitezke lan-talde horretan beren iritzia emateko.

Era horretako lan-taldean lana hamar urtera arte luzatu izan da iraganean, eta, hori dela eta, azken urteotan hobekuntza prozesalari egin dira, iraupen hori murrizteko. Horrela, lan-taldeko buru edo kontalariak lan-taldeen bilkura-aldien artean –urtean behingoak, gehienetan– kontsulta informalarik egiteko baimena du, eta ez du erabateko adostasunik behar adierazpen-proiektuaren azken testua onartzeko.

Laugarren etapa, lan-taldeak adierazpen-proiektua onartu eta batzenaren osoko bilkuren aurrean aurkezten duenean hasten da. Batzen horretako bilkuretan aholku-emaile estatusa duten GKEek ere parte hartu dezakete. Gehienetan, batzenak bere lan-taldeak aurkeztutako proiektua onartu egiten du, proiektu horren alde dagoen adostasuna edo gehiengoaren jarrera berretsiz. Jarraian, batzenak Biltzar Nagusira bidaliko du adierazpen-proiektuaren testua, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren (ECOSOC) bidez, han behin betiko onarpena jasotzeko.

Kodetze-prozesu honen bosgarren etapan, Hirugarren Batzenak, aurrena, eta Biltzar Nagusiak, ondoren, Gizakiaren Bake Eskubideari buruzko Adierazpenaren behin betiko testua onartu eta aldarrikatuko dute. Ekitaldi formalean erabaki bat hartzen da aho batez edo gehiengoaren aldeko botoez, eta erabaki horri adierazpenean onartutako testua gehitzen zaio, eranskin bezala. Azken etapa horretan, GKEek ezin dute zuzenean parte hartu Biltzarrak batzenetan edo osoko bilkuran egindako eztabaidetan, halakorik eginez gero behintzat, baina bilkuretarantz joan daitezke, eta harreman informalarik izan ditzakete gobernuetako ordezkariekin.

Prozedura guztia motel samarra den arren, askoz seguruagoa da gizarte zibilaren –gobernu kanpoko erakundeak, giza eskubideetako adituak eta ordezkari akademikoak– parte-hartze handia ahalbidetzen duelako, batetik, eta kodetze-prozesuko ia etapa guztietan, testuak gobernuetako ordezkariekin adostuz joaten direlako, bestetik.

Ondorioak

1945eko Nazio Batuen Gutunak baliagarri izaten jarraitzen du giza eskubideen errespetua eta erakunde horren gainerako helburuak –nazioarteko *bakea eta segurtasuna* garatu eta gordetzea, adibidez– uztartzen baititu. Guztia ere modu orekatuan egin behar da, estatuon arteko nazioarteko lankidetzaren bidez eta estatuon eta NBEren arteko elkarlanaren bidez.

Dena den, aldatu egin beharko litzateke Nazio Batuen Gutuna, Segurtasun Kontseiluak gaur egungo egoera hobeto islatzen duen osaketa demokratikoa –191 estatu dira NBEko kide– izan dezan, batetik, eta Bigarren Mundu Gerra irabazi zuten bost potentzien beto-eskubidea berraztertzeko, bestetik. Horrela, Nazio Batuen Gutuneko VI. eta VII. idazpuruek bere esku utzi dituzten garrantzizko zereginak bete ahal izango ditu Kontseiluak, hots, nazioarteko bakea eta segurtasuna gordetzea. Era berean, Biltzar Nagusiaren zeregina sendotzea komeni da, nazioarteko bake eta segurtasunaren inguruko gaiak jorratzeko garaian.

Gaur egun indarrean dagoen giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbideak berebiziko erronka du nazioarteko bakea eta segurtasuna lortzeko borrokan, globalizazio ekonomikoa eta nazioarteko terrorismoaren aurkako borroka nagusi diren gure nazioarteko gizarte honetan. Nazioarteko bake eta segurtasunaren aurkako mehatxuak geroz eta handiagoak dira gaur egun, eta nazioarteko komunitateak *gizakiaren bake-eskubidea* behingoz kodetuz erantzun behar die mehatxu horiei. Gizakiak bezalaxe, herriak, gobernuz kanpoko erakundeak, estatuak eta nazioarteko komunitatea bera dira eskubide horien hartzekodunak.

Gizakiaren bake eskubidea eskubide beregaina da, asmo unibertsalekoa eta berezko edukiak dituena. Bakea gerrarik eza dela dioen ideia tradizionala gaingaitzen du eskubide horrek, bakearen ikuspegi positiboa bultzatzen baitu –egiturazko indarkeriarik ez egotea–; izaera bikoitza du –norbanakoen zein taldeen eskubidea da–; eta elkartasuneko eta laburpeneko eskubidea da, gainerako giza eskubide guztiak biltzen baititu bere baitan –garapenerako eskubidea ere barne hartuta–, guztiak elkarren mendekoak izanik.

241

Norbanakoen eskubidea den aldetik, alderdi hauek biltzen ditu *bakerako giza eskubideak*: gerra guztiei aurre egitea eta gatazka armatuetan agindu bidegabeak ez betetzea; kontzientzia-eragozleen estatutua; gerraren aldeko propaganda guztia debekatzea; suntsipen handiko armak garatzeko ikerketa zientifikoetan ez parte hartzeko eskubidea; bakearen alde egindako lanagatik jazartuak direnek asiloa eskuratzeko eskubidea; bake zibilerako eskubidea; giza eskubideen urraketa sistematikoei aurre egiteko eskubidea; desarmerako eskubidea; eta estatuon Nazio Batuen Gutunaren baitan finkatutako segurtasun kolektiborako sistema ezartzeko konpromisoa hartzeko eskatzeko eskubidea.

Eskubidea arautzeko erabili beharreko teknikari dagokionez, Genevan hasi beharra dago *Gizakiaren Bake Eskubideari buruzko Adierazpenerako* proiektua kodetzen, hantxe baitago Nazio Batuetako organo tekniko guztien egoitza, eta haiek esperientzia luzea dute giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidea kodetzen eta garatzen. Kodetze-prozesua amaitzean, Biltzar Nagusiak erabaki bat onartuko du, eta adierazpenaren amaierako testua gehituko dio, eranskin bezala. Prozedura hori oso segurua da gizarte zibilaren –gobernuz kanpoko erakundeak, giza eskubideetako adituak eta ordezkari akademikoak– parte-hartze handia ahalbidetzen duelako, batetik, eta prozesuko etapa guztietan, testuak gobernuetako ordezkariekin adostuz joaten direlako, bestetik.

Hitzaldiaren inguruko oharrak

¹ Nazio Batuen Biltzar Nagusiaren 55/2 erabakia, 2000ko irailaren 8an onartu zutena mundu osoko estatuburu eta gobernuburuek. 2003an Milurtekoko Adierazpeneko helburuak zenbateraino bete ziren aztertu zenean, idazkari nagusiak berriro azpimarratu zuen estatu aberatsek garapen-bidean dauden herrien merkataritza librea ahalbidetu –merkataritza-oztopoak kendu–, garapenerako laguntza ofiziala gehitu eta kanpo-zorra arindu behar dutela, herriotako muturreko pobrezia murriztu ahal izan dezaten. Ikus interneten Nazio Batuen web-gunea: www.un.org/spanish/millenniumgoals.

² Nazio Batuetako idazkari nagusiak nabarmendu duenez, «giza eskubideak errespetatzeak terrorismoaren aurkako borrokaren ezinbesteko alderdia izan behar du». Cfr. *Memoria del Secretario General sobre la labor de la Organización*, A/58/1 dok., New York, 2003, 14. or., 63. paragr.

³ Ikus Vasak, Karel, «El derecho humano a la paz», *Tiempo de paz*, 48. zk., 1998, 19-24. orr., at 24.

⁴ Ekintza horiek Al Qaeda islamiar erakunde erradikalak hartu zituen bere gain. Orduz geroztik oso ekintza larriak gertatu dira munduko hainbat herritan –Bali, Kenya, Pakistan, Istanbul, Casablanca, Irak–. Europar Batasunean, Madrilek jasan ditu sare terrorista horrek bere gain hartutako ekintza larrienak, 2004ko martxoaren 11n. AEBen iritziak Bin Laden da Al Kaedako arduradun nagusia baina, halere, talde terrorista hori mundu osoan zehar beren kasa jarduten duten taldeez osatutako sarea da, eta, hortaz, ez dago ziur jakiterik botere terrorista horren hariak zeinek mugitzen dituen.

⁵ Nazioarteko Justizia Epaitegiak 2003ko azaroaren 6an emandako epaian –Petrolio-plataformen auzia, Iran AEBen aurka– berretsi egin zuen Nazio Batuen Gutuneko 51. artikuluan finkatzen den bidezko defentsarako eskubidea beste estatu batengandik «eraso armatu» bat jasatean bakarrik dagoela justifikatuta. Gainera, AEBen ekintzek «beharrezkoak eta jasandako eraso armatuaren neurrikoak» izan beharko zuketena.

242

⁶ Abellán Honrubia, Victoria, «Artículo 28», in PONS RAFOLS, Xavier (koord.), *La Declaración Universal de Derechos Humanos. Comentario artículo por artículo*. Bartzelona, Icaria/Asociación para las Naciones Unidas en España, 1998, 443-452. orr., at 451.

⁷ Giza Eskubideen Batzordearen 2003/61 erabakiko xedapenen ataleko 3. paragrafoa –«Bakea sustatzea, denok giza eskubide guztiak gauzatu ahal izateko ezinbesteko baldintza»–, 2003ko apirilaren 24an onartua, emaitza honekin: 33 boto alde, 16 aurka eta 4 abstentzio.

⁸ *Ibidem*, 4. paragr.

⁹ Giza Eskubideen Batzordearen 2003/63 erabakiko –«Nazioarteko antolamendu demokratiko eta ordezkatzaille bat sustatzea»– xedapenen ataleko 4 d) eta 11. paragrafoak, hurrenez hurren. Erabaki hori 2003ko apirilaren 24an onartu zen, emaitza honekin: 31 boto alde, 15 aurka eta 7 abstentzio.

¹⁰ Giza Eskubideen Batzordearen 6. ohar orokorreko 2. paragrafoa (1982) –«Bizitzeko eskubidea, 6. artikulua»–. Ikus HRI/GEN/1/Rev. 6 dok., 2003ko maiatzaren 12koa, 143. or.

¹¹ *Ibidem*.

¹² *Ibidem* id. Jugoslaviak garai hartan batzordean zuen ordezkariaren iritziak «eztabaidagarria» zen interpretazio hori. Cfr. DIMITRIJEVIC, Vojin: «The interrelationship between peace and human rights and the possible right to peace», in NOWAK (M.) et al. (arg.), *Progress in the Spirit of Human Rights*. Festschrift für Felix Ermacora. Kehl/Strasbourg/Arlington, N.P. Engel Verlag, 1988, 595-596. or.

¹³ Giza Eskubideen Batzordearen 11. ohar orokorreko 2. paragrafoa (1983) –«Gerraren aldeko propaganda debekatzea, 20. artikulua»–. Ikus HRI/GEN/1/Rev. 6 dok, cit., 151. or.

¹⁴ Giza Eskubideen Batzordearen 14. ohar orokorreko 3., 6. eta 7. paragrafoak (1984) –«Arma nuklearrak eta bizitzeko eskubidea, 6. artikulua»–. Ikus HRI/GEN/1/Rev. 6. dok., cit., 158. or.

¹⁵ Biltzar Nagusiaren 33/73 erabakia, 1978ko abenduaren 15ean onartua.

¹⁶ Biltzar Nagusiaren 39/11 erabakia, 1984ko azaroaren 12an onartua, emaitza honekin: 92 boto alde, aurkakorik ez eta 34 abstentzio. Hurrengo urtean, *Herrien Bakerako Eskubideari buruzko Adierazpeneko* xedapenak aplikatzeko ahal zuten guztia egiteko eskatu zien Biltzarrak estatu eta nazioarteko erakunde guztiei. Adierazpen hori (40/11 erabakia) 1985eko azaroaren 11n onartu zen, emaitza honekin: 109 boto alde, aurkakorik ez eta 29 abstentzio.

¹⁷ Ikus Alemany Briz, Jesús María, «La paz, un derecho humano?» en Contreras (M.) et al. (koord.), *Nuevos escenarios y nuevos colectivos de los derechos humanos*. Zaragoza, 1998. Monografías de la Revista Aragonesa de Administración Pública, 17-45. orr., at 33-36.

¹⁸ Cfr. Aguiar, Asdrúbal, «Perfiles éticos y normativos del derecho humano a la paz», *Liber amicorum Héctor Fix-Zamudio*, I. lib., San Jose, Giza Eskubideen Interamerikar Auzitegia, 1998, 205-241. orr., at 230-238.

¹⁹ Cfr. Alemany Briz, J. M., loc. cit., 31. or.

²⁰ Esamolde hori erabili zuen lehen autorea Karel Vasak izan zen. Ikus VASAK, Karel: «Le droit international des droits de l'homme», *Recueil des cours de l'Académie de Droit International*, 140. lib., 1974-IV, 333-415. orr., at 344-345

²¹ Estatuaren eta nazioarteko komunitatearen eskubide eta betebeharrak Adrian Nastasek hartu ditu aztergai, besteak beste. Ikus Nastase, Adrian: «Le droit à la paix», en Bedjaoui, M. (Rédacteur général), *Droit international. Bilan et perspectives*. 2. lib., Paris, Pedone/UNESCO, 1991, 1291-1303. orr., at 1298-1299.

²² Mariño Menéndez, Fernando M., «El marco jurídico internacional del desarrollo», en MARIÑO Menéndez, F. M. eta Fernández Liesa, C. R. (argit.), *El desarrollo y la cooperación internacional*. Madril, Universidad Carlos III/BOE, 1997, 35-54. orr., at 53-54.


²³ Ikus, adibidez, Del Arenal, Celestino, «Paz y Derechos Humanos», *Revista del Instituto Interamericano de Derechos Humanos*, 5. zk., 1987, 15-16. orr.

²⁴ Abellán Honrubia, Victoria, «Internacionalización del concepto y de los contenidos de los derechos humanos», in Centro Pignatelli (argit.), *Los derechos humanos, camino hacia la paz*. Zaragoza, Gobierno de Aragón, 1997, 15-28. orr., at 20.

²⁵ Vasak, Karel, «Le droit de l'homme à la paix», en Deuber Ziegler Erica (zuz.), *Paix*. Geneva, Musée d'Ethnographie, 2001, 44-48. orr., at 47.

²⁶ Ikus, zentzu horretan, Gross Espiell, Héctor: «La implementación internacional del Derecho Humano a la Paz», en *Diálogos Unesco*, 21. zk., 1997, 22. eta hh. orr.

²⁷ Villán Durán, C., *Curso de Derecho internacional de los derechos humanos*. Madril, Trotta, 2002, 1028 orr., at 290-294 d'ethnographie, 2001, pp. 44-48, at 47.



Nazioarteko erakundeetan Bakea Giza Eskubidetzat aitortzearen aldeko Adierazpena

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza Sailak antolatu duen eta 2004ko maiatzaren 6tik 8ra Donostian egin den Gizakiaren Bake Eskubidearen aldeko I. Mundu Batzarrak

Adierazten du:

1. Milioika gizakik indarkeria eta haren ondorio konponezinak jasaten dituzte. Gerrak, sarraski terroristek, hilketek eta genozidioek dakarten errotiko bidegabekeriaren mendean daude zenbait banako, talde, etnia, herri eta nazio oso. Sistematikoki mesprezatzen da pertsonak eta herriek bakean bizitzeko duten gogo, eta bidezkoa denaren ordez norbere interes zilegia ipintzen du aurretik talde armatu bakoitzak.

2. Gerra-egoerak agertzeak eta jartzeak bakean bizitzeko eskubidea hondatzen dute egunero. Kasu ugarian, indarkeria-agerpen horiek banako eta taldekako beste giza eskubide batzuen urraketa larri eta iraunkorrekin daude loturik. Izan ere, gogorazi behar da diferentzia ekonomiko sakonak daudela herri batzuen eta besteen artean, gizadiaren zati handi bat gosez eta miserian bizi dela, etnia eta herri asko bazterturik daudela politikoki eta sozialki, sekulako dirutzak xahutzen direla armadetan, nagusikeriaz eta agintekeriak erabakitzen direla auziak... eta horrexek berak pizten, hazten eta eusten ditu, bere indarkeriaz, aipatu gerra-egoerak. Bakea eskatzeaz batera, gerra sortzen duten kausak eta testuinguruak aldatzeko eskatzen da; eskatzen da duinki bizi ahal izatea, eta justizia izatea ardatz nagusi pertsonen eta herrien arteko harremanetan.

3. Orain arte, ez dira aski izan egin diren ahaleginak, giza taldeen artean sortzen diren gatazkak onez konpontzeko. Egiaztatzen dugu izugarri zaila dela bakerako eskubide espezifiko bat aitortu eta sendo dadin, eta eskubide hori nazioarteko legeriak babestutako Giza Eskubideen multzoan sar dadin.

4. Bakerako Eskubidea ez da Bizitzeko Eskubidearen garapen eta ondorio logiko eta berezkoa baizik; Bizitzeko Eskubidea gizaki, gizarte-talde, herri eta nazio guztietan gauzatzea baizik. Horregatik, asmorik sendoenaz, bakean bizitzeko eskubidearen errespetua eskatuko dugu maila guztietan. Kontuan izanik Nazio Batuen Batzar Orokorrek herriek Bakean bizitzeko duten Eskubidea aitortu zuela 1984ko azaroaren 11ko 39/11 ebazpenean, agintzen dugu doktrina hori sendotzeko egingo dugula lan, eta eskubide horren aitortpen juridiko espezifiko bultzatuko dugula nazioarteko legeriak babestutako Giza Eskubideen multzoaren barruan, eskubide hori jotzen baitugu hirugarren belaunaldiko Giza Eskubiderik funtsezkoentzat.

Horregatik guztiagatik, Batzarrak,

Galdegiten du:

1. Estatuak eta erakundeak beharrezko neurriak hartu behar dituzte, politika-tresnatzat gerra erabiltzea dakarten kausak eta testuinguruak amaitzeko edo arintzeko.

2. Edozein gatazka mota konpontzeko, eta partikularki terrorismoaren aurkako borrokan, Estatuak eta nazioarteko erakundeak Giza Eskubideak gordetzen dituzten eta eskuhartze militarrek saihesten dituzten politika prebentiboak erabili behar dituzte. Estatuak eta erakundeak alde-askotasuna eduki behar dute irizpide nagusitzat, eta Nazio Batuegan utzi behar dute era horretako ekintzetarako zilegitasun guztia.

3. Gizarte-erakundeei eta gizarte zibilari eman behar zaie protagonismoa, gatazka belikoak edo aurrebelikoak aurreikusteko, kudeatzeko eta aldatzeko prozesuetan; azken batean, bakearen urraketak gehien nozitzen dituztenei eman behar zaie hitza, gatazkak era baketsuan konpondu behar direla nabarmentzeko.

4. Nazio Batuen Erakundeak, horretarako dituen organoen bidez, behar diren urratsak egin behar ditu Gizakiaren Bake Eskubidea nazioarteko ordenamendu juridikoan sar dadin, eta ezarri behar du noiz eta zein egoeretan eman behar duen babesa, eskubide hori urratzen denean, eta nori dagokion urratze hori ordaintzea.

Donostian, 2004ko maiatzaren 8an



